



EAEko ERAKUNDEEN JARDUNA NERABEEN DROGA KONTSUMOAREN ARLOAN

ararteko

Herriaren Defendatzailea
Defensoría del Pueblo

**EAEko ERAKUNDEEN JARDUNA
NERABEEN DROGA KONTSUMOAREN ARLOAN**

Arartekoak Legebiltzarrari egindako txosten berezia



Egileak:

Drogamenpetasunen Deustuko Institutua: Elisabete Aróstegui Santamaría, Iñaki Markez Alonso, Jesús Gazapo San Pedro, Nerea Jiménez, Nieves García del Moral, Izaskun Sarabia Gonzalvo eta María Teresa Laespada Martínez.

Arartekoaren aldetik:

Iñigo Lamarca, Julia Hernández, Faustino López de Foronda, Fermín Barceló, Amaia Pagola, Nieves Oca.

© ARARTEKO

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Gráficas Santamaría, S.A. • www.grficassantamaria.com

Azaleko irudia: EPS comunicación • www.eps-grupo.com

Paper ekologikoa.

ISBN: 978-84-89776-39-5

L.G.: VI 106-2010



EAEko ERAKUNDEEN JARDUNA NERABEEN DROGA KONTSUMOAREN ARLOAN





AURKIBIDEA



Txostenaren aurkezpena	15
Lehen atala: Datuak	21
1. Aurrerakiak	23
Prozesu historikoa: droga kontsumoaren hasiera eta zabalkundetik adingabeen egungo kontsumo ereduraino.....	23
1.1. Txostenaren egitura	30
2. Erakundeen erantzuna	31
Adingabeen arloan, droga mendekotasunari buruz egin izan diren planen azterketa: asmo adierazpena.....	31
3. Fenomenoaren inguruko datuak	40
Droga kontsumoaren epidemiologia ikasleen artean.....	40
3.1. Euskadiko datuak: Drogas y Escuela VII	41
3.2. Espainiako datuak: ESTUDES txostena	48
4. Erakundeen erantzuna zenbakitan	50
EAEko haur eta gazteekin, eskaria murrizteko, aurrera eramanez diren programa eta jardueren azterketa eta balioztapena	50
4.1. Prebentzio unibertsalaren arloko jardueren balioztapena	51
4.2. Prebentzio selektiboaren arloko jardueren balioztapena.....	64
Bigarren atala: Iritziak	79
5. Adingabeei buruzko diskurtsoa, drogei dagokienez, nahiz arazoari aurre egiten dioten ekimen eta baliabideei buruzko diskurtsoa. Adingabeen beren diskurtsoa.....	81
Adingabeekin harremana duten gizarte erakundeen diskurtsoen azterketa: hezkuntza erakundeak, guraso elkarteak, osasun arloko profesionalak, polizia kidegoak, eta abar.....	81
5.1. Metodologia	81
5.2. Gazteekin harremana duten gizarte erakundeen diskurtsoa.....	84

5.2.1. Testuinguruak, nerabeak eta drogak.....	86
5.2.2. Familiak eta irakasleak	108
5.2.3. Eskolaren eta administrazioaren jarduna hezkuntza arloan	115
5.2.4. Eta komunikabideak, zer?.....	129
5.2.5. Zer gertatzen da egoera ahuleko adingabeekin?	132
5.2.6. Arloen eta erakundeen arteko koordinazio irrikatua.....	141
5.2.7. Tresnak: prestakuntza eta egokitzapena	147
5.3. EAEko adingabeen diskurtsoa	149
Eztabaida taldeen azterketa. EAEko adingabeen ikuspegia.....	149
6. Eskola eta familia.....	172
Irakasleak arazoa nola atzematen duten eta nola inplikatzaren diren. Seme edo alaba adingabe kontsumitzaileak dituzten familien ezaugarriak eta drogarik hartzen ez duten adingabeen familien ezaugarriak	172
6.1. Ikasleak eta drogak irakaslearen ikuspegitik. Zer deritzote EAEko irakasleek? Irakaslearen ikuspegia	172
6.2. Familiak eta haien adingabeak drogen aurrean. Familien ikuspegia	176
7. Adingabeen populazioarentzako prebentziozko zenbait programa, Espainian eta Europan.....	180
Europar Batasunaren esparruan, adingabe eta drogen inguruan arrakasta izan duten ekimen batzuen deskribapena eta azterketa.....	180
8. Ondorioak.....	213
Arartekoaren gomendioak	223
Bibliografia	231



GRAFIKO ETA TAULEN AURKIBIDEA

1. Grafikoa	EAEko ikasleen azken hilabeteko tabako kontsumoaren prebalentzia. 1996-2006 (ehunekotan).....	42
2. Grafikoa	DBHko, DBHoko eta ELHko ikasleek legez kanpoko drogak kontsumitzea. EAE, 1996-2006 (ehunekotan).....	45
PU.1. Grafikoa	Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio unibertsalean (2004-2007).....	53
PU.4. Grafikoa	Eskolako prebentzio unibertsalaren irismenari buruzko datuak (2004-2007).....	59
PS.1. Grafikoa (1)	Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio selektiboan (2004-2007).....	66
PS.1. Grafikoa (2)	Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio selektiboan (2004-2007) ..	66
PS.4. Grafikoa	Eskolako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007).....	71
1. Taula	Tabako kontsumoaren maiztasuna, sexuaren arabera. EAE, 2006 (ehunekotan).....	42
2. Taula	Alkohol kontsumoa generoaren eta adinaren arabera. EAE, 2006 (ehunekotan).....	43
3. Taula	Cannabis kontsumoaren prebalentzia hainbat alditan EAEko ikasleen artean, sexuaren arabera, 2006 (ehunekotan).....	46
4. Taula	Drogen kontsumoa adinaren arabera. Espainia, 2008 (ehunekoetan)..	48
PU.1. Taula	Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio unibertsalean (2004-2007).....	52
PU.2. Taula	Baliabide didaktiko erabilienak eskolako prebentzio unibertsalean...	56
PU.3. Taula	Osasun hezkuntzako berrikuntza proiektuetarako laguntza ekonomikoei buruzko datuak (**)	57
PU.4. Taula	Eskolako prebentzio unibertsalaren irismenari buruzko datuak (2004-2007).....	58

PU.5. Taula (1)	Unibertsitate eremuko prebentzioa (2004-2007)	59
PU.6. Taula	Familiako prebentzio unibertsalaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)	61
PU.7. Taula	Prebentzio unibertsal komunitarioaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)	63
PU.8. Taula	Autoeskoletako esku-hartzea (2004-2007)	64
PS.1. Taula	Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio selektiboan (2004-2007) ..	65
PS.2. Taula	Irakasleentzako laguntzari buruzko datuak eskola eremuko prebentzio selektiboan (2004-2007)	69
PS.3. Taula	Eskolako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)	70
PS.4. Taula	Familiako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)	73
PS.5. Taula	Adingabeekin ingurune irekian egindako esku-hartzeen motak eta irismena (2004-2007)	75
PS.6. Taula	Aisiaguneetako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)	76
PS.7. Taula	Ostalaritzako profesionalentzako prestakuntza jarduerak (2004-2007)	77



TXOSTENAREN AURKEZPENA



Testuingurua eta txostenaren ikuspuntua

Drogen eta nerabezaroaren arteko harremana askotan izaten da eztabaidagai eta gizartearen kezka iturri; areago, batzuetan gizarte alarma eragiten du. Gure erkidegoan, zorionez, sistematikoki eta etengabe aztertu izan da harreman hori azken 25 urteetan. Horri eskerrak, egoera hobeto ezagutzen dugu, eta, jakinaren gainean gaudenez, aurrerapausoak zein atzera egindakoak balora ditzakegu. Adibide gisa *Drogak eta eskola* ikerlan saila dugu. 1981an hasi zen eta zazpigarren edizioraino heldu da (*Drogak eta eskola VII*). Azken lan horretako datuak nahiko berriak dira, eta txosten honetan aztertu ditugu.

Bertan aurkituko dugu, neurri batean, Arartekoak txosten honetan hartu nahi izan duen ikuspuntua: Ikerlan horren helburua ez da arazoak sortzen dituzten kontsumoei buruzko datu berriak eskuratzea. Aldiz, jada eginda dauden azterlanak baliatu ditu, eta orain arte erakundeek eman dituzten erantzunak aztertu ditu; bai plano orokorrean (Eusko Jaurlaritzak sustatutako droga mendetasunaren planak) bai tokikoan (gure erkidegoko udal asko egin dituzten planak, programak eta ekimenak). Ez ditugu ahaztu behar hainbat eta hainbat gizarte erakundek abiatu dituzten programak eta baliabideak.

Gure ustez, erantzun egokiagoa eman diogu horrela 2006ko urriaren 16an Eusko Legebiltzarrak onartu zuen legez besteko proposamenari. Haren bidez, erakunde honi eskaera egin zioten nerabeei eta alkoholaren eta drogen kontsumoari arriskutsuari eta kasu horiek laguntzeko baliabideen eskuragarritasunari buruzko txostena.

Txostenaren egitura eta eduki nagusiak

Txostenak berezko izaera duten bi zati nagusi ditu: lehenengoa *Datuei* buruzkoa; eta bigarrena *Iritziei* buruzkoa, bertan jaso eta aztertu baititugu iritziak.

Txostenaren bukaeran sintesi atala dei genezakeen kapitulu batzuk sartu ditugu (adibidez, 8. kapitulu *Ondorioak* edo *Arartekoaren Gomendioak* 9. kapitulu). Zazpigarren kapitulu Europa hainbat herrialdetan burutu dituzten programa ugari jaso dugu. Programa horiek jardun egokien adierazle gisa har daitezke, eta gure esku-hartzeak hobetzeko jarraibide gisa erabil ditzakegu.

Hasteko edo testuingurua kokatzeko, lehenengo kapituluan gure inguruko kontsumo ohi-turei buruzko ibilbidea egin dugu. Bigarrean, drogen mendekotasunari buruzko planen analisia egin dugu. Plan horietan bildu izan dira helburuak eta jarraibideak, hizpide ditugun errealitateei epe zehatz batean aurre egiteko. Hirugarren kapituluan, hizpide ditugun errealitateak kuantifikatu eta objektiboki kokatu nahi izan ditugu; eta, horretarako, eskola ikasleen artean dagoen substantzien kontsumoaren datu nagusiak laburbildu ditugu.

4. kapitulutik aurrera, txostenaren egiturak argiro banatzen ditu esku-hartzeen *esparru* eta *eremu* nagusiak. Oro har, prebentzio unibertuala eta prebentzio selektiboa. Eta, bi esparru horien barruan eskolako, familiako eta komunitateko giroak. Izan ere, inguru horietan biltzen da gazte jendea nagusiki; eta edozein gazteren garapenerako gizarteratze gune garrantzitsuak dira.

Beraz, drogen mendetasuneko plan askotan erabili izan den egitura jarraitu da; zehazki, V Planekoa (azterlana egin arte onartu zen azkena). Era berean, txosten honetan Arartekoak egin dituen gomendioetan eskema hori jarraitzen saiatu gara.

5.3 kapitulu edo atalarentzat arreta berezia eskatu nahi dugu: Kapitulu horretan nerabeen beren ahotsa bildu dugu. Hor nerabeek hainbat eta hainbat konturen gainean duten iritzia bildu dugu: zer da haientzat prebentzioa; nor da haien ustez toxikomanoa, zergatik kontsumitzen dute; drogak lortzea erraza zaien; adinak edo sexuak kontsumoan duen eragina; nola sailkatzen dituzte drogak “haiek”, nola baloratzen dute eragile sozialen esku-hartzea (polizia, eskola, familia, hedabideak...). Gai honetan eta haiek tartean hartzen dituzten guztietan, oso garrantzitsua deritzogu adingabeen iritzia jasotzea: haien iritzia zuzenean ezagutu.

Nolanahi ere, eta logikoa denez gero, beste gizarte eragile batzuen iritzia ere bildu ditugu (5. eta 6. kapituluak); besteak beste: familiak, irakasleak eta adingabekoekin lotutako beste gizarte instantzia batzuk ere.

Oinarrizko ideia eta kontzeptu batzuk

Txosten honetako edukia hobeto edo zehatzago ulertzeko, testuan etengabe erabiliko diren ideia edo kontzeptu batzuk argi edukitzea beharrezkoa da. Adibidez:

- Argi ezberdindu behar dira drogen “erabilera” (nerabeen artean oso hedatua) eta drogen “abusua.” Azken hori “mendetasun” gisa definitzen da.
- Gogora ekarri behar dugu erakundeen esku-hartzearen helburu bakarra ez dela abstinentzia. Arriskuak murriztu nahi dituzte ere, bereziki gizarteko talde ahulenetan.
- Droga eskaintzaren kontrola eta droga eskariaren murrizketa desberdindu behar dira. Era berean, arrisku faktoreak eta babes faktoreak ezberdindu behar dira...

Noski, txostenean ikus daiteke nerabeen eta droga batzuen arteko harremana oso hedatuta dagoela (tabakoa, alkohola eta cannabisa bereziki). Baina pertsonaren, adinaren, inguruaren, arriskuaren balorazioaren... arabera aldaketa handiak daudela ikus daiteke ere txostenean. Egun, ohikoena da drogaren hasierako kontsumoa nerabezaroan izatea; askotan esperimendu gisa edo taldean integratzeko modu bezala. Horrek ez du esan nahi, ordea, drogak probatzen dituzten nerabe guztiek drogaren mendetasuna izaten bukatuko dutela; eta, batzuetan hori egiaztat jotzen da. Datuek kontrakoa diote. Beraz, ez dira gauzak nahastu behar.

Testuinguru soziala eta nerabezaroa

Gure gizartean droga ezberdinak daude; eta, gogoan izan behar dugu, legezkotasunaren eta gizarte praktiken ikuspegitik, egoerak oso ezberdinak izan daitezkeela: Legezko eta legez kanpoko drogak daude; onartutako –eta sozialki begi onez ikusten direnak– eta debekatutako kontsumoak; adinez nagusientzako legezkoak diren kontsumo eta erosketak baina nerabeentzako legez kanpokoak direnak; kontsumoa eta salmenta araututa dagoen tokiak eta debekatuta dagoen tokiak... Balorazio eta praktika horiek ez daude beti kontrastesanetatik salbu.

Gizarte honetan ia pertsona guztiek kontsumitzen dute drogaren bat, nahiz eta noizbehinka baino ez izan. Eta adingabekoen kontsumoari, eta bereziki nerabeenari, arreta eta ardura berezia jartzen badiegu, hainbat arrazoiengatik izango da, eta batzuk besteak baino arrazoi handiagoak izango dira: hainbat eta lehenago kontsumitzen hasiz gero, orduan eta oke-ragoak izango dira kalteak osasunean, eta, beraz, hasiera adina ahal bezain beste atzeratu behar da; nerabezaroaren adierazgarri da arriskua gutxi baloratzea edo hautematea, areago, batzuetan arriskuak erakartzen ditu nerabeak; adin horietan berdinkideen taldeko presioa oso indartsua da, eta, askotan, drogak kontsumitzea taldean sartzeko modua da, taldekide izatea lortzeko edo demostratzeko bidea; gazte jendeen toki publikoetan kontsumitzen ibiltzeak herritarren beste talde batzuetan desatsegina da; nerabeen kontsumo asko helduen kontrolik apenas dagoen aisialdi gune eta epeetakoak direla ematen du... Bistan da arrazoi horiek guztiek ez dutela oinarri edo balio bera prebentzioko politikak bideratzean, edo nerabeen droga kontsumoei erantzun bat ematerakoan.

Gomendioak eta hobetzeko jarrai ildoak

Esan dugunez, nerabeen droga kontsumoa aztertzen eta prebenitzen esperientzia asko pilatu dugu hamarkadetan zehar. Izan ere, jardun asko burutu da, ebaluatu, eta oinarri gisa erabil daitezke. Baina egiten den lana beti hobetu daiteke.

Txosten honek argi zuten du bi arlok, gutxienez, hobetzeko premia handia dutela:

- 1) Arlo honetan lanean diharduten instantzia guztien koordinazioa.
- 2) Prebentzio selektiboaren garapen handiagoa, arrisku edo zaurgarritasun egoera berezietan dauden nerabeen sektore berezientzat zuzendua.

Arartekoaren lehenengo bi gomendioek bi gai horiek dituzte helburu.

Gainerako gomendio guztiak, 21 bildu arte, aintzat hartuko diren hiru eremuak (eskola, familia eta aisia) hobetzeko proposamenak dituzte. Era berean, pertzepzio sozialean eta nerabeen beren parte hartzeari buruzkoa ere badaude.

* * *

Aurkezpen hau bukatzeko, Ararteko erakundearen izenean eskerrak eman nahi dizkiet txosten hau egiten lagundu duten pertsona guztiei: esparru ezberdinetako profesionalak; erakundeetako arduradunak, senideak, nerabeak, sozietateen munduko eragileak... Eta eskerrak ere Drogomenpetasunen Deustuko Institutuari, txosten honetako eta urte hauetan egindako txosten askoren oinarrizko azterlanak burutu dituelako.

Iñigo Lamarca Iturbe
ARARTEKOA

Vitoria-Gasteiz, 2010ko urtarrila



LEHEN ATALA: DATUAK



1. AURREKARIAK

Prozesu historikoa: droga kontsumoaren hasiera eta zabalkundetik adingabeen egungo kontsumo ereduraino

Ikerlan zientifiko askok frogatu dute legezko zein legez kanpoko drogek nerabeengan duten eragina. Osasun arloko ikerketen arabera, adin txikietan neurona sistema malguagoa eta iragazkorragoa da substantzia psikoaktiboen aurrean. Hezkuntzaren arloan, bestalde, frogatu egin da halako substantziak hartzeak eragin negatiboa duela eskolari loturiko garapenean. Azkenik, soziologiaren inguruko ikerlanei dagokienez, frogatu egin da substantzia horiek erabiltzeak, haurtzarotik nerabegarora igarotzeko erritu bihurtuta, eragin eta garrantzi handiagoa duela hainbat arrisku faktore dituen edo gizarte egoera ahul argian dagoen populazioan.

Baina droga kontsumoak, edozein motatakoak direla ere, substantziak (eta aukeraturiko substantziaren ezaugarri bereziak, beste aukera batzuen aurrean), haiek hartzen dituen pertsonak eta kontsumoa gertatzen den testuinguruak eraturiko hirukiaren arabera ulertu behar dira. Horrenbestez, nerabeeek droga kontsumoa aztertzerakoan, errealitate fisio-biologikoa edo haien garapen emozionalaren eboluzioaldia ez ezik, kontsumoa gertatzen den testuingurua eta murgildurik dagoen kultura eta gizarte prozesua ere kontuan hartu behar dira. Gaur egungo gizartean, beste kontsumigai bat bilakatu da, beste askoren artean.

Arreta gure gazteengan jarri baino lehen, Estatuan droga kontsumoak izan duen sorrerari buruzko historia berrikustea baliagarria izango da kolektibo horrek gaur egungo testuinguruan duen egoera nahiz ohiturak eta lehentasunak ulertzeko.

Legezko drogak diren edo legez kanpoko drogak diren, Estatuan droga kontsumoak izan duen zabalkundearen prozesu historikoaz –edo drogen historiaz beraz– egiten diren irakurketa eta interpretazioa oso desberdina. Legez kanpoko drogak modernitatearen, intelektualitatearen eta aurrerakoitasunaren eskutik iritsi ziren Espainiara. Hain zuzen ere, heroina indarrez agertu zen, kontrakultura kutsua zuela eta askatasun eta bizipen berriei lotuta; ondorioz, 1973tik 1980ra bitartean, haren kontsumoa laster zabaldu zen, hasieran batean “heroinaren epidemia” eta gero “pandemia” deitu zitzaiona sortu zen. Hastapenetan, fenomeno horrek harridura pasibo samarra baino ez zuen sortu gizarteko sektoreetan. Garain hartan, alkohola hartzeari loturiko arazoak ere larriak ziren. Alkohol kontsumoaren tasak nabarmenak ziren, baina ia inork ez zuen fenomeno hori aintzat hartzen. Politikaren aldetik,

aldi hartan gauza asko zegoen egiteko, eta, hartara, ez alkohola hartzeak ez legez kanpoko drogak kontsumitzeak zekarten arazoak ez ziren interesekoak jendearen ikuspegitik.

Baina drogak –legez kanpokoak, batik bat– aurpegiarik dramatikoena erakusten hasi zirenean, droga kontsumoaren zabalkundea eta eraginak agerian geratu zirenean, hasierako inertzia kontsumo hori prebenitzeko eta ondorioak arintzeko jarduera lehiatsu bihurtu zen. Hain zuzen ere, legez kanpoko drogen kontsumoak egiten ziharduen kalte handiez ohartzeak inpaktu gogorra eragin zion Espainiako gizarteari, ez baitzegoen gizarte desoreketara ohitua eta ez baitzuen ia eskarmenturik halako erronkei aurrera egiteko. Horregatik, erkidego guztietan eta erakunde publikoetatik droga kontsumoak zekartzan arazoei aurre egiteko erakunde eta baliabide bereziak sortu zituzten. Hasieran, laguntzeko helburua baino ez zegoen; gero, prebentzioaren helburua ere hartu zuten.

Euskal Autonomia Erkidegoa aitzindaria izan zen zerbitzu bat abian jartzen: Droga Arazoen Koordinakundea (DAK). Zerbitzuak arlo horretan aurrera eramaten ziren esku-hartzeak zeuden baturik. Eusko Jaurlaritzan, Ardanza lehendakariak berak maila berezia eman zion drogen eta droga mendekotasunen gaiari, eta idazkaritza berezia sortu zuen, Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailari zuzenean atxikia.

Pixkanaka, legez kanpoko drogen kontsumoak eragiten zituen ondorioen neurria eta ikusgaitasuna zirela medio, gizartearen iruditerian lotura estua ezarri zen “gaztaro”, “legez kanpoko droga”, eta “okerreko, bazterreko jokabide” kontzeptuen artean. Aitzitik, alkohola hartzea, kontsumo tasak handiagoak izanda eta erabiltze eredu jarraituagoa edukita ere, ez zen fenomeno arazotsutzat ikusten. Fenomeno horri ez zitzaion okerreko zerbait izatearen premisarekin begiratu; alderantziz, zeharo, gizarteratze tresna zen.

1990eko hamarkadaren hasieran, inkestek nahiz gizarte eta osasun adierazleek aditzera ematen hasi ziren heroinaren kontsumoa nahiz haren ondorioak gutxi gorabehera kontrolaturik zeudela: atzera egiten hasiak ziren, nahiz eta drogaren mendekoen kolektiboa handia zen artean, eta kolektibo horrek baliabideak erruz erabiltzen zituen, batez ere laguntza emateko baliabideak. Ordurako, bai Estatuan, oro har, bai EAEn bazeuden abian jarrita laguntza emateko, prebenitzeko nahiz gizarteratzeko zerbitzu asko, eta, aldi berean, kalteak murriztearen aldetik arazoiari heltzeko lehen saio xumeak eginak hasiak ziren (metadonaz mantentzeko programak). Droga mendekotasunen inguruan sorturiko makineria bete-betean ari zen funtzionatzen.

Heroinak sortutako denboralea, genioenez, baretzen hasia zela zirudienean, ordeko substantzia berri batez hasi zen hitz egiten: kokainaz, hain zuzen. Datu batzuek aditzera ematen zuten gazteek haien kontzientzia egoera aldatzeko substantziak hartzen jarraituko zutela eta kokaina izango zela ordeko substantzia. Garai hartan, droga hori ikusten zen klase aberatsei, eliteari eta/edo modako aitzindariari, ikuskizunen, musikaren eta abarren mundukoei loturik ikusten zen, baina uste hori zati batean baino ez zen egia izan. Kokainaren zabalkundeak protagonismo zerbait kendu zioten beste substantzia batzuk izan zituen lagun: alkohola, Espainiako gizartearen aspaldiko droga ezaguna, eta sintesiko drogak (azken horiek, kokainaren ordeko ez, beharbada, baina betiereko lagun bihurtu ziren).

Substantziak legezkoak edo legez kanpokoak izatearen irakurketa bikoitz horretan, alkoholaren erabileraren historiaren hariari heldu behar zaion berriro. Haren kontsumoa kalte handi samarrak eragiten ari zen helduen artean, baina oraindik ez zuen kezka handirik sortzen. Gazteek ere ez zioten esanahi sinboliko berezirik ematen, gizarteko gainerakoek ematen ziotenaz bestelakorik. Besterik gabe, gizonezkoek kontsumitzen zuten alkohola, era ma-siboan kontsumitzen zen, eta helduak izaten ziren kontsumitzaileak, gazteak kontsumo horretan pixkanaka sartzen ari zirela.

Gazteen eta substantzia horren arteko harremana finkatu zen Estatuak batez ere gazteentzat ziren alkohola kontsumitzeko gune publikoak ireki zituenean (pubak, diskotekak, dantzalekuak, eta abar). Halakoak helduek alkohola kontsumitzeko zituzten guneetatik (tabernak, txokoak, eta abar), eta aukera berezi eta berariazkoa gehitu zuen gazteek astialdia eman zezaten. Gazteentzako berezko lehen aisiaguneak sortu ziren hala, jarduera gidaturik gabe, berdinen taldeen arteko, kidekoen arteko, harreman horizontalak nagusi zirela. Orduko gazteek alkohola hartzea –konnotazio negatiboetatik urrun zegoen legezko substantzia bat-identitate ikur eta ezaugarri bihurtzea aukeratu zuten, festari eta “asteburu”aren gune es-treinatu berriari lotua.

Hala, bada, 1980ko hamarkadaren amaieran eta 1990ko hamarkadaren erdialdean alkohola kontsumitzeko ordura arte ezezaguna zen modu bat sendotu eta finkatu zen. Edari alko-holdunak hartzea berezko xede bihurtu zen, helmuga batera iristeko: intoxikazio etilikora, hain zuzen. Mozkortzea mitifikatu egin zen, dibertsioaren, modernitatearen eta ausardiaren erakusgarri nagusi gisa. Alkohola beharrezko eta ezinbesteko osagaitzat finkatu zen gaz-teen pertsona arteko harremanetan. Era berean, kalearen konkista gertatu zen. Gazteek biltzeko, adiskide taldearekin egoteko nahiz helduen begirada eta kontroletik ezkutatzeko tokiak bilatu zituzten gune publikoetan (kaleak, parkeak, plazak, eta abar). Haientzat baka-rrik ziren tokiak bilatzen zituzten, beste pertsona helduago batzuek esku hartzen ez zuten tokiak, nerabeek helduarora igarotzearen sinbolo gisa irrikaz esperimentatu nahi duten bizi-pen bat. Gune publikoak eta berdinen arteko erakustaldia, funtsean.

Alkohola, gizarte interakziorako aitzakia harturik berriro ere, biltzeko arrazoi nagusia bilakatu zen pixkanaka. Intoxikazio etilikoa alaitasun eta dibertsio seinaletzat hartzen zen. Prozesua, adin gehiagoko gazteak buru zirela, laster transmititzen zitzairen adin talde gazteagoei. Alko-hola kontsumitzeko modu berri hark –1980ko hamarkadaren hasieran, hain zuzen– zabaltze-ko ingurunerik aurkitu zuen prebentziozko mezurik batere ez zuen testuinguru batean. Izan ere, gizartearen gainerakoak eta gizarte erakundeek (komunikabideak, politika erakundeak, ikastetxeak, prebentzio programak, eta abar) heroinaren kontrolean zuten jarrita arreta.

Zergatik esku hartu zuten erakundeek urte haietan hain neurri eskasean, era ikusgai ba-tean, alkoholaren inguruan? Hipotesi bat baino gehiago dago. Batetik, pentsatzekoa da gizartean beldurra egon zela legez kanpoko beste ordezkoko substantzia batzuek –*estasiak* edo beste edozeinek– gazteen inguruneak bereganatuko ote zituzten, eta, ondorioz, alko-hola gaitz erditzat hartu zutela. Beste alde batetik, legez kanpoko substantzien inguruko lanak hain zituen lanpetu administrazioak eta prebentzio jardueraz arduratzen zirenak, non era esponenzial eta nabariki hazten ari zen fenomeno baten pisu eta garrantzia

gutxietsi baitzituzten. Azkenik, onartu egiten zen alkohola legezko substantzia zela, baimendua, helduek era masiboan erabiltzen zutena eta, tradizioz, “droga” eta “droga mendekotasun” kontzeptuei lotzeko aukeratik urrun egon zena. Argudio horrexek, halaber, eragotzi zuen gazteak ohitura horretara biltzeak irakurketa negatiboa izan zezan. Gazteen kontsumoa gizartearen gainerakoarentzat –helduentzat, alegia– disruptibotzat jo denean baino ez da hasi eskatzen praktikan kolektiboaren eta substantziaren inguruan esku har dezatela.

Hala ere, “litroak” eta “rave” (Radical Audio Visual Experience) jaiak¹ agertzean, kalean eta taberna, pub edo diskotekak pilatzen ziren gunetako alkohol kontsumoarekin batera, alar-mak jo zuen gazteen alkohol kontsumoei zegokionez.

Nahiz eta “litro”-en fenomenoak, azken urteetan agertu izen den moduan, 1990ko hamarkadaren bigarren erdian sortu eta kezka pizten hasi zen fenomeno den, alkohola taldeka bide publikoan hartzea 1980ko hamarkadetarako ikusten zen. Zalantzarik gabe, fenomeno hura gaur egungoa baino tamaina txikiagokoa zen, eta “mobida” aldeetan zegoen bilduta, 18 urtetik beherako gazte askok ere parte hartzen zutela. Orduan, “litrona” esaten zen, eta Estatuan alkoholaren kontsumoa –ez bakarrik gazteen artean– gorenera iristen ari zen une bati zegokion.

Jakina, helduek edan edaten zuten, baina gazteak, eta nerabeak, batik bat, helduen ereduaz bestelakoa zen kontsumo eredu bat hartzen hasiak ziren. Alkohola hartzeari gazteei baino ez zegozkien esanahiak ematen hasi ziren, eta asteburuan zentratu eta kontzentratutako kontsumo eredu bat zabaltzen, gazteen gune jakin batzuetara mugatua, harremanetarako eta festarako helburua zuena.

“1980ko hamarkadan, beste balio batzuen bermea behar ez zuen balio kulturala bilakatu zen edatera ateratzea; izan ere, berez justifikatzen zen, egiten zena zen, amarrurik gabe, inolako justifikaziorik gabe, egin behar zena, eta, ordea, jokabide asko justifikatzen zituena zen. Ibilgailu baten eskariarekin ez ezik, edatera ateratzeak bazuen zerikusia musikarekin, boladako arroparekin, lokalekin eta produktu egokiekin, desegokien aurrean” (Comas, D, 1994, 28. or.).

“Litroak” egitea alkohola kontsumitzeko moduen agerpen deigarriena da. Gure gizartearen alkoholaren inguruan dauden balio, jarrera, eredu eta sinboloak ditu abiapuntu, baina gazteen arabera moldatuta, beste talde eta testuinguru batzuetan alkohola taldeka hartzeak duen salbuespen eta ospakizun izaera indarturik. Aldi berean, Espainiako gizarteak, eta gazteek bereziki, ospakizunak, gertaera bereziak, eta herri jaiak mitifikatzeko aldi bati hasiera eman zioten. Etengabeko salbuespena bilatzen da, zerbait ospatzeko, ongi pasatzeko, festa

¹ Musika ekitaldia da, baina gizarte ekitaldia ere bati: dantza saioa da, Djekin eta zuzeneko musikarekin, eta klub zein diskoteketatik kanpo egin ohi da –eskala masiboan, gehienetan– industria nabe hutsetan, eremuetan, hondartzetan, mendietan, eta abarretan. Legez kanpokoak eta arriskutsuak izaki, raveak bereziki erakargarri gertatzen dira.

egiteko arrazoiak, eta horrek alkohol gehiegi hartzea sustatzen du. Tokian tokiko jaietan egiten ziren ardo-edateak, txanbil handietan eta era komunitarioan, ziurrenik egungo "litro" en abioa izan ziren.

Hasieran, alkohola gehiegian eta era konpulsiboan hartzea oso berezia zen zerbait ospatzeko edo herriko jai nagusietako gauza baino ez zen. Eguberriko eta Urtezaharreko jaiak, bai eta udaldia ere, ziren alkohol asko hartzeko eta etxera berandu itzultzeko baliatutako eta gizartean onartutako uneak. Baina salbuespen izate hori ospatzeko moduko edozein gertaeratarara (urtebetetzea, azterketen amaiera, futbol talde baten garaipena, eta abar) zabalduz joan zen, eta eguneroko zerbait bilakatu zen azkenean, urteko asteburu guztien izateko arrazoiak. Fenomeno hura txikia izan zen hasieran, eta geroago masa fenomeno bihurtu zen; azkenean, egiazko gizarte arazoa da, zenbait gizarte sektore aurrez aurre jartzen ditu eta.

Gazteen edateko eta harremanetan jartzeko modu berri horren ("litroak") jatorrian dauden arrazoen artean, ostalaritza sektorearen rol nagusia nabarmendu behar da. Gazteek aisialdia bizitzeko modu berrien inguruan, haietatik etekin handiak ateratzen zituen sektore bat loratu zen: ostalaritza, pubak, diskotekak, eta musikari nahiz edari alkoholduen kontsumoari loturiko beste lokal batzuk, batez ere. Sektoreak, etekin handiko negozioa ikusirik, prezio handiak inposatu zituen banatzen zituen edarrietan.

Toki batzuetan gazteak masan biltzen ziren, eta bizikidetzara arazo larriak sortzen zituzten inguruko bizilagunekin. Orduan "jo" zuen atzera ere gizarte alarma.

"Litroak" egitea asteburuko errutinan txertaturiko erritua da, eta gune publikoaren zati bat hartzea ahalbidetzen die –nahiz eta aldizka hartu– taldearen babesaren sentitzeko irrika duten gazte batzuei; izan ere, badute jarduera horrek pizten duen alarmaren berri, eta, aldi berean, haien beharrezararako egokiak diren biltzeko guneak aldarrikatzen dituzte. Daitekeena da ondoko plaza alkohola edaten duten pertsona helduago batzuek hartuta edukitzea, baina terrazetan, aulkietan eseririk, edaten dute, alarmerik sortu gabe. Eta, beharbada, bi egoerak ordu tarte berean gertatu arren, helduak etxera joan eta gazteak agertzen zirenean, suposatzen zen helduek ordenaz eta paniko moralik sortu gabe edaten zutela, eta gazteek "litroak" egiten dituztela.

Baina, zer gertatzen zen eremu debekatuan? Sintesiko drogak "unerik egokienean" zabaldu ziren, 1990ko hamarkadaren hasieran, heroina kontsumitzeari loturiko arrisku izugarriak (kontsumitzaileen eta bazterketaren, delitugintzaren, IHESaren eta heriotzaren artean ezarritako loturarekin indarturik) substantzia horren kontsumitzaile gehiago gehitzea bat-batean geldiarazte lortu zuen. Hain zuzen ere, eta kasualitatez ia, merkatuan droga berriak –baina ez heroina bezain kaltegarriak– eskatzen hasiak zirenean, diseinuko drogak agertu ziren, gero sintesiko drogak deiturikoak.

Bai sintesiko drogei buruzko berriazko ikerlanetan (Gamella, J. F eta Álvarez, A. 1997 eta Elzo, J. eta Vielva, I, 2000), bai beste droga batzuei buruzko ikerlanetan (Comas, D. 1994), aldaketa bati antzematen zaio; izan ere, heroinaren garaian mendekotasunek zituzten parametro eta erabileren bestelako kontsumo eredu berriak ikusten ziren. Kontsumitzaile popu-

lazio "berri"aren profila gizarteratuta dagoen kolektibo bati dagokio; drogak ospakizun eta festen testuinguruan erabiltzen zituen drogak, asteburuetako gauetan eta aldizka.

Lehen ere aipatu denez, 1980 hamarkadaren aurretik, drogen neurritz gaineke kontsumoaren aurrean erakundeek eman zuten erantzuna oso txikia izan zen. Hastapenetan, zerbitzu bakarrak *Dispensarios Antialcohólicos* ("Alkoholaren aurkako Kontsultategiak") zirelakoak izan ziren, Estatu osokoak, 1960ko hamarkadan sortuak. Eragin eskasa izan zuten arren, gutxi baitziren eta Estatu osoan sakabanatuta baitzeuden, balio zerbait izan zuten, geroagoko droga anbulatorioetarako erreferentzia gisa.

Hala ere, Eusko Jaurlaritza eratzen hasi zenetik bertatik (1981), droga kontsumoei inguruko kezka nabarmena izan zen erakunde publikoetan. Droga mendekotasunei aurre egiteko egin ziren koordinazio lanaren eta estrategia bilaketaren ondorioz, DAK (Droga Arazoen Koordinakundea) sortu zuten. Ez da oker handia izango esatea EAEko erakundeek –Kataluniakoekin batera– laster erreakzionatu zuten heroinomania ekarri zuen egoera zailari aurre egiteko moduak garatzean. Kasu honetan, arazoa gizartearen aurrean ikusgai egoteari nahiz administrazio egitura berri eta askotarikoak berehala sortu izanari esker, droga mendekotasunen arazoak sortzen ari zen eskariari erantzuna eman ahal zitzaion.

DAK Osakidetzan sartu zen 1986. urtean, eta ordutik aurrera toxikomaniak tratatzeko zerbitzu guztiak sare publikoan sartu ziren, EAEko Osasun Sare Orokorren mende. Era berean, droga mendekotasunei aurre egiteko lehendakariaren bulegoa sortu zen, geroago Drogomenpetasunaren Idazkaritza Nagusia deitutakoa, lehen ere aipatu denez.

1987. urtetik aurrera, droga mendekotasunen liburu zuria (*Libro Blanco de las Drogodependencias*) argitaratu eta gero, urteko planen bitartez lan egiten hasi ziren. Halako planetan, arazoari konponbideak bilatzeko borondate eta konpromiso politikoa jasotzen zen. Administrazioaren mendeko erakundeei eskatzen zitzaien gizarte arazo eskerga baten irtenbidea behar zuen laguntza gutzia –gizaldekua, materiala zein ekonomikoa– emateko.

1988. urtean, Droga mendekotasunen arloan Prebenitu, Lagundu, eta Gizarteratzeko lehen legea (15/1988) onetsi zuten. Legea berritzailatzat jo zuten, izaera pedagogikoa baitzuen eta prebentzioaren arloan nabarmen engaiatzen baitzen, errepresioaren edo kontrolaren arloan baino gehiago. Lege horren izaerari esker, 1989tik 1990era bitartean nabarmen bultzatu zen droga mendekotasunen prebenitzeko hainbat programa komunitario eta prebentzio komunitarioko lehen talde egonkorak sortu ziren (gaur egun 45 dira). Orduan ere abian jarri ziren EAEko espetxeetako laguntza programak, atxilotuentzako gizarteratzeko eta gizarte laguntza emateko programekin batera.

Droga mendekotasunari buruzko hiru urteko lehen plana 1990. urtean abiarazi zuten, eta ondotik 1993ko, 1996koa, Drogomenpetasunaren Idazkaritza Nagusia Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailera aldatuta, eta 2000koa etorri ziren. Drogen Mendekotasunari buruzko V. Plana 2004. urtean onetsi zuten, eta bost urteko iraunaldia izan zezala erabaki zuten.

Droga mendekotasunen lege berria 1999. urtean onetsi zuten (18/1998 Legea), eta hura aurrekoaren birformulazioa izan zen, hamarkada baten buruan. Lege berrian agindutakoari jarraituz, tokiko erakundeek drogen mendekotasunari buruzko tokiko planak abian jarri zituzten.

Esan daiteke une hartan estaldura zabala zegoela drogen eta droga mendekotasunen fenomenoaren inguruan. Bazeuden 350 programa halako arazoetan esku hartzeko, eskaintza kontrolatzen nahiz eskaria murrizten zihardutenak; hau da, prebentzioa, laguntza, gizarteratzea, arriskuak murriztea, eta abar zituzten ardatz. Jarduera garrantzitsu hori aurrera eramateko, gutxi gorabehera eta oro har, aurrekontua urteko 44 milioi euro izan zen.

Programa horietako asko prebentzioaren arlokoak dira; izan ere, urteetan zehar eta drogen mendekotasunari buruzko plan guztietan ezaugarri finko bat egon da, eta badago: adingabeak droga kontsumotik babestea. Gobernuaren agirietan jasotako ondoz ondoko asmo adierazpenetan adingabeak eta gazteak bereziki babestearen garrantzia nabarmendu izan dute, drogak har zezaten saihestuz eta/edo substantzia horiek hartzen hasteko edo esku-ratzeko adina atzeratuz.

Irakurketa labur honen ondoren, apur batez gogoeta eginez gero, erraz ohartuko gara heroinomaniaren garaian pentsatzen dugunean ez zaigula adingabe baten irudia begietaritzen, eta denborarekin, beste substantzia batzuek eta kontsumitzeko beste modu batzuek ("litroak" egitea, diseinuko drogak, eta abar) aritzen garenean, aldiz, bai, oso bestelako irudia etortzen zaigula, gazteak barne hartzen dituen. Eta hori guztia kolektiboa babesteko egindako saio-enganatik ere gertatzen da. Hona hemen txosten honen xedea: gaur egungo testuinguruan adingabeen populazioak duen egoera ezagutzea droga kontsumoari dagokionez. Lortu dute EAEko erakundeek behar bezain aktibo eta malgu izatea, droga kontsumoak dakartzan erronka berrien aurreko estrategiak bilatzeko? Edo, aitzitik, beren gehiegizko zurruntasunak egoera berriei aurre egitea eragotzi die? Zer hutsune daude? Zer jardun eraman behar dute aurrera erakundeek kontsumoaren zein kontsumitzaileen eredu berrien aurrean? Honelako edo bestelako estrategiak atondu dira droga honen edo bestearen arabera. Erabiltzaileen arteko aldeak eta berezitasunak aintzat hartu dira ala berdin esku hartu izan da substantzia guztiei eta pertsona guztiei zegokienez? Nola antolatu dira arazoari aurre egiteko moduak arlo bakoitzetik? Eta, administrazioen artean? Erronka berririk egongo da egoera ahulenean dauden kolektiboekin? Galdera horiek edozein kolektibori buruz egin badaitezkeen ere, oraingoan bereziki babestu nahi izan den populazioaz egiten ditugu: adingabeez, gazte eta nerabeez, hain zuzen.

Beharbada, une hau egokia da erakundeen gaur egun nerabeen artean dauden droga kontsumoen aurrean bete beharreko jarduna berriz pentsatzeko, gauzatutako estrategiak aztertzeko, asmatutakoak eta lorpenak aztertzeko, baina zailtasunak eta dauden hutsunean ere bai. Hau da, une egokia izan daiteke nerabazaroko adinetako droga mendekotasunen fenomenoaren aurrean administrazioak, oro har, taxutu dituen erantzunen multzoa aztertzeko. Eta horixe da asmoa, sakonxeago jaitea, alderdi zehatzagoak sakonago ezagutzea, azken xedea erdieste aldera: dauden beharrianetarako ahalik eta konponbiderik egokienak proposatu ahal izatea.

1.1. Txostenaren egitura

Helburu horiek betetzearren, txosten honen egituraren hasieran droga mendekotasunari buruz egin izan diren planen azterketa egin da; izan ere, agiriekin ematen dute aditzera gobernuaren fenomenoari buruzko asmo adierazpena, fenomeno hori hasi zenetik, eta, gainera, agiri horietan jasotzen dira arazoari aurre egiteko bete beharreko jarraibideak. Erakundeen erantzun hori ideologikoa, politikoa eta, hasiera batean, teorikoa da (lehen urteetan teorikoagoa zen, eta gaur egun, ostera, praktikoagoa).

Bigarrenik, aurrez aurre dugun arazoaren nondik norako erreal eta objektiboak egiaztatu ahal izateko, ikasleen dagokienez, halako substantzien kontsumoari buruzko epidemiologia datuak azalduko dira; horri gehituko zaio gazteengandik hurbilen dauden bi gizartekoitze erakundeei buruzko ikerlan bana, hots, irakasleak eta familia ikertzen ari garen fenomenoari dagokionez aztertzen dira. Irakasleek arazoa balioztatzen dute, eta gogoeta egiten dute arazo horri aurre egiteko baliabide pertsonalen nahiz beren ingurune baliabideen inguruan. Familiari buruzko ikerlanak datuak ematen ditu seme edo alaba kontsumitzaile gabe ko familia sistemak eta kide kontsumitzaile bat dituztenak bereizten dituzten egiturazko ezaugarri batzuen gainean. Komeni da arazoaren kuantifikazioa eta ikuskera subjektiboak alderatzea, konponbide eta erantzunen eskaera arazoaren egiazko neurria baino handiagoa edo bestelakoa izaten baita, alde kuantitatibotik zein alde kualitatibotik.

Gero, aurrera eramandako esku-hartze eta programen balioztapenaren bitartez –era kuantifikagarrian, orobat– droga kontsumoaren eta haren prebentzioaren inguruan nerabeei erakundeek emandako erantzun erreal eta neurgarria aditzera emango da. Horrela, egiaztatu ahalko da ea konponbide horiek benetako beharrianari erantzuten dioten ala tartean dauden, benetako beharrian horren eta arazoari buruzko gehiegizko ikuskera baten artean, alegia.

Hori egin eta gero, gehienbat alderdi kualitatiboari dagokion kapitulu bat dakar txosten honen. Hain zuzen ere, kapitulu horretan hainbat gizarte eragileri egindako elkarrizketa ugariri buruzko azterketa ematen da. Gizarte eragile horietako batzuek, batetik, oso harreman zuzena dute gazteekin, oro har, eta eragileetako beste batzuek, bestetik, droga kontsumotik hurbil dauden gazteekin, zehazki. Berrito ere, mundu subjektiboari behatzen diogu, hau da, iritzi eta ikuskeren munduari, eta azken horiek ezin dituzte saihestu hedabideen eragina eta gazteen eta drogen binomioaren inguruan dauden ideia orokorrak. Hala eta guztiz ere, daitekeena da laginaren hautapenak, profesionalen kolektiboaren lan esperientziak, eguneroko esperientziak, bazterrarazi izana ikerle taldeak hasieran zuen aurreikuspen oker bat: haien diskurtsoa komeniko litzatekeen bezain kritikoa ez izatea eta, aitzitik, gazteak drogei estuki loturik dagozkielako irudia gizartean hedatzen duen ideiarekin eraginpean egotea. Ez da hala. Hain zuzen, nabarmendu beharreko zerbait garrantzitsua da aztergai dugun arazoari buruzko eskaerak ez direla baliabide gehiago eskuratzeko (batzuen ustez gehiegizkoak ere badira), dauden baliabideak hobetu eta gaitzeko baizik. Droga arazoak dituzten gazteak ez dira hainbeste, baina arazok dituztenek gaitasun handiagoko erantzuna behar dute.

Azkenik, eskaera hori ikusita, Europar, adingabe eta drogen inguruan, arrakasta izan duten ekimen batzuen adibideak ematen dira. Haien ezaugarriak aztertzen dira, nahi denez, baliabideak hobetzeko baliagarriak izan baitaitezke.

2. ERAKUNDEEN ERANTZUNA

Adingabeen arloan, droga mendekotasunari buruz egin izan diren planen azterketa: asmo adierazpena

Ondoz ondo argitaratu diren drogen mendetasunari buruzko planak xehe irakurririk (lehen 1989an atera zuten), agerian geratzen da EAEko administrazioko eta gizarteko erakundeek laster antzeman ziotela drogen fenomenoaren konplexutasunari eta drogen gehiegizko erabilera heroinaren kontsumoaren epidemia 1980ko hamarkadan hasi zenetik aztertu zutela. Lehen agiri horretan Euskal Autonomia Erkidegoan koordinazio egitura bat (Drogomenpeta-sunaren Idazkaritza Nagusia) sortu baino lehen eta droga mendekoen alorreko prebentzio, laguntza, eta gizarteratzeari buruzko lehen legea, Eusko Legebiltzarrean aho batez onetsia (azaroaren 11ko 15/1988 Legea) atera baino lehen egin ziren berebiziko ahaleginak jaso ziren. Hasierako horren ondotik, beste lau sortu dira, eta bakoitzak gogoeta sakonen emaitza islatu du, abiapuntuei buruz eta adostutako jarduera ereduari buruz. Horrek erakunde publikoei nahiz gizarte erakundeei ahalbidetu die historiako une bakoitzean baterako eta koordinatutako lan bat aurrera eramatea drogen eta droga mendekotasunen arloan.

Atzera begira egindako irakurketa horren alderdi interesgarria da ikustea hasieratik fenomenoaz jabetzeko gaitasun horrek prebentzio jarduerak aplikatzea erabat onartzen zuela, nahiz eta aztertzen ziren lehen urte haietan zeuden kontsumo tasek, drogen mendeko pertsonen kopuruak eta arazoak eraginiko gizarte alarmak pentsaraz zezakeen premiazko beharrezana zela ahalik eta baliabide eta ahalegin gehienak laguntza arlora bideratzea.

Jatorritik prebentzio lana ezin utzizkotzat ikusi zenez, ondoko planen diseinu eta aplikazioan jarduerak pixkanaka garatu eta zehaztu ahal izan dira, bai eta erabaki ere zein kolektibotan edo populazio sektoretan zen lehentasunezkoa, orduan eta gaur egun, prebentziozko ahaleginak baliatzea: sektore hori, hain zuzen, gazteena da. Droga mendekotasunak prebentzeko plan guzti-guztien oinarritzko filosofian batuta egon izan dira beti prebentzioaren eta gazteriaren kontzeptuak, baina azken planak, bosgarrenak, jarri du haur eta gazteen kolektiboa toki berezi batean, haiei dagozkien programen xehetasunagatik. Bizimodu osasuntsua izatea, droga kontsumoa saihestea, drogak hartzen hasteko adina atzeratzea edo drogak erabiltzeari loturiko arriskua murriztea bultzatzeko neurriak pentsatu, diseinatu eta aplikatzean jartzen da arreta lehentasunez.

Lehen planetik, non azaroaren 11ko 15/1988 Legeak prebentzioari lehentasuna eman baitzitzaion beste jardun eremu batzuen aurretik eta gizarteak drogei buruz zuen pentsamoldea aldatzeko tresnatzat hartu baitzen, azken agiriraino (2004-2008ko V. Plana, ekainaren 25eko 18/1998 lege aginduaren menean idatzia), non droga kontsumoaren inguruan gizar-teak zuen kezka agertu baitzen ("ezinegon hori batez ere gaztetxoek eragiten dutela (...) drogaren ondorioak zein diren jakin gabe bide horretan abiatzen diren adingabeek pizten dutela ardura gehien gizartean"), gazteekin, oro har, eta adingabeekin, bereziki, egiteko lana behin eta berriro pentsatu izan dute. Ondoz ondoko hiru urteko planetan (II.a, III.a eta IV.a), helburu eta hartzaileen beharrezanetarako planteamendu eta jarduera ereduak gero eta berariazkoak izan dira zehatzagoak, eta plan horiek aberastu eta hobetu egin dira espe-

rientziari esker nahiz lan batzordeek, kolektiboarekin lan egiten duten erakunde publikoek nahiz gizarte erakundeek, ikerkuntzak, eta abarrek eginiko ekarpenei esker.

Horrenbestez, lehen terminologian aipatzen zen “orotariko prebentzioa eta berariazko prebentzioa” zelako kontzeptua, herritarrak protagonistatzat harturik (hor barnean gazteak sartzen ziren, baina hala ondorioztatuta, ez espresuki aipatzen direlako), garatuz joan da, plan baten (V.a) zatirik mamitsuena izateraino: gazteenentzako helburuak, ildoak, jardun eremuak eta programak zehazten dira. Jarduteko estrategia oso bat, egoeraren diagnostikoa, estrategiazko gogoeta, eta agiriak berak emandako balio eta arrazoietatik sortutako printzipio gidariak sorburutzat dituen eta gazteei lehentasuna ematen diena. Horregatik, azken planaren lehen erronka, sailburuaren beraren hitzetan hauxe da: “gazteenak kontzientziaraztea drogak kontsumitzeak dakartzan arriskuez”. Kolektibo horrekin prebentzioa funtsezkoa eta ezinbestekoa da.

Nolanahi ere, nahiz eta orain gazteekin prebentzioa eta droga kontsumoari loturiko arriskuaren murrizketa aurrera eramateko baliabide, ezagutza eta tresnak askoz gehiago diren, gaur egun lanean esku artean izaten diren helburu eta baliabideetako batzuk, bai eta lan hori egituratzeko printzipioak ere, 1990ko hamarkadaren hasieran atzemandako berak dira, eta oraindik indarrean jarraitzen dute.

Nahiz eta zehatzago azken plana –hots, V.a– aztertuko dugun, lehen esan denez, adingabeen inguruko prebentziozko jarduna xehetasun handiz ematen baitu, aurreragoko planetan prebentzio eta adingabeei buruz ageri diren alderdiak oro har azalduko ditugu. Bi kontzeptu horiek, hain zuzen, elkarri atxikita dagozkie, eta Eusko Legebiltzarrak droga mendekotasunen alorrean onetsi dituen agiri guzti-guztietan jaso dira.

Lehen erreferentzia azaroaren 11ko 15/1988 lege aginduan agertu zen; izan ere, legeak berak ematen dio lehentasuna prebentzioari beste jardun eremu batzuen aurretik. Lehen planean, aipatu denez, prebentzioa gizarteak drogei buruz zuen pentsamoldea aldatzeko tresnatzat hartzen zen, eta, horrenbestez, herritar guztiak, oro har, dira arlo horretako jardueren hartzailleak. Ardua publikoko helburua da, administrazioaren ohiko jardunen barruan (kultura, hezkuntza, gazteria eta kirola, osasun eta kontsumoa), arlo bakoitzak prebentzioaren osagaiekin duen lotura aintzat hartuta: informazioarekin (ikerkuntza eta dibulgazioa), drogen eta haren gizarte erabileren inguruan; osasun hezkuntzarekin; kontsumora bultzatzen duten gizarte egoerak hobetzearekin; eta substantzien eta publizitatearen kontrolarekin.

Argi dago, 1990-1992 aldiko helburu nagusia zela gizarteari kontzientzia harraraztea fenomenoaren ondorio eta kausez, hori jarrerak aldatzeko eragilea izan zedin eta, ondorioz, jokabideak alda zitezten. Horretarako, erakundeak engaiatzea ezinbestekoa zen, bai eta erakunde horiek bere egitea ere Droga mendekotasunen arloan Prebenitu, Lagundu, eta Gizarteratzeko Legean jasotako helburuak.

Substantziak kontrolatzeko jardueren deskribapeneko berariazko aipamen bat izan ezik (“gizarte ingurunea babestea, eta bereziki, adingabeak”), lehen planean dimentsio askoko

jarduera eta gizarte parte-hartzea barne hartzen zuen estrategia planteatu zuen, “prebentzio komunitarioa” zelako multzoa eratzen zuena. Hau da, funtsean, adingabeak herritarren kontzeptuaren barruan sartzen ziren, prebentzio jarduera komunitarioetan parte hartuz, baitetik, eta, bestetik, jarduera bereziago baten onura jasotzen zuten, administrazioaren arlo jakin batzuk (hezkuntza, gazteria arloa, eta abar) beren eskumenen esparruan engaiatzen ziren eta.

Lehen plana, xehetasunen agiria izan gabe, plangintza egiteko ahaleginaren isla da, sinetsirik sistematika arrazionaleko elementu bat ematea lagungarria izango zela arloan parte hartzen zuten guztiek beren jarduera testuinguru zabalago batean uler zezaten, helburu bakar bat lortu nahian. Hartara, kolektiboak edo adingabeentzako berariazko programak aipatzea, gaur egun deskribatzen diren moduan, urruneko asmoak ziren artean.

Ondoren, 1993., 1994., eta 1995. urteetarako jardun koordinatua jasota, Eusko Jaurlaritzak –orduan ere 15/1988 Legeari jarraituz– ondu zuen bigarren agirian ere (II Plana) prebentzio komunitarioa hartzen zen prebentziorako estrategiaren ildo nagusitzat, kontuan hartuta, 1980tik 1992ra bitartean Euskadin drogen egoerari zegokionez aldaketa handiak gertatu arren, oraindik atzematen zirela, besteak beste, “prebentzio mekanismoaren ahultasuna (...) eta EAEko herritarrek engaiamendua eta presioa galdu izana”, orduko sailburuaren hitzetan.

Dirudienez, prebentzio arloa era egokian garatu zela, oro har, baina ahaleginari eutsi behar zitziola, sendotu arte, gero garatzearren. Xede hori zutela sortu ziren prebentzio komunitarioko udal lan taldeak. Hala, Eusko Jaurlaritzaren eta toki erakundeen arteko lankidetzak hitzarmenen bitartez, droga mendekotasunen arloko udal planak eta jarduerak egin eta koordinatzeko eginkizuna zuten. Lan talde horiek gizarte solaskide zein gizarte mobilizatorako eragile jardun zuten, eta adierazle horiek esku-hartze publikorako politiken diseinua zenbateraino zen eraginkorra adieraziko zuten.

Bigarren plan horretan, gazteen kolektiboari buruz berariaz egiten den aipamena, prebentzio politikaren lehentasuna jaso behar duen populazio gisa, aurreko aldiaren eginikoaren oso antzekoa da. Legeak prebentzio politikaren alde egiten jarraitzen zuen, batez ere haurrei, gazteei eta ezinduei zegokienez. Horretarako, eskola ingurunean osasun hezkuntzako programak bultzatzeko ardura hartzen zuen, baina argi utzirik betiko hiru jardun eremuak –prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea– kontuan izango zirela eta jarduerak herritar guztientzat izango zirela, inor baztertu gabe. Izan ere, gizartearen drogen eta droga mendekotasunaren ondorioez kontzientzia harraraziz baino ezin alda zitezkeen jarrerak eta, horrenbestez, jokabideak. Hau da, gazteen artean esku hartzea bereziki garrantzitsua da, eta halaxe adierazten zen, baina lehentasunezko xedea, oraindik ere, osasun publikoa hobetzea eta herritarren gizarte ongizatea erdiestea zen, gizarte ekimenean parte hartzea xede hori lortzeko ezinbesteko bitartekoa dela ulertuta.

Lehen ere esan denez, 1987rako abian jarri ziren prebentzio komunitarioko lan taldeak. Udalek hartu zituzten beren gain, Eusko Jaurlaritzaren beraren laguntza ekonomikoa eta logistikoa zituztela, eta haien eginkizuna pertsonak, familiak eta gizarte taldeak komunitatean eskura zeuden baliabideez eta abarrez informatzea eta aholkatzea. Hirugarren planak ere

islatu zuen ekimen horren eraginkortasuna; izan ere, zerbitzu sare zabala zuen, eta, orduan, herritarren artean %75ek zuen halakoak erabiltzeko aukera. Tokian tokiko esparruan aurrera eramaten zen –eta eramaten den– lan nagusia prebentzio arloarena zela kontuan izanda, lan talde horiek sortzeak behin betiko bultzada eman zuen eskaria murrizteko eginkizunean, alegia, prebentzioan.

Adingabeei eta droga mendekotasunen prebentzioari zegokienez, III. Planean ere xedatzen zen arlo hori eremuen arabera garatzea eta jarduerak eremu komunitarioan, hezkuntza arloan, lan arloan, prestakuntzan eta gaiari buruzko edukien zabalkundearen gauzatzea. Behin adingabeentzat aurrera eraman beharreko programak deskribatu eta gero, gutxitan baino ez zen kolektibo hori aipatzen. Beharbada, arloa eta kolektiboaren lehentasuna aurreko planetan sendotu zenez, ez zen beharrezkoa hainbeste aipamen berezi.

IV. Plana (2000-2002) lege berriaren azpian taxutu zuten, hots, Droga Mendekotasunen Arloan Prebenitu, Lagundu eta Gizarteratzeari buruzko ekainaren 25eko 18/1998 Legearen azpian. Nabarmendu behar dira jarraitutasuna eta dagoeneko lehen agirian bildutako ahalegin eta konpromiso batzuk apustu luzeen izaera izatea. Prebentzio arloan azpimarratzekoa da haur eta gazteentzako prebentzio programak haien heziketan erabat txertatzen zirela eta programa horiek zabalkunde eta estaldura nabarmenera iritsiak zirela. Esku-hartzeak sendatuta zeudenez gero, 2003. urtean, Eusko Legebiltzarraren gomendioari jarraituz, Drogen Mendekotasunari buruzko Plana bost urtetarako prestatu zen, hirutarako prestatu beharrean.

Berriro ere, IV. Planean atzematen diren ahultasunak esku-hartze jarraitu eta dinamikoaren ingurukoa dira, eta ez, ordea, esku-hartzeen kopuruaren edo arloaren hauskortasunaren inguruan. Aitzitik, ahaleginak eskatzen dira esku-hartze publiko horien kalitatea hobetzeko eta esku-hartzeok eraginkortasunez egokitzeko, drogen mendekotasunaren esparru berezian gertatzen ziren aldaketa konplexuen aurrean. Era berean, zerikusia zuten eragile eta tarteko guztiek parte har zezaten lortu nahi zen.

Laburbilduz, 2000., 2001. eta 2002. urteetarako funtsezko xedek kalitatea eta eraginkortasuna ziren, ordura arteko ondoko planek programen eta esku-hartzeen sare nabarmena sendotua baitzuten. III. Planaren beraren balioztapenean azpimarratzen zen hobetzen jarraitu behar zela, batez ere aintzat hartuta plana taxutzeko prozesuaren metodologia eta komunikazioarekin eta gizartearen parte-hartzearekin zerikusia zuten alderdiak.

Behin IV. Plana aplikatu eta gero, 2004. urtean, V. agirian hartaz jasotzen zen balioztapenaren bidez, jakin genuen 2000-2003 aldian berariazko prebentziozko 698 programa eta orotariko prebentziozko 141 programa eraman zirela aurrera. Nahiz eta prebentzio arloko jarduera asko orokorrak ziren, hots, gazteentzat bakarrik ez ziren, era berean, egia zen herritar guztientzat oro har ziren jarduerak gazteentzat ere zirela onuragarriak, gurasoentzat, irakasleentzat, eta abarrentzat aurrera eramano jarduerak bezalaxe, azken horiek erreferentziatzko irudiak izaki gazteen garapen prozesuan. Ezin dugu zehaztu, bada, gazteentzat zenbat eta zein programa taxutu ziren, baina atzeman daiteke, ordea, EAEn gauzatu ziren droga mendekotasunen inguruko programa gehienak izan zirela.

Handienetan, bigarren gastua eragin zuten prebentzio arloko programek, drogen mende-kotasunei aurrea hartu nahiz aurre egiteko zen kopurutik. *“Prebentzioko programak oso sakabanatuak daude, bai mota aldetik, bai kopuru aldetik, eta drogen kontsumo problematikoen prebentziorako programa espezifikokoak aurki ditzakegu, baina baita programa ez-espezifikokoak ere, bazterketa-arriskuan edo gehiegizko kontsumoan eragiten duten faktore jakinak murrizteari begirakoak. Programa-kopurua aztertuz gero, multzo handiena da, alde handiarekin, gainera; bost programetatik ia lau prebentziokoak dira, programa gehienak tokian tokiko erakundeek bultzatutakoak baitira: hiru programetatik bi udalen eta mankomunitateen prebentzio-programak dira”* (V. Plana, 50. orrialdea).

Paragrafo horrek esandakoa baieztatzen du: ezin esan dezakegu badakigula zenbat programa ziren zehazki adingabeentzat, baina kontuan harturik prebentzioaren kontzeptua estuki lotzen zaiola kolektibo horri, pentsatzekoa da laugarren planean dagoeneko egin zela ahal-egin handi bat ildo horretako jardunean. Hain zuzen ere, balioztaturiko prebentzio programen sailkapenak hori ondorioztatzeko argibide gardenak ematen dizkigu, hauek aipatzen baitira: eskola programak; familia eremuko programak; komunitatea informatzeko eta sentiberatzeko programa komunitarioak; lan eremuko programak; gizartean baztertuak izateko arriskua duten adingabeak dituzten familiei babes emateko programak; banakako babes programak, eskola babes, aisialdirako orientazioa, eta abar; eta lanerako prestakuntzan zentroetako irakasleentzako babes programak.

Lan eremukoak izan ezik, izendapen gehienek oso erlazio zuzena zuten adingabeekin eta haiekin lotura estua izaten duten pertsonekin, alegia, guraso eta irakasleekin.

Dena den, bosgarren planean heldu zitzaizen neurri handienean drogen arazoei eta txikienean arteko droga erabilerari. Azken agiri hori azterturik, urte horietan zehar prebentzio arloak izandako garapenari buruzko ikuspegiari ez ezik, aurreko planen planekiko kontrapuntuari ere antzematen zaio, haren zabaltasuna dela eta. Horri dagokionez, kritika egite aldera, esan behar da V. Planak agerian utzi dituela aurrekoek zituzten hutsuneak, eta azken plan horri heldu baino lehen, komeni da hutsuneok azaldu.

Lehen hutsunea da berariazko oso aipamen gutxi egin zizkietela adingabeen aurreko lau planetan. Eginiko berrikuspenean atzeman ahal izan denez, prebentzioa lehentasunezkoa izan da, baina gazteek arreta “berezia” jaso behar zutela esateko aipamen bat edo beste kenduta, haien kolektiboa oro har hartutako herritarren kontzeptuaren barruan geratu izan da, prebentzio jarduera orokorren onura hartuta gehienetan, eta berariazko jarduera batzuen onura zenbaitetan.

Beste huts bat izan da, gure aburuz, adingabeak esku hartzeko beste kolektibo bat gehiago balira bezala hartzea, aintzat hartu gabe pertsona horiek garrantzi bereziko eboluzioaldi batean daudela; hain zuzen ere, orduan eratan zaizkie haien helduaroa makatuko dituzten nortasuna, balioak eta jokabideak. Drogak hartzeak eragina izan dezake prozesu horretan edo, aitzitik, ezaugarri eta zertzelada horiek, bai eta beste batzuek ere, drogak kontsumitzeko arriskua dakarren egoera batean jar ditzakete pertsonak. Nolanahi ere, garapenaren aldi erabakigarria da.

lido horretantxe, azken plana irakurri eta gero, hain zuzen, kontsumozko jokabidea azaltzeko eta arlo horretako esku-hartzeari zentzua emateko eredu teorikoaren falta sumatzen zen aurrekoetan. Drogen kontsumoen inguruan esku hartzeko oinarri diren arrisku eta babes faktoreen garrantziari buruzko teoriak, EAEEn ez ezik, inguruko beste testuinguru batzuetan ere baliatzen diren teoria berek, alegia, garapenaren lehen aldietan esku hartzea zeinen garrantzitsua den nabarmentzen dute. Era berean, aipaturiko faktore horien azterketak ahalbidetu du, prebentzio arloan eta adingabeen populazioari dagokionez, ezartzea beharrezkoa dela era berariazkoago batean esku hartzea arrisku ezaugarri eta zertzelada jakin batzuk batera dituztenekin, halakoek kontsumitzeko joera handiagoa ematen dietenean edo, bestela esanda, kontsumoaren aurrean egoera ahulagoan jartzen dituztenean. Teoria hori sistematizatu baino lehen, espresuki jaso gabe zegoen berariazko eta bereizitako jarduerak diseinatzeke komenigarritasuna, adingabeen askotariko abiapuntu pertsonalen arabera. IV. Planean bakarrik aipatzen ziren –eta ez aurrekoetan– “arrisku-kolektibo batzuk”; terminoak zer esan nahi zuen asko zehaztu gabe. 2004. urtean (V. Plana), faktore horiek sakon aztertu, ezagutu eta onartu eta gero, hain zuzen, izan zen beharrezkoa prebentzio arloaren barruan prebentzio selektiboko maila bat sartzea, egoera ahuleko kolektibo edo taldeentzat, adingabeei lehentasuna aitorturik.

Kritika horiek eginik, bosgarren plana –azkena gaur egun arte– geratzen da berrikusteko. Plan hartan, sailburuak berak, drogen eta haien kontsumoaren egoerari buruz, azterketa zehatza, “*tabuak eta dogmak alde batera utzirik*,” egiteko eskatzen zuen. Azterketa horren harira, sailburuak dio “*gure gizartean drogen kontsumoa kezka iturri oparoa dela, eta (...) drogaren ondorioak zein diren jakin gabe bide horretan abiatzen diren adingabeek pizten dutela ardura gehien gizartean*.” Paternalismoan erori nahiz larritasuna sortu gabe, EAEko gazteriaren etorkizuneko garapenari eragiten dion eta arriskua dakarkion errealitate bat agerian jartzea aldeztu du. Are gehiago, gazte jendeak gehienbat hartzen dituen drogak aipatu, alkohola eta *cannabisa*, eta jarduteko estrategia azaltzen du, drogekiko elkarbizitza kultura bat erdieste aldera, alegia, adingabeen kontsumoa murriztea, drogak kontsumitzeak dakartzan arrisku eta kalteak gutxitzea, drogetan hasteko adina atzeratzea, eta abar.

Berriro ere, prebentzio arloan, adingabeak bereziki babesteko beharra nabarmentzen da, egoeraren diagnostikoan substantzia horiekin harreman gehien dutenak gazteak direla ikusi eta gero; hain zuzen, horrexegatik, gaitasun txikiago dute haien arriskugarritasun mailaz zein kontsumitzearen larritasunaz ohartzeko (Euskadi y Drogas, 2004). Hori dela eta, eskola, familia eta jolaserako eta aisialdirako guneak, besteak beste, dira esku hartzeko lehentasunezko guneak, bai eta nerabe eta gazteak –egoera ahulean egon zein ez– bereziki babesteko kolektiboak ere.

Drogaren eta droga mendekotasunen fenomenoari dagokionez, EAEko errealitatearen azterketan ez dago alde handirik Espainiako Estatuko beste erkidego batzuetan edo Europako beste toki batzuetan eginiko azterketekin konparatuz gero. Bosgarren planaren arrazoien azalpenean adierazten denez:

“Alkohola eta tabakoa, eta zenbait kasutan, bestelako substantziak ere, heldutasunerako garapenean hasten dira kontsumitzen, gehiago edo gutxiago,

eta batik bat, nerabezaro-aurrean, nerabezaroan eta gaztaroan. Kontsumo-ohitura egonkorrak sortzea faktore anitzen mende dago, banakakoak nahiz gizarte mailakoak, jarrerazkoak nahiz egiturazkoak; hortaz, substantzien erabilera atzeratzeko, nahiz erabilera problematikoak sortzea edo garatzea saihesteko, babes-faktore gisa oso garrantzitsua da prebentzioa. Prebentzionalan norberaren garapengune guztietan burutu behar dira. Esan gabe doa, behar ez bezalako erabilera problematikoak sor ditzakeen kontsumo ohitura egonkorrak hartzea saihestuz gero, etorkizunean lan gutxiago izango litzatekeela, izan ere, ez bailirateke beharko bestelako esku-hartze espezifikoak, egindako kaltea arintzera begirakoak.

Droga-kontsumoa eragozteko ohiko bideak eskaintza kontrolatzean oinarritzen dira, batik bat, eta azken helburua abstinentsia izan ohi dute; hala ere, ohiko bide horiek ez dute helburuen betetze maila handirik lortu. Drogen kontsumoan sartzea ez da gelditu, eta ez gelditzeaz gain, substantziekin esperimentatzen hasteko batez besteko adina jaitsi ere egin da” (73. orrialdea).

Egoera hori ikusirik, bi ondorio nagusi ateratzen dituzte:

“Lehenik, helburu edo jarduera-neurri horiek ez ditugula ez-eraginkortzat hartu behar, baina bai drogen mendekotasun-fenomenoari modu orokorrean aurre egiteko ez-nahikotzat. Eta bigarrenik, substantzien erabilera-ekin esperimentatzeko aukera pertsonaren garapenaren une batean edo bestean agertuko den errealtatea da, eta errealtate horri erantzuteko orduan, arrakasta handiagoa edo txikiagoa izango du, norberaren gaitasunen, edo gizarte-sistema jakin bateko partaide gisa dituen baliabideen arabera.

Hortaz, plangintza ororen azken helburua drogen abstinentsia dela ahaztu barik, eta substantzien erabilera badagoela eta erabiltzaile ugari daudela ikusita, drogen mendekotasunari buruzko planeko jarduerak dibertsifikatu egin behar dira, helburu-sorta zabalago bati aurre egiteko. Jarduera horiek substantziekin izandako esperimentazio mailaren arabera izango dira: inoiz probatu ez dituztenentzat, edo probatzeko interesik ez dutenentzat, edo hartzeari utzi nahi diotenentzat, abstinentsia lortzeko eta horri eusteko helburua izan daiteke; substantzien erabilera ohikoa egiten dutenentzat, helburua neurritz hartzea izango da, eta arriskuak eta ondorio txarrak eragozteko; drogazaleak direnentzat, hasierako helburua arriskuak eta kalteak saihestea izango da, eta hala nahi izanez gero, abstinentsia bultzatzea eta horri eustea” (73. orrialdea).

Arrazoiaren adierazpen hori oinarria izan zen droga mendekotasunen arloko 2004-2008ko jarduna egituratu eta planifikatzeko, eta, batetik, testu honetako kontzeptu nagusien artean (prebentzioa, drogak eta gazteak) dagoen berezko loturaren adibidea da; bestetik, gizartearen pentsamoldearen aldaketa, neurri handi batean, gauzatu izanaren adibiderik nabariena da, drogak dauden mundu batean bizitzea saihestezina dela onartuta.

Errealitatearen diagnostiko bat eta lortu nahi diren helburuak (planaren zeregina) abiapuntutzat hartuta, plangintza operatibo bat garatu zen, jomugak, jarduera ildoak eta programak zituena. Horietako gehienak –dagoeneko frogatu den garrantziagatik– prebentzio arlokoak dira, eta adingabeak dituzte hartzaile.

Eskaintzaren kontrolaren aldetik edo substantziari berari zegokionez, kolektibo horretarako bereziki planteatzen zen edari alkoholduen eta tabakoaren hornidura eta salmenta kontrolatzea. Eskaria murrizteari zegokionez, edo pertsonarekin zerikusia zutenaren aldetik, prebentzio arloan askotariko helburu, hartzaile eta inguruneak sartzen ziren; hala, esku-hartze orokorrenetatik hasi berariazkoeneraino iristen zen, baina garrantzi berezia zuen kolektibo batengan arreta jarriarik, betiere: 18 urtetik beherako pertsonen kolektiboarengan, hain zuzen. Prebentzioaren ildo unibertsal edo orokorrean esku hartzeari zegokionez, esku-hartze hura herritar guztientzat izango zen, baina kolektiboegi egokitua, adinaren, lanbidearen, eta abarren arabera. Horrek lehen hesi sendoa izan behar zuen, babes faktoreak indartuz eratua. Esku-hartze orokorretik abiatuak, beste prebentzio neurri batzuk (selektiboa, egokitua, zehatza) beren zertzelada eta/edo ezaugarri bereziengatik, eta arrisku faktore bat edo gehiago izateagatik, drogen aurrean egoera ahulagoan zeuden edo dagoeneko mendekotasuna zuten kolektiboentzat izango ziren. Nolanahi ere, abstinentziaren eta mendekotasunaren artean, biak barne, askotariko aldiak hartzen dira kontuan, haietan esku hartzea beti posible dela.

Adingabeen kolektiboan lehentasunez (eta haurtzarotik) esku hartzeko justifikazioa baze- goen jasota, neurri batean, arrazoiari adierazpenean, eta haren oinarria zen pentsatzea dro- gen neurritz gainera kontsumoetako asko bazutela lotura gaitasun pertsonal jakin batzuk, balio transzendente batzuk eta osasunaren aurreko jarrera positibo batzuk ez bereganatze- arekin. Defizit hori arrisku faktore bilakatzen da, drogen kontsumo arazotsuak ohiko jokabi- detzat (ohiturak) duten bizimoduak eratzeko.

Jende gehienak edo drogaren bat kontsumitzen du eta haietakoren batekin esperimendu- tu du, baina gehienak ere badira gai kontsumo horiek kontrolatzeko; izan ere, halako gaitasun, balio eta jarrerak bereganatu ohi dituzte, eta, ondorioz, haien erabilerak ez dira arazotsu bihurtzen. Horrenbestez, planteamendu unibertsalak ez du kontsumoa saihestea helburu bakartzat; horrez gain, drogak hartzen hasteko adina atzeratzea edo arduraz bideratutako neurritzko kontsumo eustea ere badira haren helburuak, besteak beste. Haren orientazioa komunitarioa da, eta gizarte interakzio-ko eremu guztiak barne hartzen ditu, hor bai adin- gabeak, bereziki, bai herritarrak, oro har, sartzen direla (eskolaren, familiaren, aisialdiaren, lanaren, gazteen eta abarren eremuak).

Era berezian eragiten zieten gazteei honako hauetan aurrera eramatekoak ziren prebentzio unibertsaleko jarduerak:

- Eskola eremuan, drogak neurritz gain hartzearen aurreko babes faktoreekin lotu- ra duten gaitasun, balio eta jarrerak bereganatzean edo ez bereganatzean ingu- rune horrek eragin garrantzitsua du eta. Eremu horretako programen xedea zen heziketaren jardunean laguntzea eta, horrenbestez, irakasleei laguntzea, garapen

pertsonala lortzea eta balio transzendentalak nahiz jarrera positiboak bereganatzea helburutzat izango zituen lana aurrera eramateko.

- Familia eremuan, erakunde horrek baitu oraindik ere eraginik handiena gaitasunak, balioak eta jarrerak bereganatzean. Programa horien xedea zen aita-amak sentiberatzea beren ardurak alde batera utz ez zitzaten eta laguntza eskaintzea garapen pertsonala laguntzen lortzeko nahiz balio transzendentalak eta osasunaren aldeko jarrerak transmititzeko heziketa lanean.
- Aisialdi eta astialdiaren eremuan, halako guneak ezinbestekoak izaki nerabe eta gazteak gizartekoitzeko, gizarte beharrian bat izateaz gain. Gune horiek, berdinen arteko guneak izan arren, ez daude era horizontalean antolatuta; aitzitik, pertsona jakin batzuek eragin handia izaten duten besteengan, eta ideia eta iritzi jakin batzuk zabaltzen dira, drogen kontsumo arazotsuen aldeko balio eta jarrerak horien artean.
- Gazteen eremuan. Nerabe eta gazteen kolektiboak lehentasunezkoa da esku hartzerakoan, adin horietan izaten baitira lehen erlazioak drogekin. Bizitzaren aurrean duten jarrera haurren mendekotasunaren eta helduen autonomiaren artekoa da, eta beharrezkoa da arazoak kontzientzia hartzen aurrera egin dezaten, gazteak drogen erabilera arazotsuak murrizteko prozesuetarako gaitzeko nahiz prozesuotan parte hartzeko prebentziozko ekimenen bitartez.

Gehienetan, gazteek ongi pasatzearen edo esperimintatzearen hartzen dituzten drogak, baina azkenean ez dute osasun edo egokitzapen arazorik garatzen. Prebentziorako estrategia osatzen duten jardura guztiak abian jarrita ere, ez da saihesten, halako substantziekin esperimintatzen dutenen artean, gazte talde txiki baina garrantzitsu bat goiz hastea kontsumoan, eta horretan irautea. Gazte horiek, nahiz eta lehen aipaturiko esku-hartzeen onuradun izan, zenbait arrisku faktoreren eraginpean daude, norberaren, familiaren edo gizartearen aldetik. Horientzat, hain zuzen ere, da berariazkoagoa orain arte deskribatutako esku-hartzea. Hala, bada, prebentzio selektiboa da.

Jardura ildo hori egokiagoa da egoera ahulean, nolabait esatearren, dagoen populazio horrentzat, hau da, aurrez kontsumo arazotsuak izateko joera handiagoa izan dezaketenez. Halakoetan, estrategia da pertsona horientzako babes faktore bereziak bultzatzea, eta arriskuak gutxitzea, drogak hartzen hasiak direnean edo hartzeko ohitura hartua dutenean. Adingabeena da jardun ildo horretako programen bitartez laguntzeko lehentasunezko kolektiboa, haien egoera ahulagoa izan daiteke eta. Jomuga hori lortzeko, esku hartzeko ildoek hezkuntza eremuan, familia eremuan, aisialdi eta astialdiko guneetan, eta abarretan esku hartzeari ere lehentasuna ematen zioten, hau da, gazteek parte hartzen duten erakunde eta gune guztietan esku hartzeari.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Espainiako Estatuaren estrategiak alderatuz gero –erreferentzia bat izatearren eta gure ibilbidea testuinguru batean kokatzearen–, ondorioztatzen da estrategia berrietan (*Plan de Acción 2005-2008 de la Estrategia Nacional sobre Drogas*), hain zuzen, egiten dela aztergai den kolektiboaren berariazko aipamena neurri handiago batean.

Espanian, ministerioaren planean jasoriko neurrien helburu nagusia da gizarte osoa prebentzioan era aktiboan engaia dadin bultzatzea eta horretan laguntzea; biak bat datoz autonomia erkidegoaren planaren helburuekin, azken horrek prebentzioan eta gizartearen engaiamenduan esku hartzea aurkezten baitu xede gisa drogen mendekotasunari buruzko ondoz ondoko plan guztietan. Bi agirietan prebentzioaren kontzeptuak oso lotura estua du haurren, nerabeen eta gazteen kolektiboarekin.

Hartu duten eredu teorikoari dagokionez (hori da helburuak, jomugak eta haiek lortzeko baliabideak ezartzeko oinarritzat hartzen den egitura ideologiko eta barne-hartzailea), ikusten da azpian dagoen filosofia, EAEn bezala, arrisku eta babes faktoreena dela: aldagai horiek pertsonak babesten edo, aitzitik, egoera ahuletan jartzen dituzte, jokabide jakin batzuk, hala nola droga kontsumoa, garatzeko garaian. Teoria hori onarturik, aldagai bakoitzak duen pisua desberdina izan daiteke egile baten edo beste baten ikuspuntutik. Nolanahi ere, pertsona bakoitzak arriskuaren aurrean edo bere burua babesteko dituen baliabideek lotura estua dute garapen ebolutiboa eta, horrenbestez, adinaren lehen aldiekin; azken batean, prebentzioarekin.

Laburbilduz, bai Estatuaren planarekin bai autonomia erkidegoarenean helburu berak erdietsi nahi dituzte, droga mendekotasunari buruzko ikuskerak oso antzekoak direla. Planifikatutako jarduerak gehiago edo gutxiago izatea ez da planen arteko konparazioa egitea ahalbidetzen duen adierazle bat, programak xehetasun handiagoarekin azaltzea baino ez baitu erakusten. Esan daiteke, bada, bi testuinguruetan antzekoa dela estrategiaren diseinua gidatzen duen filosofia. Nahiz eta bi planok (autonomia erkidegoarena eta Estatuarena) desberdin egituraturik dauden eta hemen deskribatu diren jarduera batzuk bestean zeharkako ardatzak edo arloak diren, esan daiteke formari edo azaltzeko eskemaren antolamenduari dagozkion desberdintasunak baino ez direla, planteamendu ideologikoari eta diskurtsoaren edukari eragiten ez dietenak.

3. FENOMENOAREN INGURUKO DATUAK

Droga kontsumoaren epidemiologia ikasleen artean

Adingabeek drogak kontsumitzea, bai eta kolektibo horri eragiten dion, egoera ahulagoa ekartzen dion edo garatzeko duen eskubideari eraso egiten dion edozein egoera edo zertzelada ere, lehentasun handieneko gizarte arazoa da. Zalantzarik ere ez dago horretaz. Hala eta guztiz ere, sarritan, populazio horrek halako sustantziak kontsumitzeari buruz datuak biltzen dituzten azterlanetan ez da berresten arazoaren hedapenari eta tamainari buruzko ideia zabalduena; esan nahi baita, jende gehienak uste du arazoa egiaz baino handiagoa dela eta hedatuago dagoela. Hala, bada, datu horiek aurkeztea eta arazoaren neurriak ezartzea da lehen pausoa egiaztatzeko ea ematen diren konponbideak egokiak ote diren, kopuruz nahiz kalitatez. Gehiagotan ere nabarmendu beharko da gizartearen pertzepzioaren eta errealitate objektibagarriaren artean bereizi beharra dagoela.

Horregatik, bestelako solasik gabe, kapitulu honetan lehenik eta behin aurkezten dira, era objektibagarri batean, Euskal Autonomia Erkidegoan eskolaturiko adingabeen droga kontsumoari buruzko daturik berrienak, *Drogas y Escuela VII* lanaren bitartez (Elzo, Laespada eta beste batzuk, 2008).

3.1. Euskadiko datuak: Drogas y Escuela VII


Ondoren, EAEko gazte eskolatuak eta legezko drogen (tabakoa eta alkohola) nahiz legez kanpoko drogen (*cannabis*a zerbait sakonago aztertzen da) arteko erlazioa, interesekoa baita Euskadiko errealitatea eta Espainiako Estatuaren gainerakoan dagoen egoera konparatzea.

Tabakoa

Gazteek droga kontsumoan hasteko aukeratzen duten bigarren legezko substantzia da tabakoa. Alkoholarekin eta legez kanpoko beste substantzia batzuekin, neurtzeko erabiltzen diren maiztasunak erabili beharrean –balio horiek substantziekin egiten den “esperimentazioa” eta “noizbehinkako edo ohiko kontsumoa” bereizteko mesedegarriak dira eta–, tabakoarekin ideia da norbaitek erre egiten duela edo ez. Praktika horrek ez du tarteko aldirik, probatzeko jokabidearekin eta ohituraren errotzearen artean: probatu, eta jokabiderik ez errepikatzea edo hari eustea erabakitzen da. Beste gauza bat da ohiturari eustean zigarro gehiago edo gutxiago erretzen diren. Tabakoari dagokionez, neurtzeko maiztasuna “azken hilabeteetan” da. Alkoholaren kasuan, neurri hauek baliatzen dira: “bizitzan zehar,” substantzia esperimentatu edo probatzeari dagokionez; “urtean zehar,” probatu edo esperimentatzearen eta kontsumoari eusteko erabakiaren arteko aldiari dagokionez; eta, bestalde, kontsumoari eustea edo ohitura errotuta egotea hobekien adierazten duen maiztasunari dagokionez, “azken 30 egunetan” eginiko kontsumoa. Legez kanpoko drogekin, “bizitzan zehar” maiztasuna erabiltzen da, aztertzen diren adinetan oso bakanetan baino ez baita gainditzen hasteko edo probatzeko jokabidea gazteen eta halako substantzien arteko erlazioan, baliozkotutako zenbait azterlanetan egiaztatu denez.

Hori esanda, eta grafikoan ikus daitekeenez, 2006. urtean ikasle erretzaileak %28 ziren, 1996an baino %8,9 gutxiago. Ikusten da 2006an gazte erretzaileen ehuneko handienak (%7,5) egunero kontsumitzen duen tabako kantitatea zigarro 1etik 5 zigarrora bitartekoa dela. Zigarro kopurua igo ahala, erretzaileen ehunekoak behera egiteko du. Egunean 20 zigarro baino gehiago erretzen zutenak %1 baino ez ziren.

1. Grafikoa. EAEko ikasleen azken hilabeteko tabako kontsumoaren prebalentzia. 1996-2006 (ehunekotan)



Hala ere, badirudi tabakoa kontsumitzen apur bat lehenago hasten zirela 2006. urtean, hamar urte lehenago baino. Hala, bada, 2006an substantzia horrekin esperimentatzen gehienbat 13 urterekin hasten ziren, eta 1996. urtean, ostera, esperimentatzeko adin nagusia 14 urtekoa zen.

Ikasle erretzaileen sexua aintzat harturik, ikusten da gizonezkoek eta emakumezkoek kontsumo maila bera dutela, eta horrek berretsi egiten du emakumeak ohitura horretan sartu direla, azken urteetako joeretan ageri zenez.

1. Taula. Tabako kontsumoaren maiztasuna, sexuaren arabera. EAE, 2006 (ehunekotan)

	Egunean 1 baino gutxiago	Egunean 1-10	Egunean 11 eta gehiago
Gizonezkoak	49,2	49,8	51,9
Emakumezkoak	50,8	50,2	48,1
N	404	636	218

Alkohola

Gazteen edateko modu berriek, eta gune publikoa nahiz gazteentzako aisiagune berriak nabariki hartu izanak, gizarte alarma piztu zuten, betiere fenomeno gertatu eta denbora batera. Hain zen berandutu alarma hori, non gazteen alkohol kontsumoaz hitz egiten hasi zirenerako, abangoardiako zerbait izan beharrean, zabaldutako praktika baitzen kolektibo horren artean.

2. Taula. Alkohol kontsumoa generoaren eta adinaren arabera. EAE, 2006 (ehunekotan)

	SEXUA			ADINA			
	GUZT.	Gizon.	Emak.	12 - 13	14 - 15	16 - 18	19 eta +
GUZTIRA	4.519	2.382	2.104	1.143	1.125	1.479	740

Edari alkoholdunak 'bizitzan zehar'

Behin ere ez	21,2	20,9	21,5	55,7	19,1	5,5	1,9
1-2 aldiz	7,6	7,6	7,5	15,2	9,3	3,1	2
3-5 aldiz	5,2	5,4	4,9	7,1	8,8	2,8	1,5
6-9 aldiz	5,5	5,8	5,2	5,9	9,6	3,7	2,3
10-19 aldiz	7,1	7,4	6,8	5,5	13	6,8	1,5
20-39 aldiz	8,4	7,3	9,6	2,1	13	11,2	5,5
40 aldiz edo gehiagotan	40,5	40,9	40,1	3,5	21,5	63,5	81,2
Erantzunik ez	4,6	4,7	4,3	5	5,7	3,3	4,2

Edari alkoholdunak 'azken urtebetean'

Behin ere ez	23	23,4	22,7	59	20,7	7	3
1-2 aldiz	8,9	9,3	8,4	13,3	12,9	5,3	3
3-5 aldiz	7,1	6,5	7,8	7,2	11,9	4,4	4,7
6-9 aldiz	6,5	6,4	6,6	4,2	10,5	6,4	4,1
10-19 aldiz	10,6	9,6	11,8	3,8	15,5	12,2	10,6
20-39 aldiz	12,6	12,5	12,8	2,1	10,7	20,4	16,3
40 aldiz edo gehiagotan	24,8	25,7	23,8	1	11,1	39,9	52,5
Erantzunik ez	6,5	6,7	6,1	9,4	6,6	4,4	5,9

	SEXUA			ADINA			
	GUZT.	Gizon.	Emak.	12 - 13	14 - 15	16 - 18	19 eta +
Edari alkoholdunak 'azken hilabeteen'							
Behin ere ez	38,6	38,5	38,7	75,2	43,4	19,2	13,2
1-2 aldiz	15,1	13,3	17,2	7,3	19,5	17,2	16,2
3-5 aldiz	14,4	14,2	14,6	3,6	12,9	23	16,9
6-9 aldiz	9,5	8,5	10,7	2	8,2	14,5	13
10-19 aldiz	8,6	9,4	7,6	0,9	5,4	12,3	18,1
20-39 aldiz	3,8	4,5	2,9	0,3	2	5,2	9
40 aldiz edo gehiagotan	3,4	4,5	2,2	0,3	1,3	4,3	9,2
Erantzunik ez	6,7	7,1	6	10,4	7,4	4,3	4,4

Taulan aditzera ematen da gazte eskolatuen %40,5ek alkohola 40 aldiz edo gehiagotan probatua zuela bizitzan zehar. Adin txikiak kenduta, nahiko ehuneko handiak aurkitu ziren "20-39 aldiz" eta "40 aldiz edo gehiagotan" aldi zabalenean: "bizitzan zehar". Horiek ditugu, nolabait, esperientziako kontsumoak, "probatzea"; kasu askotan berriz ere gertatuko ez den zer bait.

Hurbilagoko aldietan –"azken urtebetean" eta "azken hilabeteen," alegia– ikusten diren neurriek kontsumo erregularragoak, esperimentazio hutsa baino finkatuago edo ohikoagoak direnak, adierazten dituzte. Maiztasun handienetan aurkitzen ditugun gazteen ehunekoa (40 aldiz edo gehiagotan) nabarmen txikiagotzen da, hau da, gazte askok alkoholarekin esperimentatzen dute "noizbait bizitzan zehar" aipatutako maiztasunean (%40,5), baina ehunekoek behera egiten dute kontsumoa erregular edo ohikoagoa denean, hots, "azken urtebetean" (%24,8) eta "azken hilabeteen" (%3,4) maiztasunetan.

Aipaturiko txostenean aditzera ematen diren datu garrantzitsu batzuk alkohol kontsumoa astegunetan sartzeari buruzkoak ziren, 1981etik behera egiten ari zen joera bat, bai eta hartzen zen alkohol kantitatea gehitzeari buruz ere, horrek "arriskuko edaleak" deritzon kategorian gehikuntza gertatzea zekarrelarik. Neurrizko kontsumoa da egonkorrena, antza denez. Nerabeen populazioaren heren batek, gutxi gorabehera, hartzen du alkohola neurritz. Areago, neska-mutil abstemioen proportzioa handitu egin zen 2006an, 1996. urtekoen aldean. Alkohola probatua zutenen kolektiboa %79,4 zen 1996an; orain, %74,3, aldiz; horrenbestez, hamar urteren buruan alkoholaren kontsumora gerturatzen diren ikasle nerabeen proportzioa apur bat txikiagoa da.


Generoaren aldagaiari dagokionez, aditzera eman behar da mutilen eta nesken alkohol kontsumoak hurbilduz joan direla azken urteetan, eta, hala, bi sexuetaoek oso antzera kontsumitzen dute. Neskak gizonezkoen eredura gerturatu dira, eta bi sexuak ildo beretik doaz.

Kalean taldeka edateko modua, "litroak egitea", alkohola merkeago eta helduek adingabeengan kontrol txikiago izanez eskuratzeko modua da, baina ez da hori azalpen bakarra; jai funtzionaltasun ukazina du, baina gizartekoitzeko funtzionaltasuna ere bai. Nolanahi ere, litroak egiteak gizartean oihartzun handiagoa duen arren, praktika hori ez da nabarmen areagotu gazteen artean azken lau urteetan. Hala, 2002. urtean, %47k litroak eginak zituen noiz edo noiz, eta 2006an, ordea, ehuneko hori %51,7k zen. Praktika areagotu egin da, dena dela, eta maizagoko praktika da asteburuetan, lau urte lehenago baino.

Legez kanpoko drogak

Debekaturik ere, legez kanpoko drogak ere nerabeengandik hurbil dagoen ingurune batean egoten dira. Halakoak eskuratzek zaila dirudien arren, gazteek berez ez dute zailtasun handirik atzematen bereganatzeko.

2. Grafikoa. DBHko, DBHoko eta ELHko ikasleek legez kanpoko drogak kontsumitzea. EAE, 1996-2006 (ehunekotan)



Legez kanpoko hainbat substantziarekin esperimendatzen dituzten pertsonen buruzko datuak aztertzen hasi baino lehen, nabarmendu behar da behin ere probatu ez dutenen ehunekoak, alegia, erdia baino gehiago *cannabis*aren kasuan eta gehien-gehienak, hamarretik bederatzi baino gehiago, beste droga batzuen kasuan.

Cannabisa da gazteek esperimendatzeko aukeratzen duten lehen legez kanpoko substantzia. Lehen ere esan dugunez, EAEko hamar ikasletik lauk baino gehiagok adierazi dute probatu egin dutela. Pertsona batzuek substantzia batekin edo gehiagorekin esperimendatzen dute bitzitan zehar, baina ez dute gehiagotan hartzen jarraitzen; hala, bada, esperimendatzeak ez darama halabeharrez neurritz gainera kontsumora.

Hamar urte lehenagoko datuak eta orain ditugunak alderatuz gero, ikusten da tarte horretan gehitu egin direla legez kanpoko substantziekin esperimendatzen duten ikasleak. Bizitzan zehar substantziekin esperimendatu duten edo halakoak probatu dituzten pertsonen kopurua handiagoa da 2006. urtean, 1996. urtean baino, substantzia guztietarako, estasiari eta heroinari dagokienez izan ezik; hain zuzen, azken bietan ehunekoak berdin-berdinak izan dira hamarkadan zehar. Igoera nabarmenenak *cannabis*arekin eta kokainarekin gertatu dira.

Cannabis kontsumoari dagokionez, interesa piztu da hura kontsumitzen duten pertsonentzat berriazko diagnostiko bat ezartzeko. Europar Batasunean irizpidea da azken hilabetean *cannabis*a 20 aldiz edo gehiagotan kontsumitu duten pertsonak arriskuko kolektibotzat har daitezkeela, hots, kontsumo eredu arazotsua garatzeko joera izan dezaketela. EAEn aztertu den kolektiboan, %8,2 lirateke, Europar Batasunaren irizpideen arabera, arriskuko kolektiboaren definizioan sartzeko moduko ikasleak.

Droga hori erabiltzea normalizatu egin da, neurri batean. *Cannabis*a, testuinguru batzuetan, beste garai batean tabako kontsumoa bezain normalizatuta dago. Beharbada, tabakoa ordezkatu ere egin du, nerabezeroan nork bere burua kokatzeko, identifikatzeko eta irudikatzen moduetan; hartara, tabakoak garai batean ematen zituen identitate eta heldutasun ezaugarriak orain *cannabis*ak ematen ditu, ziurrenik.

Beste alde batetik, ia ez da aldatu substantziarekin esperimendatzen hasteko adina, baina aldatu egin da, ordea, sexuaren arabera erabilera erdua. Nahiz eta gizonezko kontsumitzaileak gehiago diren eta haxix gehiago kontsumitzen duten, aldeak txikiagotu egiten ari dira pixkanaka (3. Taula); horrenbestez, kontsumoa feminizatu egin da, neurri batean, beste substantzia batzuen –hots, tabakoaren eta alkoholaren (legezkoak horiek) – kontsumoaren prebalentzian berresten den bezala.

3. Taula. *Cannabis* kontsumoaren prebalentzia hainbat alditan EAEko ikasleen artean, sexuaren arabera, 2006 (ehunekotan)

	GUZT	Gizon.	Emak.
Bizitzan zehar			
Behin ere ez	54,1	53,0	55,2
1-2	9,0	8,5	9,7
3-5	4,1	3,3	5,1
6-9	3,6	3,1	4,2
10-19	5,0	4,5	5,6
20-39	5,7	4,9	6,6
40 eta +	17,1	21,5	12,3
EE	1,3	1,3	1,3

	GUZT	Gizon.	Emak.
Azken urtebetean			
Behin ere ez	60,9	58,2	63,8
1-2	7,8	7,2	8,6
3-5	4,5	3,9	5,0
6-9	3,9	3,9	4,0
10-19	4,7	4,1	5,3
20-39	3,4	3,5	3,4
40 eta +	11,3	15,8	6,3
EE	3,6	3,6	3,5

Azken hilabetean			
Behin ere ez	70,3	66,5	74,4
1-2	7,0	6,3	7,6
3-5	3,6	3,4	3,9
6-9	3,9	4,0	3,7
10-19	3,3	3,3	3,3
20-39	2,6	4,0	1,1
40 eta +	5,6	8,7	2,2
EE	3,7	3,7	3,7
GUZT.	4.519	2.382	2.104

Gutxi gorabehera, EAEko ikasleen %45ek probatu du *cannabisa*, baina %11,5 baino ez dira kontsumitzen jarraitu dutenak eta azken hilabetean 10 aldiz baino gehiago erre dutenen artean daudenak.

Populazio inkestatuak gehien aipatutako drogetan, kokaina da bigarrena. Bizitzan zehar %9,2k probatu du gutxienez behin. Hirugarren tokian anfetaminak daude; hain zuzen, ikasleen artean, %8,3k esperimentatu du substantzia horrekin. Atzetik, oso hurbil ageri dira substantzia haluzinogenoak (%7,1). Orain arte, anfetaminak lehen tokian zeuden, eta kokaina, bigarrenean. Hori zen aukeratutako sailkapena esperimentatzeko, *cannabisaren* atzetik, betiere. Egoera alderantziz jarri da 2006. urtean, eta kokainak lehen tokia hartu du, *cannabisaren* atzetik, azterturiko kolektiboak gehien probatzen zituen legez kanpoko drogen artean.

Nahiz eta ikasle gehienek drogekin esperimentatzen duten, gehienek ere ez dute aldian behin kontsumitzen jarraitzen denboran zehar. Populazioari buruz oro har egindako inkestek aditzera ematen dute legez kanpoko drogen kontsumoa "bizitzan noizbait" askoz ere

handiagoa dela “duela gutxiko edo uneko kontsumoa” baino. *Cannabisa* salbuespena da, “duela gutxiko edo uneko” kontsumoaren maiztasunean ematen duen emaitza handiagoa delako drogaz kanpoko beste edozein drogari dagokienez baino. Hala ere, ez da nahi gizarte alarma sortzerik droga kontsumoaren gehikuntza nabarmen baten inguruan.

Laburbilduz. EAEko ikasleen artean, %28k erretzen du, nahiz eta erretzaileen ehuneko handienak (%7,5) egunean zigarro 1etik 5 zigarrera bitarte erretzen dituela esaten duen. Gazteen %40,5ek alkohola 40 aldiz edo gehiagotan probatu du bere bizitzan zehar. Azken urtebetean, %24,8k maiztasun berarekin kontsumitzen jarraitu izan du, eta %3,4k egunero hartzen du, azken hilabetean alkohola 40 aldiz edo gehiagotan edan duelako. Bizitzan zehar %44,5ek probatu du haxixa; azken urtebetean, %35,5ek, eta azken hilabetean, %26k. Erretzeko ohitura duten pertsonen artean (azken hilabetean), %8,2 *cannabis*aren arriskuko kontsumitzailetzat hartzeko modukoak dira. Esperimentatzeko garaian, lehen tokia duen legez kanpoko droga *cannabisa* da, eta atzetik kokaina eta anfetaminak ditu.

3.2. Espainiako datuak: ESTUDES txostena

ESTUDES (2008) azterlana aurkezten dugu. *Plan Nacional Sobre Drogas* delakoak egin zuen 14 urtetik 18 urtera bitarteko gazteekin. EAerekin alderatzeko zailtasuna dira Euskadin adinen arabera egindako taldeak. Espainiako txostenean ehuneko bat dago aztertutako adin guztien urte kopuru bakoitzeko; Euskadin, aldiz, adinak taldekatu egiten dira. Beste alde batetik, tabakoari dagokionez, EAEn ikasle erretzaileen ehunekoari buruzko datuak baino ez dira jasotzen, aldien arabera banaketarik gabe. Datuek gutxi gorabeherako alderaketa eman dezakete.

4. Taula. Drogen kontsumoa adinaren arabera. Espainia, 2008 (ehunekotan)

Adina	14	15	16	17	18
Kontsumoa 'bizitzan zehar'					
Tabakoa	28,4	40,6	47,5	54,2	60,4
Alkohola	62,6	78,7	86,2	90,5	92,3
Hipnolasaigarriak	14,1	15,2	17,5	20,3	22,5
Errezetarik gabeko hipnolasaigarriak	7,1	8,3	10,2	10,5	12,5
Cannabisa	16,4	29,2	37,8	48,0	55,2
Estasia	1,3	2,1	2,6	3,6	5,8
Haluzinogenoak	2,0	2,9	3,9	5,7	8,9
Anfetaminak	1,1	2,0	3,9	5,4	8,7
Kokaina	2,0	3,8	4,9	6,6	12,5
Heroina	1,0	0,9	1,0	0,9	0,5
Inhalagarri lurrunkorrak	1,8	2,2	2,4	3,7	4,9
GHB	0,9	0,9	1,2	1,1	2,0

Adina	14	15	16	17	18
Kontsumoa azken 12 hilabeteetan zehar					
Tabakoa	23,0	34,5	40,7	47,1	52,1
Alkohola	53,1	69,6	77,6	84,1	84,2
Hipnolasaigarriak	7,3	8,7	10,9	11,9	13,9
Errezetarik gabeko hipnolasaigarriak	4,1	4,8	6,7	6,3	7,4
Cannabisa	14,4	25,8	33,6	39,9	46,9
Estasia	0,9	1,5	1,7	2,7	4,4
Haluzinogenoak	1,2	2,0	2,8	4,0	5,0
Anfetaminak	0,8	1,5	2,6	4,0	5,5
Kokaina	1,4	2,6	3,6	4,9	8,7
Heroina	0,6	0,7	0,8	0,7	0,6
Inhalagarri lurrunkorrak	1,1	1,5	1,4	2,3	2,4
GHB	0,6	0,7	0,9	0,8	1,5

Kontsumoa azken 30 egunetan zehar

Tabakoa	18,2	28,8	34,1	40,7	48,3
Alkohola	36,2	52,9	63,8	71,9	75,1
Hipnolasaigarriak	3,6	4,5	5,6	5,4	7,7
Errezetarik gabeko hipnolasaigarriak	2,0	2,7	3,4	2,8	3,9
Cannabisa	8,5	16,9	22,1	27,3	31,1
Estasia	0,6	1,0	0,9	1,4	1,8
Haluzinogenoak	0,9	0,9	1,2	1,5	1,8
Anfetaminak	0,5	0,8	1,1	1,6	2,8
Kokaina	0,9	1,7	1,8	2,4	4,5
Heroina	0,5	0,6	0,6	0,6	0,3
Inhalagarri lurrunkorrak	0,7	0,8	1,0	1,2	1,1
GHB	0,5	0,5	0,6	0,5	0,6

Iturria: DGPNSD. Encuesta Estatal sobre Uso de Drogas en Enseñanzas Secundarias 2008 (ESTUDES).

4. ERAKUNDEEN ERANTZUNA ZENBAKITAN

EAEko haur eta gazteekin, eskaria murrizteko, aurrera eraman diren programa eta jardueren azterketa eta balioztapena

Euskal Autonomia Erkidegoan, beste autonomia erkidego askotan bezala, askotariko aha-lerinak egin dira, eta egiten ari dira oraindik, agertzeko era aldatzen duen arazo bati aurre egite aldera.

Lehen ere esan denez, V. Plana aurrerapen handia izan da drogen eta droga mendekotasunen esparruan, droga mendekotasunei dagokienez prebentzio, laguntza eta gizarteratze arloetan parte hartzen duten erakunde eta pertsonen guztien adostasun bateratutik eta lan elkartutik sortua baita.

Plan horretan jasoriko jarduera guztiek, substantzien eskuragarritasuna mugatzeaz gain (eskaintzaren kontrola deitutakoa, EK), badute helburutzat eskariaren murrizketa (EM) ere, edo droga-kontsumitzaileak izan daitezkeenekin zerikusia duten arazoaren murrizketa. Ildo horretan, jarduera horietako askoren xedea substantzia hartzen hasteko adina atzeratzea da, bai eta kontsumo horrek dakartzan arazoak gutxitzea ere.

V. Planaren lehen helburua hau da: *“Drogen erabilera problematikoak murriztea, kontsumo horiei atxikiriko erikortasuna eta heriotza-tasa murriztearren, bai eta kontsumitzaileen, ingurune hurbileko pertsonen, eta gizarte osoaren bizi-kalitatearen eta ongizate mailaren jaitsiera ere murriztearren”*². Era berean, helburu hori hiru jarduera arlo handitan antolatutik dago. Hona hemen: eskaintzaren kontrola (EK), eskariaren murrizketa (EM), eta babes eta koordinazioko jarduera (BK).

Eskaintzaren kontrolaren helburua hau da, lehen ere aurreratu denez: *“Eskaintzaren murrizketari eta legez kanpoko droga-trafikoaren kontrolari laguntzea, eta edari alkoholduen eta tabakoaren sustapenari, publizitateari eta salmentari buruzko tokiko eta autonomia mailako indarreko legedia betearaztea”*³.

Eskariaren murrizketari dagokionez: *“pertsonentzako ekintzetan oinarritua dago, eta jarduteko hiru ardatz ditu: prebentzioa, laguntza eta gizarteratzea. Prebentzioa, bere aldetik, honela dago banaturik, jardun orokorretik hasita populazio hartzaile bereziaren aukeraketaraino: prebentzio unibertsala; prebentzio selektiboa; prebentzio egokitua; eta prebentzio zehatza”*.

² Euskal Autonomia Erkidegoko Drogen Mendekotasunari buruzko V. Plana. 2004-2008. Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila.

³ Ibid.

Babes eta koordinazioko jardueri zegokienez, hau zen planaren jomuga: *“informazioko, prestakuntzako, ikerketako eta ebaluazioko baliabideak sustatzea, eskaintzaren kontrola eta eskaeraren murrizketa lortzeko”*⁴.

Txosten honetan eskariaren murrizketaren inguruko datuak baino ez dira aztertuko, zuzenean pertsonentzat aurrera eramaten diren ekintza eta jarduerak direlako. Era berean, jarduera horien esparruan, hautatu dira populazio hartzailetzat adingabeak, haien familiak eta gazteekin lan egiten duten bitartekariak edo tarteko hartzaileak dituztenak; hain zuzen ere, planean bertan gazteen kolektiboa lehentasunezkoa eta garrantzi berezikoa da. Hala bada, atal honetan, prebentzio arloko jardueretan jarriko da arreta bereziki, eta, zehazki, prebentzio unibertsalaren eta prebentzio selektiboaren arloetako jardueretan, adingabeentzako ekintza gehienak kategoria horietan daudenez gero.

4.1. Prebentzio unibertsalaren arloko jardueren balioztapena

Prebentzio unibertsalaren arloan, V. Planaren iraunaldirako, jomuga hau zen: *“droga-kontsumoaren aurrean, babes-faktoreak indartzea, eta ohitura eta jarrera osasungarriak bultzatzea, batez ere, drogak hartzen hasteko adina atzeratzearen, eta 18 urtetik beherakoen artean kontsumoa saihestearren”*.

V. Planean 7 jarduera ildo eta zeharkako lan estrategia bat jaso ziren (programak taxutu eta abian jartzean genero ikuspegia sartzeko egokitasunari dagokiona). Hala ere, 3 jardun eremurik (hezkuntza, familia eta lana) mugak ongi zehazturik zituzten arren, beste 4 eremuak prebentzio komunitarioaren barruan geratzen ziren, eta azkenik 4 programa ildo geratu ziren aztertzeko.

PREBENTZIO UNIBERTSALAREN ILDOAN SARTUTAKO PROGRAMAK	Programa zabalago batzuen barruan sartutako programak
PU eskola eremuan	
PU familia eremuan	
PU lan eremuan	
PU komunitarioa	PU gazte eremuan
	PU aisialdi eremuan
	PU komunitate eremuan
	PU genero ikuspegitik


⁴ Ibid.

Prebentzio unibertsalaren arlo horren ezaugarrietako bat da filosofia komunitario batean oinarritua egotea; hori dela eta, jarduera asko bultzatzen ditu herri bakoitzean, eta familiak, ikastetxeak nahiz komunitateko baliabideak hartzailetzat dituzten tokiko hainbat esku-hartze-rekin osaturiko sare bat eratzen du.

Prebentzio unibertsalean garatu dira, oso alde handiz, proiektu kopururik handiena, plan osoko bost proiektutik bi arlo horretan zeuden. Horretarako azalpena da udalek eta mankomunitateek aurrera eramaten zituztela gehienetan tokiko proiektu horiek; hala, bada, askotan batzuk besteen kopiak ziren, baina beste herri edo eskualde batean gauzatutakoak.

PU.1.Taula. Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio unibertsalean (2004-2007)

JARDUERA ILDOAK	2004		2005		2006		2007	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
PU hainbat - Prebentzio unibertsala	6	1,7	3	0,6	1	0,2	2	4,2
PU eskola eremuan	63	17,7	76	16,8	86	17,8	78	16,5
PU familia eremuan	43	12,1	60	13,3	59	12,2	56	11,9
PU lan eremuan	21	0,6	4	0,8	9	1,9	5	1,1
PU gazte eremuan	6	1,7	8	1,6	6	1,2	7	1,5
PU aisialdi eremuan	14	3,9	16	3,5	16	3,3	18	3,8
PU komunitate eremuan	35	9,8	42	9,3	37	7,7	29	6,1
PU genero ikuspegitik	1	0,3	0	0,0	0	0,0	0	0,0
PU komunitarioa	56	15,7	66	14,4	59	12,2	54	11,4
PUko proiektuak, guztira	189	47,8	209	46,2	214	44,4	195	41,3
PROIEKTUAK, GUZTIRA	356	100	452	100	482	100	472	100

PU.1. Grafikoa. Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio unibertsalean (2004-2007)

Proiektuen kopurua nabarmenagoa da, baldin baliabide ekonomikoak askoz murrizagoak zirela kontuan hartzen bada, eta hori bat dator esku-hartzeen motarekin: toki mailan gauzatzen ziren proiektuak, eremu txiki batean eta inguruko baliabide komunitarioak erabilita.

Logikoa denez, programa horien izaera dela eta, haien motorra osatzen dute udaletako prebentzio komunitarioko lan taldeetako teknikariek eta prebentzioan espezializaturiko gizarte erakundeetako espezialisten lan taldeek, haiek eramaten baitituzte aurrera esku-hartzeak. Horrez gain, lankidetzeta eta koordinazio ona dago bietariko teknikari taldeen artean, elkarren osagarri diren ideiarekin, nolabait. Hala, bada, biztanle gehiago dituzten udalerrietan, esku-hartzeetako asko gobernuz kanpoko erakunde espezializatuekin hitzarturik daude, eta udalerrri ertain eta txikietan, ordea, bai kudeaketa bai jardunaren zatirik handiena teknikarien gain egoten da, eta azken horiek, sarritan, gizarte ekimeneko proiektuetan sostengatzen dira.

Motor horrek funtzionatzeko erregaia ateratzen da, gehienbat, udaletatik eta Droga Gaie-tako Zuzendaritzatik, laguntzeko proiektuen bitartez (informazioa, dokumentazioa, prestatuntza eta aholkularitza), bai eta laguntzei buruzko agindutik ere. Azken horrek hiru atal ditu: bat GKE-en prebentziorako eta kalteak murrizteko proiektuak finantzatzen laguntzeko; beste bat tokiko erakundeek aurrera eramaten dituzten prebentzioko proiektuak batera finantzatzeko, eta hirugarrena 10.000 biztanle baino gehiagoko toki erakundeek edo erakunde taldeek prebentzioko lan talde teknikoak kontratatzea diruz laguntzeko.

Laguntza horiez gain, esku-hartzeek badituzte beste laguntza batzuk, berariazkoak edo erdi berariazkoak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarenak eta Osasun Sailarenak. Halakoekin osasun hezkuntzako proiektuak sustatzen dituzte ikastetxeetan; lehenak baliabide didaktikoak ematen ditu, eta beste biek osasun hezkuntzako eskola proiektuak diruz laguntzen dituzte.

Kultura Sailak, Gazteria Zuzendaritzaren bitartez, orotariko esku-hartze batzuk eramaten ditu aurrera, gazteen elkartegintza sustatzeko, elkarreetako kideak gaitzeko, eta halako erakundeei laguntza emateko.

Lan eremuko esku-hartzeei dagokienez, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren laguntza, OSALANen bitartez (lan eremuan osasunaz arduratzen den erakundea da), eta Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntza dira nagusi.

Funtsezko egiturak honako zerbitzu hauek ditu osagai:

- 39 zerbitzu tekniko espezializatu; beste hainbeste herritan banatuta daude, eta udalerriei nahiz udalerrit taldeei (mankomunitateak eta bestelakoak) ematen diete zerbitzua:
 - 3 Araban: Gasteizen, Laudion eta Amurrion.
 - 13 Gipuzkoan: Donostian, Andoainen, Arrasaten, Azpeitian, Bergaran, Eibarren, Erreterian ⁽⁵⁾, Hernanin, Hondarribian, Irunen, Oñatin, Tolosan eta Zarautzen.
 - 14 Bizkaian: Bilbon, Arrigorriagan, Barakaldon, Basaurin, Bermeon, Erandion, Ermuan, Galdakaon, Gernika-Lumon, Getxon, Ortuellan, Portugaleten, eta Santurtzin.
 - 3 udalerrit talde Gipuzkoan, lan taldea batera dutenak: Aretxabaleta-Eskoriatza, Ordizia/Beasaingo mankomunitatea (Lazkao, Zaldibia...) eta Zumarraga-Urretxu.
 - mankomunitate Bizkaian: Arratia (Igorre, Lemoa, Zeanuri...); Durangoko Merinaldea (Durango, Elorrio...), Enkarterri (Zalla, Gueñes, Sopuerta...), Lea-Artibai (Markina, Ondarroa, Lekeitio...), Mungialde (Mungia, Bakio...), Txorierrit (Derio, Sondika, Zamudio...) eta Uribe Kosta (Sopela, Urduliz, Berango...).
- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru erakundeko lan talde bat, lurralde horretako 10.000 biztanle baino gutxiagoko 20 udalerrit zerbitzu emateko eratu; hain zuzen, foru erakundearen droga mendekotasunak prebenitzeko plana aurrera eramateko engaiaturik dauden udalerritak dira horiek.
- 13 udalerrit beren planen bitartez eramaten dituzte aurrera prebentziozko jarduerak; haietako asko Droga Gaietako Zuzendaritzaren laguntzak jasotzen dituzte, eta gizarte erakunde espezializatuen lankidetzat erabiltzen dute:
 - Gipuzkoan: Astigarraga, Oiartzun, Orio, Getaria eta Elgoibar. Horiez gain, Pasaian jarduerak gauzatzen dituzte, baina diru laguntzarik eskatu gabe.
 - Bizkaian: Balmaseda, Leioa, Ugao, Muskiz, Urduña eta, azken urteotan, Alonsotegi. Gipuzkoan bezala, Sestaon ere jarduerak gauzatzen dituzte, baina diru laguntzarik eskatu gabe.

⁵ Udalerrit horretan lan egiten zuen teknikariak eritasuneko baimena izan zuen 2006. eta 2007. urteetan, eta, zorigaitzez, zendu egin zen. Udalak, oraindik, ez du beste lan talde bat kontratatu.

- Gizarte ekimeneko 14 erakundek eratutako talde bat:
 - Bostek, beren proiektuak aurrera eramateaz gain, zenbait udalerritan ematen dute zerbitzua, lan talderik ez duten udalerrri batzuetan, besteak beste: AGIPAD, Askagintza, Etorikintza, Ortzadar eta Sasoia.
 - Beste lauk prebentziozko proiektuak aurrera eramaten dituzte: Edex, Hazkunde, Irudi Biziak, eta Drogarik gabe Bizi Fundazioa.
 - Beste bostek unean uneko edo espezializatu gabeko esku-hartzeak eramaten dituzte aurrera: Bihar, Garaia, Keinu, Peter Roberts mimoa eta Pikor Teatro.
- Erakunde horien proiektuetako batzuk beste udalerrri batzuetan aplikatzen dira. Udalerrri horiek ez dute drogen mendekotasunari buruzko tokiko planik, eta ez dute halakorik egiteko asmorik, baina prebentziozko jarduera horien onuradun dira, hala ere. Hauek izaten dira udalerrriok: Gallarta (Abanto), Zornotza, Trapagaran, Deba, Ibarra, Lasarte, Legazpi, Mutriku eta Zumaia.

Mankomunitateak osatzen dituzten udalerrriak kontuan hartuz gero, beste 59 izango genituzke; horrenbestez, guztira 137 herritan aurrera eramaten dira droga mendekotasunen prebentzio unibertsaleko ekimenak.

Prebentzio unibertsaleko programa eskola eremuan

Helburuak

Helburu orokorra: *Eskolako hezkuntza-prozesuaren bitartez, droga-kontsumoaren aurrean, babes-faktoreak indartzea, eta ohitura eta jarrera osasungarriak bultzatzea, batez ere, drogak hartzen hasteko adina atzeratzearen, eta 18 urtetik beherakoen artean kontsumoa murriztearen.*

Helburu hori erdiesteko, helburu operatiboa edo esku hartzeko prozesuaren helburua hau izango da: *Irakaskuntzako zentroei babesa ematea, Osasun Hezkuntza– Drogen mendekotasunen Prebentzioko programak eta jarduerak hobetzeko eta ugaritzeko, betiere Eskola Inklusiboaren ildotik.*

Hartzaileak

- Ikastetxeetako irakasleei emango zaie laguntza, zuzenean.
- Irakasleentzako laguntza hori, zeharka, ikasleentzako (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Bigarren Hezkuntzak) eskola ekimen batzuetan mamituko da.

Gauzatu beharreko ekintzak

Sei ekintza mota daude, ikastetxeetan gauzatzekoak edo ikastetxeetan eragina dutenak:

1. Baliabide didaktikoak zabaldu ikastetxeen artean, osasun hezkuntzaren (OHEZ) arloko esku-hartzeak egitera animatu, eta material hori erabiltzeko orientazioa eman.

2. Droga mendekotasuna prebenitzeko OHEZeko jarduerak, proiektuak eta programak abiarazteko, irakasleei laguntza eman, orientazioa eta aholkuak eman.
3. Irakasle taldeen prestakuntza.
4. Proiektuei diru laguntzak eman.
5. Baliabide didaktikoak sortu eta banatu.
6. Unibertsitate eremuko prebentzioa.

Programa honek ikastetxeei laguntzen die prebentzio unibertsaleko esku-hartzeak aurrera eramanez, eta guztien artean hedadura handienekoa da, logikoa denez, unibertsala delako eta nahitaez eskolaturik dagoen populazio batentzat delako. Ia tokiko plan guztiek programa hori jasotzen dute, eta prebentzio unibertsaleko programetan parte hartzen duten herri gehienek gauzatu egiten dituzte.

Eskola eremuan prebentzio ekimenak aurrera eramanez ahal izateko abian jartzen den lehen ekimena baliabide didaktikoen sorta oso bat editatu eta banatzea da. Horrek, gainera, bide ematen die teknikariei ikastetxeetara inguratzeko, baliabide didaktikoak aurkeztarren eta, horrela, irakasleak sentiberatu eta proiektuan engaiatzera animatzen.

PU.2. Taula. Baliabide didaktiko erabilienak eskolako prebentzio unibertsalean

BALIABIDE DIDAKTIKOAK(*)	ERAKUNDEA
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	
1. "Lagunekin baratzean" 2. "Txotxongiloak"	1. AGIPAD 2. Bihar
Lehen Hezkuntza	
3. "Lagunekin baratzean" 4. "Osasunkume" 5. Txotxongiloak 6. Soziodrama	3. AGIPAD 4. EDEX 5. Bihar 6. Keinua
Bigarren Hezkuntza	
7. "Inesi" 8. Zine Eskola 9. Alkoholaren arriskua 10. Drogak larrugorritan 11. Mimo Mimarte 12. Ordago! 13. Pisa la raya/Zapaldu marra 14. Kontrohol 15. Kerik gabeko gelak	7. Etorkintza 8. Irudi Biziak 9. Sasoia/ Hazkunde/ Ortzadar 10. Askagintza 11. Peter Roberts 12. EDEX 13. Picor Teatro 14. Gasteizko Udala 15. Gasteizko Udala
Ikasketa maila guztiak	
16. Huin Bare	16. Hezkuntza Saila

(*) Baliabide didaktiko hauek gain, beste batzuk erabiltzen dira neurri txikiagoan: "Discover" eta "FEREren Tutorretza Programa", Lehen zein Bigarren Hezkuntzan. Era berean, zentroek fitxak eta beste baliabide didaktiko batzuk lantzen dituzte lan talde teknikoan laguntzarekin, dauden jarduerak ordezkatu edo osatzeko.

Irakasleei, baliabide didaktikoez gain, bestelako laguntzak ematen dizkiete herrietan zerbitzua ematen duten profesionalak, bai udaletako teknikariek, bai hitzarmenak dituzten gizarte erakundeetako teknikariek. Laguntza horiek, gehienetan, ikastetxeentzako aholkua eta orientazioa izaten dira, eta, neurri txikiago batean, ikastetxeko irakasleentzako prestakuntza jarduerak.

Ematen den prestakuntza, oro har, oinarrizkoa da oso. Ikus daitekeenez, ikastetxe bakoitzeko saio bat edo bi egiten dira, batez beste.

Nabarmendu behar da nola azken bi urteetan 340 ikastetxek aholkua jaso zuten; izan ere, oso kopuru handia da.

Laguntza hori, aholkuak izan zein prestakuntza izan, garrantzitsua da ikastetxeentzat, eta badago atzematen den joera bat, xeheago azter litekeena, alegia, laguntza eskaintzen den herrietan ikastetxeek gehiago parte hartzea erdiesten da.

Emandako laguntza mota	2004	2005	2006	2007
Aholkularitza, orientazioa (*)				
ikastetxeak	317	230	342	339
lan saioak	987	772	1.127	1.128
irakasle eta tutoreak	1.165	1.396	1.281	1.113
Prestakuntza jarduerak				
ikastetxeak	83	82	97	163
prestakuntza saioak	335	233	219	340
irakasle eta tutoreak	818	629	714	1.249
Guztira				

(*) Aurrerapen honetan kontuan hartu ez bada ere, telefono bidez edo posta elektronikoki bidez ere laguntza ematen da.

Hezkuntza Sailak badu hitzarmen bat Osasun Sailarekin, ikastetxeetan osasun hezkuntzako proiektuak diruz laguntzeko, eta ikastetxe horien erdiak baino gehiagok droga mendekotasunen prebentziorako jarduerak dituzte.

PU.3. Taula. Osasun hezkuntzako berrikuntza proiektuetarako laguntza ekonomikoei buruzko datuak ()**

Jarduera ildoak	2004	2005	2006	2007
Prebentzioa lantzen duten ikastetxeak (tabakoa, alkohola eta bestelako drogak)	(*)	38	37	36
Diruz lagundutako ikastetxeak, guztira	48	51	62	64

(*) Emandako informazioak ez zuen aukera eman droga mendekotasunen prebentzioan berriaz lan egin zuten ikastetxeak bereizteko, baina gehienek arlo horretan lan egin zuten.

(**) Ikastetxeei zuzenean emandako laguntza ekonomikoa Hezkuntza Sailaren eta Osasun Sailaren arteko akordio batean oinarrituta eman zen, eta diru laguntzei buruzko dekretu baten bitartez gauzatzen da osasun hezkuntzako proiektu bat aurkezten duten ikastetxeetan; ikastetxe gehienek, bestelako gaien artean, droga mendekotasuna lantzen dute.

Programa iristen den ikastetxeen kopurua nahiz ikasleena (100.000 baino gehiago) handiak dira oso, eta unibertsitatearen aurreko ikasketa mailetako ikasle guztien herena gainditzen da.

PU.4. Taula. Eskolako prebentzio unibertsalaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)


Jarduerak, ikasketa mailaren arabera	2004	2005	2006	2007
Haur Hezkuntza				
Udalerriak/Mankomunitateak	25	27	39	32
Ikastetxe kopurua	70	115	135	139
Ikasgela kopurua	261	479	557	523
Ikasle kopurua	4.985	9.197	9.636	9.989
Irakasle kopurua	260	475	509	529
Lehen Hezkuntza				
Udalerriak/Mankomunitateak	53	54	64	57
Ikastetxe kopurua	260	310	319	228
Ikasgela kopurua	2.157	2.372	2.428	2.268
Ikasle kopurua	41.231	45.542	46.132	43.128
Irakasle kopurua	2.040	2.305	2.446	2.491
DBH				
Udalerriak/Mankomunitateak	46	53	57	62
Ikastetxe kopurua	251	271	293	280
Ikasgela kopurua	1.714	2.092	2.107	2.268
Ikasle kopurua	34.109	41.631	41.902	45.133
Irakasle kopurua	1.716	2.447	2.579	2.491
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren Ondokoa				
Udalerriak/Mankomunitateak	35	40	35	32
Ikastetxe kopurua	235	170	161	145
Ikasgela kopurua	693	860	876	647
Ikasle kopurua	13.790	17.115	16.939	12.876
Irakasle kopurua	673	969	939	817
Guztira				
Ikastetxe kopurua (*)	816	869	906	792
Ikasgela kopurua	4.825	5.803	5.968	5.706
Ikasle kopurua	94.115	113.485	114.609	111.126
Irakasle kopurua	4.689	6.196	6.473	6.319

(*) Egia esan, EAEn ez dago ikastetxe kopuru hori, batzuek maila guztiak edo bi maila baitituzte.

Parte-hartze handiari buruzko datuak bat datoz *Drogas y escuela VII* txostenean emanikoekin; hain zuzen, txosten horren arabera, DBHko 2. Zikloko ikasleen %74k, Batxilergoko %83k, eta LHko %61ek adierazi zuten drogei buruzko informazioa jaso zutela beren ikastetxean.

Nabarmendu behar da egiaztatu beharreko joera bat dagoela, alegia, parte-hartzea beherantz doala 2006tik, batez ere Lehen Hezkuntzan. Horren arrazoia izan daiteke norabidea Bigarren Hezkuntzarantz aldatu izana, nerabe jokabideen inguruan, edo prebentzio selektiboan interes handiagoa egotea, edo Lehen Hezkuntzako baliabide didaktikoen nekea. Azpimarratzeko alderdietako bat da Gipuzkoan presentzia askoz handiagoa dela Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, eta Araban nahiz Bizkaian, aldiz, bi ikasketa mailen artean aldeak oso txikiak direla.

PU.4. Grafikoa. Eskolako prebentzio unibertsalaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)



Unibertsitate eremuko prebentzioa bestelako dinamika du, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan baliatutakoaren aldean. Unibertsitatean ez da irakasleengana iristen saiatzen, eta ikasleak berak erabiltzen dira beste ikaskide batzuegana iristeko.

Jarduera nagusiak campusetan egiten diren 16 orduko lantegiak dira. Haien helburua da prestatzaileak prestatzea, ikasleek bitartekari lana egin dezaten eta, aldi berean, ikaskideen artean neurritz jokatzeko mezu horiek zabal ditzaten. Jarduera horrekin batera, beste laguntza batzuk ere ematen dira, hala nola materiala eskuratzea.

PU.5. Taula (1). Unibertsitate eremuko prebentzioa (2004-2007)

	2004	2005	2006	2007
Parte-hartzaile kopurua	161	184	111	136
Egiten den campusak	4	4	5	4

Campus horiek Arabakoa, Bizkaikoa, Gipuzkoako eta Deustuko Unibertsitatekoa. Sarrikon ere egin zen 2006. urtean.

Prebentzio unibertsaleko programa familia eremuan

Helburua(k)

Helburu orokorra: *Familiako hezkuntza-prozesuaren bitartez, droga-kontsumoaren aurrean, babes-faktoreak indartzea, eta ohitura eta jarrera osasungarriak bultzatzea, batez ere, drogak hartzen hasteko adina atzeratzearen, eta 18 urtetik beherakoen artean kontsumoa murriztearren.*

Helburu orokor hori erdiesteko, helburu operatibo hau proposatzen da: *Seme-alaba adingabeak dituzten familiei babesa ematea, sentsibilizazio, informazio, prestakuntza eta aholkularitza esku-hartzeak hobetuta eta ugarituta, hezkuntza-lanean behar bezala inplika daitezen, eta batik bat, drogen mendekotasunen prebentzioarekin loturiko lanean.*

Hartzaileak

18 urtetik beherako seme-alaben gurasoei edo tutoreei emango zaie babesa, zuzenean.

Gurasoen edo tutoreen babes horrek familien barruko hezkuntza hobetuko du, zeharka, EAEko 18 urtetik beherako neska-mutilen mesederako.

Gauzatu beharreko ekintza garrantzitsuenak

1. Gurasoentzako prestakuntza jarduerak. Nolabaiteko bertaratze betebeharrarekin, loturiko bi prestakuntza saio dituzte gutxienez.
2. Gurasoentzako informazio eta sentiberatze jarduerak hainbat saiotan bana daitezke eta prestakuntza jardueren ordean egin daitezke, baina saioak unean unekoak dira, ez daude elkarren artean lotuak, eta bertaratzea librea da.
3. Gurasoentzako banakako kontsulta zerbitzua, zalantzak argitzeko eta zerbitzu espezializatuetera bidera daitezkeen kasu arazotsuak identifikatzeko bide gisa. Kasu batzuetan, teknikariak prebentzio selektiboaren mailan ere kokatzen dira.
4. Ikasleen gurasoentzako aldizkariak eta aldizkako buletinak, gurasoengana iristeko bide gisa sortuak; hain zuzen ere, prestakuntza proiektuetako zein unean uneko jardueretako parte-hartzea oso txikia delako.

Planteaturiko programen artean, hau bigarrena da irismen handienekoetan, eta aurrekoarekin bat dator izaera unibertsalekoa nahiz eskola adineko seme alabak dituzten gurasoentzat izanik; horrenbestez, populazio hartzailearengana iristeko bide errazak ditu. Aurreko programan bezala, ia tokiko plan guztiek programa hori jasotzen dute, eta prebentzio unibertsaleko programetan parte hartzen duten herri gehienek gauzatu egiten dituzte.

Ildo horretan egin ziren lehen ekimenak "gurasoen eskolak" izan ziren; gaur egun ere egiten dira "prestakuntza proiektuak" deituta, eta presentzia zerbait dute oraindik. Horiei gainerako ekimenak gehitu zaizkie, gurasoen egoera eta aukera berriei erantzuna emateko bide gisa.

Programa hau mantentzen da tokiko teknikarien eta gizarte ekimenaren lanari esker; hain zuzen ere, haiek aurrera eramaten dituzte jarduerak guztiak, Droga Gaietako Zuzendaritzaren laguntza ekonomikoa jasota.

PU.6. Taula. Familiako prebentzio unibertsalaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)

Jarduerak, ikasketa mailaren arabera	2004	2005	2006	2007
Prestakuntza jarduerak				
Udalerriak/Mankomunitateak	54	54	48	51
Ikastetxe/guraso elkarte kopurua	335	302	325	287
Jarduera/proiektu kopurua	369	415	312	330
Saio kopurua	2.237	1.999	2.142	2.177
Parte-hartzaile kopurua	11.963	11.669	9.083	11.916
Saioak proiektuko	6,1	4,8	6,9	6,6
Parte-hartzaileak proiektuko	32,4	28,1	29,1	36,1
Informazio saioak				
Udalerriak/Mankomunitateak	23	19	32	25
Ikastetxe/guraso elkarte kopurua	53	61	136	82
Jarduera/proiektu kopurua	92	56	150	159
Parte-hartzaile kopurua	2.073	2.537	3.413	2.835
Parte-hartzaileak proiektuko	22,5	45,3	25,1	17,8
Kontsulta zerbitzua(*)				
Udalerriak/Mankomunitateak	15	18	26	23
Kontsulta pertsonalen kopurua	304	613	629	437
Telefono bidezko kontsulten kopurua	153	323	630	808
Bideratutako familia kopurua	124	143	181	108
Buletinak				
Udalerriak/Mankomunitateak				
Herri kopurua	20	25	28	26
Buletin kopurua urteko	46	77	85	78
Ale kopurua zenbakiko	93.612	165.244	282.978	181.625
Buletin kopurua herriko	2,3	3,08	3,04	3

(*) Kontsulta zerbitzu batzuk prebentzio selektiboan kokatzen dituzte tokiko lan talde teknikoek, eta, beraz, bi eremuetan ageri dira.

Prebentzio unibertsaleko programa eremu komunitarioan

Arlo honen guztiaren sarreran azaldu dugu nola multzokatzen diren honako lau eremu hauek prebentzio komunitarioaren ildoaren barruan:

1. Prebentzio unibertsaleko programa ildo aisialdi eremuan.
2. Prebentzio unibertsaleko programa ildo herritar guztientzat, oro har.
3. Prebentzio unibertsaleko programa ildo gazte eremuan.
4. Prebentzio unibertsaleko programa ildo genero desberdintasunei begira.

Esku-hartze horietako askok, gainera, ekintza mota berak baliatzen dituzte, hala nola prestatzea, sentiberatzea eta informazioa ematea zuzeneko jardueren bitartez edo selektiboak edo tokian tokikoak diren komunikabideen bitartez.

Helburua(k)

Ildo hauen helburu orokorrak ez dira guztiz berdinak, eta, beraz, bi helburu orokor bereiz daitezke, dagozkien helburu operatiboekin:

Helburu orokorra: Astialdiko gune antolatuetan sustaturiko hezkuntza prozesuen bitartez, droga kontsumoaren aurrean babes faktoreak indartzea eta jarrera eta ohitura osasungarriak bultzatzea.

Helburu operatiboa: Aisialdi eta astialdiko guneetan hurrekin eta gazteekin jarduerak egiten dituzten erakundeei laguntza ematea, sentiberatze, informazio, prestakuntza eta aholkularitza esku-hartzeak hobetuz eta ugarituz, droga mendekotasunen prebentzioarekin loturiko lanean behar bezala engaia daitezen.

Helburu orokorra: Droga mendekotasunaren inguruan gizarteak dituen irudikapenak aldatzea, errealitate objektibora gerturatzeko.

Helburu operatiboa: Droga mendekotasunen fenomenoari buruzko informazio objektiboa eta egiaztagarria ematea, gehiago sentiberatzeko eta eskaera murrizteko prozesuetan komunitateak parte-hartze handiagoa izateko.

Hartzaileak

Komunitate bateko kide oro, batik bat, gizarte rolaengatik edo ezaugarri pertsonalengatik lider gisa jokatzeko dutenak.

Gauzatu beharreko ekintzak

Bai proiektu kopuruagatik, bai parte hartzen duten erakunde ugariengatik, programa honek ere irismen handia du. Aurreko kasuetan bezala, ia tokiko plan guztiek proiektu horiek jasotzen dituzte, eta, halaber, aurreko programan bezala, lanaren zama udaletako nahiz gizarte erakundeetako lan talde teknikoek dute beren gain, Droga Gaietako Zuzendaritzaren laguntzarekin.

Programak biltzen dituen ekimenak askotarikoak dira, eta, askotan, zaila da haiek taldekatzea. Hain zuzen ere, herri batean edo bitan jarduera zerrenda oso bat dute: irratiko edo, are, telebistako programak, kartelen, kamiseten eta antzekoen lehiaketak, erakusketak, zineforuma, tokiko aldizkarietako artikulua, liburuxkak eta kartelak egin, editatu eta banatzea, eta abar. Hedapen handia eta kopuru txikia dituztenez, zaila da funtsezko azalpena ematea, eta, horrenbestez, lau jarduera nagusi egonkorrenak hartu ditugu kontuan:

1. Herritarrek parte hartzeko foroak sustatu eta garatzea.
2. Gizarte bitartekariak prestatzea: astialdiko begirale gazteak, udaltzainak, gazte eta kirol elkarteak, eta abar
3. Gizarte bitartekariak informatzea eta sentiberatzea hitzaldien edo eztabaiden bidez, jarraitutasunik gabe.
4. Autoeskoletako ikasleentzako lantegiak.

PU.7.Taula. Prebentzio unibertsal komunitarioaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)

Jarduerak, ikasketa mailaren arabera	2004	2005	2006	2007
Parte-hartzeko foroak				
Udal eta mankomunitate kopurua	12	11	7	7
Topaketa kopurua	56	57	39	26
Erakunde kopurua	202	102	67	39
Erakundeak foro bakoitzeko	16,8	9,3	9,6	5,6
Topaketak foro bakoitzeko	4,7	5,2	5,6	3,7
Prestakuntza edo informazio proiektuak dituzten udal eta mankomunitateen kop.	33	51	39	38
Prestakuntza proiektuak				
Jarduera/proiektu kopurua	41	99	190	24
Parte-hartzaile kopurua	5131	2.580	2104	212
Parte-hartzaileak proiektuko	125,1	26,1	11,1	8,8
Informazio jarduerak				
Jarduera/proiektu kopurua	104	142	368	47
Parte-hartzaile kopurua	5.229	9.265	15.826	12.074
Parte-hartzaileak proiektuko	50,3	65,2	43,0	256,9

Prestakuntza jarduera berri bat abiarazi zen 2005ean autoeskoletan, laster errepidean egongo ziren gidari hasiberrien artean arriskuak murrizteko helburua zuena. Proiektu horrek ildo berari eutsi dio azken urteetan.

PU.8. Taula. Autoeskoletako esku-hartzea (2004-2007)⁶

Jarduera ildoak	2004	2005	2006	2007
Herriak		21	20	20
Autoeskola kopurua		42	51	31
Parte-hartzaileak, ikasleak		642	521	487
Ikasleak autoeskolako		15,3	10,2	15,7

Eusko Jaurilaritzako Kultura, Gazteria eta Kirol Sailaren Gazteria Zuzendaritzak diru laguntzak eman ditu gazte erakundeek sustaturiko jarduerak gauzatzeko, hala nola prestakuntza eta partaidetza jarduerak. Horren guztiaren helburua orotarikoa da; izan ere, jarduera horiek ez dira antolatzen kontsumo arazotsuak murrizteko helburuarekin, baizik eta gazteen egoera hobetzeko, oro har, elkartegintzari, herritarren parte-hartzeari eta aisialdiari dagokienez, hain zuzen.

4.2. Prebentzio selektiboaren arloko jardueren balioztapena

Drogen mendekotasunari buruzko V. Planeko prebentzio selektiboaren arloaren helburua honako hau da: *“kolektibo eta talde kalteberetan, arrisku-faktoreak murriztea eta droga-kontsumoaren inguruko jarrera arduratsuak bultzatzea, batez ere, drogak hartzen hasteko adina atzeratzearen, adingabeen artean kontsumoa murriztearen, eta gazteen erabilera problematikoak saihestearren.”*

Helburu hori erdieste aldera, Droga Mendekotasunari buruzko V. Planean bost jarduera ildo ezarri ziren:

1. Hezkuntza eremuan.
2. Familia eremuan.
3. Aisialdi eremuan.
4. Komunitate eremuan.
5. Prebentzio selektiboaren esparruan aurrera eramango diren programetan eta ekintzetan neurri egokiak ezartzea, gizonezkoen eta emakumezkoen artean arriskuek eta egoera ahulean egoteko faktoreek dituzten desberdintasunak aintzat harturik.

Prebentzio unibertsalarekin bat etorriz, ongi zehazturiko mugak dituzten bi programa ildo zeuden, hain zuzen ere, eskola eremuarena eta familia eremuarena. Esku-hartze komunitarioak eta aisialdi eta astialdiaren eremuko esku-hartzeak nahasi egiten ziren. Bestalde, 5. ildo ere, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak aintzat hartzen zituen, zeharkako estrategia bat zen, ildo operatibo bat baino gehiago.

⁶ 2004. urtean jarduera ez zen egin.

Zertzelada horiek direla eta, gure aburuz egokiena da ildo eta programak hirutara biltzea:

PREBENTZIO SELEKTIBOAREN ILDOAN SARTUTAKO PROGRAMAK	Programa zabalago batzuen barruan sartutako programak
PS hezkuntza eremuan	
PS familia eremuan	
PS komunitate eremuan	PS aisialdi eremuan
	PS komunitate eremuan
	PS perspectiva de género

Prebentzio selektiboaren arloa bigarrena da proiektu kopuruari dagokionez. Azalpena prebentzio unibertsalaren kasuaren bera da, alegia, udaletako, mankomunitateetako eta gizarte erakunde espezializatuetako lan talde teknikoek eramaten zituztela aurrera proiektuak.


Prebentzio selektiboan estrategia komunitarioa baliatzen da, nolabait prebentzio unibertsalean bezala, alegia, komunitateko baliabideak erabiltzeari eta esparru horietatik bultzada emateari dagokionez.

PS.1. Taula. Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio selektiboan (2004-2007)


Jarduera ildoak	2004		2005		2006		2007	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
PS hainbat - Prebentzio selektiboa	5	1,4	2	0,4	3	0,6	2	0,4
PS hezkuntza eremuan	17	4,8	21	4,6	30	6,2	29	6,1
PS familia eremuan	4	1,1	8	1,6	12	2,5	13	2,8
PS aisialdi eremuan	15	4,2	22	4,8	24	5,0	22	4,7
PS komunitate eremuan	17	4,8	15	3,3	10	2,1	15	3,2
PS genero ikuspegitik	–	0,0	2	0,4	1	0,2	1	0,2
PS komunitate eremuan	32	9,0	39	8,6	35	–	38	8,1
Prebentzio selektiboa, guztira⁷	58	16,3	70	15,5	80	16,6	82	17,4
V. PLANEKO PROIEKTUAK, GUZTIRA	356	100	452	100	482	100	472	100

⁷ "Prebentzio selektiboa, guztira" izanburupean ageri diren zenbateko absolutuek eta ehunekoek adierazten dute prebentzio selektiboko programen guztizkoa (N) eta haien ehunekoa (%) V. Planeko programa guztien aldean (horien artean badira, gaienra, prebentzio unibertsalekoak, prebentzio egokitukoak, laguntzakoak, eta abar). Jakina, zutabeetako ehunekoen batura ez da 100; hain zuzen, hor ageri den ehunekoa planeko programa guztien (%100) aldean prebentzio selektiboko programek duten ehunekoa da.

PS.1. Grafikoa (1). Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio selektiboan (2004-2007)



PS.1. Grafikoa (2). Urtean gauzatutako proiektuak prebentzio selektiboan (2004-2007)



Esku-hartze selektiboa unibertsala baino askoz berriagoa da, eta azken urte hauetan garatu da, udaletako prebentzio komunitarioko lan taldeetako eta gizarte ekimeneko teknikari eta espezialista gutxi batzuek bultzaturik; hain zuzen ere, horiek dira esku-hartzeak gauzatzen dituztenak.

Duen izenarekin bat, era horretako prebentzioa ez da herritar guztientzat, baizik eta hainbat faktorerengatik egoera bereziki ahulean dauden pertsona taldeentzat. Horrenbestez, ez du prebentzio unibertsalaren irismen bera izan behar, eta ez du hain pertsona kopuru handiari zerbitzua eman behar; hala ere, horrek ez du eragozpenik jartzen unibertsalarenaren antzeko presentzia geografikoa izateko.

Eremu hau aztertzerakoan topatzen dugun zailtasun garrantzitsu bat da prebentzio selektiboaren eta unibertsalaren arteko mugak ez direla beti zehatzak; izan ere, maila honen barruan, prebentzio unibertsaleko esku-hartze batzuk gaineratu dira, baina irakaskuntza ertaineko ikasleen artean alkoholaren kontsumoagatik arriskuak murriztera bideratuak. Zailtasun hori pixkanaka zuzendu da, eta esku-hartze horiek hobeto definitu dira; hala ere, prebentzio selektiboaren arloan sartutako esku-hartze gutxi batzuk, baina garrantzitsuak, benetan prebentzio unibertsalekoak dira.

Arlo honetan parte hartzen duten erakundeek dagokienez, honako alderdi hauek aipa daitezke:

1. Prebentzio unibertsalaren kasuan bezala, proiektu horien motorra tokiko lan talde teknikoetan eta, bereziki, arlo honetan engaiaturik dauden GKE espezializatu jakin batzuetako lan talde teknikoetan dago. Hala ere, proiektuok gauzatzeko laguntza ekonomikoa nagusiki tokiko erakundeek berezko baliabideetan oinarritzen da, bai eta Droga Gaietako Zuzendaritzan ere (laguntza proiektuak eta laguntzei buruzko aginduko proiektuak).
2. Arlo honen aldeko apustua egiten ari dira 20 bat udalerrri eta mankomunitate hezkuntza eremuetan –batez ere ikastetxeetan, familia eremuan eta ingurune irekiko hezkuntzan (egoera ahuleko adingabeak)–. Beste 10 ez daude hain sendo engaiatuta, baina arriskuak murrizteko baliabideak (Testing, esate baterako) erabiltzen ari dira.
3. Ba daude lan arlo hau jorratzen ari diren gizarte erakunde batzuk, bai hezkuntza proiektuen bitartez, bai unean unekoagoak diren arriskuak murrizteko esku-hartzeak sustatuz: AGIPAD, Ai-Laket, Askagintza, BIGE-Ados, Etorkintza, Hazkunde, Ortzadar, Sasoia, Iniciativa Gitana eta Kale dor Kayiko.
4. Beste gizarte erakunde batzuek ez dute garatzen droga mendekotasunari buruzko berriazko proiekturik, eta, beraz, ez dute diru laguntzarik jasotzen eta ez dira baliotzatzen, baina arloko ekimenetan laguntzen eta parte hartzen dute askotariko moduetan. Hona hemen garrantzitsuenak: Aldaika, Agintzari, Berriztu, Kalexka, Margotu, Susterra.
5. Laguntza horiez gain, esku-hartzeek badituzte beste laguntza bat, orotarikoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarena, irakaskuntza ez-araturako laguntzen bidez: HHErako (helduen hezkuntza iraunkorreko ikastetxeak) eta LHIKetarako

(lanbide hastapenatarako ikastegiak). Erakunde horrek unean unekoak eta orotarikoak diren beste bi ekimenetan ere lagundu du; bi ekimenak egoera ahulean dauden adingabeentzat dira: SAIO proiektua, Hezkuntza Sailak eta Bizkaiko Foru Aldundiko gizarte zerbitzuek aurrera eramaten duten proiektu bat; eta ingurune irekiko hezkuntza programa bat, arrisku egoeran dauden adingabeentzat, Hezkuntza Sailak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin lankidetzan diharduela.

Prebentzio selektiboko programa eskola eremuan

Helburuak

Helburu orokorra: Egoera ahulean dauden ikasleen droga kontsumoari loturiko babes faktoreak indartzea eta arrisku faktoreak murriztea, drogak hartzen hasteko adina atzeratzearen, adingabeen artean kontsumoa murriztearen, eta erabilera arazotsuak saihestearren.

Helburu operatiboa: Ikastetxeei tresna pedagogiko batzuk eskaintzea drogen kontsumoarekin eta harekin lotura duten egoeren inguruko arrisku faktoreak gainditzeko.

Hartzaileak

- Azken hartzaileak: gabezia nabarmenak (eskola porrota, familiako zailtasunak, kontsumo goiztiarra, eta abar) dituzten ikasleak, gabezia horiek direla eta, droga kontsumo arazotsuen aurrean gainerakoak baino egoera ahulagoan daudenean.
- Zeharkako hartzaileak: gabezia nabarmenak dituen ikasle kopuru handia hartzen duten ikastetxeetako edo ikasgela jakin batzuetako irakasleak.

Gauzatu beharreko ekintzak

Hiru ekintza mota daude, ikastetxeetan gauzatzekoak edo ikastetxeetan eragina dutenak:

1. Irakasleei prestakuntzaren eta aholkularitzaren bitartez laguntzeko ekimenak.
2. Ikasgelan baliabide didaktikoak eta/edo aurrez aurreko baliabideak sustatzea.
3. Irakasleen eta/edo langile espezializatuen eskutik ikasgelan egiteko jarduerak biltzen dituzten proiektuak eta jarduerak aurrera eramatea, egoera ahulean dauden ikasleentzat. Kasuak detektatzeko eta beste baliabide batzuetara bideratzeko ekimenak.

Eskola eremuko prebentzio selektiboko programa garatuena da, tartean diren baliabide eta ahaleginei dagokienez. Hasieran ere aipatu genuenez, ikus daiteke hogeit bat herri daudela proiektuan engaiaturik (PS.4. Taula). Horrelako proiektuak babesteko, konpromisoak nahikoa handia izan behar du; izan ere, kasu askotan irakasleei eskatzen zaien maila prebentzio unibertsalean eta arriskuak murrizteko ekimenetan baino handiagoa da.

PS.2. Taula. Irakasleentzako laguntzari buruzko datuak eskola eremuko prebentzio selektiboan (2004-2007)

Emandako laguntza mota	2004	2005	2006	2007
Aholkularitza, orientazioa (*)				
ikastetxeak	31	30	59	50
lan saioak	72	232	122	229
irakasle eta tutoreak	113	163	164	169
Prestakuntza jarduerak				
ikastetxeak	26	30	62	36
prestakuntza saioak	18	96	106	117
irakasle eta tutoreak	60	222	349	275

Irakasleentzako aholkularitza eta prestakuntza bere horretan eutsi zaie, eta ikastetxe kopuru handi batera iritsi da. Prebentzio selektiboaren definizioak berak adierazten du talde bat hautatu behar dela (ikastetxe bat, ikastetxeko ikasgela jakin batzuk, eta abar), eta ez dela guztientzat; horrenbestez, normala da prebentzio unibertsalaren hedapen bera ez izatea.

Nahiz eta 2007an artean materialik banatu ez zen, baziren ordurako bi baliabide, 2008an banatu zirenak: Hazkunde erakundearen Motiva gida eta Etorkintza fundazioaren *Ni nerabe gaztea*.

Ekimen horien lagungarri gisa, ikasgelan arriskuak murrizteko beste esku-hartze batzuk ere aurrera eramaten dira, aipatu ditugun gizarte erakundeetako batzuen eskutik.

Programak duen irismena oso handia da; hain zuzen ere, ehun eta berrogeita hamar ikastetxe inguruk aurrera eramaten dituzte prebentzio selektiboko jarduerak, eta, gainera, gero eta interes handiagoa dago era horretako esku-hartzeen inguruan, ikastetxeen, ikasleen eta irakasleen kopuruak gora egiten baitu.

PS.3. Taulan ikus daitekeenez, esku-hartze gehiago egiten dira DBHko ikastetxeetan eta Lanbide Hastapenatarako Ikastegietan; izan ere, han metatzen direlako eskola eremuko arazoak dituzten ikasleak. LHIKen kasuan, derrigorrezko bigarren hezkuntza gainditu ez dutenentzako irtenbidea delako, eta DBHaren kasuan, derrigorrezkoa denez gero, ikasleek bertan egon behar dutelako, bai prozesu normala daramatenek, bai hainbat zailtasun dituztenek.


PS.3. Taula. Eskolako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)

Jarduerak, ikasketa mailaren arabera	2004	2005	2006	2007
Eskolako prebentzio selektiboko proiektuak dituzten udal eta mankomunitateen kopurua(*)	23	17	21	20
DBH				
Ikastetxe kopurua	30	36	56	67
Ikasgela kopurua	67	192	335	342
Ikasle kopurua	1.817	3.841	6.667	6.328
Irakasle kopurua	149	218	421	480
Batxilergoa				
Ikastetxe kopurua	19	5	38	31
Ikasgela kopurua	62	13	234	119
Ikasle kopurua	1.229	259	4.657	3.681
Irakasle kopurua	28	38	603	143
LHko modulua				
Ikastetxe kopurua	15	16	31	22
Ikasgela kopurua	62	39	168	120
Ikasle kopurua	1.227	776	3.343	2.885
Irakasle kopurua	25	42	156	200
LHIK				
Ikastetxe kopurua	30	16	27	43
Ikasgela kopurua	76	84	186	194
Ikasle kopurua	1.143	1.672	3.701	3.244
Irakasle kopurua	121	113	206	321
Guztira				
Ikastetxe kopurua	94	73	152	163
Ikasgela kopurua	277	329	923	775
Ikasle kopurua	5.416	6.548	18.368	15.422
Irakasle kopurua	323	411	1.386	1.144

(*) Proiektu hauen hedapena dela eta, ez da zentzuzkoa udalen eta mankomunitateen aldagaiak kategoriatan aplikatzea, baina bai, ordea, esku-hartzeen multzoan oro har.

Zenbakitan, esku-hartzeen kopurua handia den arren, esku-hartzeen sendotasuna ez da berdin balioztatu behar; izan ere, gehienak unean uneko esku-hartzeak dira, gehienbat arriskuak murriztekoak, eta ez ikastetxearen proiektuak garatzekoak.

PS.4. Grafikoa. Eskolako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)



Arlo honek gero eta garrantzi handiagoa izatea, beharbada, prebentzio unibertsaleko emaitzak murrizten ari da, batez ere Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasmailetan, esku hartzeko premia ikusten ez baita.

Prebentzio selektiboko programa familia eremuan

Helburuak

Helburu orokorra: Familiaren funtzionamendu eredu desegokiak aldatzea, eta familiako babes faktoreak indartzea, drogak hartzen hasteko adina atzeratzearen, adingabeen kontsumoa murriztearen, eta erabilera problematikoak saihestearren.

Helburu operatiboa: Seme-alaben gatazka jokabide gatazkatsuak behar bezala onbideratzeko, eta droga kontsumoari loturiko arrisku faktoreak gainditzeko, familiei babesa ematea (informazioa, prestakuntza, trebakuntza, aholkuak, orientazioa...).

Hartzaileak

- Azken hartzaileak: gabezia nabarmenak (eskola porrota, familiako zailtasunak, kontsumo goiztiarra, eta abar) dituzten haur, nerabe eta gazteak, gabezia horiek direla eta, droga kontsumo arazotsuen aurrean gainerakoak baino egoera ahulagoan daudenean.
- Zeharkako hartzaileak: Gabezia nabarmenak dituzten haur, nerabe eta gazteen gurasoak.

Gauzatu beharreko ekintzak

Familia eremuan zabala da prebentzio selektiboko esku-hartzeen sorta. Batzuk zailtasun handiagoak dituzten pertsonentzat egokitutako prebentzio unibertsaleko esku-hartzeak dira, hala nola gurasoentzako prestakuntza jarduerak, informazio eta sentiberatze jarduerak, eta familiez banaka arduratzeko jarduerak. Hala ere, beste ekimen batzuk berriagoak dira, hala nola ikastetxearen eta familiaren arteko bitartekaritza, eta ekimen horiek oso aukera interesgarria eskaintzen dute.

Horrenbestez, laburbilduz, 4 ekintza mota daude:

- Guraso taldeentzako prestakuntza.
- Guraso taldeentzako informazioa.
- Ikastetxearen eta familiaren arteko bitartekaritza.
- Familientzako banakako laguntza eta orientazioa.

PS.5. Taulan jasotako joeraren arabera, badirudi familia eremuko prebentzio selektiboko ekimen batzuk beherantz doazela Horri buruz egiten dugun interpretazioa ez da zehazki hori; hain zuzen ere, gaur egun programan dauden proiektuak ez dira asko, baina ez dugu uste lehen askoz gehiago zirenik. Gertatu da prebentzio unibertsalaren eta prebentzio selektiboaren arteko mugak ez direla oso zehatzak, eta V. Planaren hasieran profesional askok ez zutela behar adina datu bi mailak bereizteko; horrenbestez, prebentzio selektiboaren barruan ez zegozkion esku-hartze batzuk sartu zituzten, eta pixkanaka muga zehatzagoetara egokitu dira esku-hartze horiek.

Kontuan izan behar da prebentzioaren antolamendu hori aplikatzen duen lehen plana dela eta, gainera, bereizketa hori guztiz berritzailea zela V. Planaren hasieran; horrenbestez, egokitzapen doi eta zehatza lortzea zaila izan da.

PS.4. Taula. Familiako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)

Jarduerak, ikasketa mailaren arabera	2004	2005	2006	2007
Familiako prebentzio selektiboko proiektuak dituzten udal eta mankomunitateen kopurua(*)	20	15	13	9
Prestakuntza jarduerak				
Ikastetxe/guraso elkarte kopurua	35	22	19	15
Saio kopurua	314	275	296	118
Parte-hartzaile kopurua	193	862	333	360
Saioak proiektuko	9,0	12,5	15,6	7,9
Parte-hartzaileak proiektuko	5,5	39,18	17,5	24
Informazio saioak				
Ikastetxe/guraso elkarte kopurua	2	2	8	6
Jarduera/proiektu kopurua	2	4	12	6
Parte-hartzaile kopurua	9	9	16	260
Parte-hartzaileak proiektuko	4,5	4,5	2	43,3
Kontsulta zerbitzua				
Herri kopurua	17		10	6
Kontsulta pertsonalen kopurua	486	293	223	207
Telefono bidezko kontsulteren kopurua	231	181	85	46
Bideratutako familia kopurua	104	34	57	33
Ikastetxearen eta familiaren arteko bitartekaritza				
Herri kopurua	5	6	6	9
Ikastetxe kopurua	24	8	9	19
Familia kopurua	209	9	22	81

(*) Proiektu hauen hedapena dela eta, ez da zentzuzkoa udalen eta mankomunitateen aldagaia kategoria guztietan aplikatzea, baina bai, ordea, esku-hartzeen multzoan oro har.

Familiaren eta ikastetxearen arteko bitartekaritzaren garrantzia nabarmentzen dugu. Eta esku-hartzeen diseinuari dagokionez, kontuan izan behar dira litzateke familientzako kontsulta zerbitzuak non sartu behar diren, prebentzio unibertsalean, selektiboan zein egokituan koka baitaitezke.

Prebentzio selektiboko programa komunitate eremuan

Prebentzio selektibo komunitarioaren, aisiaguneetako prebentzioaren eta genero desberdintasunak aintzat hartzen dituen ildo bateratzean, helburuak, hartzailleak eta gauzatu beharreko ekintzak definitzeko proposamen bat egiten da.

Helburuak

Helburu orokorra: egoera ahulean dauden haur, nerabe eta gazteen eta/edo droga-erabilzaileen kontsumoari lotutako arrisku faktoreak eta arriskuak berak murriztea, eta babes faktoreak indartzea, komunitatearen baliabideak erabilia.

Helburu operatiboa: Egoera ahulean dauden haur, nerabe eta gazteei babes ematea (informazioa, prestakuntza, trebakuntza, aholkularitza, orientazioa, eta abar), komunitateak eskaintzen dituen baliabideen bitartez, drogen kontsumoari lotutako arrisku faktoreak eta arriskuak berak murriz ditzaten.

Hartzailleak

- Azken hartzailleak: gabezia nabarmenak (eskola porrota, familiako zailtasunak, kontsumo goiztiarra, eta abar) dituzten eta/edo egoera ahulagoan dauden eta/edo aisiarako drogak kontsumitzen dituzten haur, nerabe eta gazteak.
- Zeharkako hartzailleak: Haur, nerabe eta gazte talde horiekin harremanak dituzten komunitatearen baliabide eta zerbitzuetako pertsonak.

Gauzatu beharreko ekintzak

Askotariko esku-hartzeak daude arlo honetan, eta honako hiru ildo handi hauetan daude antolatuturik:

1. Bazterketa arriskuan dauden adingabe eta gazteekiko gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak, ingurune irekian eta/edo adingabeentzako egoitzazko baliabideetan. Droga mendekotasunaren prebentzio zerbitzuen eta gizarte eta hezkuntza arloko zerbitzuen arteko koordinazioa eta lankidetzak hartzen ditu barnean, bai eta gizarte eta hezkuntza arloko lan taldeentzako prestakuntza eta informazio jarduerak ere.
2. Drogak kontsumitzen diren jai giroetan arriskuak murrizteko ekintzak.
3. Diskoteketako ostalaritzako profesionalei begirako ekintzak.

Gizarte eta hezkuntza arloko taldeekin egiten diren esku-hartze gehienak aurrera eramaten dira tokiko gizarte zerbitzuetako gizarte eta hezkuntza arloko esku-hartzeak adingabeekin eta ingurune irekian egiten dituzten lan taldeen bitartez; besteak beste, lan talde horiek, beren zereginen artean, hartzen dute artatzen dituzten adingabeen artean drogen kontsumoa murriztea.

Bizkaiko herri batzuetan, arriskuan dauden nerabe eta gazteen artean drogen kontsumo arazotsuak saihesteko berariaz sortutako lan taldeak daude. Ingurune irekian lan egiten dute, eta, hala ere, jasotako datuen arabera, beste hezkuntza eremu batzuetara bideratzeko joera dute, kalea utzita. Droga mendekotasunaren prebentzioa beren gain hartzen duten eta adingabeekin ingurune irekian egiten diren hezkuntza proiektuen kasuan, egiten duten lanaren parte bat Gazte-lekuen moduko topaketa tokietara lekualdatzen da.

PS.5. Taula. Adingabeekin ingurune irekian egindako esku-hartzeen motak eta irismena (2004-2007)

Jarduerak, ikasketa mailaren arabera	2004	2005	2006	2007
Adingabeekin ingurune irekian prebentzio selektiboko proiektuak dituzten Udal eta mankomunitateen kopurua	15	13	12	5
Gobemuz kanpoko erakundeak		3	3	3
Atzematea	1.462	1.250	1.039	1.058
Harremanetan jartzea	1.146	1.232	1.303	1.134
Drogari buruzko informazioa	901	544	536	908
Jarraipena	697	608	421	167
Osasun hezkuntza drogaren prebentziora	565	477	292	135
Okupazioa	278	221	205	84
Arauak	439	541	317	145
Judizialak	106	123	67	17
Familia	185	168	202	123
Beste batzuk	135			

Horretaz gain, Etorikintza Fundazioak berariazko esku-hartzerako proiektu bat du, egoera ahulagoan dauden emakume gazteekin lan egiteko; hain zuzen, beren familiekin bizi ezin diren neskenzako bi egoitzatan esku hartzen dute. Jarduerak, zerbitzuaren erabilizailerentzakoak (14-27 urteko 180 emakume inguru) ez ezik, horiekin lan egiten duten 20 profesionaleri laguntza ematekoak ere izan dira.

Aisiaguneetako prebentzio selektiboari dagokionez, ildo oso bat da, eta gazteek ongi pasatzeko erabiltzen dituzten lekuetan arriskuak murrizteko hiru ekimenetan oinarritzen da. Testing, Discosana, eta Alcoholemias ekimenen bidez bete nahi da prebentzio programen eragina eskolaturik ez dauden edo laguntza sarean atzeman ez diren kolektiboengana hurbiltzeko beharra, hau da, asteburuetan, jaiguneetan edo diskoteketan jokabideen nahiz le-

gez kanpoko substantzien kontsumoaren aldetik arriskuko ereduak agertzen dituzten kolektiboengana. Jaietan eta diskoteketan arriskuak murrizteko programak dira, informaziozko materiala, alkoholometroak, substantzien testing-a, eta ostalaritzan eta txosnetan lan egiten dutenen prestakuntza baliaturik.

Testing izeneko proiektua Ailaket erakundeak eramaten du aurrera, eta ezarpen bera du herri kopuruari dagokionez, baina gero eta handiagoa, jaietan karpura hurbiltzen diren erabiltzaileen kopuruaren aldetik.

PS.6. Taula. Aisiaguneetako prebentzio selektiboaren irismenari buruzko datuak (2004-2007)

Jarduerak	2004	2005	2006	2007
Testing				
Herri kopurua	23	25	26	27
Informatutako pertsonen kopurua	5.045	5.240	5.685	5.808
Materia eman zaien pertsonak	2.285	2.965	3.664	3.916
Analizatzeo drogak zituzten pertsonak	946	1.287	1.465	1.034
Analizatutako substantziak	581	808	892	795
Alkoholaren inguruko arrisku murrizketa				
Herri kopurua	1	2	19	43
Egindako jardueren kopurua	1	3	19	52
Testa egin zuten pertsonen kopurua	114	488	993	13.222
Testak herriko	114	244	52,3	287,4
Testak jarduerako	114	162,7	52,3	254,3

Jaiguneetako alkoholaren inguruko arrisku murrizketa Sasoia erakundeak aurrera eramaten duen esku-hartzea da. Ikus daitekeenez, ekimena nahikoa berria da; hain zuzen ere, 2005. urtearen aurretik bi herritan baino ez zen egin, baina azken urte hauetan hazi egin da, nahikoa hedadura handiarekin.

Azkenik, esan dezagun Hazkunderk esku-hartze bat aurrera eramaten duela diskoteketako eta disko tabernetako profesionalekin. Horren helburuak dira profesionalak informatzea, eta sentiberatzea segurtasun baliabide eta prozedura guztiak egoera onean mantentzen dituzten, bai eta profesional horiek gaitzea ere, arrisku pertsonaleko egoera bat gertatuz gero egokiro jokatzeko jakin dezaten. 2007. urtean, gainera, lan horrek udalerrietako jai batzordeak ere kontuan hartzen ditu.

PS.7.Taula. Ostalaritzako profesionalentzako prestakuntza jarduerak (2004-2007)

	2004	2005	2006	2007(*)
Herri kopurua	14	3	8	5
Establezimendu kopurua	31	8	10	
Parte-hartzaileak	201	49	150	150

(*) Ez du zentzurik establezimenduena, proiektua jai batzordeetara zabaldu zelako.

Prebentziorako eta gazteek droga kontsumoaren inguruan dituzten arazoez arduratzeko jarri behar diren baliabideei buruzko ondorioa da beti izan behar dela erreferentziatzen atzemaniko beharizanaren tamaina, alegia, estali behar den eskaera. Ildo horretan, Drogas y Escuela azterlanean emandako datuek agerian utzi dutenez, adingabe gehien-gehienek erlazio "normala" izaten dute halako substantziekin, "normal" tzat ulertuta askok ez dituztela probatzen, mordoxka batek haiekin esperimendu egiten dutela, eboluzio prozesu baten barruan, eta horri uzten diotela behin helduago bihurtzen eta erantzukizunak hartzen dituztenean, eta abar, eta oso gutxik sortzen dituztela arazoak neurritz gain hartzeagatik edo mendekotasuna izateagatik. Lehen taldekoentzat, funtsezko babesa da prebentzio unibertsaleko jarduerak eta ekimenak dira, asko eta askotarikoak; hain zuzen ere, halakoak lagungarriak dira substantzia horiek ez hartzeko erabakia sendotzeko edo ardura handiagoz esperimendatzeko. Drogekin erlazio arazotsuagoa dutenentzat, arazo horretaz gain familian, eskolan edo maila pertsonalean beste arazo batzuk ere izaten dituzten pertsonak izanik, prebentzio selektiboa baliatzen da, kontsumorako edo beste jokabide arazotsu batzuetarako aurretzeko joera edo bidea ematen duten arrisku faktore horietan esku hartzeko beharra abiapuntutzat harturik. Jakina, prebentzio unibertsaleko esku-hartzeak gehiago dira, hartzaile kopuru handiago batenentzat direlako, eta prebentzio selektiboan, aldiz, esku-hartzeok gutxiago dira, hartzaile den populazioa ere txikiagoa izaki.



BIGARREN ATALA: IRITZIAK



5. ADINGABEEI BURUZKO DISKURTSOA, DROGEI DAGOKIENEZ, NAHIZ ARAZOARI AURRE EGITEN DIOTEN EKIMEN ETA BALIABIDEEI BURUZKO DISKURTSOA. ADINGABEEN BEREN DISKURTSOA

Adingabeekin harremana duten gizarte erakundeen diskurtsoen azterketa: hezkuntza erakundeak, guraso elkarteak, osasun arloko profesionalak, polizia ki-degoak, eta abar. Gazteen diskurtsoaren azterketa: aztertutako kolektiboaren beraren iritzia

5.1. Metodologia

Lan honen xedea izan da EAEko gazteen kolektiboaren iritzia ezagutzea droga kontsumoari buruz, eta jakitea zein den erakundeen erantzuna nerabeentzat droga mendekotasunen arloko prebentzio eta laguntzaren aldetik, eta zein izan beharko litzatekeen eman beharreko erantzuna.

Erabili den metodologia oinarritu da informazioa biltzeko tekniko kualitatiboetan eta laginaren hautapen ez-probabilistiko batean.

Aztergaitzat hartu dugun populazioa izan dira gazteak –hiru lurralde historikoetan eginiko hiru eztabaida taldeak direla medio ageri dira– eta hezkuntza arloan eta adingabeei laguntza emateko arloan zuzenean edo zeharka lan egiten duten profesionalen ordezkapen bat; azken horiei elkarrizketa sakonak egin zitzaizkien. Bi kolektiboak hautatzean, kontuan hartu zen generoaren nahiz EAEko lurraldeen araberrako adierazgarritasuna.

Profesionalei eginiko elkarrizketak

EAEko adingabeen nahiz haien droga kontsumoaren errealitatea ezagutze aldera, 41 elkarrizketa egin ditugu nerabeekin zuzenean edo zeharka esku hartzen duten hainbat profesionalekin.

Gai hauetan adierazgarritzat hartu ziren pertsonak hautatzeko, lanbide ibilbidean erakutsitako gaitasun eta esperientziaren araberrako irizpidea hartu zen. Profesional horiek hainbat arlotakoak dira, eta haien ekarpenek aztergai den fenomenoaren ahalik eta ikuspegi osoena

ematen dute. Hala, bada, aztertutako arloak izan dira hezkuntza arloa, gizarteratze arloa, osasun arloa eta eskaintza kontrolatzea berezkoa duten beste arlo batzuk, hala nola lege-gintza, administrazio eta polizia arloak.

Parte hartu zuten pertsonen ahalik eta diskurtsorik osoena erdiestearren, oinarrizko gidoi bat atondu zen elkarrizketa erdiegituraturako, intereseko puntu nagusiak jasota. Horrez gain, elkarrizketa bakoitza informatzaile bakoitzaren jardun arloari egokitu zitzaion. Horren helburua zen, batetik, pertsona guztiengandik informazio parekagarria lortzea eta, aldi berean, pertsona horien lanbide esperientziaren arabera ahalik informaziorik berezkoena ere bai.

Hona hemen jorratu ziren puntu nagusiak:

- Droga kontsumoaren bilakaera, oro har, eta adingabeen droga kontsumoaren bilakaera bereziki.
- Gizartearen erantzuna: nola bizi izan duen eta nola bizi duen gizartea drogen fenomenoa.
- Une bakoitzean erakundeek emaniko erantzunari buruzko balioztapena, dauden baliabideak eta baliabide horien egokitasuna gaur egungo egoerarako.
- Elkarrizketatutako teknikarien lanbide eskumenak garatzean izan diren laguntzak eta gabeziak.
- Bukatzeko, eskatu zitzairen beren ikuspuntu kritikoa azal zezatela, ongi eginari, gaizki eginari nahiz egin ez denari buruz, beren gomendioekin batera –ahalik eta zentzurik zabalenean, baina proiektu zehatzetan eta egiteko moduko jardueretan definituta–, droga mendekotasunaren arloan adingabeen egoera hobetze aldera.

Informazioa batere zentsurarik gabe jaso nahi zenez, elkarrizketatutako pertsonen guztizko anonimotasuna bermatu zitzairen egindako adierazpenei zegokienez. Behin elkarrizketak eginik, transkribatu egin ziren, eta arloen eta kolektiboen arabera taldekatu, gero zegokien kapituluaren era landuan aurkezteko.

Eztabaida taldeak

Lana adingabeei buruzkoa denez gero, ezin zen baztertu kolektibo horren ikuspegia. Hura aurkezteko, hiru eztabaida talde antolatu ziren Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan.

Taldeak lotura bakarrarekin osatu ziren, osaeraren loturarekin, alegia. Hala, bada, 14 urtetik 17 urtera bitarteko 8-12 nerabek osatutako hiru talde eratu ziren, generoen ordezkapena berdina izan zedin saiatuta.

Errealitate bat baino gehiago ordezkaturik zegoela ziurtatzearen, lanbide hastapeneterako ikastegi bateko, ikastetxe pribatu bateko eta astialdi klub bateko neska-mutilen iritziak jaso ziren.

Eztabaida taldeen gidoi irekia gai hauek aintzat hartzen zituen:

- Droga mendekotasunaren prebentzioa: zer dakiten hari buruz; zer uste dute haren eraginkortasunaz; nola egingo luketen haiek, norentzat, eta noiz duen eraginik handiena...
- Zer uste duten hainbat arlotan aurrera eramandako prebentzio ekintzei buruz.
- Adingabeek helduen munduaz duten ikuskera.
- Drogen kontsumoaz duten ikuskera: gehiago kontsumitzen den; legeztatzeko irizpideak; eta kontsumoak dakartzan arriskuak.
- Esperientzia pertsonalak droga mendekotasunaren prebentzioan: ea eraginik izan ote zuen.
- Droga mendekotasunen prebentzioa eraginkorragoa izateko proposamenak.

Jasoriko iritzi guztiak anonimoak dira, adingabeen nortasuna babestuta horrela. Saioak era sistematikoan grabatu eta transkribatu ziren. Transkripzio horiekin azterketa kualitatiboa nahiz edukiaren azterketa egin dira, eta beraien emaitzak txosten honetan jaso dira.

Bertatik bertarako lana

Bertatik bertarako lana 2008. urteko apiriletik urrira bitartean egin zen. Lehenik, profesionalekiko elkarrizketak egin ziren. Hasiera batean, gutun bidez jarri ginen harremanetan pertsona bakoitzaren laguntza eskatzeko, eta gero, behin proposamena onarturik, elkarrizketak egin ziren. Elkarrizketon batez besteko iraupena ordubetetik gorakoa izan zen.

Elkarrizketak egin zitzaizkien profesionalak soziologian, psikologian eta pedagogian lizentziadunak ziren, besteak beste, eta zeregin horietan esperientzia handia zuten.

Erantzun ziguten baimenarekin, elkarrizketa horiek (informatzaileak aukeratu zuten tokietan egin ziren) grabatu egin ziren, eta gero hitzez hitz transkribatu. Azkenean, transkripzioak aztertu ziren. Anonimotasuna bermatu zen, eta erantzunak beti, ahal zen neurrian, elkarrizketatuaren ikuspegitik aldatu ziren idatzira, jasotako informazioaren bertsio fidagarria genuela ziurtatzeko.

Eztabaida taldeak lizentziadunak eta talde dinamikan adituak ziren bi pertsonak zuzendu zituzten, eta talde bakoitzaren lokaletan egin ziren. Gutxi gorabehera, ordubete iraun zuten saioek. Saio horiek guztiak grabagailu baten bitartez jaso ziren, taldekideei alde aurretik baimena eskaturik. Gero, profesionalei eginiko elkarrizketak bezala, taldeen saioak hitzez hitz transkribatu ziren eta, azkenean, aztertu egin genituen.

Emaitzen azterketa

Transkripzioetan oinarriturik, lorturiko informazioaren azterketa kualitatiboa nahiz edukiaren azterketa egin ziren. Transkripzioak era sistematikoan, objektiboan, errepikagarrian eta baliokoan irakurri ziren, elkarriketatuek –helduek nahiz adingabeek– zuzenean adierazitakoa ez ezik, transkripzioen irakurketak iradokitzen duen mezu ezkutu, estali edo zeharkakoa ere ezagutze aldera.

Kolektibo bakoitzaz ondorio batzuk eta jarraitzeko gomendio batzuk atera ziren. Haien profesionalen eta adingabeen dagozkien kapituluetan aditzera ematen dira, eta ikuspegi partikular eta, aldi berean, orokor batetik, hobekuntza batzuk planteatzen dituzte prebentzioaren eta laguntzaren egungo egoerarako, gazteen droga mendekotasunaren fenomenoari dagokionez.

5.2. Gazteekin harremana duten gizarte erakundeen diskurtsoa

Adingabeekin eta haien droga kontsumoekin esku hartzean hainbat sektore profesional eta sozialen eskumen eta inplikazioak gurutzatzen dira; gurutzaketa gertatzen da, orobat, zuzeneko zerikusia duten kolektiboen eta gizarte edo lanbide rolagatik adingabeen hazkunde prozesu ebolutiboan lagun egin behar dieten pertsonen artean.

Batetik, erakunde horietako batek ere ez du ardura hori berariaz esleiturik, eta, bestetik, haietako bakoitzaren zereginak eta eskumenak bateratzea zaila da oso; horrenbestez, gainera, adingabeen egoera ahularen arazoa –gizarte ereduaren eraikuntzari halaberrez eragiten dion gizarte ardura bat– gizarte sektore horiek guztiak konpontzen zaila den norberaren edo besteren ahultasun gisa ikus dezakete. Horren guztiaren ondorioz, daitekeena da gertatzen ari denari, izandako lorpen eta hutsei nahiz arlo horretan aurreikusitako jardueren buruzko ikuskera eta interpretazioak ikuspegi desberdin edo erkideetatik etortzea, edo egiten diren diagnostikoak eta proposamenak desberdinak izatea, eta, beraz, elementu bate-ratuetatik abiatutako planteamendu batek emango lukeen aukera galtzea.

Nolanahi ere, jasotako lekukotasun guztiak irakurri eta gero, ez da zalantza aienatu jarri pasibo edo inertziazko iraunarazten dieten faktoreen inguruan, are sistemaren hutsuneak atzeman eta esku hartzeko egon daitezkeen ibilbideak aurrez ikusita ere. Beharbada, laguntza emateko baliabide asko sortu dira; baliteke EAEn aurrera eramaten diren esku-hartzeak asko izatea; agian elkarri ezagutza profesionala erakusteko zailtasunak daude, edo oinarritzko alderdiei buruzko akordio batetik abiatzeak lekuak aukera ugariak ikusteko; azken hori, gainera, adingabeen nahiz herritarrei, oro har, mezu argi eta homoginoa emateko lagungarria litzateke, berez.

Hain zuzen ere, horixe igartzen da txosten honek adingabeekin lan egiten duen pertsona kopuru adierazgarri baten iritziari eginiko behaketa zehatzetik, EAEko adingabeen laguntza ematen esku hartzen zuten 41 profesional eta pertsonaren iritziari, zehazki. Metodologian azalduenez, aukeratu ziren haien profilagatik, iritzi arrazoituak emateko zuten gaitasunagatik, diskurtso argudiatua izateagatik eta/edo adingabeen edo droga mendekotasunei da-

gozkien prozesu erabakigarri batzuetan parte hartzeagatik edo parte hartu izanagatik. Azken batean, hautatu ziren benazko ekarpenak eginak zituztelako adingabeekin eta haien droga kontsumoekin gertatzen ari zenaz irudi bat, argazki erreal bat, osatzeko.

Argi gera dadila esku hartzen duten lanbide esparruan bereganaturiko esperientzian oinarrituta egiten dituztela adierazpenak, eta iritzi hori ez du zertan nahitaez bat etorri haien lantokietan nagusi diren ideietan datzan iritziarekin. Esan nahi baita, ez dute hitz egin beren erakundeen ordezkari gisa, beren iritzi pertsonalak emateko baizik.

Hautatzeko beste irizpide bat izan zen adingabeak egoten diren jardun eremu guzti-guztietatik informazioa biltzeko interesak eragin zuen: hezkuntza arlotik, osasun arlotik, prebentzioaren arlotik (dituen maila guztietatik) eta administrazio arlotik.

Prebentzioaren eta hezkuntzaren esparruan, 14 pertsonari egin zitzaizen elkarrizketa. Horien artean, ikastetxe batzuetako guraso elkarteetako ordezkariak egon ziren, bai eta hezkuntza arautuko zein ez-arautuko funtsezko eragileak ere. Era berean, aintzat hartu zen hezkuntza maila guztietako irakasleengandik informazioa jasotzearen garrantzia (Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, eta lanbide hastapena –LHIK–, sare pribatu zein publikokoak). Halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila hartu zen kontuan, bai eta irakaskuntza ez-formaleko edo aisia hezigarriko arduradunak nahiz gizarte-hezitzaileak eta kale-hezitzaileak ere.

Bestalde, osasun arloko funtsezko 6 informatzaile hautatu ziren; droga mendekotasunak tratatzeko zentroetan jardun baziharduten profesionalak ziren, eta adingabeen laguntza eskaera jasotzen lehenak izaten ziren. Aurre egiteko modua desberdina izanda ere, esku-hartze eremutat prebentzio egokitua zuten pertsona zenbait ere elkarrizketatu ziren, hau da, oso egoera ahulean edo arrisku egoera handian dauden adingabeekin –substantzi psikoaktiboek kontsumo arazotsuak dituztela– lan egiten zuten profesionalak. Azkenik, EAEko administrazio nagusiko nahiz zenbait udalerritako pertsona batzuei ere egin zitzaizen elkarrizketa, bai eta Ertzaintzako eta udaltzaingoetako kide batzuei ere.

Igarriko denez, hain profesional hautapen zabala eta askotarikoa edukita, ikuspegi orokor bat erdiets daiteke, hau da, adingabeen populazioari dagozkion laguntza eta zaintzaren inguruan EAEko gizartearen eratu diren ahulgune eta indarguneen ikuspegi zehatza.

Egoki iritzi zaio informazioa aztertzen diren gaien arabera egituratzeari, eta ez lanbide diziplinen arabera. Jakina, hezkuntzaren ingurukoez hitz egitean, arlo horretako ordezkariak (irakasleak, Hezkuntza Saileko arduradunak, eta abar) nahiz gurasoak dira nagusi diskurtsoan, eta laguntza arloaren testuinguruan, ordea, drogak erabiltzen dituzten adingabeekin zuzenean lan egiten dutenak ageri dira nagusiki. Hala eta guztiz ere, adierazitako iritzi askok bat egin izanak, baita oso desberdinak diren diziplina eta ikuspuntutatik datozen batzuek ere, ahalbidetzen du gaien araberrako azterketa sistematiko hori. Iritzia zein arlotatik ematen den baino garrantzitsuagoa izaten da abiapuntu erkide eta partekatuetatik lan egiten hastea.

5.2.1. Testuinguruak, nerabeak eta drogak

Testuinguruak

Elkarrizketatu bakoitzak ematen duen ikuspegi historikoak EAEko azken hogeita hamar urteetako drogen fenomenoak oso era zehatzean zirrimarratzea ahalbidetzen du, drogen lehen kontsumoak sortu zireneko testuinguruaren ikuspegi bat lortzea, fenomeno horretan gertatu diren aldaketak aztertzea, eta adingabeak koordinatu kronologiko horren hirugarren osagai gisa kokatzea.

1970eko hamarkadaren hasieran Espainia eta, ondorioz, egungo EAEko probintziak, beste herrialde batzuetan hasiriko droga kontsumotik bereiz bizi ziren. Hala ere, gure testuinguruan, hamarkada horren bukaera asalduzko garaia izan zen, gainera zetorren energia krisi handiagatik, frankismoaren ahitzeagatik, eta demokraziaranzko aldaketa politikoa hasteko gero eta eskaera gogorragoagatik. Espainian, politika arloko gazte mugimendu aldarrikatzaileak kultura mugimendu alternatiboekin nahasi ziren, eta azken horietan dagoeneko hasiak ziren jende gehienak ezagutzen ez zituen substantzia batzuekin, sektore jakin batzuek ezagutu egiten zituztela, dena dela.

“1970ko hamarkadaren amaieran oso gutxi genekien fenomeno horretaz. Garain hartan arazoak zituztenak familia dirudunetako gazteak ziren, kanpoan ikasitakoak. Droga heroina zen, batik bat. Gainera, 1980ko hamarkadaren erdialdean, Espainian oso egoera berezi batekin nahasi zen. Alde batetik, krisi ekonomiko handia zegoen, eta aldaketa politikoa, Franco hil egin zen, demokraziara igaro zen... Drogek babes kulturala izan zuten, joera aurre-rakoi gisa, sistemaren kontrakoa eta alternatiboa zen joera gisa.

Halako giroetan mugitzen ziren gazteen artean erakargarritasun handia izan zuen. Hain zuzen, askok probatu egin zuten. Prebentziozko mezuak oso txarrak ziren, eta jendea kontsumoan tema zedin bultzatu zuten.

Gazteen artean, ehuneko handi batek cannabisa erretzen zuen, eta beste batzuk heroinan sartu ziren, eta hondatu egin ziren azkenean.”

Hasieran, lekukotasun horretatik ondorioztatzen denez, merkatuko substantzia nagusia heroina izan zen; kontsumitzaileak, erdiko eta/edo goiko gizarte klasetako gazteak; eta fenomenoak gertatzen deneko gizarte testuinguruak, aldaketa ekonomiko eta politiko askokoa.

Droga hori hartzeak zekarren hondatzea oso agerikoa zenez, gazteetako askok, bestelako arazorik lotuta ez zutenek, kontsumitzeari utzi zioten. Baina kolektibo horren zati bat, arrisku edo ahultasun handiagoko egoera batean zegoena, zabaldu eta erroturik zegoen ohitura batek erakarri zuen.

Moda edo joera kultural gehienekin gertatzen denez, heroinaren kontsumoan “aitzindari” gisa agertu zirenek laster pairatu zituzten ondorioak, baina ohitura kudeatzeko hainbesteko gaitasuna ez zuten beste sektore batzuk hark zekarren kalteaz ohartu zirenerako, arazoak pandemiaren tamaina zuen hartua, larriagotuta gainera, HIESaren agerpenarekin. Fenome-

no horiekin zerikusia zuen heriotza tasaren gorakadak gizarte alarma piztu zuen EAEko nahiz Espainiako herritarren artean.

“Garai hartan ez zen prebentziorik egiten. Jatorri nahasiko kanpaina batzuk zeuden, eta garrantzitsuena laguntza arloa zen, kolapsatzen ari zen eta. 1980ko hamarkadaren erdialdean, Plan Nazionala laguntza arloko baliabideaz arduratzeko, haiek sustatzeko, helburuarekin sortu zen, argi eta garbi. Hor hainbat gauza probatu zituzten. Laguntza arloan oso esperimendu bixiak egiten ziren (abstinentzia sindromea luzatuz errehabilitatzea). Jarduera medikoek ez zuten beti heziketazko konponbiderik alboan. Azkenean, arriskua murrizteko politika sartu zen.”

“Urte batzuetan zehar nolabaiteko eragina izan zuen, nire ustez –1980ko hamarkadaren bukaeratik 1990ko hamarkadaren erdialdera bitartean–, orduan kontsumoa ez atzera ez aurrera geratu baitzen, ekonomia ere horrelaxe zegoelako, egonkorrago, eta krisitik ateratzen ari zen. Ekonomiaren berrabiada handia gertatu zen 1990ko hamarkadaren erdialdean, eta goiko klaseei ez zegoen kontsumo bat hasi zen; aitzitik, bazter kolektiboak erortzen ziren drogaren mendean.”

Hain fenomeno asaldagarriari eman zitzaizkion lehen erantzunak lehenik eta behin kaltetu-tako pertsonen laguntza emateko izan ziren, eta haiek ez ziren gutxi. Bigarren mailan utzi zuten prebentzio lana, eta lehentasuna eman zioten behien laguntzaren eskaerari eutsi ahal izan ziotenean.

Orduko testuinguru soziopolitiko eta ekonomikoari dagokionez, gaur egun bezala, zegoen ekonomia krisiak ez zion berdin eragin jende guztiari, eta gizarte faktore zenbait zuzenean lotu ahal zitzaizkion drogen kontsumoari. Horrela hasi zen azkenean droga kontsumoen eredu esplikagarria edo esplikagarriak izan direnen ernamuina. Halako ereduetan gizarte baldintzek garrantzi handia dute fenomenoak ulertzeko orduan.

Legea gordearaziz lan egiten dutenen ikuspuntutik, Ertzaintzak bere eskumen eremuan aurrera egiten zen lanaren kronika egiten du. Garrantzitsua da ohartzea nola, hasieratik, polizia kidego horrek fenomenoak ulertzeko duen modua –eta hortik abiatuta, bere gain hartzen dituen zeregin profesionalak– substantzien kontrol hutsa gainditzen duen:

“Hasieratik, joera garbia egon zen droga mendekotasunen edo polizia esku-hartzearen kontzeptua ulertzeko ez bakarrik legez kontrako droga trafikoa aldetik, baizik eta droga mendekotasun gisa, oro har; horrenbestez, hartu zen ikuspegia askoz zabalagoa izan zen. Adingabeei zegokienez, lotura berezia zegoen, baina 1984. urtean heroinomaniaren arazo handia zegoen. Orduan sailkapena ez zen hainbeste egiten adinaren arabera, drogaren arabera baizik: heroina. Saio batzuk egin genituen ikastetxeetan, baina era klasikoan, alegia, ikastetxera drogak zein txarrak diren azaltzera doan poliziaren eran. 1984tik, argiketa arloan egonda (horrela deitzen zen orduan, gaur egun ikerketa arloa da), zirkulazio istripuak ere ikertzen genituen, eta,

horrenbestez, alkoholemiaren gaiaren jarraipena ere egiten genuen. Ez bakarrik legez kontrako droga trafikoa, baizik eta Ertzaintza integralaren, polizia integralaren, kontzeptu hori; izan ere, berdin egiten duzu legez kontrako droga trafikoari buruzko ikerketa bat, alkoholemiaren ondoriozko istripuei buruzko ikerketa bat, edo beste gauza batzuk.”

Droga mendekotasunaren inguruan gazteenekin hasieran eta egunerokoan egiten zen prebentziozko lana ikuspegi alarmistatik egiten zen neurri handiagoan, ikuspegi hezigarritik egin beharrean. Poliziek eta mendekotasuna gainditzeko tratamenduetatik eta/edo kartzelatik pasatutako kontsumitzaileek, esate baterako, beren lekukotasuna ematen zuten kontsumoak ekar zitzakeen arazoei buruz. Bere garaian, halako esku-hartzeak eraginkortzat jotzen ziren. Geroago pentsatu zuten zenbaitetan lortu nahi zen ondorioaren aurkakoa sortzen zutela.

Politikak eta esku-hartzeak 1990ko hamarkadan hasi ziren neurri handiagoan sistematizatzen droga mendekotasunari dagokionez; laguntza baliabideak ugaritu ziren, eta prebentzioa bereziki bultzatu zen. Hain zuzen, gobernuak bi lehentasun ezarri zituen: **hezkuntza** sustatzea epe luzerako prebentzio tresna eraginkorrena den aldetik; eta, bestalde, **normalizazio** irizpidea izatea osasun arloaren aldetik.

“Garai horren amaieran, sistemaren aldeko jarrerekin lotura zuen kontsumo bat hasi zen, luxuzkoa. Neurri handi batean, pilulekin hasi zen, “ruta del bacalao” zelakoarekin; musika diskoteken eta estetika baten moda bat. Pilulek izan zuten boomagatik ere, ez zuten arazo handirik sortu. Gizarteak izan dituen aldaketek beste kontsumo batzuk bultzatu dituzte, eta aberastu berrien moduan jokatzeko ari gara (.....)

Urte hauetan ez bezala, oso arrisku faktore garrantzitsuak identifikatu dira pixkanaka. Prebentzioa gero eta sistematikoago eginda, baina aski unibertsala da. Beharrezkoa da, baina ez nahikoa Beharrezkoa da euste harresiarena egin dezakeelako. Drogen inguruko arazoetako askori buruz ohartarazi behar du, adingabeek ez baitute behar bezalako arreta, ez eskolarengandik ez familiarengandik. Horren parean, ikus-entzunezko modan geratzen dira agerian, eta egoera ekonomiko oparoan gaudenez, eskolan, eskolan eta abarretan kontrasteko elementurik ez baduzu, berriz oreka zaitzen, arriskuak izugarri egiten du gora.”

Lekukotasun horrek agerian uzten ditu garrantzi gutxikoak ez diren alderdi batzuk, alegia, substantziaren eskaintzari eta eskaerarik dagokionez testuinguru sozioekonomikoak duen garrantzia, prebentzio arloa droga eskaera murrizteko oinarri nagusizat geratzen jarraitzeko beharra, eta droga kontsumoa mantentzea eta/edo geratzea esplikatzeko duten arrisku nahiz babes faktoreak zehazteko garrantzia. Baieztapen horiek guztiak bat datoz EAEn gobernuak drogen eta droga mendekotasunaren arloan duen politikarekin.

Arrisku eta babes faktoreei dagokienez, testuinguruaz gain, adingabeekin egin beharreko prebentzio lanean funtsezkoak diren bi erakunde identifikatu dira: familia eta eskola.

Azterketa historikoan aurrera eginez, legez kanpoko drogen kontsumo tasetan beheraldia gertatu eta gero, ikusten da mota guztietako substantzia psikoaktiboak gero eta gehiago hartu izan direla etengabe. Profesional batzuek fenomeno horretan azken 20 urteetan izan den aldaketa identifikatu dute. Batetik, batzuen diskurtsoa da drogak, arazo gisa, modaz pasatu dela. Garai batean, herritarrek atzematen zituzten gizarte arazo nagusietakoa zen –lehen ez bazen–, eta gaur egun, ostera, ez du oso toki garrantzitsua Espainiako edo EAE-ko gizarteari, oro har, axola zaizkion gaien hierarkian.

Orain dela 20 urte drogen gaia gizarte kontzientziaren kezka eta langaia zen. Hain zuzen ere, administrazioek erruz erabili zituzten baliabide ekonomikoak, giza baliabideak nahiz baliabide materialak kontsumoaren ondorioak geldiarazteko eta jokabide hori berariaz prebenitzeko, eta horretarako tamaina handiko zein txikiko proiektu ugari abian jarri ziren. Drogaren arazoari hainbat alderditatik aurre egin zitzaion: prebentzioaren, errehabilitazioaren, gizarteratzearen, osasun arloaren, eta abarren aldetik. Heroinaren pandemiak jende askoren heriotza, GIB birusa nahiz beste gaixotasun batzuk, kaleetako segurtasunik eza, eta abar ekarri zituen. Gaur egun, aldi hori gaingidurik, lana arriskuak eta kalteak murrizteko da batik bat. Esan nahi baita, arazoa murriztu da, edo, bestela esanda, kontzentratu egin da programen hartzailen populazioari, baliabideei, eta esku-hartzei dagokionez. Dena dela, egia da, halaber, “droga mendekotasunaren prebentzio” terminoa hedatu egin dela, eta osasun hezkuntzarekin, osasunaren sustapenarekin, eta beste kontzeptu batzuekin duela lotura, eremu zabaleko prebentzio politika baten barruan.

“Azken urteetan dena eboluzionatu izan du pixkanaka. Guk hasieran ezagutu genuena bi kontu desberdin ziren; alde batetik, droga gogorren arazoa zegoen, heroina atzeraka hasia zen garai batean. Ordurako, heroinomano gutxi zegoen, baina drogaren eta delinkuentziaren arteko lotura ziren. Urte haietan ere alkohola gizartea txertatuta zegoen, gaur egun bezala, baina ez zegoen orain arriskuez dagoen kontzientzia; hala delituen esparruan, nola osasunari buruzko alderdietan, eta adingabeei berei zegokienez.(...)”

(...) Ikusi zen nola beheraka egiten ari zen kontsumoetan hasteko adina, batez ere alkoholaren kontsumoan. Haxixa pixkanaka nerabeen, gazteen ingurunean, institutuetan eta abarretan ere sartu zen, eta, areago, badirudi gizarartean badagoela nolabaiteko permisibitatea. Esku artean ditugun estatistikazko datuek kontsumo hori bere horretan geldituta dagoela dioten arren, jardunak diosku ez dela hala, gora ari dela. Establezimendu jakin batzuetan sartu, eta oso ongi ikusten da asko erretzen dela. Heroina ia desagertu egin da; pilulak bat-batean sartu ziren; kokaina, gaur egun, erdi ongi ikusita dago, arrakastari loturiko estatusa du, eta badirudi gazteek ez dutela hainbeste hartzen; eta abar. Alkoholaren bilakaerari antzeman diogu, orde. Astegunetan gehiago gertatzen zen lehen, udan batik bat, baina behera egin du dagoeneko. Asteburuetan, aldiz, Euskadi osoan egin du gora, prezioek eta orain erosteko dugun ahalmenaren mailak lagundurik. Azken urtean, esate baterako, 15 urtetik 17 urtera bitarteko adin tartean bizpahiru aldiz sakon mozkortzen ziren urtebetean, nik dakidan datuen arabera. Horri dagokionez, asteburuetan adingabeei establezimendu batzuek alkohola saltzea jazarzte-

ko operazio bereziak egiten ditugu. Jakin badakit akta jaso dela adingabe batzuk alkohola zutela atzeman direnean.”

Berriz ere, lekukotasunen bidez urte hauetan guztietan drogen egoerak izaniko bilakaeraren funtsezko alderdiak ezagut daitezke. Goiko horretan, guraso asko, bai eta hezkuntzako eragileak ere, kezkatzen dituen arazo bat aipatzen da: kontsumitzen hasteko adina txikiagotzen dela atzematea, eta adingabe horiek alkoholarekin eta haxixarekin duten erlazioa.

“Gaur egun, arazoaren bilakaeraren ondorioz, drogak ez daude modan, arazo gisa. Droga mendekotasunaren alorrean egiten den inbertsioa txikiagoa da, eta prebentzio kanpainak biziki egin dute behera.”

Funtsezko desberdintasunak dauden heroina batez ere kontsumitzen zen garaiaren eta oraingo unearren artean; hain zuzen, gaur egun, drogaren merkatuan dibertsifikazio handiago dago. Hala ere, beste iritzi batzuen arabera, badaude antzekotasunak drogaren eta droga mendekotasunaren arloan, duela hiru hamarkada zegoen egoeraren aldean. Behar-bada, funtsezko arazoa, sintoma bera, berbera delako: mendekotasuna eta/edo substantzia psikoaktiboan neurritz gaineko kontsumoa.

Jakina, gizartean aldaketak gertatu dira, politikaren, kulturaren, ekonomiaren, familiaren, hezkuntzaren, eta abarren aldetik, baina unean uneko egoera gorabehera, une bakoitzean aukeratzen den substantzia gorabehera, edo kontsumoa eragiten duen motibazioa gorabehera, gizarte guztiek, halaber, drogekin batera bizi izan dira eta bizi dira, eta, horrenbestez, beti egongo da halako substantzien merkatu bat, bai eta haiek eskura izan eta erabiltzeak dakartzan arriskuak kudeatzeko zailtasun handiagoa izango duten pertsonak ere. Bestalde, drogak probatzen ez dituzten, erabiltzen dituzten edo neurritz gain erabiltzen dituzten pertsonen arrisku eta/edo babes faktoreak berezkoak dituzte gizakiek eta gizakiak moldatzen direneko testuinguruak; horrenbestez, batzuek edo besteek une bakoitzean hartzen duten pisuaren arabera, faktore horiek bateko edo besteko eragina izango dute edozein pertsonak eta gizarteak substantzia horiekin duen erlazioan. Arazoaren hedadura alda daiteke, testuinguruaren, substantziaren edo substantzien nahiz haiekin zerikusia duen pertsonaren profilaren arabera, baina gizartearen arloko, arlo pertsonaleko nahiz pertsona arteko arrisku faktoreek –faktoreek oro har aipatzeagatik– alhan jarraituko dute, eta eragina izaten gizarte batek eta gizarte horretako kideek drogekin ezartzen duten erlazioan.

“Drogen fenomenoak, nire ikuspuntutik, berbera da duela 30 urte eta orain, haren agerpena da desberdina, fenomenoak janzten duen arropa, alegia. Baina motibazioak, arriskuko edo prebentzioko faktoreak, berberak dira, gutxi gorabehera... Duela hainbat urte heroinaren mendera erori ziren sektoreak gaur egun kokainaren mendera erortzen dira. Heroinak modu bateko agerpena du gizartean, kokainak beste modu batekoa, baina, funtsean, oso antzeko fenomenoak da.”

“Nire ustez, fenomeno bera da, gutxi gorabehera, ez da hainbeste aldatu. Ez-ohikoagoa izan zen heroinarena, haren ezaugarriengatik, hura hartzen hasi zen jendearengatik, eta abarregatik. Gainera, nahiko gauza berezia izan zen, automedikazioarekin eta morfina banatzeko programak bertan behera utzi izanarekin zerikusi handiagoa zuena. Baina aisialdirako eta ongi pasatzeko erabilerari dagokionez, nik beti esaten dut kafe, kopa eta puruarekin jarraitzen dugula.

Kopa –alkoholak alegia– gizartekoitzeko droga nagusia da oraindik ere. Kafearen orde, askotan, estimulagarriak erabiltzen dira, sudurretik edo nolanihi hartuta, baina alkoholaren ondorio batzuk arintzeko zeregin nagusia duen estimulagarri bat da, azken batean, alkoholak ematen dizun sorgortze edo tontona eragozgarri izan ez daitezen jaiari ibiltzeko; orduan, horretarako hartzen duzu estimulagarri bat. Hain zuzen ere, oso adierazgarria da speedaren zati handi bat kafeina izatea. Horrenbestez, askok egiten dutena da kafea sudurretik sartu.

Eta puruari haxixe zko harri koxkor batzuk gehitzen zaizkio, baina tabakoa da, izan ere. Orain marihuanaren kontsumoa dago gehiago. Marihuana egunero hartzeko substantziatzat sartzen ari da, egunero gizartekoitzeko, eta horrek arriskuak ditu azterketa garaian eta, baina, tira, beste tabako baten moduan sartzen ari da, oro har, bestelako ezaugarri batzuk dituen tabako bat bezala. Esan dezagun lehen tabakoa baino ez zegoela, eta orain beste gauza batzuk ditugula erretzeko, substantziak beste profil bat duela, baina nik ez dut uste gauzak hainbeste aldatu direnik.

Litroen kontua, nire aburuz, tabernetako prezioekin du zerikusi handiagoa, eta horrek, era berean, higiezinaren espekulazioarekin du lotura. Esan nahi dut faktore kate batek eragozten diela neska-mutilei tabernetan eta txokoan sartzea. Betidanik txokoa antolatzen zuten helduek egiten zutena egiten dute, hau da, guztien artean zuzenean erostea, ez tabernan, baizik eta handizkari bati, merkeago eskuratzeko, eta elkarrekin goxo-goxo edateko, eta geure edabeak egiteko, merkeago izan dadin. Horretan ez dira aldatu.

Aldaketa izan da gazteak askoz lehenago hasten direla kontsumistak izaten, substantzien kontsumoa, beste gauza batzuen bezala, funtsezko atala dela gizartekoitzean, haien autoestimuan eta gainerako guztian; horrenbestez, kontsumo kit-aren barruan, jaiaren inguruan batez ere, substantzia jakin batzuk daude. Baina hor ikusten da jendeak badakiela arrisku handiagoko eta txikiagoko substantziak, eta, horregatik, jendea gehiago kostatzen zaio “lerro” bat sudurreratzea, porru bat erretzea baino... Esan dezagun jai kultura masifikatu egin dela.

Egia esan, tabernazulo batean kokaina arrastoak sartzea gaupasa egiten ari zarenean 1920ko hamarkadako kontua da. Jende askoren testuak irakurtzen badituzu, Espainiako Estatuan amerikar barra zuten lehen tabernak, music

hall-ak, kabaretak eta halako guztiak irekitzen hasi ziren garaikoak, jende xeheak garagardoa eta uxuala edaten zituen, eta finolariak xanpaina eta antzekoak edaten hasi ziren, eta kokaina sartzen.

Ez da hainbeste aldatu. Orain gazteengana jaitsi da, gizarte aberatsa garelako, nahiko txiroagoak diren herrialdeetan ekoiziriko drogak kontsumitzen ari garelako, eta horrek eragin duelako, aberastu ahala, merkeagoa izan da din lehen luxuzkoak ziren gauzak erostea.”

Kontakizun horretan agerian geratu da testuinguruaren garrantzia edo gizarteari dagokion alderdia arrisku faktore gisa, lehen ere aipatu den zerbait, alegia. Adingabeei dagokienez, garapen ebolutiboa kontsumoko gizarte batean izateak edo aisialdia “jai”aren kontzeptu zabalduenarekin –substantzia jakin batzuk kontsumitzea beharrezko elementutzat hartuta– parekatzeak errazten du gure garaiko adingabeek drogekin erlazio handiagoa izan dezaten, gizartearen aldetik kontsumitzaile izan daitezkeenei denetariko “kontsumigarriak”, ugariak eta era askotakoak, eskaintzea apustu nagusia den une batean.

“...oro har, ez bakarrik nerabeen munduan, oldarkortasun handiagoa dago, frustrazioarekiko tolerantzia falta handiagoa, guztia oso azkar lortzeko interes handiagoa, eta abar. Era berean, teknologia berriek eragiten dute harremanak inguruko taldeetan gerta ez daitezen, askoz irekiagoak izan daitezen baizik, nahiz eta hain harreman sakonak ez izan. Harremanetarako taldeak aldatu egin dira, oro har, baina horrek nerabeen artean ere badu eragina.”

Arrisku faktore pertsonalei dagokienez –eta aipatutako aldaketa horietako batzuek gazteenen garapen ebolutiboa aztertzeko denbora gehiago erabiltzea ahalbidetu dutenetik–, nerabezaroari bizitzako aldi nahasia iritzi zaio, zailtasunak dituen eta, askotan, erabakigarria dena nork bere nortasun helduaren egituraz jabetzeko. Aurreko lekukotasuna eman duen pertsonak dioenez, literaturak berretsi du hazkunde prozesu horren ezaugarriak direla oldarkortasuna, frustrazioarekiko tolerantzia txikia, sentsazio bila ibiltzea, erreferentzia aldaketak, berdinen galdea familia taldea baino nahiago izatea, eta abar. Horiek guztiak arrisku faktoreak dira, edo kontsumozko jokabidea bideratzen duten faktoreak.

Nolanahi ere, eta agerpen desberdinak dituen fenomeno beraren aurrean edo fenomeno desberdinen aurrean egoteari buruz dauden iritzi bereziak errespetaturik, badirudi adostasuna dagoela substantzien erabileraz gizarteak duen interpretazioan izandako aldaketari buruz, eta aisiaren gizartea abian jartzeak ekarritako aldaketari buruz; horrek aldaketa eragin du denboraren erabileretan eta substantzien kontsumoan. 1980ko hamarkadaren hasieran aisialdiaz gozatzeak gizartean onarpena jaso izanak eta herritar guztiek, gazteenek bereziki, masiboki bereganaturiko gizarte balio bat bilakatu izanak Mendebaldeko gizarteek halako substantziez egiten duten erabilera birdefinitu du.

“Nire iritziz, azken 20 urteetan, asko aldatu dira gizartea nahiz aisia ulertzeko modua. Aldaketa da gaur egun gauetan irtetea, jai, substantziak hartzea,

eta abar direla aisialdiko helburu nagusiak, lehen baino gehiago. Aisiaren eta substantzien (legezkoak zein legez kanpokoak) kontsumoaren arteko lotura handia ezarri da. Gaur egun, badirudi astialdia ezin dela bete asteburuetan gauez irten ezean, eta horrek, era berean, asteburuetan gauez kalean ematen den ordu kopurua handiagoa izatea, eta, zenbaitetan, astegun batzuetan ere bai. Horren ondorioz, kontsumoa handiagoa da, eta ulertzen da astialdia ongi pasatzeko nahitaez substantziak kontsumitzen ematen den denbora dela. Aisiaren eredu hori hain da instituzionalizatu gazteen artean, ze ikusten ari garen gero eta gazteago irteten direla eta gero eta denbora gehiago ematen dutela etxetik kanpo gaueko orduetan. Ordu tarte horretan aisialdirako aukerak mugatuak dira, eta, kalean, kontsumoekin dute lotura. Egoera hori dela eta, nire ikuspuntutik, azken urteetan adingabeek kontsumituriko substantziak gehitu izana errealitate bat da. Esperimentatzen den adinetan aisia ulertzen den moduak, asteburuero kalera irteteko ohitura –drogak tartean– instituzionalizatu izanak, gehikuntza hori ekarri du. Orain, azterlanen arabera, moteldu egin da kontsumoa, are, behera egin du oro har, baina azterlanek zantzuak ematen dituzte, eta errealitatea da azken hamarkadetan kontsumoa gehitu egin dela, aisia ulertzeko moduari loturik, batak bat. Oinarrian datza aisialdia substantziak erabiltzeko eta errealitatearen pertzepzioa eraldatzeko aprobetxatzea bilatzea. Errealitatearen pertzepzioa eraldatzea bilatzen da. Bitxia da pertsonak, nerabeek, azken 20 urteetan astialdia eman izana errealitatearen pertzepzioa eraldatzeko moduen bila, lehen baino are era orokorrago batean. Horrek ekarri du kontsumo ereduak nabarmen alda zitezela azken 20 urteetan, azkar zopatzeko bilatzen baita. Alkohola hartzeko modua aldatu egin da, esate baterako. Orain berehala mozkortzea bilatzen dute, errealitatearen pertzepzioa arinago eraldatzeko. Horretan datza, apur bat, legezko drogen eragileria.”

Gaur egungo gazte askoren astialdia bi eginkizun betetzen ditu, aisialdiaz gozatzeko berezko eginkizuna, eta harremanei loturiko eginkizuna, alegia. Astialdia berdinen arteko harremanetarako denbora da, gizartekoitzeko eta partekatze denbora, eta, nola ez, arrisku edo babes faktorea da, astialdi hori nola erabiltzen den.

Gazteen artean eginiko hainbat azterlanek dagoeneko erakutsi duten ikuspegiari oinarriturik, ikuskerak bat datoz; substantzien kontsumoa normalizatu egin da, behin kontsumo hori aisiaguneetan sartu denez gero; kontsumoa gazteen astialdian egin beharreko beste jarduerak bat da. Taldekidetzaren errituzko moduetan sartu da, eta orain ez da gehiago zailtasun personalak, sozialak edo familiarrak izateko sindrome nahastezin bat; neurri batean, aitzitik, taldekidetzaren sindromea da. Horretarainoko bidean, desberdintasuna ezartzen duen faktorea da gurasoen belaunaldiaren kontsumo ereduaz bestelako eredu batzuk ezarri dituztela.

*“Horiek dira aldaketa handiak kontsumoaren, aisiaren, gauaren eta jai egite-
ra ateratzearen arteko loturan. Era berean, lehen zeuden kontsumo batzuk
galdu egin dira, alkoholaren eguneroko kontsumoak, alegia; gaur egun gaz-
teen artean gero eta garrantzi gutxiago dute. Beharbada, cannabisarena*

bihur daiteke aisiari hain lotuta ez dagokion kontsumo bat, kontsumo arazoatsuago bat; eguneroko cannabis hori, goizetik erretzen aritzen diren gazte horiek, eta abar. Alkoholarekin arazoak zituen eta egunero edan behar zuen pertsonaren kasua, begien bistakoa da, ez da gertatzen gazteen artean. Mendekotasun arazoak baldin badituzte, aldizkako mendekotasunak izaten dira; esaten baterako, ostiraletik igandera edateko mendekotasuna izatea. Ez dira izaten egunero edatearen mendekoak. Mendekotasun arazoak dira, baina testuinguruaren eragin handia dutenak; ez dute egunero edan behar, ez eta anfetaminak edo kokaina egunero hartu ere. Mendekotasun arazo horietan kontsumitzen deneko esparruak oso eragin handia du. Eguneroko kontsumo eredu baten arabera kontsumitzen den substantzia bakarra cannabis da.”

“Lehen kontsumo batzuei eman ahal zitzaizkien azalpen askok ez dute batera zentzurik orain. Orain ongi pasatzeko kontsumitzen da, eta ongi pasatzeko gogorik handiena dutenek kontsumitzen dute. Asko kontsumitzen da, eredu kontsumista batzuen arabera, betekadatan; are, zenbaitetan, besteek ikus dezaten nola, zer eta zenbat kontsumitzen duzun. Orain ez da jada nork bere burua arazoetatik isolatzeko kontsumitzen.”

“Oso nabariak dira nerabeen artean kontsumoak izan dituen aldaketak. Kontsumoa gehitzeaz gain –jaisten hasia dela dirudi, dena dela–, nik esango nuke kontsumoa gero eta normalizatuago dagoela, edo, normalizatu esan beharrean, eredu normaletan txertatu; hau da, gero eta izaera baztertzaille txikiagoa du edo gero eta lotura ahulagoa du bazterketarekin, gabeziekin; hain zuzen ere, lehen hori pentsatzen zen, arrisku faktoreak autoestimua gabeziekin, familia arazoekin eta abarrekin zutela lotura. Orain ia alderantziz gertatzen da, gero eta jarduera normalagoa da, eta estigmatizazio gutxiagokoa, bazter izaera gutxiagokoa; nerabeen kontsumo eredu normaletan txertatuago dago, eta gero eta gutxiago jotzen da desbideratuztat.”

“Denetarik kontsumitzen deneko gizarte batean –jantziak, eta abar–, droga ere kontsumitzen da, batez ere taldeko kide izateko eta ongi pasatzeko. Nire ustez, duela urte asko hautsi zen lehen aintzat hartzen ziren arrisku faktore askorekiko lotura: autoestimua, ihesbide bat nahi duten neska-mutilak, eta abar.”

Hain zuzen ere, kontsumoaren normalizazio horrengatik, legez kanpoko substantziak errez samar eskuratzen dira adingabeen artean, eta hain da hala, non aditzera ematen baita legezko drogak baino eskuragarriago egoten direla.

“Aldi berean, ia arazo gutxiago dago legez kanpoko drogak eskuratzeko alkohola lortzeko baino. Eta, era berean, gero eta desberdintasun gutxiago dago legezko drogak eta legez kanpoko drogak ikusteko moduan; esate baterako, cannabisaren eta tabakoaren artean. Tabakoa cannabis baino arris-

kutsuagotzat hartzen da ia. Ez dut uste gazteek desberdintasun handirik ikusten dutenik substantzia batzuen eta beste batzuen artean, hain lege estatusaren arabera. Batzuk beste batzuk baino gehiago kontsumitzen dira, beharbada, baina lehen argi zegoen ikuskera hori gero eta lausoagoa da; bai eskuratzeari dagokionez, bai haiei buruz duten ideiarri dagokionez. Ez diete batzuek besteek baino kezka handiagorik sortzen legezkoak izateagatik edo ez izateagatik.”

Nerabeak

Lehen ere aipatu denez, guraso edo irakasleez gain, beste sektore profesional batzuek ere ikusten dute beharbada kezkagarriena den aldaketa bat: gazteenak gero eta neurri handiagoan drogen kontsumoan sartzea. Bestela esanda, kontsumitzen hasteko adinek behera egin dutela atzeman dute. Kezkatu egiten du neskato eta mutiko oskoletik atera berriak adin handiagoko gazte sektore batzuek egiten dituztenen antzeko kontsumoetan sartzeak. Baina zehaztu behar da pertzepzioa dela, eta ez, hainbeste, datu objektibo batzuen araberrako errealitatea. Gure autonomia erkidegoan nahiz estatuan, oro har, egin diren azterlan seriatu eta zorrotzen arabera, hasteko adinaren beherapena ez da hain agerikoa. Halako substantziak kontsumitzen hasteko batez besteko adinak joera egonkorra du, nahiz eta horrek ez dion baliorik kentzen jendeak antzematen dionari, “gero eta gazteago edaten dute” esaldiaren bidez laburbildurik. Egia da adingabe kolektibo txiki baina garrantzitsu bat oso goiz barneratu direla nagusiagoen aisia ohituretan, baina, era berean, hori kontrajarrita esan behar da nerabe kolektibo batek atzeratu duela kontsumitzen hasteko adina, eta, horrenbestez, batez besteko adina ez da aldatzen.

“Adinen aldetik, ez dugu alde handirik aurkitu. Batez ere 15 urtekoak iristen zaizkigu, eta kontsumitzen urtebete daramatenak. Baina horiek baino txikiagorik ez zaigu etorri.”

Bestalde, generoaren araberrako azterketari dagokionez, ez da gutxitan aipatu emakumezkoen ikusgaitasuna, orain arte gizonezkoena zen jarduera batean. Egiazki, kontsumoan sartu diren nesken proportzioak (ia gizonezkoen kontsumoaren pare dago) emakumeek, oro har, eta emakume adingabeek, bereziki, ustez zuten babesari eragin dio, substantzien kontsumoari dagokionez.

“Gizonezkoen eta emakumezkoen kontsumoak parekatu izana aldaketa handia da. Kontsumitzeko adinak aurreratu direla ere esan dute, baina nik uste dut ez dela hala. Nire iritziz, substantzia bakoitza duela urte batzuk hasten zen adin berean hasten dira kontsumitzen.”

“Bizimoduetan, nesken eta mutilen arteko aldeak ez dira hain handiak, ez eta batzuen eta besteen gizarte eta kultura helburuen artean ere; aldeak txikitu egin dira. Eta kontsumoan ere bai. Baina kontsumoaren arazoak mutilen artean gertatzen dira gehiago; beharbada, gizontasunak bestelako

jokabide oldarkorrakoak dituelako atxikirik, eta halako jokabideek arrisku gehiago hartzea dakartelako.”

“Nesken eta mutilen kontsumoak alderatzeari dagokionez, nik uste, neskek mutilen pare jarri dira alderdi askotan, eta ez dago gehiago jokabide ereduaren kontrola sexuaren arabera. Orain dela urte batzuk, pentsaezina zen, are gaizki ikusia, neska bat taberna batean sartzea. Nesken gaineko kontrol berezi hori desagertu egin da, eta mutilen eredu berberak hartu dituzte, batere desberdintasunik gabe. Kontsumo ibilbideen kontrolean badiutuzte, ordea, bestelako eredu batzuk; beste substantzia batzuetan tratamendu baliabideetara askoz emakumezko gutxiago iristen dira gizonezkoak baino. Azterlanen arabera, emakumezkoek kontrol handiagoa izaten dute kontsumitzeko garaian, eta gutxiagotan iristen dira arazo larriak garatzera, edo konponbidea beste toki batzuetan bilatzen dute. Antzeko kontsumo tasak izango dituzten, baina autokontrol handiagoa dute gizonezkoek baino (nerabeen artean ez dakit horrela gertatzen den). Soziologiaren aldetik, garrantzitsua da datu hori, alegia, alderdi horretan mutilak eta neskek ez direla oraindik berdindu. Horren adibide bat da biriketako minbiziarekin gertatzen dena: emakumeek lehen baino gehiago erretzea garrantzitsua da soziologiaren aldetik, baina laguntza arloaren aldetik ere bat, biriketako minbizia duten pertsonen kopurua bikoiztu egin baita, edo bikoiztekotan baitago; orain gizonezkoek emakumezkoak gehitu zaizkie.”

Hori hala izanik ere, sektore profesionaletan argitu egiten dute –eta ez zaie arrazoirik falta– horrelako kontsumoak eboluzioaren une jakin bati dagozkiola, eta, behin heldutasunetik hurbilago dauden jokabideak bereganatuta, kontsumo horiek moteldu egiten direla. Gazte adineko kontsumoak ez dira mugarik gabe luzatzen, edo, bederen, aldatuz doaz.

Egia da gazteen ehuneko handi batek drogekin esperimentatzen duela, eta denbora tarte horretan arrisku jakin batzuk hartzen dituela, baina neurri berean froga daiteke drogak probatzen dituzten eta drogak maizago edo bakanago, luzeago edo laburrago, erabiltzen dituzten pertsonetako askok hartzeari uzten diotela aurrerago, arazo handirik izan gabe.

“Kontsumoari buruzko estatistikek aditzera ematen digute badaudela kontsumitzeari uzteko oso eredu argi batzuk adinari eta erantzukizunak hartzeari loturikoak, eta hori ez da hautsi. Kontsumo asko berezkoak dira aldi jakin batzuetan, eta gero atzean uzten dira. Beste kontsumo batzuei lotzen zaizkie, ordez, eta halakoak hobeak ala okerragoak diren ikuskizun dago; kontsumo horiek egunerokoagoak eta jarraituagoak dira, hau da, litroak egin edo garagardoa lepo edan beharrean, berrogeitakadunen ‘gin-tonic’ a hartzean dautza. Nerabeen kontsumo ereduak nerabezaroan amaitzen dira, eta horrek ez du esan nahi nerabezaroko kontsumoak arazorik ez dakarrenik, epe laburrera eta, are, epe luzera, baina ez dute eragiten urteetan zehar irauten duen kontsumo ibilbiderik, heroinarekin edo kokainarekin bezala. Arazo

batzuk epe laburrera etor daitezke: zirkulazio istripuak; nahi gabeko haurduntzak; arazo psikologikoak epe ertain edo luzera; delitu txikiak, eta abar. Kontsumo tradizionalek ematen zituzten arazoen bestelakoak dira. Baldin lortzen baduzu arazo horiek urte jakin horietan zuri ez eragitea, daitekeena da sekula ere gehiago ez eragitea. Kontuan izan behar da asko 'desfasatu' zuen eta asko arriskatu zena, baina ondoriorik izan gabe; beste batzuk, ordea, asko arriskatu ziren, eta ordaindu egin zuten (zirkulazio istripuak, arazo mentalak, eta abar). Niri kostatu egiten zait hau azaltzea, ni ez naizelako zinikoa, baina esango dut errusiar erruleta baten modukoa dela, eta gutxi gorabehera kalterik gabe ateratzeko aukera dagoela; eta hori ez zen heroinarekin gertatzen, esaterako. Horren ondorioa da tratamenduaren eskaera txikiagoa dela, baina eskatzen denean, arazo zabalagoei loturik datorrela. Adingabeei laguntza emateko sare bat sortzea kontuan hartzeko gauzetako bat litzateke."

Aipatu denez, esperimentatzeko aldian (luzeago edo laburrago izan daiteke) inor ez dago drogak erabiltzearen ondoriozko arazoak nozitzetik libre. Kontsumoek dakartzaten edo dakartzeten ondorioak arazo larriak izateraino iristen dira zenbaitetan, baina ez beti eta halabeharrez.

"Kontsumitzaileek, eta batez ere kontsumitzaile arazotsuek, izan ditzaketen gorabeherengatik ere, eta kontsumo horren ondoriozko arazo larriak agertzeagatik ere, jendeak, oro har, dibertsiorako praktika batzuk, aisiarako praktika batzuk erabiltzen ditu, arrisku gehiago edo gutxiago izan ditzaketenak, eragin handiagoa edo txikiagoa izan dezaketenak; ez da, bada, mendekotasun huts bat –hori ere badela–, baizik eta eragina izan dezakeela garapen pertsonalean, ikasketen bidez garatzeko proiektuetan, edo lan proiektuetan, edo dena delakoan."

"Gizarte kontrola da galdu den beste gauza bat. Lehen jendeak edaten egiten zuen, baina arau batzuen azpian edaten zuen, eta norbaitek halakoak betetzen ez bazituen, alkoholarekin arazo bat zuela esaten zen (edatea lanera joateko, eta abar). Gazteek orain ez dute besteek egiten duten gizarte kontrolaren gaitasun hori; hain zuzen ere, haien irizpidea kontrolik eza da. Dena dela, hala eta guztiz ere, arauen bat badute, inori ez baitzaio bururatzen litroak egitea goizean, edo otorduetan, haien araua asteburuetan edatea delako; baina taldearen araua edaten den unean kontrolik eza da."

"Nire ikuspuntutik, gertatu den beste aldaketa bat da kontsumoak berez ez ligukeela hainbeste kezkatu behar, kontsumoak sortzen dituen arazo errealek baizik. Zabalduta drogen kontsumoa txarra zela berez, arrazoibide moral baten bitartez. Nik uste, drogen kontsumoa txarra da arazoak sortzen badizkizu, eta arazoak zenbat eta larriagoak izan, orduan eta txarragoa da kontsumoa."

Kontsumoari egozten zaizkion arriskuak gorabehera –arrisku horiek gertagarriagoak direlarik kontsumitzaile arazotsu bihurtzeko moduko beste ezaugarri batzuk biltzen dituen gazte sektore batean–, gazte gehienek hartzen dituzten substantzien (alkohola, haxixa, eta abar) erabilera normaltasunez ikusten da; neurri handiagoan gazte taldeen arteko integrazio elementutzat ikusten da, gizartekoitze prozesu gatazkatsuen ondorioztat baino.

“Normaltasun sentrazioa dago, nik uste. Substantzien erabilera hortxe dago, nahiko txertatua. Ezagutzen ditugun datu orokorrak gazte normalizatupei buruzkoak dira (astialdiko taldeak, eta abar). Erabilerak ez daude hain estigmatizaturik. Gaur egun drogak aisiarekin eta ongi pasatzearekin lotzen dira. Horixe ikusten dugu guk hemen, jakinda gero bakoitzak bere egoera eta historia izango duela, mendekotasunaren eta erabakimen galeraren alderdi negatibo hori loturik.”

Hala eta guztiz ere, kontsumoei eransten zaien normaltasun horrek ezin saihets dezake arrisku faktoreak dauzkaten eta gizarte egoera ahulean dauden nerabe horiek neurritz gaineko kontsumoak garatzeko aukera handiagoa izan dezaten, nerabe gehienek esperimintatzeko edo hasiera batean dituzten kontsumoak gainditurik.

Beste aldaketa bat da zailagoa dela zehaztea nor dagoen arrisku handiagoko egoeran. Orain ezin esan daiteke eskola porrotak drogak kontsumitzeko arrisku handiagoa dakarrenik. Lehen argiak ziren faktore batzuk, orain ez dira hain argiak. Zailagoa da zehaztea nork izango dituen kontsumo arazotsuak, eta are askoz zailagoa nork izango dituen mendekotasuneko arazoak. Helburuko populazio batzuk argi daude, gizarte bazterketarekin dute zerikusia, baina zailagoa da beste batzuk identifikatzea.

“Oso deigarria da, kontsumitzen (cannabisa) hasten diren unetik eguneroko kontsumora iristen diren arte, oso denbora gutxi igarotzen dela, urtebete edo apur bat gehiago, kontsumo txikia izan arren, egunean porru bat edo. Bilakaera oso azkarra da. Ohitura laster hartzen da.”

Kontsumoaren normalizazio hori gizarte sektore zenbaitek eskatu zuten, estereotipo faltsuak kentzearen eta kontsumitzaileak desestigmatizatzearen, eta, antza denez, bi ahoko ezpata gertatu da. Droga mendekotasunaren prebentzioarekin zerikusia duten hainbat arlotako profesionalak aditzera eman dute, hain zuzen, horrek droga kontsumoa neurri batean banalizatzea ekarri du, bereizik cannabisaren erabilera terapeutikoaz hitz egiten denean. Elkarrizketatuetako pertsona batzuek argi aldarrikatzen dute cannabisaren erabilera terapeutikoak bereizteko beharra, nerabeek aisiarako egiten duten erabileratik.

“Droga guztiak normalizatzeko joera egon da, eta ni kezkatzen hasia naiz horrekin. Nik beti ‘normalizazioa’ aldeztu dut, hau da, prebentzioarekin bere garaian baliatu zen dramatizazioaren aurka. Baina, bueno, nik uste dut une honetan azpimarratu behar dela, orobat, drogak ez direla kalterik gabeko substantziak, beharbada, haietako asko erabil daitezkeela, eta erabilera horrek ez duela zertan neurritz gainekoa izan behar, baina lan egin behar dela erabilera hori neurritz gainekoa izan ez dadin.”

“Udaltzain batzuek, batez ere, aipatu digute gaztetxoak kalean kontsumitzen ari direla, eskoletara sartu aurretik... eta hori guztiz normalizatuta dago, eta behar den garaian inork ez du ezer egiten; ikastetxeek, kanpoan kontsumitzen ari direlako, eta jendeak, oro har, ez da ausartzen haiei ezer esatera, ez salatzerara, ez eta aurpegia ematera ere, ea zer egiten ari diren esanda. Gizartearen aldetik ez dago inolako erantzunik.”

Kontsumoaren normalizazioak kalterik egiten ez duelako –eta, beraz, arriskurik ez dagoelako– kontzientzia sortzen lagundu du. Kontsumoari loturiko arriskuaren hautemate ahulak, substantzia bakoitzaren arabera, badu korrelazio positibo bat substantzia horietako bakoitzaren kontsumo tasekin; esan nahi baita, arriskuaren kontzientzia zenbat eta txikiagoa izan, handiagoa da kontsumoa, substantzia jakin baten kontsumoari loturiko arriskuaren kontzientzia txikiagoa bada, droga horren kontsumoaren prebalentzia handiagoa da. Hain zuzen, inkestek aditzera ematen dute gazteek alkoholaren, tabakoaren eta cannabisaren kontsumoaren arriskuaz, hurrenkera horretan, oso pertzepzio eskasa dutela. Horiexek dira, eta hurrenkera horretan, EAEko gazteek gehien kontsumitzen dituzten hiru substantziak. Alderantziz, kontsumoak dakarren arriskua argi hautemateak substantzien erabileraren aurka babesten du, hau da, arriskuaren kontzientziak ondorio negatiboak egozten zaizkion jokabide hori izateko asmoa kentzen du.

“Nire ustez, asko geratzen da egiteko. Ez diot egiten ez denik, baina asko geratzen da egiteko. Hori bai, uste dut zer edo zer gaizki egiten ari garela, ziur. Nik uste, kontsumoa asko normalizatzen da. Oso aukerako zerbait da, oso plazerrezkoa, oso eskuragarria. Ez da gainerako guztiaz hitz egiten, horrek eragiten duenaz.”

“Arriskuaren pertzepzioa txikiagotzea kontsumismoaren eta gizarteak ematen dituen halako mezuen ondorio da. Drogen kontsumoa ihesbide eta dibertsio gisa erabiltzen da, eta askok neurritz gain erabiltzen dute, kontzientzia galtzeko eta deskonektatzeko asmoz..., ez dakit zenbateraino den gizarte ereduaren ondorio bat. Horrek eragiten du guztia berehala lortu behar duzula, eta, horrenbestez, plazera ere bai, kosta ahala kosta, osasuna ere kostatzen bazaizu ere. Horrez gain, ‘drogatzea’ errebeldia ekintzatzat ikusten da nerabezeroan, sustantzia batzuek prezio txikia dute, eta nerabeek, erosteko ahalmen handia (astesariak, 20 eurokoak ere).”

Zalantzarik gabe, **arriskuaren pertzepzio** txikia dago, batez ere epe luzerako ondorioei dagokienez. Gazteek jakin badakite epe laburrera badaudela ondorio txar batzuk (bestondo huts bat, egun batekoa edo gehiagokoa, oroimen galerak, eta abar), baina, beste alde batek, ez dute egiaz pentsatzen kontsumo jarraitu eta erregular batek, epe ertain edo luzera, arazo larria eragin dezakeela substantzia jakin batekin. Prebentzioaren inguruko lanarekin, arriskuak murrizteari dagokionez, lortu nahi da drogak erabiltzen dituzten gazteek ezagut ditzaten epe luzera zer arrisku izan ditzaketen.

Arlo horretatik aditzera ematen da lan egiten jarraitu behar dela, eta egindako lana berriz pentsatu. Alderdi hori berriz hartuko da aurrerago, kontuan izanda lekukotasun batzuek drogen fenomenoari aurre egiteko beste modu bat eskatzen dutela. Berriro ere, lortu diren adierazpenetako batzuek drogen erabileraren gizartean normalizatu izana eragozpentzat jotzen dute drogak erabiltzen direnean arriskuak ongi kudeatu behar direlako mezua egoki hedatzeko. Gizarte kontrola edo, bestela esanda, drogen erabileraren gizarte “zigorketa” babes mekanismoa omen da jokabide horren aurka; antza denez, horrek disuasio eragina izan dezake, nahiz eta droga kontsumoaren kulturazko eta errituzko ereduak egon. Aitzitik, normalizazioak inolako gizarte zigorrak ez dakarren kontsumo baten alde egiten du.

Merezi du orain arte jasotako iritziak bezalakoa guztiz ez den gogoeta bat aztertzea, beste osagarri izanik. Hezkuntza arloko pertsona batek dio, esaten dena esaten dela, gaur egungo gazteek egiten dutenaren eta egiten duten horren arrazoiaren kontzientzia gehiago dutela. Era berean dio drogen eskuragarritasuna moden ondorioa dela, eta horrek ez duela esan nahi kontzientzia gutxiagorekin kontsumitzen denik. Pertsona horrek azpimarratzen du duela hainbat urte heroina kontsumitzen zen moduaren eta orain kontsumitzen den moduaren artean.

“Gazteen kontzientzia kritikoak eboluzionatu egin du. Bai, hor daude cannabisa, marihuana, pilulak, tabakoa, alkohola, baina nik uste dut gaur egungo gazteek gaitasun kritiko garatuagoa dutela, eta, hain zuzen, erakundeek eta abarrek horretan ari dira lanean. Gazte batek ere ez du porro bat erretzen zerbait berria ezagutu behar duelako; erretzen badu, kasuak askotarikoak dira: taldearen presioagatik; desberdina ez izateagatik, taldean txertatu edo herabetasuna galtzeagatik, eta abarregatik. Baina, nik uste, halakorik egiten badu, era arduratsuan egiten du. Gaur egun droga oso eskuragarri dago; modan ere dagoela esango nuke nik. Baina gazteen heldutasuna handiagoa da orain dela urte batzuk baino.”

Benetan dira gazteak kritikoagoak eta kontzienteagoak jokabide batzuk praktikan jartzeko garaian ala informazio gehiago dute, besterik ez? Zeharo frogaturik dago heroinaren mendean erori ziren lehen pertsonak ez zirela ohitura horrek zekartzan arriskuen guztiz jakitun, ez eta kontsumo horren inguruko beste hainbat alderdiren jakitun ere. Informazioa falta zitzaien, besteak beste. Gaur egun, droga kontsumo bati lotzen zaiona badu eskura erabaki arduratsua hartzeko behar duen informazio guztia, baina funtsezko galdera da ea informazio hori, guztiz osoa izanik ere, erabiltzen ote duten jokabide hori izateko garaian eta ea ikuspegi kritiko batetik erabiltzen den. Informazioaren eta jokabidearen artean hainbat egitura eta prozesu konplexu daude, hala nola jarrerak, balioak eta abar, pisu handiagoa dutenak erabakiak hartzeko garaian.

Drogak

Drogak aldatu egiten dira, kontsumigai bat baino ez baitira, beste bat gehiago, moden eta gizarte eraginaren –publizitatea eta komunikabideak buru– mendekoa, beste produktu asko bezala.

“Gaztetxoek gurasoei boladan dagoen edozein marka eskatzen dieten bezala, drogekin gauza bera gertatzen da: merkatuan zer dagoen, kontsumoak batzuk edo beste batzuk izango dira. Nabaria da, bestalde, Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritzak sustaturik egiten diren azterlanen arabera, badaudela kezka sortu beharko luketen droga kontsumo garrantzitsu batzuk, asaldura ez, baina kezka bai.”

Lehen ere aipatu denez, gauden gizarte kontsumoak badu eragina adingabeengan ere. Halako gizartean kontsumitzaile izan daitekeen ororen eskura nahi duen guztia jarri nahi da. Hori dela eta, merkatuan denetarikoz substantziak daude: estimulagarriak, depresoreak, aluzinogenoak, eta abar. Horrek ez du esan nahi beste une batzuetan horiek ez zeudenik, eskuratzeko dagoen erraztasuna aldatu da, ordea, egoera ekonomika honetan jendearen erosteko ahalmena handiagoa delako, besteak beste.

Gauden gizarte honetan, adingabeek txiki samarretik dute interesa halako substantzien kontsumoan. Normala ote da EAEko hiru gaztetik batek pentsa dezan asteburuan mozkortzea astialdia emateko modu bat dela?

Duela 25 urte **tabako**aren gaia berria zen. Orain, substantzia horren kontsumoa nabarmen gutxitu da. Duela mende laurden bat prebalentzia %44 zen, eta orain, ostera, %27 inguru da. Nahiz eta ehuneko hori handia den oraindik, joera beheranzkoa da.

Alkohola geure kultura bertan errotutako substantzia zen, eta bada oraindik ere, baina hura kontsumitzen dutenen ohiturak aldatu egin dira, egiazki. Oraindik badaude “txikitero” kuadrillak herri askotan, eta identitate erreferentzia dira. Haien egunero kontsumitzen dute, eta batez ere ardoa eta garagardoa. Gazteek, bestalde, gero eta gehiago eredu saxoira lerratzen dira. Errebeldiazko ereduak da, iragaitzakoa; goiz hasten da edaten eta kontsumoa aldizkakoa da, asteburuetan, jaiari, aisiari, ongi pasatzeari eta abarri loturik. Likoreak eta edari alkoholadunen konbinazioak hartzen dira. Alkohola kontsumitzeko gazteen modu berezi eta desberdin horrek fenomeno berri bat ere sortu du, “litroak egitea” deiturikoa: alkoholaren neurri gainera kontsumoa, asteburuan kontzentratua, jai testuinguruan eta gero eta gazteagoak diren nerabeen artean.

“Horrek, jakina, bestelako ondorio batzuk ditu. Ziur aski epe luzera –ez dakit oso larriak edo ez hainbeste–, baina epe ertain eta laburrera nahiko larriagoak dira beste kontsumo ereduak izan zitzaizkeenak baino.”

Alkohola da osasun arazo gehien sortu izan duen eta sortzen duen droga, beste edozein drogak baino gehiago. Hala ere, alkoholak sorturiko mendekotasun nahasteen prebalentzia ez da asko aldatu. Gorabehera txikian egon daitezke, baina ez aldaketa handirik.

Hamarkadetan zehar aukeran zeuden beste substantziekin gertatu diren aldaketengatik ere, alkohola beti izan da gure kultura, eta, horregatik, zaila da drogatzat definitzen duten pertsonak aurkitzea. Aldeak ageri dira helduek eta gazteek alkohola hartzeko duten modu desberdinetan. Substantzia horri dagokionez, bera erabiltzeak dakartzan arriskuak kudeaketa azpimarratu nahi da.

“Herri honek oso arazo larria du alkoholarekin. Beharrezkoa izan da zirkulazio kodeak alkoholaren kontsumoa mugatzeko murriztapenak ezar ditzan. Edateari uzten diote, ez droga bat delako edo kaltea eragin dezakeelako, baizik eta isuna jartzen delako, gidatzen baduzu arazo larria delako.”

“Debekatze politikak eta neurriak ezarri direnean, hain zuzen, areagotu da kontsumoa; gogoan izan dezagun AEBetako lege lehorra, edo gerrateak, eta abar. Baina beti, egoera jakin batzuen aurrean, jendeak irtenbideren bat bilatzea eragin duen gizarte testuinguru batean. Gaur egun egunkarietan irakurtzen dugu gaztetxoak orain dela 20 urte baino askoz gehiago kontsumitzen ari direla; goizago hasten dira, eta askoz intentsitate handiagoz.”

Cannabis kontsumoa, bestalde, asko aldatu da. Kontsumo hori zabaldu egin da, eta erretzen den maiztasunak eta abaguneek gora egin dute. Substantzia hori erabiltzea orokortu egin da nerabeen artean, hainbeste non erabilera hori tabakoarena bezain maizkoa eta normalizatua baita. Cannabis erretzea sarbide errituaren zati da, eta substantzia horren inguruan arriskuaren pertzepzioa oso ahula da.

“Gaur egun oso garrantzi txikia ematen zaion haxixa egunero erabiltzeari. Asteburuetan kontsumitzen hasten da, eta, gero, arazoa dator, denbora zabaldu, eta nerabe batzuek jaikitzen direnetik oheratu artean erretzen dutenean.”

Gazteek pentsatzen badute cannabisaren kontsumoak ez dakarrela arrisku handirik, horri gertatzen da, neurri batean, gizartea bere aldetik oso permisiboa delako substantzia horrekin. Alde batetik, une honetan, laguntza zentro batzuek diotenaren arabera, cannabis erretzen duten gazte asko kontsumitzen duten edo kontsumitu izan duten pertsona batzuen seme-alabak dira. Eta, nahiz eta gehienek kasua hori ez den, ez dirudi gainerako jendeak oso arazo kezagarritzat jotzen duenik. Beharbada, ez dira aintzat hartzen ari heldu baten kontsumoaren eta nerabe baten kontsumoaren arteko desberdintasuna. Azken horiek aldi kritiko batetik igarotzen ari dira oraindik, substantzia era arduratsuan erabiltzeko gaitasuna oraindik ahula den adin batetik. Batzuk oraindik daude konkretutik abstraktura pasatzeko gaitasuna sortu behar duteneko eboluzio une batean.

“Nik esango nuke kontsumoa normalizatu dela. Beldurra galdu zaio. Lehen cannabis populazio txikiagoetan kontsumitzen zen, kontsumo ezkutuagoa zen, orain kontsumoa jendaurrekoa da. Ikastetxeetan ere agerikoa da.”

Ildo horretan, baina esparru profesionaletik, badago, egon, kezka handia kontsumoaren hazkundeagatik, cannabisaren kontsumitzaileen gehikuntzagatik eta asko kontsumitzen hasten direneko goiztiartasunagatik.

“Aisiarako, astialdiko, kontsumoa izatetik, adiskideekin, taldearekin, lotura zuen kontsumoa izatetik... legez kanpoko substantzia zen, horrek dakarren guztiarekin..., bueno, legez kanpoko da oraindik, gero igaro zen.... Alegia, asteburu guztietara igaro zen, eta orain, antza, mirarizko substantzia bat da,

gaitz guztietatik libratzen gaituena. Badirudi hori prestatuta dagoela, ez dela arrazoirik gabe gertatzen.”

“Kontsumitzen hasteko adina gutxitu da, eta, esate baterako, cannabis kontsumitzen dutenak gero eta goizago hasten dira. Kontuan izan behar da honaino iristen den populazioa jende hauslea dela, baina hori beti izan da horrela. Alkoholarekin ere gertatzen da hori. Alkohola eta cannabis... hor nabaritzen da gehien goiztiartasuna. Beste substantzia batzuen kasuan ez da izan aldaketa nabarmenik.”

“Neska-mutilen kontsumoen hasiera lehenago gertatzen da, eta kontsumo handiagoarekin; eta cannabisaren kontsumoa asko normalizatu da.”

“Baina adingabeen artean droga nagusia cannabis da; hain zuzen, erabat banalizaturik eta onarturik dago. Alkohola asko kontsumitzen da, eta beti dago presente. Tabakoak behera egin du, baina nesken artean igo egin da kontsumoa. Neska nerabeek gehiago kontsumitzen dute berdintasunaren gaietatik. Hemen, kulturalki, gazteen artean, cannabisaren eta tabakoaren atzetik, speed-a da gehien kontsumitzen dena. Oso noizbehinka, bestalde, kokaina hartzen dute, baina ezin esan dezakegu haren kontsumoa orokorra eta jarraitua denik. Kokainaren kontsumoa, noizbehinkakoa, 14 edo 15 urte-tik aurrera, eta oso une berezietan, haiek drogaz duten ikuskeretatik; hala, urtebetetzeetan, Gabon zahar gauean eta abarretan esperimentatzekoa den zerbaiten moduan probatzen dute.”

Badago cannabisari loturiko beste arazo bat, disuasio mezu argia ematean nahasmena sortzen laguntzen duena; hau da, osoak ez diren eta orokortu nahi diren informazio batzuk daude. Adingabeek berek –argudiotzat erabiltzea komeni zaie eta– eta kontsumoa legeztatzearen alde dauden beste sektore batzuek zabaltzen dituzte halako informazioak.

“Ni kezkatu egiten nau cannabisaren kontsumoa, gizartean onartuegi dago eta. Esate baterako, hor dago berrikitan agertutako berri bat, cannabis minbiziaren tratamenduetan erabiltzeari buruz; neska-mutilek horrexeri hel-tzen diote. Mito engainagarria da.”

Cannabisari dagokionez, azpian datzan ideia da ez dela benetan arazo larri bat, baina bada arazo bat. Hezitzaileek eta laguntza arloko profesionalek prebentzioa egiteko eta epe ertain eta luzerako kontsumoaren ondorioak ikusarazteko beharra azpimarratzen dute.

“Ez da droga suntsigarria, ez da heroina, baina Bigarren Hezkuntzako adinean dagoen nerabe belaunaldi oso bat egunero sistematikoki zopatura edukitzea heldu beharreko arazo bat da, nire iritziz. Eskola adinean dagoen nerabe kopuru handi batek egunero erretzen du. Alkohola baino askoz egunerokoagoa da. Gurasoek dioten ez dela hain txarra ere, baina oso lotura zuzena du eskola porrotarekin, neska-mutilen pasibotasunarekin du lotura, eta belaunaldi pasibo bat... ez dakit hori hain ona den.”

“Cannabisak egin du prebentzioko profesionalen lana biderka dadin; are gehiago, beste modu batean lan egin behar dugu. Gure aburuz, prebentzioaz familiak eta eskolak arduratu behar dute..., baina gero eta gehiago ari gara ikasgeletan sartzen, irakasleek askotan ez baitute beren gain hartzen prebentzio lana.”

Substantzia “madrikatu” bati, **heroinari**, dagokionez, elkarrizketaturiko medikuek aipatu dute 1980ko hamarkadan droga ikaragarria zela, baina inguruan aire iradokitzaille bat, erakarri bat, zeukala. Horregatik zabaldu zen indarrez eta laster haren erabilera.

“Esan dugu izugarri arriskutsua dela eta kronikoa dela. Oso gutxi sendatu ahal izan ditugu. HIESak ekarri zuen substantzia hori ia desagertu zedin eta kontsumo bidea alda zedin... Heroinaren kontsumoa orain oso txikia da, ia ez dago. Baina beldur naiz itzuliko den; orain dela bi urtetik hona esaten ari naiz. Heroinaz hitz egiten entzun ez duen gaztetxo belaunaldi bat dugu, junki-a ezagutzen dute, baina ez dute ideiarik zergatik edo ez dakite probatzeko arriskua nola dagoen... Erne egon behar dugu.”

Gaur egun, heroina ahazturik dago, eta gazteak ibiltzen diren eremu askotan iraganeko anekdota bat da. Hala ere, laguntza arloan lan egiten dutenek nolabaiteko igoerari antzeman diote, estimulagarriek sortzen duten “goraldia” apaltzeko beharrari loturik. Diotenez, gaur egun laguntza eskaera neurri handienez sortzen duen legez kanpoko droga kokaina da. Estereotipo gisa arazoak dituen droga-kontsumitzailea dugu, bazterrekoa, autobaztertua, delitugilea..., baina, benetan, ematen den irudia kontsumitzen den substantziaren arabera da eta droga hori giro batzuetan edo bestetuetan erabiltzearen arabera. Heroina “junki” deitutakoen pertsona profilari lotu zitzaion; delituzko jarduerekin zuten lotura, oso gaixotasun estigmatizatu batzuekin, kalearekin, eta abarrekin. Kokaina hartzen dutenak, orain arte, bederen, “yuppie”tzat jo dira; pertsona horiek erosteko ahalmen handiagoa dute, profesional arrakastatsuak dira, “glamour”a duten testuinguruetan ibiltzen direnak. Zorionez, irudi hori errealitatearen itxura handiagoa hartzen ari da pixkanaka, eta, guztiz ez bada ere, ustezko ikuskera positibo hori desagertzen ari da.

Kokaina oso zabaldurik dago, bai eta haren erabilera ere. Dibertsio eta jai testuinguruetan kontsumitzen da. Erabilgarria da ernetasun egoera luzatzeko, batez ere asteburua aprobetxatzeko, hori izaki aisiarako denbora tarte nagusia. Euforia eta kontrol sentipena ematen du, eta arriskuaren hautemate ahula ere ematen omen du. Kokainak mendekotasuna sortzeko ahalmen handia du, baina latentzialdia luzea da. Batez beste, sei edo zazpi urte ohikotasunez kontsumitzen eman arte ez du dena delako pertsonak sustantziaren mendean dagoela.

“Ongi pasatzeko zerbait balitz bezala saltzen ari da; kalera irteten zaren bezala, lerro bat sartzen duzu. Bizimodu normalizatua duen jende askok, baxoerdiak hartzen ibiltzen direnetakoak, kokaina arrastoa hartzen du asteburuan, kalterik gabeko zerbait balitz bezala. Ez da alkohola bezain nabarmena... Jendea laguntza eske etortzen zaigunean, hainbat asko kontsumitzen daramatzalako izaten da. Europako lehen kontsumitzaileak gara, eta oso kezkarria da hori.”

Kokainaz, droga gisa, kalterik egiten ez duelako pertzepzioa dago; behin eta berriro kontsumitzeak dakarren arriskuaz gabetu dute. Beharbada, ongi pasatzeko guneei loturik egoteak hori hala izatea erraztu du.

“Helduen esparruan izugarri kontsumitzen da, eta arrisku pertzepzioa gutxituta duten drogetako bat da. Aisiarako droga da, bizimodu normalizatua izatea ahalbidetzen duena, lehen aldietan bederen.”

Beste estimulagarriak, **anfetaminazko** produktuak (speed-a, anfeta-k, mdma delakoa, eta abar), beste produktu “txiki” asko dira, jai giroan ere kontsumitzen direnak, hala nola es-tasia, ketamina, inhalagarriak, ondoak, LSDa, eta abar. Beharbada, garrantzi txikiagotzat hartzen dira haien kontsumoaren prebalentzia ere txikiagoa delako eta kontsumitzaileak gutxiago direlako, baina haien erabileraren arriskuak larri eta garrantzitsuak dira, eta profesional klinikoek horixe esaten dute. Zenbaitetan, substantzia horien osagaiak oso aizunduta daude, eta, horrenbestez, haiek kontsumitzen dituenak ez daki inoiz ziur zer hartzen ari den.

Diseinuko droga berrien kontsumoari loturik dagozkion arazo garrantzitsuetako bat nahasmendu psikiatriko larriak gertatzea da. Kontsumitzaileetako askok asaldura psikotikoak izan dituzte –batzuetan iragankorrak, eta beste batzuetan kronikoak– halako substantziak erabiltzeagatik. Koadro klinikoa lehengoratu egiten da, baina ez beti. Buru nahasmendu bat diagnostikatzen den guztietan, erabakitzeko gaitasuna eta bizi autonomia gutxitzen edo galtzen dela aipatu behar da. Hala ere, tratatzeko zentroetan halako arazoengatik egoten den tratamendu eskaera txikia izanik, kontsumitzaile askok ezagutzen ez duten eta aintzat hartzen ez duten ondorio posible bat ikusezin geratzen da. Nolanahi ere, kontsumitzaileen artean onartzen da daitekeena dela “bidaia txarra”, “blankoia”, eta abar gertatzea, eta buruhauste handirik gabe onartzen dute, halakoek, gehienez, ordu batzuk irauten duela uste baitute. Aitzitik, osasun mentaleko zentroetan pertsona asko jasotzen dituzte diagnostiko psikopatologiko handi batengatik laguntzeko, droga kontsumoa oso sendoa ez zen –edo, bederen, ahula zen– egitura psikiko baten “pizgailu”tzat izan dutenak.

Kontsumoak oro har aztertuz gero, hartzen den substantzia zehaztu gabe, erraz ikusten da **kontsumo batzuk edo besteak** eta drogak batzuk edo besteak giro eta testuinguru jakin batzuekin zuzenean lotuta egoten direla. Esate baterako, efektu estimulagarriak dituzten drogak gehienbat jaietan eta rave direlakoetan kontsumitzen dira.

“Aipatu dudanez, nik uste, estimulagarrien kontsumoak gora egin du, besteak beste, kokainarenak. Kokaina oso estimulagarri garestia da, eta haren gorakadak, nire ustez, nerabeek orain duten erosteko ahalmenarekin du lotura. Nolanahi ere, gu ikusten ari gara kontsumorik zabalduena polikontsumoa dela, guztiarekin ‘saski-naski’ bat egitea, nahas-mahasean.”

Drogak kalean daude, eta erraza da, oso, eskuratzea. Edozein esku-hartze azertu, landu eta diseinatzeko, zer substantziaz ari garen bereizi behar da, bakoitzak egoera eta alderdi jakin batzuekin baitu zerikusia, eta haietan ere izan behar da eragina. Baina, prebentzio la-

nean, arrisku pertzepzio txikia duten droga guztiez hitz egin behar da –hala nola alkoholaz, marihuanaz, haxixaz edo pilulez–, eta oso errotuta dauden ideia edo topikoak desmitifikatu edo arbuiatu, batez ere pertzepzio aizun horiek erabiltzen dituztenak direlako halako drogekin esperimintatzen dutenak edo haiek gehienbat kontsumitzen dituztenak: gazte sektore ahulak, alegia, babes elementu gutxi dituztenak.

“Nerabe orok kontsumo horretatik pasatu behar du bere errebeldiaren zati gisa, oso lotura estua dute ikastetxeekin, lanerako prestakuntzako zentroekin...”

Beste alde batetik, hain dago zabaldurik eta normalizaturik halako substantzien kontsumoa (beste gauza bat da ea erabiltzen diren, haiekin esperimintatzen den, kontsumo arazotsua den, eta abar), non, zenbaitetan, zaila da zehaztea kontsumoa pertsonen arazo nagusia den ala beste sintoma bat gehiago den jokabide disfuntzionalen sare batean.

“Gizarte eta hezkuntzako esku-hartzearen nahiz gizarte zerbitzuetan egiten den esku-hartzearen ezaugarrietako bat ikuspegi integralak dira. Oso alderdi jakin batean ardazturiko irakurketak eginez gero, bideratzerakoan kontu handiz ibili behar da. Esku-hartzearen hipotesia kontsumo batean oinarriturik dagoen... ala elementu bat gehiago den. Eta norbera kontsumitzen ari bada, daitekeena da, halaber, depresio agerraldia izatea. Faktore bat gehiago da”

Hain zuzen, beste garai batzuetan droga mendekotasuna tratatzeko zentroetan ardaztat elementu horixe hartzen zuten, droga kontsumoa. Gaur egungo laguntza baliabideak, adingabeei laguntzen dietenak, batik bat, ikuspegi konplexuagoa eta integralagoa dute. Kontsumoaz arduratzen dira, baina ez dute halabeharrez hartzen adingabeak dituen gainerako jokabide arazoen jatorritzat.

“Gure aburuz, datozen neska-mutilek era integralean jardutea behar dute, hemen egotea, heziketa araututik atera izana, eragin duten faktoreak oso heterogeneoak dira. Kasu bakoitza mundu bat da, baina askotan ikusten duzu eragina dutela faktore pertsonalek, autoestimu apalak, familia arazoen, egon daitezkeen kontsumo batzuek, eta abarrek. Orduan, pentsatzen dugu heziketa hutseko esku-hartze batek ez diela erantzungo aurkitu ditugun beharrian guztiei”

Tratatu beharreko substantzia identifikatzeari eman diogun garrantziagatik ere, ikuspuntu kontzeptual batetik, drogen arazoa ez da droga berez, ematen zaion erabilera baizik, tolerantzia eta mendekotasuna sortzeko duen ahalmena dela medio.

“Pertsonak substantzia bat kontsumitzen hasten da sentipenak partekatze-ko, talde baten esparruan, gehienetan, eta gune jakin batzuk efektu horien eraginpean bizitzeko. Hori ez da txarra. Ez zen txarra 1970ko hamarkadako belaunaldikoek lau ‘cuba libre’ hartzea eta etxera txolinduta itzultzea as- teburuetan. Arazoa zen egun askotan etxera alkoholez zopaturik iristen

zirenean. Haxixa, gure belaunaldian, noizean behin erretzen zen, eta jendartean. Orain, jendearen ehuneko handi batek haxixa bakarka eta ohikotasunez erabiltzen du."

Beste berezitasun bat da orain gazte jendearen artean polikontsumoa oso ohikoa izatea, hau da, aldi berean substantzia bat baino gehiago kontsumitzea, eta, zenbaitetan, neurriz gain: alkohola, haxixa, anfetaminak eta, beharbada, zerbait gehiago.

"Eta speed-a kokaina baino merkeagoa delako; baina batzuek kokainarako jauzia egiten dute, droga apartekoagoa delako."

Lekukotasunetako batean irakurtzen zenez, joera "saski-naski" bat egitea da; denetarik hartzea, legezko zein legez kanpoko substantziak, kantitate handi edo txikietan, baina kontsumitzea, betiere.

Eta azaldukoagatik pentsa litekeenaz bestera, alkoholak eta tabakoak –hots, legezko substantziek– sortzen dute arazo gehien osasunaren aldetik; izan ere, gainera, azterlan guztiak bat datoz esatean alkoholaren, tabakoaren eta porruen kontsumoan biziago eta goizago hasten direnek dutela aukera gehiago gero beste substantzia batzuek interesa izateko.

"Eguneroko cannabis kontsumoarekin eta asteburuetako kokaina kontsumoarekin iristen dira gehiago. Batez ere psikoestimulagarriak, anfetaminak... Orain dela bi urte ketaminari loturiko kasu gehiago zegoen, baina orain ez; eta 'kristala' zerbait berria da, eta agertu egiten da."

"Bigarren Hezkuntzan sartzan garenean porruak agertzen dira, eta aurreraxeago, Batxilergoan eta Bigarren Hezkuntzako azken zikloan, beste substantzia batzuei buruzko saiok egin ditzakegu. Substantzia horiek une bakoitzean kalean daudenak izango dira: sintesiko drogak, kokaina... Heroinaz aspaldi-aspaldi utzi genion hitz egiteari; dena dela, batzuek diote haren kontsumoa berriz hasi dela azkenaldian, eta hori ikusteko dago... Askotariko substantzia batzuk eskuratzen eta kontsumitzen hasteko adinek behera egin dute."

"Drogarik ohikoenak, sarbide izaera handiago dutenak, hartzen hasteko adinak txikiagotu egin dira: alkohola, cannabisa eta tabakoa. Adi tabakoari, baina, azterlanak egiten ari dira, baina tabakoa erretzen hasteko adina atzeratuz joango da."

Ondoren ageri den lekukotasunean aditzera ematen denez, prebentzio bide eraginkorrenetako bat arriskuen kudeaketa da. Erabat onartzen bada oso daitekeena dela drogekin esperimentatzea, saia gaitezen hasiera hori ohitura bihur ez dadin, substantzia hori edo besten batzuk hartzen jarraitzeko nahia sor ez dadin. Kontsumoaren arriskuei buruzko informazioa ematea eta kontsumoak iraun zezan ahalbidetzen zuten jarrera eta balioetan eragina izatea funtsezko estrategiak dira.

“Funtzionatzeko modu honetan arriskua dago. Egia da, asko edan daiteke, eta intoxikazioa izan daiteke, eta istripuak gerta daitezke. Baina arriskuak murrizten lan egingo balitz, gertaera horiek eta neurritz gainerako kontsumoak prebenitzearren, ez litzateke mendekotasun egoeretara iritsiko, ziurrenik.”

Osasun arloko profesional batzuek eta prebentzioaren barruan gizarteratze arloan lan egiten dutenek ohartarazi dutenez, beste aldaketa batzuk ere gertatu dira. 1980ko hamarkadan ez zegoen Internet, eta orain existitzen den eta posible den guztia sarean dago. Esku hartzeko programak, zorionez, gizartearen aldaketei egokitu zaizkio, bai eta hezkuntza arloko aldaketa eta beharriaz ere. Internet gazteen komunikazio tresna da; hala, bada, beharrezkoa izango da bide hori informazioa eta prebentziozko mezuak zabaltzeko, esku-hartzeak egiteko, eta abarretarako. Bestela, gure lanaren hartzailerak gehienak baztertuko ditugu.

“Hasieran kromo albuma zen hark orain badauzka erruz ikus-entzunezko osagaiak, osagai elektronikoak nahiz askotariko beste osagai batzuk. Ez gara tematu aldatze aldera aldatzen, baizik eta errealtatea aldatzen bada eta haurrak aldatzen badira... Gu zuzentzen gatzazkien haurrek ikus-entzunezko tresnekin ohiturik baldin badaude, eta gu liburukote batekin joaten bagara, oso polita izanik ere, arraro begiratzen diote.”

Datuek agerian uzten dute orain ditugun gazteak inoizko droga-kontsumitzaileenak direla, baina, aldi berean, unibertsitatean toki gehien hartzen dituzten gazteak, kirol gehien egiten dutenak, solidarioenak, borondatezko lankide gehien ematen dituztenak, eta abar ere badi-rela; paradoxa handia, gero. Eta, hala ere, sektore profesional batzuek automedikazioaren ideari eusten diote (hau da, kontsumitzen duten gazte horiek nozitzen duten ondoreza arindu, anestesiatu edo sendatzeko, substantziak erabiltzea).

“Alkoholaz, tabakoaz eta drogei loturiko automedikazioaz ari gara”

Esperimentazioa, inimizazioa, haurtzarotik helduarorako trantsizioa egitea, eta abar aipatu dira, baina, zein neurritan aritzen dira drogak oreka psikologikorako baliabidetzat? Lehen alkohola erabiltzen zen, baina alkoholak asko hondatzen du urteen buruan. Galdera hau da: gaur egun gauza batzuk edo besteak kontsumitzen dituzten gazte horiek guztiak, libreago izango dira 25 edo 30 urte dituztenean? Beren autonomia eta lotura pertsonala sortzeko gai izango ote dira? Beren baliabideak izateko gai izango ote dira? Bizitzaz gozatuko duten pertsona orekatuak izango ote dira? Galdera horien erantzunak denborak emango ditu, baina bien bitartean jokabide osasuntsuagoetarako aldaketak bultzatzen jardun beharko da.

5.2.2. Familiak eta irakasleak

Profesional askok jartzen dute begirada familiaren kontrolean, familia egituran eta horren barruan izaniko aldaketetan, adingabeen artean dagoen droga kontsumoa azaltzeko. Aste-buruetan seme-alabek izaten dituzten jokabideak kontrolatzeko gurasoek gaur egun dituzten zailtasunak behin eta berriro aipatu zituzten, batez ere hezkuntza arloko profesionalek, guraso elkarteek eta jokabide disruptiboak dituzten adingabeei laguntzen dieten profesionalek.

Atzematen dute familia batzuek seme-alaben gainean duten kontrol eskasa eta araurik eza egon daitezkeela haien jokabide gaztakatsuen eta droga kontsumoen oinarrian. Familiak jendaurrean bere egiturazko ahultasunak agertzea eta seme-alabengan kontrol edukia izateko zailtasunak onartzea nahikoa arrazoia da espezialista batzuen iritziz. Hala ere, begien bistakoa da familia guztiek ez dutela bat egiten eskema horrekin, eta, horregatik, azterketa xehea egin behar da, eta ulertu, hainbat pertsona mota dauden bezala, hainbat familia mota ere badaudela, familiakideen osaeraren aldetik ez ezik, barne funtzionamenduaren aldetik, familia rola banatzeko eta onartzeko moduaren aldetik nahiz gizartekoitzeko gaitasunaren aldetik ere bai.

“Gure etxeko kultura botila ardoa eta ospakizunetan edatea da. Neurri batean, hori arazoizko kontsumoen edo kontsumo egokien barruan sartuko litzateke. Arazoa da hori etxean gertatzen ez denean edo erreferentzia falta dagoenean. Esate baterako, giltzadun haurrek erreferentzia puntuen galera nozitu ohi dute; familia onekoak izaten dira, eta ia ez zaie ezer falta, baina barrenetik pixkanaka lur jota geratzen dira. Kontsumitzean, askoz kaltegarriagoa da erreferentzia falta, lehen aipatu dugun familiako kontsumoa baino. Haur horiek kontsumo arazotsuak izateko arrisku handi-handia dute. Gainera, familiaren ingurunean droga kontsumoa errazten duen zerbait hau da: umeak zer eskatu – umeak huraxe eskuratu. Horixe da, hain zuzen, droga, berehalako asebetetzea. Ahaleginaren, lanaren, itxarotearen, eta abarren balioa galtzen da, hau da: frustrazioarekiko tolerantzia. Frustrazioarekin tolerantzia izate horrexek egiten zaitu indartsu drogen aurrean. Frustrazioarekiko tolerantzia garatuta, prebentzio lana egiten duzu.”

Familiaren heziketazko babesgabetasuna gertatu da, eta ezin har daiteke familia horren erantzule bakartzat. Arazoa gizarteari dagokio gehiago, familiari baino. Egia da arazoak familia barruan agertzen direla, horretara bideratu, eta hor sortzen direlako, baina jatorria gizarte dinamikan bertan dago orobat. Familia ez da izaki abstraktu bat, bizi den testuingurutik berezia. Irakurketa sistemikoa egin behar da, gaineraturiko erruduntasunik ez sortzeko.

“Zerbait nabarmentzekotan, gizartearen koherentziarik eza nabarmendu beharko litzateke. Gauza batzuk gaizki ikusita daude, eta debekatu egiten dira, baina sustatu egiten dira aldi berean. Denok gara benetan inkoherenteak, eta ezin da eskatu gazte bat koherentea izan dadila inkoherentiaren aurrean.”

“Asteburuetan ‘irtetea’ era sistematikoan instituzionalizatu da. Inguruko beste herrialde batzuetan hori ez da gertatzen. Ez da ikusten eta ez da normaltzat jotzen adin txikietan adingabeak kalera irtetea sistematikoki asteburuetan, baina hemen gizarteak, familiek eta abar onartu duten zerbait da. Baimena dutela irteten dira. Gaueko ordu txiki horietan kalean dabiltzan adingabe horiek aukera gutxi dituzte. Ordu horietan dagoena dago, eta irteten den helburuarekin irteten da. Errealitatea da gazteak hirietako alde zaharretara joaten direla, eta hor alkohola edan dezakete, droga eskaintzen

dieten, eta abar. Zer eskaintzen die gizarteak nerabe horiei? baldin gurasoek gauez irteten uzten badiete, gauez besterik ezin bada egin, guztiek normaltzat jotzen badute gauez irten daitezzen gaueko hirurak edo laurak arte, gaueko ordutegiengatik liskarra sortzea nagusi egitearen seinalea bada.”

Ez da txosten honen helburua familiaren aldaketak eta sistemaren nahiz gizarte dinamika-
ren ahultasunak aztertzea, ez eta halakoek elkarrekin izaten dituzten interakzioak ere, baina
bat gatoz José Antonio Marina-ren tesi batekin; tesi horren arabera, gizarteak, oro har, eta
kontrol egituretako askok adingabeak hezteko betebeharra utzi, eta zeregin hori gurasoei
eta irakaskuntza arautuko hezitzaileei bakar-bakarrik eman diete. Horrek egoera konplexu
bat dakar, hezitzaile eta gurasoek –ez kasu batzuetan baina bai neurri garrantzitsu batean–
elkarri lagundu beharrean, etengabeko eztabaida batean nahasi baitira heziketaren espa-
rru batean edo bestean bakoitzak dituen arduren inguruan. Aita-amek berentzat nahi dute
seme-alabei gertatzen zaien orori buruzko azken erabakia, baina ikastetxeei eginkizun esker
txarrekoenak eta konplexuenak utzirik. Irakasleek, bestalde, aita eta amen engaiamendu
handiagoa eskatzen dute gurasoen kontrolari dagokionez, bai eta irakasleekin koordinazio
handiagoa eta hobeia izan dezatela ere, baina askotan kostatu egiten zaie onartzea haien
heziketazko eginkizunak ezaguerak transmititze hutsa, arauak ezartzea, edo ikasleei eskola
esparru zurrunaren barruan eustea gainditzen duela. Kasu batean zein bestean, ez dute
onartzen haien eginkizuna eta lana zalantzan jartzeko aukera.

Gurasoen irudia ere berreskuratu behar da, eta erantzukizuna hartu behar dute; izan ere,
orain guztia eskolaren esku uzten dute, eta eskolak ez dio uko egiten bere esku hartzeari,
baina onartu ere ez du egiten.

*“Nire aburuz, arazoan zati handi bat helduen mundutik ematen diren eran-
tzunetan datza, eta, horrenbestez, bereziki landu beharko litzateke, gura-
soen, hezitzaileen eta nerabeekin denbora eta ardura partekatzen duten
gainerako gizarte eragileen heziketa.”*

Osasun publikoaren arlotik datorren lekukotasun batek esandakoarekin bat datozen zenbait
puntu adierazten ditu, eta berretsi egiten ditu heziketaren inguruan dauden konplexuta-
sunak eta kontraesanak; horrek kudeaketa lana zaildu egiten du:

*“Gizartearen ikuspegia kontraesanduna da, gurasoen jarrera kontraesandu-
na da, nahasia zenbaitetan, etsia beste zenbaitetan, eta eroso askotan.
Haien esku dago baimena ematea, amore ematea, seme-alabak irten dai-
tezkeen ala ez esatea, eta abar. Bestalde, gizartearen mezu batzuk zeharo
kontraesandunak dira. Une honetan aniztasuna dago gizartean, eta anizta-
sunean, hain zuzen, datza aberastasuna, baina eskatzeko moduko gutxie-
neko bizikidetzari irizpide batzuen falta sumatzen da. Gazteek horri guzti horri
antzematen diote, ohartzin dira funtsezko irudi batzuen autoritatea –irakas-
leena ikastetxean, esaterako– zalantzan dagoela, baita gurasoen aldetik
ere, zenbaitetan. Ez dago oso argi helduen koherentzia legezko drogen
kontsumoari dagokionez. Nik uste dut nahastea orokorra dela, eta gurasoak*

etsita daudela. Azken horiek ez dute kontrolatzen askotan, eta ez dakite nola gobernatuko duten kontua. Haien semeak edo alabak gauza jakin batzuk egingo ez dituela pentsatuta babesten dute beren burua, eta desiratzen daude eta itxaropena dute haien seme edo alabari arazo hau edo bestea ez egokitzea. Baina nik, egia esan, uste dut askotan ez dagoela jarrera irmo bat seme edo alabarekin gauza batzuk negoziagarriak ez direla esateko. Gainera, jarrera horietan konplexuak daude zenbaitetan, ageriko gauza denean. Seme-alabak beste gauza batzuetatik babesten diren bezala, negoziagarria izan gabe, beste gauza batzuetan badirudi nolabaiteko konplexua dagoela hori adingabeentzat ona ez dela esateko.”

“Gazteek antzeman egiten diete gizartearen mezu kontraesandunei. Batzuek ongi dioten, beste batzuek, aldiz, gaizki; cannabisaren erabilera terapeutikoa eta cannabis ona izatea nahasten dira, eta abar. Ez dago mezu argirik. Osasunaren aldetik, erabakiak hartzea gizarte ekimenaren esku, oro har, uzten da. Batzuetan ez dira biribilki jartzen mahai gainean gauzek osasunean izan ditzaketen ondorioak, edo foro mugatuetan, foro zientifikoetan edo osasun arloko profesionalenetan, jartzen da, baina ez gizarte ingurunean. Ona litzateke hori helaraziko balitz.”

Ildo horretan, ulertu egin daiteke –baina ez aldeztu– gurasoek eskolako ekimenetarako duten motibaziorik eza eta, orobat, irakasleek hezteko zereginean bertan duten engaiamendu txikia, irakasgai jakin bati edo besteari dagokionaz haraindi doan hezte zereginean, bederen. Guraso elkarteetako kideek ere aitortzen dituzte familiak ikastetxeetako jardueretan parte har dezaten mobilizatzeak dakartzan zailtasunak.

Pertsona batek, grafikoki, aditzera ematen du zein zaila den ikastetxeetan hitzaldiak eta jarduerak antolatzea; benetan kostatzen dena da familiak mobilizatzea, seme-alabak hobeki hezteko prestakuntza jasotzen laguntzen duten jardueretan engaiatzea. Ez da erraza gurasoak –eta aitak neurri handiagoan– prestakuntzako jarduera horietara joanaraztea. Ikastetxea engaiatzen den heinean, familiak gehiago joaten dira.

“Ez da gauza bera deialdia ikastetxeak egitea edo guraso elkarteak egitea.”

“Antolatzen diren gurasoentzako saioetara, lau joaten dira. Ez dira kezkatzen semea edo alaba harrapatu arte, edo gaizki etxeratu arte, eta abar. Behar bada, ona litzateke edozein gurasok buelta bat ematea alde zaharrea goizeko hiruetan edo lauretan. Ikus dezatela zer dagoen. Horrela, tolerantzia hori, sorbaldak jasotze hori, eta abar bukatuko litzateke. Gurasoek ez dakite zer egosten ari den, ezta jakin nahi ere. Beldur diote jakiteari.”

Profesionalek ikusten dute familia batzuek, beren eginkizunen aurrean ez ezik, drogekiko erlazioan ere aldatu dutela jarrera. Legezko drogen kontsumoak gehiago kezkatzen ditu 2008ko familiak, 1980ko eta 1990ko hamarkadetakoak baino. Hor ere, dena dela, kontraesanak ere badaude. Toleranteagoak dira adin jakin batean kopak hartzera joatearekin

(hori haiek lehen ere bizi zuten) litroak egitearekin baino, azken hori ez baitute bizi izan. Substantzia jakin batzuk kontsumitzeak dakarren arriskuari buruzko pertzepzioa aldatu egin da, eta alkoholaren erabilera barkaberatasun handiagoz hartzen dutela ikusten da. Helduek alkohol kontsumoa justifikatzen eta babesten jarraitzen dute, eta, are gehiago, batzuetan kontsumo horrek dakartzan arazoak gutxietsi egiten dituzte. Labor esanda, ezagutu eta esperimintatu dutena justifikatu egiten dute, eta ezagutzen ez dutena, gaitzetsi (arrotza zaielako, fenomeno ezagutzen dutelako baino gehiago).

“Eta hori guk eduki ditugula haiek plazan jolasean tabernetan edaten ari ginen bitartean...., tabako-kontsumitzaileak izan ezik, haiek hortzez eta haginez gogor egiten dute eta jazarrita sentitzen dira... tabakismoari buruzko mintegi bat egiten dugu, eta guraso gutxien joaten den saioa izaten da.”

“Gurasoek eta profesionalak berek diote purruak bakarrik erretzen badituzte ez direla hainbeste kezkatzen; kokainak, ordea, beldurra ematen die.”

“Lehen ‘umeari haxix puxketa topatu diot, hil nahi dut, drogak hartzen dabil, ziur’, eta familiak larri etortzen ziren, esanez: ‘Zer gertatzen ari da? Nire umea, baina, ikasle ona da, txintxo...’. Larritasuna ez da orain hortik gehiago etortzen. Orain etortzen dira kontsumoaren bilakaera bat egon delako, nahikoa neurritz gainekoa den kontsumo bat.”

Guraso elkarteetan ere, hezkuntzaren aldetik duten arduraren jakitun, azpimarratu egiten dute adingabeen gaineko kontrola egiten jarraitzeko beharra. Diotenez, kontsumoak mugatu beharko lirateke, eta gazteei droga eskuratzeko zailtasunak jarri, orain ez baitago batere zailtasunik horretarako:

“Ez kontsumitzea da ideala, baina bekaturik gabe dagoenak bota dezala lehen harria.”

Familiaren aburuz, irakasleek gaitasuna izan beharko lukete adingabeei oinarritzeko arau batzuk ezartzeko; gainera, nahiz eta erraza ez izan, ikasgelatik kanpo gertatzen diren baina ikasgela barruko funtzionamenduan eragina duten kontsumoei mugak jartzen saiatu beharko lirateke.

“Zu ez zaude ikasgelan sartzeko eta ‘esan gurasoei etortzeko’ botatzeko moduan.”

Hala eta guztiz ere, guraso elkarteek onartzen dute ikasleek berek erreferentziazko irudi guztiei (gurasoak, irakasleak, eta abar) ukatzen dietela ezagutza eta autoritatea.

Gurasoei iradokitzen dieten kontrol era bat litzateke adingabeei ez uztea goizeko ordu txikietan jaitik etxeratzen. Guraso batzuek seme-alabei, oso gazteak direla, oso berandu etxeratzen uzten diete. Gurasoen ordezkarien aburuz, antza denez, ordutegiak kontrolatzea modu eraginkorra da substantziak adin txikiegietan kontsumi daitezen saihesteko. Aditzera ematen dute ordu jakin batzuetan edan eta mozkortu, hain zuzen, egiten dela. Era berean,

goizeko ordu bietan drogak eskuratzea egunean zehar baino errazagoa dela diote. Egiazki, azterlanek hipotesi hori berresten dute: kontsumoko testuingurutan zenbat eta ordu gehiago eman, orduan eta aukera handiagoa kontsumoa gertatzeko. Pertsona batek denbora gehiago ematen badu alkohola, tabakoa edo beste substantzia batzuk kontsumitzen diren ingurune batean, jokabide izateko aukera handiagoa da giro horretan dagoen bitartean.

Jakin badakite zer eginkizun duten seme-alaben heziketan eta adingabeek astialdia egituratzeko moduaren gaineko kontrolean, baina badirudi zailtasunak aurkitzen dituztela egin behar dutela uste duten eta dakiten hori praktikan emateko. Nolabait, gaitasunik eza edo argudiorik eza agertzen dute galdutzat dutenaren aurkako jarrera hartzeko, erroturiko, masifikaturiko ohiturak, gazte kulturaren zati, direlako. Zaila da eragozteka seme edo alaba batek gehienek egiten duten gauza bera egin dezan; azken batean, ikusten dute beste guraso askok baimena ematen dutela edo, besterik gabe, onartu egiten dutela.

“Nire iritiz, nerabeekiko permisibitate mailak esku artetik ihes egin digu, argi eta garbi. Heldu batek gazte bati zuzendu ezin izatea... Norabidea galdu dugu.”

Familiek kontsumo jakin batzuk banalizatu arren eta zenbaitetan etsi arren, horrek ez du esan nahi kezkatu ez daudenik. Prentsan adingabeen droga kontsumoari buruzko estatistikak agertzen direnean, edo kasu jakin bat gertutik bizi dutenean, ezinegona areagotu egiten da, baina halako jokabideak orokortu izanak eragiten du haien ohikotasunagatik asimila daitezen.

Bestalde, aita eta ama askok kontzientzia txarra dute seme-alabekin denbora gutxi ematen dutelako, eta, ondorioz, amore-emaileagoak dira –gehiegi, zenbaitetan–, eta seme-alabekin ematen ez duten denbora hori “konpentsatzeko” edo, nahi duten guztia ematen diete; jokabide hori ez da batere lagungarria gazteak hezteko eta gazteek berek erantzukizunak hartzeko.

“Debekuzko neurrietan gehiago oinarritzea, beharbada? Jakina, esan behar da adingabe batek ezin duela alkoholik erosi. Noski, ostalariak ere esaten dute: Eta zer egiten dute gurasoek hemen dauden hauekin guztiekin? Eta gurasoek: Eta zer egiten dute ostalariak saltzen? Bien kontua da. Halaber, gizalege eta heziera arazoa ere badela uste dut. Litroak egiten dituzten tokietan, kaleak, plazak eta abar nola geratzen diren ikusiko bazenu; hori jendetasunaren aurkakoa da. Gazteek mugak behar dituzte, eta zenbaitetan norbaitek muga horiek noiz jarriko irrikatan daude. Erreferentzia bat behar dute, hura juzgatzeko, muga horri neurria hartzeko. Halakorik ez badute... Batzuetan, muga hori behar dute hautsi ahal izateko ere, hautsiz gero etorriko lirakekeen ondorioak ikusteko.”

Mugen eta askatasunaren arteko joko batean sentitu behar dute nerabeek. Batetik, libre sentitzea, bestetik, muga bat behar du; muga horren bila ari dira.

“Orain dela 18 urte jakinekoa zen, oso, ‘junki’en fenomenoa. Oso jakinekoa zen droga kaltegarria zela, baina ikusi dut, urteen poderioz, haxixaren eta deribatuen kontsumoa izugarri normalizatu dela. Guk lanbide hastapenetarako ikastegian lan egiten genuen, eta hango gaztetxoek aukera asko dituzte haxix-kontsumitzaileak izateko; baina gizartekoitza gertatu da, bai, barneratu egin da normala dela porruak erretzea. Bilakaera hori begien bistakoa izan da. Gurasoek, noiz edo noiz aipatu badiegu semeak edo alabak kontsumitzen duela, naturaltasun osoz onartzen dute. Barneraturik dute seme-alabek kontsumitzen dutela.”

Egia da heziketa berebiziko konplexutasuna duen zeregina dela, baina gurasoek nerabeen aurrean adierazten duten beldurra ia estereotipo giza finkatu da. Alderdien artean gatazkak egotea (halakoak beti egon dira) negoziatzeko eta hitz egiteko aukeratzat ikusi beharrean, kosta ahala kosta saihestu beharreko hausturatzat bizi izaten dute.

“Errealitatea da, nire ikuspuntutik, gizarte honek ez duela oso argi zer baliyo eta zer gauza helarazi behar dituen; horrenbestez, gazteek kontraesan batzuk ikusten dituzte maila guztietan, eta ez dute beren burua bermatuta muga argiko jarrerren bidez, mundu guztiak onarturiko jokabide ereduaren bidez. Ez jarrera zurrunik ez jarrera inposatzaileak; mundu guztiak onarturiko bizikidetzak balioak, besterik gabe, haietan gauza batzuk negoziagarriak ez direla: adingabe bat adingabe da, eta ez da negoziagarria. Pertsona adingabe horren ongia ez da negoziagarria. Nahiz eta galdetu egin daitekeen zer den ongia eta zer gaizkia, nik uste dut ez dela zaila ulertzea, adingabe bati dagokionez, gauza batzuek ez diotela lagunduko heltzeko prozesuan, ez pertsona den aldetik, ez gorputz organiko bat duen aldetik.”

Badirudi nerabezaroaren kontzeptutik gatazkei eta zailtasunei loturikoa baino ez dela zabaldu; ikuskera hori oso hedatuta dago jendearen iritzietan, baina espezialista batzuen artean ere bai. Alde batekoa eta negatiboa den abiapuntu horrek eragin du izaten dituen arazoaren eta arriskuen bidez ia bakarrik defini ditzaten eboluzioaldi hori, nerabe izateak gatazka-kortasuna berezkoa balu bezala. Nerabeek berek onartzen dituzten eta gizarte etiketek indartzen dituzten prozesuetan izaten dituzten jarrera, jokabide eta erreakzioek eragina izan dute horretan. Nahiz eta psikologia ebolutiboan eta pedagogian diskurtsoa birlantzen ari diren eta dagoeneko nerabezaroaz aukeratarako aldi gisa –ez arriskurik gabea, baina– hitz egiten duten, jendartearen benetan zabaldu den mezua da gurasoek beldurra izan behar diotela gatazketan eta mugak jartzeko eta kontrola egiteko zailtasunean oinarriturik bizi duten aldi bati:

“Eta gurasoen kontua... Nik uste dut oso garrantzitsua dela heziketa ereduaren gaia. Nire aburuz, zati batean hori jokatzen ari gara nolakoak izango diren belaunaldi berriak. Berebiziko ahalegina egin beharko litzateke guraso eskolarekin... heziketa eredu jakin batzuk sustatzeari loturiko guztiarekin. Mundu guztiak egiten ditu ordenagailuko ikastaroak, eta gero edozein da aita eta ama.”

“Nik ez dut uste halako gaiak garrantzitsuak direnik inon. Zu zeure guraso eskola txikiarekin joaten zara, eta beharbada izena emango dute. Azkenean ondorio hau ateratzen duzu: ongi da, guraso eskolak mantendu egin behar dira, baina guraso gehiagorengana iristeko sistemak bilatu behar dira.”

Beharbada, agerikoa ez den era batean, gobernua familiarentzako politika publiko bat gara dezala eskatzen da. Familia zer den edo zer ez den kontuan izaten duten iritzi moralak albo batera utzirik, familiaren egitura sendo dezan politika bat, pertsonen bizitzan organo nagusia, gunea eta aterpea den aldetik, bai eta gizartearen nahiz osasunaren aurkako jokabideetatik eta jokabide bazterketa-sortzaileetatik babesteko faktorerik hoberena ere. Egiaz, familientzako laguntza eskatzen da, belaunaldi berriak hezteko, bizitzan, drogekin nahiz bizitzako beste esparru batzuekin, arazo gutxiago izan dezaten. Udalerrri askotan familieei aholkua emateko zerbitzuak daude, eta haietan esparru hezigarriago bat eskaintzen da, bai eta tresna zehatz batzuk ere.

“Zenbaitetan, familia etortzen da, kezkaturik, eta ez dugu ezer egiten dena delako adingabearekin; jarraibide psikologikoak eta heziketazkoak lantzen dira haiekin. Beste kasu batzuetan adingabea dator, eta harekin era paraleloan lan egiten da, familiarekin lan egiten den bitartean, konfidentzialtasun espazioak errespetaturik. Baterako saioak ere egiten dira, baimena eman eta gero, zer gauza gertatzen ari diren eta zer aldatu beharko lirakeen aztertze aldera.”

“Beste gauza bat da gazteek independentzia eta autonomia areagotu ditzutela. Boterea bereganatu dute gurasoen aurrean. Gaur egun, gaztetxo batek gurasoak behartu ditzake irteten uztera, eta are, itzultzeko, berak nahi duen ordua ezarri. Orain dela urte batzuk hori ez zen horrela. Aldaketa da gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan. Aurreko belaunaldia asko borrokatu beharra zegoen askatasun batzuk lortzeko, nor bere gaueko astialdia antolatzeko. Orain, gurasoek ez dute ez gaitasunik ez gogorik muga horiek jartzeko, eta muga horiek, egiaz, haien artean, adiskide taldean, daude adostuta. Gaur egungo gazteak lehengoak baino autonomoak dira, ordu-tegiei dagokienez, gurasoei eman beharreko azalpenei dagokienez, adiskideak aukeratzeari, eta abarri dagokienez.”

5.2.3. Eskolaren eta administrazioaren jarduna hezkuntza arloan

Nahiz eta dagoeneko zeharka aipatu diren ikastetxeetako erreferentzia irudi nagusiak, irakasleak, alegia, ondorengo edukietan haiek hartzen dira azterketaren ardaztat, eskolako testuinguruarekin batera, alde batetik, eta administrazioarekin berarekin batera, beste aldetik. Badirudi azken horrek, dena esateko, ez dituela asetzen elkarriketatuek dituzten usteak, bete beharko lituzkeen eginkizunei dagokienez.

Hezkuntza erakundeari buruz, elkarriketatuek, oro har, uste dute gaur egun ikastetxeetan badagoela neska-mutil asko aspertuta edo porrot eginda sentitzen direnak; hori bera hautesmaten dute bai ikastetxeak berak bai irakasleek.

“Buruan dut 14 urteko gaztetxo bat, ikastea gustuko ez duena, eta ikastetxeetan arrakastaren eta porrot-egitearen artean dagoen dualtasuna dela eta, tsunami bat ikusten dut. Frustrazio sentipenarekin ateratzen da ikasgelatik, mingostasun eta gauzaez sentipenarekin, eta hori ez dagokio berari. Hezkuntza sistemak ez daki halako pertsonentzako bideak irekitzen, eta pertsona horiengan edozer mendekotasun mota izateko joera gabezia horren ondorioa da. Eskolan bertan arrakastaren edo porrot-egitearen ideia sortzea errakuntza da, eta ikastetxeek hezkuntza birplanteatu behar dute. Norbaiti ongi ez badoakio, irtenbideak izan ditzala. Eskola porrota ez da ikaslearena, eskolarena baizik.”

Ikastetxe baten zuzendaritzatik, interpretazioa da irakasleen autoritate eta ezagutza faltak eta ikasleen motibaziorik ezak zerikusia dutela, batetik, hezkuntza lege berriarekin, hezkuntzaren derrigortasuna luzatzen baitu, eta horrenbestez ikasten egon nahi duen 16 eta 17 urteko jendea dago, eta bere umore txar guztia ikastetxean botatzen du. Beste alde batetik, eskola graduatua lortu ez, hezkuntza araututik irten, eta bazterketa errazago jartzen duten ibilbide pertsonal eta sozialak aukeratzen dituztenak daude.

“Horrek arazo handia sortzen zuen, nerabeak direlako eta, beheraldi edo bolada bat izan eta gero, arazoa bideratu egiten delako, baina gazte bat, graduatua ez baitu, batxilergoa edo prestakuntza ziklo bat egin ezinean badduzu, bazterrerara, gizarte bazterketara, eramaten duzu, hitz gogor bat erabiltzearren.”

Guraso elkartearen federazioan diote, gobernuaren aldetik, Hezkuntza Saileko zuzendaritza eskola ordutegiaz bakar-bakarrik arduratzea muga bat dela.

“Eusko Jaurlaritzak, oro har, ez du parte hartzen eskolaz kanpoko jardueren arloan. Ez dakit utziera den, baina Hezkuntza Saila ez da egoten eskola orduetatik kanpoko guztian. Haurtzaindegiez edo ikastetxeek familiei laguntzeko ordutegi zabalagoak izateko eskaeraz ez du ezer jakin nahi. Eusko Legebiltzarrean badaude akordio batzuk familiarekin bateratzeko neurriak abian jartzen saiatzeko, baina oraingoz ez da ezer lortu.”

“Erakundeen koordinazioa garrantzitsua da. Erakundeek askoz gehiago baliotsi behar dute adingabeekin ikastetxearen inguruan egin daitekeena, eta ez ditut eskola orduak bakarrik buruan; eskolarako bidea, eskola orduak, eskolako jantokia, eskolaz kanpoko ekintzak, auzo elkarteak, udalekuak, eta abar. Horretarako, norbaitek pentsatuko beharko luke zintzoki nola iritsi behar diren mezu horiek adingabeengana, eta Hezkuntza Sailak koordinatuta egin beharko litzateke. Erakunde sistema handia dugu, onuragarria da, antza, baina erakunde asko dira. Ez da komeni mezuak bakarrik Hezkuntza Sailak ematea, adingabeekin eskolaz beste arlo batzuetan lan egitera ohiturik dauden pertsona batzuek baizik; eta irakasleei mezu bat iritsi behar zaie, ez kanpaina bat. Irakasleek, onenean ere, kanpaina iristen den egunean

apur bat hitz egiten dute gaiaz, eta kartelak jartzen dituzte. Ingeleseko jolas batean, matematikako problema batean, eta abarretan sartzeko moduko mezu bat iristea hobe da.

Batzuetan badirudi Hezkuntza Sailak prebentzio orokorra baino ezin duela egin, Droga Gaietako Zuzendaritzak zuzeneko eta banakako laguntza eman dezakeela, eta gu han geratzen gara, pentsatzen berdin diola nork egiten duen, zer hori ongi egiten bada eta emaitzak baditu. Horrela lan egiteko, lanak ezin dira oso epe laburrera egin, gutxienez epe ertainera egin behar dira, eta gu guraso elkarteon ustez, halako epea hiru urtekoa da. Horretan, zenbait arazo topatzen ditugu. Hiru urterako hitzarmenak lortzea oso zaila da. Urteko diru laguntzarekin lan egin ohi da, eta urteko diru laguntza hori oso gutxitan iristen da irailaren lehenaren aurretik; horrenbestez, egun horretara arte batere diru sarrerarik gabe lan egiten ari zara. Mailegu baten bidez bizi gara, eta eskerrak maileguari. Ondorioa da sistema honek ez duela balio elkarteek jardun ahal izan dezaten. Ez du balio denboran zehar irautea nahi diren proiektuak aurrera eramateko.

Beste arazo bat da gizarte eragile bakoitza nola hartzen den. Baldin guraso elkarteak hezkuntzako eragiletzat baino ez badira hartzen, udalerrietako, aldundietako, eta abarretako gainerako arloek hezkuntza arlora bidaltzen zaituzte, eta horrek badu ditu bere mugak. Sentiberatasun handiagoko arlo batzuek ulertu egiten dute hau gizarte jarduna dela, ez dela matematika irakastea, eta, ordea, lan honek herritar hobeak, droga arazo gutxiago, gizarte lana, kulturartekotasuna, eta abar dakartzala. Hirugarren arazoa da astirik ez dugula, jende asko liberatuta egon daitezke gauza horietarako, eta boluntarioek ez dute astirik gauza berak 50 aldiz errepikatzeko, boluntarioek oporrak hartzen baitituzte Eusko Jaurlaritzara programa azaltzera joateko, esaterako, baina gu ohituta gaude dagoeneko. Bidean jarritako eragozpenak dira, eta, gainera, zuzenean jarduteko denbora kentzen dute.”

Irakasleek jakin badakite ikasleek alkohol kontsumo handia izaten dutela asteburuetan, eta substantzia hori egunero edaten dutenen kasu jakin batzuk badaudela. Arazoa da ikasleek gehiegikerien ondorioak nabaritzen dituztela eskola astearen hasieran, eta horrek eragina izaten duela haien errendimenduan.

Heroinari loturiko arazoak oso gutxi dira, baina “badakite” kokaina kontsumoa badagoela. Tabakoa beti egon da, baina ez ikusiarena egiten zen. Azken batean, substantzia ezaguna da. Tabakoaren aurkako legea aplikatu eta eskolaren testuinguruan berriazko debekua ezarri eta gero, gutxiago erretzen dela ikusten dute, ikastetxean bertan, behintzat, ikasleek debekua barneratu dute eta. Aipatzen dutenez, alkohola izan da eta bada kezkarik handiena, haxixak sortutako kezka baino are handiagoa.

“Lehen alkohol kontsumoa kalimotxoa eta garagardoa hartzean zetzan, eta orain, batez ere, lehertzeko moduko koktelak hartzen dituzte, berehalako efektua dutenak eta txikitzaileak direnak. Askok gertatzen da hori.”

Ikastetxeen inguruko substantzien trafikoko xehearekin ere daude kezkatuta irakasleak; institutuen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen inguruan gertatzen da hori. Irakasleek ez dakite zer eskumen duten horren inguruan, baldin badituzte, eta beste eragile batzuei uzten diete arazo horri eusteko zeregina. Gorabehera horietako batzuk prentsan agertu dira, eta tartean zeudenen familiei jakinarazi zaizkie.

“Nik ezagutzen dudan ikastetxe batean, bai, noski, kontsumoa eta trafikoa txikia daude, hezkuntzako administrazioari planteatu, eta eskumenik ez duela dio. Eta egia da, ez du esku hartzeko eskumenik, ikastetxearen patioaren inguruetan gertatzen delako. Sistema judizialari galdetu, eta adingabeen fiskalek (hirurak emakumezkoak dira) haiek ere ez eskumenik ez dituztela erantzuten dizute.”

Arazo hori ikusita, eskaintza –hau da, substantziaren eskuragarritasuna– nolabait kontrolatu behar dela aldeztu jarraitzen dute.

“Kontrol lanari dagokionez, oso ongi deritzot institutuen inguruan polizia-aren kontrola egoteari, eta trafikoa txiki horretan dabilen gaztetxoa harrapatu, orientatu eta zuzentzeari, eta, tratamendu psikiatrikoarekin esku hartu behar bada, horrela esku hartzeari.”

Baina ikastetxe “normalizatu” enetan zailtasunak berez agerikoak badira, ikastetxe “berezi” batzuetan egoera, behin aztertu eta gero, dramatikoak dela ikusten da, hezkuntza ereduaren, ikasleen profilararen nahiz kokaturik dauden ingurunearen aldetik. Gizarte egoera ahuleko ingurune batean dagoen Lehen Hezkuntzako ikastetxe bateko irakasle batek bere zailtasunak azaltzen ditu:

“Ikasleen %90 ijitoak dira, ijito etniakoak, eta beste %9 atzerritarrak dira, eta, horrenbestez, funtsezko bi arazo ditugu, bizikidetzeta eta ikaskuntza. Familia ez-akademikoak dira, ez dute etorkizunerako asmo bat seme-alabek ikas dezaten, eta orduan oso konplexua da, eskolara huts egiteagatik eta abarregatik. Ziur gurasoek kontsumitzen dutela, eta seme-alabak kalean denbora luzea ematen duten haurrak dira. Eta azoka txikietan haurrak beren kasa uzten dituzte. Nik ikusten dudanez, emakumeek lan egiten dute, eta gizonak dirua kontrolatzen dute eta hor zehar ibiltzen dira. Haurrak asko ibiltzen dira nagusiekin –nagusiak txikiez arduratzen direla suposatzen delako–, eta nik uste dut asko imitatzen dituztela. Susmoak ditugu 6. ikasmilako haur baten inguruan. Lau urte daramatzagu udalarekin harremanetan jartzen. Baina pausoak oso motelak dira, eta lau urteren buruan, orain egiten ari zaizkio balorazio psikiatrikoa.”

Kasu honetan “ghetto”ak diren ikastetxeak ditugu, eta ikasleentzako egoera posibilista lortzeko ahalegin guztiek traba ugari topatzen dute halakoetan. Ez da hau administrazioaren nahiz gizartearen engaiamendua eskatzen duen arazo batek? Ikastetxe horietako ikasleek, oro har, badituzte egoera ahulean jartzen dituzten hainbat zertzelada, droga kontsumoaren aurrean edo bestelako jokabide desbideratu edo disruptibo batzuen aurrean.

Institutu bateko zuzendariak aitortzen du droga kontsumoa gertatu egiten dela ikastetxeetan. Gainera, ikastetxe batzuk gatazkatsuko dira, kokagunearen ondorioz nahiz ikasleen jatorriaren nahiz gizarte ingurunearen (gizarte egoera ahulekoa, neurri handiagoa edo txikiagoan) ondorioz.

Ikastetxe batean arazoa egunero ikusten dutenek egoerari buruz ematen dituzten iritziak ez dira baikorrak, batez ere ikastetxe horrek gatazkakortasun berezia ematen dioten ezau-garriak baditu.

Prebentziozko esku-hartzea ez da egin behar etikako edo filosofiako eskoletan, esparru horretan prebentzioaren aurkakoa gertatzen delako. Gomendagarriagoa da orotariko prebentzian jardutea, era etengabe eta zeharkako batean.

“Prebentzioa ezin izan daiteke berariazko prebentzioa; orotariko prebentzioa izan behar du. Jokabide arriskutsuetan edo droga mendekotasuneko jokabideetan arreta gehiegi jartzen bada, egoerak sendotu egiten dira, eta kontsumoak indartu. Horrenbestez, LOGSEn zehar lerrotzat ageri zen hura egin behar da, alegia, orotariko prebentzioa. Argi izan beharra dago droga mendekotasunaren arlo horretan esku hartu behar dela, ikuspegi guztietatik eta jakintzagai eta irakasgai guztietan, orotariko eran, zeharkakotasunaren bidez. Baina horretarako behar bezalako motibazioa duen jendea eta argi zehaztutako helburuak izan behar dira, esku hartzeak emaitzak izan ditzan.”

Beste zailtasun bat jarduerak bikoiztuta egotea da. Kapitulu honen hasieran aipatu denez, eragile eta erakundearen ardurak ez daude mugaturik, eta, zenbaitetan, esku hartzen ez dela aurki daiteke, edo, aitzitik, esku-hartze bikoitza dagoela. Azken kasu horrek ikastetxea, ikasleak, eta abar nahasten ditu, mezuak homogeenak ez badira, batik bat; horrez gain, baliabide ekonomiko eta pertsonalak alferrik xahutzen dira, halakoak soberan ez daudenean.

“Hezkuntza Sailaren barruan, guk bagenuen ekimena drogen arloari zegokionez, baina batzuetan ikusten dugu ekintza batzuk bikoiztu egiten direla, hau da, berritzeguneak egiten zituen eta udaleko Osasun Arloak egiten zituen.”

Beste kasu batzuetan, prebentzioa aurrera eramateko orduan, hezkuntza arloko erreferentzia-emaeleek duten prestakuntza falta aipatu da. Alde batetik, irakasten denbora luzea daramaten hezkuntzako erreferentzia irudiak daude. Haien sentitzen dute gazteei nahiz haien ohiturei buruz –kontsumoari, astialdiari, eta abarri dagokienez– dakitena zaharkiturik gelditu dela. Beste alde batetik, irakasle belaunaldi berri bat agertzen ari da, eta belaunaldi horretakoek ez dute beste ezertan nahasi nahi, irakatsi behar duten irakasgai akademikoan baizik. Azkenik, irakasle askok gainezkatuta sentitzen dira, proposatzen zaien zeregin eta prestakuntza direla eta, eskaintza hori koordinaziorik gabe iristen delako.

“Ikastetxeetan prebentzio planak gainegitura gisa egiten dira. Gainera, honetan dihardugunok urte asko daramatzagu gai horretan, eta azkenean, une jakin batean, ez dago batere prestakuntzarik. Hori funtsezko faktorea da. Gure

belaunaldian irakasleak erruz sartu ginen, 1970. urtetik 1985. urtera bitartean, eta geu arduratu ginen baby boom ospetsuko belaunaldiaz; ordukoek sistema gainezka bete zuten, ez bakarrik bete, gainezka. Horrenbestez, hezkuntzaren arlo honetan urte asko daramatzagun pertsonak gara. Eta une jakin batean, esaterako, ez dago batere prestakuntzarik. Ikaragarria da, baina halaxe da. Jadanik ez dago etengabeko prestakuntzarik, eta, jakina, droga mendekotasunaren gaian prestakuntza beharrezkoa da.”

“Gizartea hain aldakorra denez, baldin etengabe informaturik ez bazaude, zaila izango da asmatzea esku hartzean. Horrenbestez, egia da hezkuntza sisteman une honetan dauden irakasleek, nik dakidanez, ez dutela behar besteko motibaziorik drogaren arazoari kezka pertsonaletik ekiteko; azken batean, faktore hori zeharo garrantzitsua da.”

Nolanahi ere, hezkuntzako ikuskaritzaren arloan aditzera ematen dute ikastetxea, sistema gisa, ez dela arduradun bakarra, nahiz eta erakunde horrek prebentzioan eta heziketan garrantzi handia izan:

“Baina, argi eta garbi, gizarteak hezkuntza sistemari eta irakasleei gizartea bera oker egiten ari den gauzak lortzeko ardura egozten die. Eta elementu batzuei ezin zaie eskolan heldu, beste aukerarik gabe.”

“Ikastetxea ezin izan daiteke gune akademiko/polizial tipikoa, non ikasleak zanpatu egiten diren, orduan ez baitu ezertarako balio. Gazteek oso hurbilakoa izan behar dute institutua, eta ikastetxean oso protagonista sentiarazi behar ditu. Alde askotatik lantzeko proiektu orokorrak taxutu behar dira.”

Nabari baino nabariago geratu dena da hezteko orduan eska daitezkeen gutxieneko gauzetako bat koordinazioa dela. Koordinazio hori, horretan parte hartzen duten egileen aldetik (gurasoak, irakasleak, hezkuntzako administrazioa, eta abar) ez ezik, programen, proposatzen diren jardueren, eta zabaldu asmo diren mezuen aldetik ere izan behar da.

“Hezkuntza sistema ez da panazea, baina bada giltzari bat esku-hartzeak mundu honetan gidatzeko. Hezkuntza sistemak baditu gaitasunak, eta, horrenbestez, pentsatu beharko dugu nola lan egin hezkuntza sisteman; eta baditu aukerak, hezkuntza sisteman balio hezkuntza eta orotariko prebentzioa landu baitaitezke, baina horretarako, era berean, ongi zehaztuta izan behar dira bai helburuak bai hezkuntza sisteman esku hartzen dutenen (familiak, gizarte zerbitzuak, fiskaltza) koordinazioa.”

“Nik dakidanez, ikastetxeetan batere koordinaziorik ez dago prebentzioari edo droga mendekotasuneko jokabideak zuzentzeari dagokienez. Esku-hartzeak egiten dira ikastetxeetan ardura hartzen dutenen boluntarismoari esker; hain zuzen ere, ikastetxeetako zuzendariak hurbileneko ertzain etxearekin koordinatzeko planteamendu pertsonalak egiten ausartu behar dute, batzuetan.”

“Lortu beharko litzateke erakunde guztiak nolabait koordinaturik egon daitezen informazioa helarazi eta itzultzeko. Denok drogen inguruan aritzen gara, baina alde batetik udala arduratzen da, beste batetik Hezkuntza Saila prestakuntzari eta irakasleei dagokienez, bestetik polizia bere egiten du, eta abar. Nire aburuz, ikastetxe batean kontsumoak atzematen baldin badira, zuzendaritza taldeari horren berri eman behar zaio, horretarako pertsona espezializatuari, familiarekin komunikatzeko bideak bultzatu, eta abar. Sare itxia zabaldu behar da, arazo horiei kalitatezko erantzuna emateko modukoa. Ez da, ordea, ekintza bakarturik egin behar, baizik eta aholku eman, eta dena delako gaztea arazoaz ohartarazi.”

Berriro ere ustel ateratzen dira elkarrizketatuek gaineratik dagoen erakunde horretan, Hezkuntza Sailean, alegia, jarrita zituzten usteak. Hezkuntza Sailarengandik espero da esku har dezan eta edukiak kudea ditzan, bai berariazko edukiak, bai orotariko edo zeharkako edukiak. Irakasleak gainezkatuta sentitzen dira, eta, bederen, jarduteko irizpideak eta jarraibideak espero dituzte. Elkarrizketatuen aburuz, hori ez da gertatzen, eta, horrenbestez, ez dute oso suharki balioztatzen erakundearen jarduna.

“Erakundeen laguntza badago, ez dugu ukatuko, baina gutxienezkoa da. Udalak lagundu egiten digu; haiekin batera, hitzaldiak egiten dira gurasoekin. Eremuko droga mendekotasuneko teknikariaren laguntza dugu. Ongi dago, ez dago zertan kendu, baina besterik gabe.”

Baina, zorionez, beste adierazpen batzuek bestelako iritzi batzuk ere ematen dituzte. Jakin badakigu ikastetxe batzuetan lan egiten duten pertsonen argi dutela ezaguera formalen transmisio hutsa baino zerbait gehiago dela hezkuntza, eta barneko zein kanpoko koordinazio lanak beren eguneroko zereginen beharrezko zati bat direla. Ikastetxe horietan garbi ikusten da ahalegin guztiak egiten direla, pertsonen zein materialen aldetik, ikastetxearen barruko eta kanpoko baliabideak optimizatzeko, eta horixe dela ikasleei nahiz irakasleen beren lanari laguntzeko modurik hobereana.

“Nire ustez, erakunde bakoitza bere eremuan ari da. DBHko edo Batxilergo gaztetxo batek kontsumitzen baldin badu, hori berehala eteten da; ikastetxe mailan, behintzat. Badakigu erakunde batzuek –udalak kasu– jendea bidaltzen ari dela ikastetxeen inguruetan zein barruan trafiko txikia eragozteko. Hain zuzen ere, prentsan ateratzen da; esate baterako, alkohola saltzeagatik isuna jarri dioten okindegi bat, eta abar. Kontua zen jolas orduren ondoren ikasleak mozketurik itzultzen zirela.”

“Guk beste erakunde batzuekiko koordinazio lanak egiten ditugu, besteak beste, justiziarekin adingabeen babeserako auzitegiarekin. Hain zuzen ere, hemen, berritzegunean, kasu mota horietarako gizarte-langilean daude, eta arrisku eremuan daudenean harremanetan jartzen dira familiarekin, dena delako pertsonaren hurbileko ingurunearekin, eta abarrekin. Delituzko gertaerak daudenean, auzitegira joaten da kontua.”

Pedagogi Aholkutegi (PAT) batetik datorren lekukotasun batek administrazioa errugabetu egiten du koordinaziorik ezaz:

“Nire ustez, erakundeen erantzuna, oro har, egokia dela; beharbada, era koordinatuago batean lan egin beharko genuke. Guk udaleko osasun arloarekin lan egiten dugu gehienbat guri dagozkigun eginkizunak aurrera eramaten: irakasleak prestatzea; estrategiak; prebentziozko elementuak; ikastetxeetan ezartzeko protokoloak, eta abar. Nik uste dute erakundeek koordinatzeko ildo horretan dihardutela orain dela urte batzuetatik, baina prozesuez ari gara, eta halakoak epe labur, ertain edo luzeak izan daitezke. Denboran zehar etengabeak eta koordinatuak diren jardunak ditugu horiek. Ezin da bi egunetan lortu; denbora behar da.”

Hezkuntzaren ez-arautuaren ikuspegia

Izenburupe honetan aurkezten dira adingabeekin lanbide hastapenatarako ikastegietan lan egiten dutenen, kale hezkuntzako lana egiten dutenen nahiz gizarte eta kultura animazioan aritzen direnen iritziak. Lehenen (LHIKetakoak) erreferentzia irakaskuntzazko testuinguru bat da, haien helburua, besteak beste, lanbide heziketa dela; dena dela, ikusiko dugunez, kontziente dira ikasleen beste arlo batzuk ere –arloan pertsonala, gizarte arloa, eta harremanen arloa kontuan harturik– landu behar direla. Gainerakoak kalean, zerbitzu komunitarioetan eta abarretan egoten dira harremanetan adingabeekin, eta haiek ere saiatzeko dira eragina izaten populazio horren arrisku faktoreetan, hain zurruna eta egituratua ez den testuinguru batean.

LHIKetako egoerak pixkanaka azalduko diren ezaugarri berezi batzuk ditu, baina arlo horretakoek droga kontsumoaz adierazten duten planteamendua edo diagnostikoa, oro har, hezkuntza arautuko beste hezitzaile batzuek adierazirikoaren antzekoa da:

“Orain dela 18 urte jakinekoa zen, oso, ‘junki’en fenomeno. Oso jakinekoa zen droga kaltegarria zela, baina ikusi dut, urteen poderioz, haxixaren eta deribatuen kontsumoa izugarri normalizatu dela. Guk lanbide hastapenatarako ikastegian lan egiten genuen, eta hango gaztetxoek aukera asko dituzte haxix-kontsumitzaileak izateko; baina gizartekoitza gertatu da, bai, barneratu egin da normala dela porruak erretzea. Bilakaera hori begien bistakoa izan da. Gurasoek, noiz edo noiz aipatu badiegu semeak edo alabak kontsumitzen duela, naturaltasun osoz onartzen dute. Barneraturik dute seme-alabek kontsumitzen dutela.”

Bat datoz hezkuntza irakasgai jakin batzuen inguruko prestakuntza ematea baino zerbait gehiago delako ideiarekin; kontzeptua orokorragoa eta zabalagoa da. Hain zuzen ere, ardurapean dituzten ikasleen profila dela medio, ikastegi horietako irakasleek drogaren arazoaz eta haren prebentzioaz duten kontzientzia argiagoa da. Hori ikusten da arazoak azaltzeko moduan eta erabilitako terminologian ere. Arriskuaren, egoera ahularen, aurretiazko joera ematen duten

faktoreen, babesgabetasunaren, eta abarren kontzeptuak beste profesional batzuekin elkar ulertzea errazago egiten duen hizkuntza baten barruan dauzkate, hizkuntza hori partekaturiko gutxieneko bat izateaz gain abiapunturako nahiz lortu nahi den helbururako.

“Gure aburuz, datozen neska-mutilek era integralean jardutea behar dute, hemen egotea, heziketa araututik atera izana, eragin duten faktoreak oso heterogeneoak dira. Kasu bakoitza mundu bat da, baina askotan ikusten duzu eragina dutela faktore pertsonalek, autoestimu apalak, familia arazoek, egon daitezkeen kontsumo batzuek, eta abarrek. Orduan, pentsatzen dugu heziketa hutseko esku-hartze batek ez diela erantzungo aurkitu ditugun beharrian guztiei.”

Lanbide hastapeneterako ikastegietako irakasleen eta kale hezkuntzan direnen iritziak bat datoz, eta hezkuntza arautuan adierazten dutenaren ildo berean daude. Guztiek diotenez, droga kontsumoa normalizatu egin da, adingabe batzuk oso goiz hasten dira kontsumitzen, kontsumoari loturiko arriskuaren inguruko pertzepzioa ahula da, eta faktore batzuek pertsona jakin batzuk kontsumoetatik hurbilago jartzen dituzte. Horraino, diskurtsoa bat dator gaine-rako profesionalen eta gurasoen ikuskera orokorrek. Aipatu denez, lehenen diskurtsoaren egitura datza desberdintasuna, argiagoa da eta.

“Nire aburuz, nik nire ikasleen adina nueneko garaiaren aldean, funtsezko aldaketa bat gertatu da. Nik ez nuen haiek duten erraztasuna drogak esku-ratzeko; haiek askoz eskuragarriago dituzte. Drogei doakiona normalizatu egin da. Nik beti arriskuan dagoen kolektibo batekin lan egin dut. Batzuek bazterketaren arrisku faktore gehiago edo gutxiago dituzte, eta aurretiazko joera ematen dizuten faktoreak badituzu, gauza batzuetatik hurbilago jartzen zaituzte horiek beste batzuetatik baino. Baina, oro har, bai, normalizatuago dagoela ikusten dut, eta arriskua faltaren pertzepzioa hor dagoela ere bai.”

“Oro har, kontsumoei dagokienez, kontsumo gero eta normalizatuago dago, orokortuago, eta, batez ere, gero eta adin txikiagoetan hasten dira kontsumitzen, Lehen Hezkuntzatik oso hurbil, 12-13 urte dituztela; lehen, aldiz, 15 urte inguruan hasten ziren. Kezkagarria da, halaber, lehen ezkutatu beharreko zerbait zelako, eta orain edonon kontsumitzen da. Urte gutxian kontsumoa orokortu egin da. Jada ez da bazterreko kolektibo batzuetako gaztetxoek kontua soilik, orain hainbat gizarte mailatakoak ikusten ditugu. Gure esku-hartzea eta gure proiektua babesgabetasun arriskuko egoeran dauden 11 urtetik 18 urtera bitarteko neska-mutilentzat dira. Beharrianak dituzten gazteekin lan egiten dugu, beharrian horiek, hain zuzen, babesga-betasun egoera batean jartzen dituztela. Denetariko neska-mutilak daude. Egia da auzo batzuetan aspalditik kontsumo arazoak eta zailtasun ekono-mikoak egon direla, baina gisako familietakoak ere baditugu, baita goiko maila ekonomikoko batzuk ere, guztia izan arren beste beharrian batzuetan arretarik jasotzen ez dutenak.”

LHIKetan agertzen duten argitasuna esplikatzeko hipotesi bat halako ikastegieki berek izan duten ibilbidea da. Abian jarri zituztenetik gaur egun arte, LHIK-k eta hango ikasleak asko aldatu dira. Lehen ikastetxe horietan hezkuntza arautuan "egokitzen" ez ziren ikasleek bukatzen zuten. Eskola porrota diagnostikatzen zitzairen, baina, egiaz, bazterketan sartzeko zorian jartzen zituzten faktore batzuk (hezkuntza faktoreak, gizarte faktoreak, eta abar) biltzen zituzten. Hori guztia zela eta, LHIK-k "azken aukera" balira bezala ikusten ziren.

"...DBH gainditzen ez zituzten gazteak ziren, eta LHIK den birkautxuztatze-ko makina horretara joaten dira."

Babesgabetasuna areagotzen zuen beste gauza bat da ez dela inoiz oso argi egon ikastegi horiek hezkuntzaren organigraman zuten tokia. Bi hamarkadetan, hamaika aldiz aldatu dute tokiz. Zenbaitetan, ondoren kontatzen dutenez, hezkuntzan jarduteko baino gehiago, laguntza zerbitzua emateko izaera eman diete, eta definizio falta horretan izugarri ahaztu edo baztertuak sentitu hezkuntzaren barruan. "Porrot egindako" ikasleentzako ikastetxe "pobreak".

"Gero eta jende gehiago iristen zaigu. LHIK, ordea, erabat ahazturik dago. Orain Hezkuntzako Sailburuordetzaren barruan gaude, 18 urte ez-inoren lu-rean eman eta gero. Lehen Lanbide Heziketako Sailburuordetzaren ardura-pean egon zen, eta datorren orduan ere Lanbide Heziketako Sailburuordetza arduratuko da. Hemen gu Hezkuntza Berriztatzean gaude, eta orain dekretu-aren zirriborroa prestatzen ari dira ekainerako. Baina ez da ezagutzarik egon maila profesionallean, eta hibrido moduko bat izan gara, gizarte zerbitzuen eta hezkuntza zerbitzuen artekoa. Gu sinetsita gaude gizarte esku-hartze zuzeneko eginkizun bat betetzen dugula, berezko hezkuntzako eginkizuna baino neurri handiagoan. Hemen ez da matematikako ezagutza, hain zuzen, hobetzen dutena. Hibrido bat denez, zati batean gizarte-langileak gara –elkar-ritzketen bidez lan egiten dugun eta beste zerbitzu batzuetara bideratzen ditugun heinean–, zati batean irakasleak gara –eskolak ematen dizkiegun heinean–, eta zati batean kale-hezitzaileak gara –aisialdi eta astialdirako di-tuzten aukerei buruz ere aritzen garen heinean–.

lnork ez die eman nahi izan estatus zehatz bat LHIKei; izan ere, LHIK-k udaletako zuzeneko laguntzako gizarte zerbitzuen zati izan balira, logika ho-rrren barruan egongo ginatke. Bide hori hartu beharrean, Hezkuntza Sailean edukitzea aukeratu zuten, baina guztiz hezkuntzazkoa ez den zerbitzu baten eran, bai baina ez, nolabait esatearren. Badirudi behin-behinekotasun hori datorren urtean amaituko dela, baina zer gertatu den ere ez dakigu, infor-maziorik ez dugu eta."

Hori aldatu eginda, irakasleen ahaleginari esker, neurri handi batean, ez baitira etsi, harik eta LHIKei direna aitortu zaien arte: profesional gaituak prestatzeko ikastegiak. Dena dela, nahiz eta ikasle gehienak lanbidearen araberako irizpideekin harturiko erabaki pertsonal batengatik hor egon, askok badituzte, halere, oraindik egoera ahulagoan jartzen dituzten

ezaugarri edo zertzeladak. Izan ere, haiek dira prebentzio selektiboa aurrera eramateko hautatu diren ikastetxeak. LHIKetako ikasleen kasuistika nahiz ikasle horiek behar dituzten arreta direla eta, berariazko programa, tresna eta baliabideak behar dira, eta halakoak ez daude beti hezitzaileen eskura, beharbada administrazioen barruan definiturik ez egote horren kausaz. Diotenez, haien ikasleen ezaugarriak direla medio, administrazioak berak denetarik baliabideak jarri beharko lituzkete haien eskura, edo, bederen, laguntza berezia eman.

“Erakundeen esku-hartzea ezkutua dela esango nuke. Nik uste dut kezka egon badagoela, eta ekintzak abian jartzen dira –bide onean, zenbaitetan–, baina komunikabideetan oihartzunik izan gabe. Beldurra dago, irudiari, justifikatzen ez jakiteari, arazoari aurre egiteko modu batean uste osoa ez izateari, eta diskurtsoa nahiz mezuak aldatzen hasteari.”

“Nire iritziz, zerbait egin da aurrera erakundeetan, baina nahiko modu gordean, eta ondorioen beldur handiz, batez ondorio politikoen ondorioen beldurrez; izan ere, badaude erakundeek bultzaturiko programak, diru laguntzak, eta abar, baina ez da aitortzen edo gizarte aurrean onartzeak beldur handia ematen du.”

Esanikoagatik ere, hau da, ikasleek aurrean dituzten arazoak eta aurrez ikusitako arazoak galarazteko eskura dauden tresnak beharbada ikastetxe horietako irakasleek neurri handiagoan ezagutzen badituzte ere, irakasleok ez dute hautematen administrazioak haien lanari ezagutzarik dionik.

“Ez da balioesten delituak prebenitzeko arloan egiten duguna. Hemen azken bost urtean izan diren Andoaingo 30 gaztetxoak hemen izan ez balira, non egongo lirateke, prestakuntzarik gabe, lanik gabe... bada, kalean. Beste LHIK bateko kide batekin hizketan, berak esan zidan LHIKetan 2.000 neska-mutil inguru zeudela. Orduan, egiten dena egiaztatzea baino gehiago da prebentzioaren datua –datu hori ez dagoela–, jende hori kalean egonez gero gertatuko litzatekeenari buruzko datua.”

“Gure behin-behinekotasunak badu alde on bat, alegia, kasu horietan laguntza ematean dugun askatasuna. Oso era pertsonalizatuan lagun diezaiekegu, eta neska edo mutil bati ‘zu ez etorri lau egunetan’ esan diezaiekegu. Beste ingurune egituratuago batean posible ez liratekeen neurriak har ditzakegu; azalpen gehiago eman beharko genituzke. Pertsonalizazioa oso handia da, eta hori oso ona da kasuetan laguntza emateko.”

“LHIKen artean heterogeneotasuna izugarria da oraindik ere. Batzuk fundazioak dira. Batzuk pribatuak dira, beste batzuk udalen mende daude, beste batzuk... Baldintza ekonomikoak erabat desberdinak dira. Gu, alde horretatik, pribilegiatuak gara, udalak lan kontratuarekin kontratatzen gaitu. Ia automatikoki berritzen digute kontratua urtebeteren buruan. Ez gara finkoak,

baina, praktikan, egoera finkoan gaude, programak 20 urte daramatzalako funtzionatzen eta urtero berritzen delako. Beste gauza bat litzateke ikaslerik ez egotea. Gu pribilegiatuak gara, beste LHIK batzuen egoeraren aldean.”

LHIK bateko irakasleek adieraziriko gabezia zehatzen artean, ikastegian psikologiako profesionalen bat etengabe egon beharko lukeela esan dute.

Antzeko eskaerak egiten dituzten kaleko lanean dihardutenek eta gizarte eta kultura animazioan dabilzanek. Erakundeen ezagutza eta laguntza ez izatea berriro ere agertzen da halabeharrezko eskaera gisa.

“Gure lanari dagokionez, ezagutza falta baino gehiago, ulertze falta dago. Beharbada gure ardua da, eta geure lana ezagutarazi behar dugu, hobetu azaldu. Ez da ezagutzen guk egiten dugun lana. Uste dute gaztetxoekin futboleko ibili besterik ez dugula egiten, baina hori aitzakia baino ez da. Haiekin egiten duzuna askoz lan garrantzitsuago bat da. Azkenean, gazteekin lan egiten dugun arteko lehia egoten da, eta ez da domina kontua.”

“Gure xede nagusia neska-mutilekin ongi egotea eta beste leku batzuetan ongi egiteko zer egin dezakegun bilatzea. Eta horrek badu zerikusia administrazioarekin, Eusko Jaurlaritzarekin, eskolarekin, hor egoera oso gaizki dago eta adingabe horientzat. Badirudi soberan daudela eskolan, eta hori ezin da hala izan, hainbeste aldiz eskolatik botatzea, horrek dakartzan zailtasunak dakartzala. Orduan, haien denbora guztia kalean egoteko da. Beste aukera batzuek egon behar dute gazte horientzat. Nahi eta nahi ez guztiek gaztelekura joan behar izatea ere ez, baina joateko aukera izan dezatela, eta behar bezalako laguntza izan dezaten, joanez gero. Horrek administrazioaren ardua izan behar du. Azkenean, dena kate bat da, ikastetxeek ere giza baliabideen eskasia atzematen dutelako, zerago... lagundu ezin izatea.”

Kasu honetan, kale-hezitzaileen kasuan, alegia, eta lana “kanpoan” egiten dutenez, ikastetxearen erreferentzia gabe, eskaera zehatza gizarte zerbitzu eta zerbitzu komunitarioentzat da.

“Gazte horien bizitza osoa kontsumoen ingurukoa da. Gu haiek aktibatzen saiatzen gara, eta egoera hori jardueren eta lantegien bidez konpentsatzen, haientzat erakargarriak diren eta gurekiko harreman bat sortzen duten jarduera eta lantegiak baliatuz, hain zuzen. Gero ikusten eta lortzen da, gurekin daudenean ez ezik, haiek beren kasa ere gauzak era autonomoan egiten has daitezen; horixe da gure lanaren bigarren pausoa. Hasieran, kostatu egiten zaigu gure gunean aktiba daitezen lortzea, baina gero kontua da gurekin ikus dezaten gauzak egitea badagoela, egun osoa porruak erretzen emateaz gain, futboleko ibiltzea badagoela, eta kultura jarduerak egitea, eta haiek alternatiba batzuk bilatzen has daitezen. Gu ez gara debekatzen dabilen norbait; aitzitik, egun osoa egiten ari direnari alternatibak bilatzen dizkiegu. Hori bai, egia da gaztetxo batzuek oso alternatiba gutxi dituztela. Gurekin dauden bi-

tartean, oso ongi ibiltzen dira, baina gu gabe ezin dira gaztelekura joan, bota egin dituztelako; eskoletan oso gaizki, ez dira joaten LHIKra, ez dira joaten kultura etxera, ezin dira sartu kiroldegian, egun batean liskarra sortu zutelako, eta zurekin ez bazoaz, orduan oso gaizki. Gauza jakin batzuen ondorioz gaztetxo horiek aukerak galtzen ari dira.”

“Beti gazteen arazoa aipatzen da, baina badaude errealitate horiek egokitu behar zaizkien baliabide eta zerbitzu asko. Eta gaztetxoei buruzko ikuspegia ere aldatu behar da; izan ere, toki guztietan traba egiten omen dute. Hori arazoa da gure lanerako, gazteak aktibatzen ari zarenean parte har dezaten, berena ez den beste toki edo guneetan egon daitezen, eta hainbeste ez dagoelako oztipoa aurkitzen duzu, ez dago baliabiderik edo ez dago haienzako gunerik, haiek hartuta sentitzeko modukorik. Horrek zailtasunek gehitzen dizkio gure lanari. Suposatzen da udal zerbitzu batzuk herritar guztientzat direla, aurpegi politikoentzat nahiz hain aurpegi polita ez dutenentzat; izan ere, ematen du haur zintzoak toki batera doazela eta haur gaiztoak kale-hezitzaileengana. Ustez gaiztoak dira haiek, baina gaiztoak ere ez dira.”

“Hezkuntza guztion kontua da, eta guztiok lagundu behar dugu, neska-mutilak tartean jarrita, garrantzitsuak haiek baitira, ahalik eta aukera gehien izan dezaten. Batzuek oso ongi aprobetxatuko dituzte aukera horiek, eta beste batzuk, ez hain ongi, baina aukerarik ez izatea arazo bat da.”

“Gizarte zerbitzuetara bideratzean, nik ikusten dut apur bat gainezka daudela. Pare bat aldiz bideratu dugu norbait, eta hiru aste luzatu ziren erantzuna eman arte. Hor bai uste dut nik nork berea hartu behar dugula, hiru hilabete horietan zehar nik baitaukat neska edo mutil hori hemen. Aipatzen dudan kasuetako batean, mutil batek familia mehatxatu zuen, eta, noski, hiru hilabete horietan amak zuri deitu dizu.”

Hezkuntza ez-arautuko lanean, antza denez, irakasleek, eta hezitzaileek, gizarte zerbitzuetara jotzen dute kasu jaken batek hala behar duenean, eta haien artean ere koordinatze dira. Kasu honetan, hezkuntza arautuko profesionalek adierazitako egoeraren kontrara, koordinazioa araua da, beharra, beti erabiltzen duten eguneroko lanabes bat.

“Ikastetxe guztien artean, LHIKekin lan egiten dugu hobekien. Oso arau argiak dituzte. Irakasleek ikastetxe barruan nahiz inguruetan gertatzen dena kontrolatzen dute. Horrela, ikasleek oso argi dute guztia, eta badakite halako ikastetxeetan badaudela ezin egin daitezkeen gauza batzuk.”

“Kale-hezitzaileekin bildu ohi gara, batez ere Andoaingo bertako gazte batzuk ditugunean eta ezagutzen dituztenean; haiek badakite nola portatzen diren hemendik kanpo; pertsona jakin batzuk zer moduz dabilzan jakitea, arazoei buruz hitz egitea.”

“Askotan gizarte zerbitzuetarako sarbidea gara, familiek gizarte-langilearengana joateko ohiko beldurra dute eta, beren zailtasunengatik, eta, bai, batzue-

tan zubia gara. Auzoan egonda, baita ikastetxe berean ere, horrek sarean lan egitea errazten du. Hemen gizarte-langileak daude, bai eta psikologo komunitarioa, kale-hezitzaileak eta administrariak ere. Horrek lana arinagoa eta askoz koordinatuagoa izatea dakar. Daitekeena da gaztetxoak gurekin harremana izatea, eta ama, aita edo familia gizarte zerbitzuen laguntza jasotzen ari izatea, edo psikologoak haiekin harremana izatea.”

“Ikastetxearen barruan koordinazioa ongi eramaten dugu, nahiz eta, sarean egiten diren lan guztietan bezala, zailtasun batzuk egoten diren, baina azkenean bakoitzaren edukiak zein diren argitzea da koxka. Guk neska-mutilak oinarritzat hartuz lan egiten dugu. Familia-hezitzaileek familiaren dinamika oinarritzat hartuz lan egiten dute. Gizarte-langileak erreferentzia-puntua dira familiarekin zerikusia duen guztiari dagokionez, eta, azkenik, psikologoa dugu, haurtzaroan daudenen kontuatarako, eta batzuetan kasuaren arduraduna da, esku-hartze guztiak koordinaturik egon daitezen. Bakoitzaren edukiak sortu ez direnean etorri ohi dira koordinazio arazoak.”

Funtsezkoa da erakundeen artean kalitatezko informazioa truka dadin.

“Ghetto”ak ziren eskolekin gertatzen zen bezala (hain zuzen, izaera horrek zailtasunak gehitzen zizkion edozein ikastetxe “normalizatu”k ere izaten duen arazoari), LHIKetan edo kale-hezitzaileek aurrera eramaten duten lanean zalantza jartzen da gaineratutako beste arazo batzuk dituzten kolektiboekin egiten den lana, hau da, bazterketatik hurbilago dauden sektoreekin. Halakoak ditugu adingabe immigranteak, toxikomanoak, porrot egin izanaren fama duten gazteak, baztertuak eta abar, eta eskaera berezi batzuk izaten dituzte, asko falta delarik aseta egon daitezen.

“Immigranteekin tutoreak asko aldatzen direla ikusten da. Zailtasunak ikusten dira iristen diren etorkin guztiei laguntza emateko, edo azpiegitura ez dago pentsaturik azken urteetan gertatu den jende olderako. Erreferentzia falta zaie haien arduradunari dagokionez. Horrela, zenbaitetan, ez zegoen argi arduraduna gutako bat ala etxekoa ala orientatzailea zen. Zehaztugabetasun hori oso kaltegarria da prestatzeko zereginetan.”

“Jakin badakigu kontsumoak saihesteko garrantzitsua dela bizitza eta lana antolatuta izatea. Eskaera hori udalari egiten diogu, Eusko Jaurlaritzari, Langaitz-i; kemenak berritu behar dituzte eta, neska-mutil horiek gizarteratzeko. Hemen, badaude programa batzuk udalean, baina daitekeena da 17 urteko gazte bat hogeita hamar urtetik gorako toxikomano ohi batekin egon daiteke programa berean, eta horrek bestelako beharrezan ditu. Zenbaitetan ongi ateratzen da, baina ez da gazte horrek egon beharreko egoera. Horixe dago, eta batzuetan gazteek oso pozik egiten dute ikastaroa, baina zuk errealtate hori ikusten duzu, ikastaroa ematen duen jendea ezagutzen duzulako, eta zeure buruari galdetzen diozu ez ote den posible gazte jendearentzat berariazkoagoa den zerbait sortzea, haiengan oso zentratua, helburu batzuekin.”

5.2.4. Eta komunikabideak, zer?

Prebentzioan esku hartzen duten eragileengan, adingabekoengan eta haien droga kontsumoan komunikabideek duten eragina neurtzerakoan, zenbait alderdi aztertu behar dira. Harelere, elkarrizketatuko pertsonak ez dute ekarpen askorik egin gai honetaz, eta egin dituzten ekarpenak ere ez dira oso mamitsuak.

Batetik, denok dakigu ia edozein tresna mediatikok indar handia daukala gure helburuen lorpenaren alde edo kontra jarduteko. Horregatik, adingabekoak eta drogak oso gai korapilatsua denez gero, komunikabideek afera honi buruzko materiala nola erabiltzen duten erabakigarria izango da gizartean iritzia sortzeko orduan.

Albiste dena erabiltzen dute. Egunkarietako albisteak aztertuz drogen fenomenoari buruz egin diren ikerketak oso alarmistak dira. Izan ere, egunkariak kezkatuak dauden gurasoei arrazoiak ematen dizkiete euren seme-alaben exijentzien aurrean ezetz esateko. Gizarteak eskema zaharrak elikatzen ditu. Adingabekoek ere egunkariak irakurtzen dituzte, eta kutsu negatiboa daukan albiste bat irakurtzen dutenean, pentsatzen dute: "horrek ez du zerikusirik nirekin". Gakoa da komunikabideek, informatu ez ezik, iritzia eta ideologia sortzen dituztela informatzeko moduaren bidez.

Komunikabideek zabaltzen dituzten berriak guztiongan du eragina, kasu honetan, baita adingabekoekin substantzien kontsumoaren gaia, besteak beste, jorratzen duten profesionalengan ere. Askotan jazo da gertaera isolatu batek, inola ere orokortu ezin dena, eta adingabekoak eta drogak aipatzen dituen, gizarte alarma izugarria piztea. Alarma horrek iritzi publikoa mobilizatzen, eta neurri politikoak hartzeko exijitzeko. Ez da arraroa ere profesionalak diskurtso jakin bat ontzat ematea, askotan errepikatu digutelako, nahiz eta datu objektibatuak diskurtso hori okerra dela erakutsi.

"Beharbada orain interesa dago, baina nik ez dakit kezka hori sorrarazi dutenak ez ote diren komunikabideak. Esaten digute litroak edatea ikaragarria dela eta denok sinesten dugu ikaragarria dela. Azkenean, komunikabideek eraginda edo bultzatuta jarduten dugu erakundeok eta profesionalok."

Lan honetan hori guztia, hau da, komunikabideek sortzen duten diskurtso soziala, aintzat hartu dugu. Beraz, nekez kontrasta daitekeen orokortzerik ez egiteko, ahal den neurrian komunikabideen diskurtsoa baztertzeko gaitasuna eta izaera kritikoa dituzten pertsonak eta profesionalak aukeratu ditugu.

"Gertaerei erantzunez jarduten ohituta gaude. Horregatik, une bakoitzean sortzen diren arazoak konpontzeko neurriak hartzera eramaten gaituen zurrubilo batean sartzen gara."

Batzuek ziurtatzen dute "komunikabideek" injerentzia gehiegi egiten dituztela fenomeno honetan; azkenean, komunikabideek azaltzen edo erabakitzen dituzte esku hartze politiko publikoak:

“Politika publikoen esku hartzea irizpide ezberdinen arabera erabakitzen da. Haietako bat komunikabideen presioa da, komunikabideek bereziki nabarmentzen dituzten gertaera batzuk jazotzen direnean. Gertakari hauek nabarmentzeko arrazoi asko egon daitezke, albiste falta besteak beste. Adibidez, momentu jakin batean ez dago albisterik, eta komunikabideek jakiten dute Unamuno Plazan ez dakit zer jartzen dela. Eta hor hasten da. Goraka doa, merkatariek ez dakit zer esaten dute. Egun batean emakume bat handik pasatu da eta zango traba egin diote, eta ez dakit zer esaten du. Eta horrela elur-bola bat sortzen da, baina datuak aztertzen badituzu, ez da erreala. Poliziak izugarri nabaritzen du. Agian zinegotziak ez die arreta deitzen baina: ‘Ene! egunkariak = arazoak, eta guri eroriko zaigu’.”

Era berean, pertsona batzuek drogei buruz, haien inguruan egiten den lanari buruz etab dagoen informaziotik baztertuko lituzkete komunikabideak. Baliabide hori ez erabiltzea proposatzen dute, ez onerako ez txarrerako. Horrela, egiten den lanak ez lituzke profesionalak eta destinatarioak baldintzatuko; izan ere, ez du ematen informazioa egiten dutenek kode etiko edo deontologikorik aplikatzen dutenik.

“Gai hauekin, onena litzateke etekin sozial edo politikorik lortu nahi ez izatea. Nire esku balego, komunikabideetan ez litzateke gai hauetaz hitz egingo, ez onerako ez txarrerako. Gauza interesgarrietarako bozeramale izan daitezke, baina baita beste gauza askoren transmisore txarrak ere. Uste dut ez zaiola oihartzunik eman behar programa jakin baten arrakastari, eta ez litzateke agertu behar leku guztietan litroen kontua, botilodromoak, eta abar. Ez baterako ez besterako. Gizarte lan komunitarioa esparru honetan geratu beharko litzateke. Agian jokabide kode batzuk landu beharko lirateke komunikabideentzat, gai hauetaz aritzen direnerako.”

Beste pertsona batzuek, arazo hauei buruzko albisteak helburu positibo eta eraikitzailearekin agertzea nahi lukete.

“Nire ustez, komunikabideek albistea denaz erantzukizun handiagoa bereganatu beharko lukete. Albistea gauza neutroa izan beharko litzateke eta albiste horren bidez aztertu beharko litzateke egoera jakin bat nola hobetu, kalterik ez sortzeko moduan. Orduan, albisteak ondo emango lirateke. Normalean gertatzen dena bere horretan azaldu beharko litzateke, baina gauzak aldatzeko bidea ematen duten ezaugarri batzuekin.”

Komunikabideen alde egon edo ez, komunikabideek, zalantzarik gabe, informazioa eta edukiak munduko txoko guztietara eramaten dituzte, ia pertsona guztiengana. Informazioa edukitzea prebentziorako edozein ekimenek izan behar duen funtsezko zutabeetako bat da. Besterik da pertsonak informazioa jasotzeko duten gaitasuna, informazioa prozesatzeko modua, erabakitze prozesu zuzenak sortzeko duten gaitasuna, eta abar.

“Gaur egun publizitatea egiteko moduak aldatzen ari dira, inpaktua duten mezuak sortzeko helburuarekin. Une batzuetan erantzukizuna aipatzen da eta neure burua hor ikus nezake. Zuk ez baduzu albistearekin inside egiten, ez duzu zeure egingo. Ez baduzu inside egiten substantzien erabilerarekin duzun arazoarekin, ez duzu laguntzarik eskatuko; orduan ez daukazu irtenbiderik.”

Testigantzek zenbait aukera aipatzen dituzte:

Batzuetan komunikabideek substantzia batzuen kontsumoa murrizten lagundu dute (tabakoarena adibidez) baina ez beste batzuk, argi eta garbi publizitazten dituztelako (alkohola).

“Kannabisaren gaia ere landu beharra dago, gazteek terapeutikotzat jotzen dutelako. Komunikabideen bitartez jasotzen duten informazioari esker, barneratu dute tabakoa kaltegarria dela. Kannabisari buruzko informazioa, ordea, positiboa da. Alkohola normaltzat jotzen dute. Halere egin diren kanpaina batzuek emaitza onak izan dituzte, adibidez tabakoarena. Horra hor eredu bat.”

Sarritan informazioa modu partzalean iristen da. Horretan laguntzen dute, kasu honetan, informazioa jasotzen dutenek eta hedatzen den informazioak berak. Kasu honetan, kannabisaren eta bere efektu terapeutikoen adibidea daukagu. Haxixa legeztatzearen aldeko elkarteek informazio mordoa eman dute substantzia honi buruz (arriskuen kudeaketa, erabilera arduratsuak eta abar), baina informazio horretatik, adingabekoen artean eragin handiena izan duena da gaixotasun batzuk tratatzeko mesedegarria dela. Haxixaren gaitasun analgesikoak, komunikabideek hitzetik hortzera zabaldu dutenak, eragin du haxixa kaltegabetzat eta terapeutikotzat ere jotzea. Informazio hau egokitu egin da, gazteen artean haxixa kontsumitzea justifikatzen duen diskurtso bat bultzatzeko.

“Kannabisaren gaia ere landu beharra dago, gazteek terapeutikotzat jotzen dutelako.”

Substantzia honen kontsumitzaileen elkarte bateko arduradunak ere gai hau nabarmendu du, gaztetan substantzia hau kontsumitzeak dakartzan arazo argiak salatzen.

“Orduan guk uste dugu garrantzitsua dela gazteek hori jakitea: oso gaztetan kontsumitzen hasten bazara eta asko kontsumitzen baduzu, nahasmendu psikikoak izateko arriskua areagotzen zaizu.”

Pertsona berak botereari eskatzen dio kannabisaren printzipio aktiboaren analisia eskuratu ahal izatea. Horrela, erabilera terapeutikorako gomendioak askozaz ere eraginkorragoak lirateke.

“Egiten duguna arriskuen murrizpenaren barruan dago argi eta garbi, jendeak kontsumitzen duena jakitea bultzatzen dugulako: geuk ekoiztutako marihuana kontsumitzen ari dira, nekazaritza ekologikoaren bidez sortua. Lantzen ditugun bariatateen propietateak ezagutzen ditugu, beraz, ez da

itsuan erabiltzen. Baina, alde batetik, ikusezintasunera behartuta gaude oraindik. Nik lasaitasun osoz hitz egiten dut komunikabideetan eta neure burua cannabis erabiltzaile gisa aurkezten dut, baina jende askori esatea ere ez zaio bururatzten familian, eta batez ere lanean eta giro jakin batzuetan. Adibidez, guretzat oso garrantzitsua litzateke gure bazkideen artean banatzen dugun marihuanaren printzipio aktiboen edukia zehatz-mehatz aztertzea, eraginkortasun terapeutikoa hobetzeko, zehatzago dosifikatzeko eta abar.”

Nerabeengana iristen diren mezuetan dagoen inkoherentzia ekidin behar da, bai egunkarien albisteetan bai publizitate mezuetan.

Azkenik, administrazioek edo adingabeekin lan egiten duten pertsonak eta profesionalak komunikabideak erabiltzen dituzte, mezu bat zabaltzeko edo indartzeko. Batez ere prebentzio kanpainetan erabiltzen dira, baina elkarrizketatutako pertsonen arabera, kanpaina hauek ez omen dira eraginkorrak. Ez dute jendea sentsibilizatzen eta ez dute eragiten gazteek arduratsu jokatzea, ondo pasatzeko erabileratik dependentziatzeko erabilerara pasa ez daitezten.

Litroen fenomenoaren inguruan, zer egin? Prebentzio kanpaina bat? Publizitatea komunikabideetan? Zerbaitetarako balio al du? Seguruenik eskaera soziala isilarazteko. Nola kontrolatu gazteek elkarri mezuak bidaltzea litroak antolatuzko, hain zuzen ere egunkarian irakurri dutelako honelako elkarretaratze bat debekatu dutela?

Ziurtatu digute drogaren aurkako kanpaina batzuk oso gaizki enfokatuta daudela; haietan, pertsonaia publiko batzuek drogaren aurkako mezuak azaltzen dituzte, nahiz eta haien kontsumoa jakina eta agerikoa izan.

“Denek dakite alkohola eta bestelako drogak kontsumitzen dituztela (kirolariek ere bai).”

5.2.5. Zer gertatzen da egoera bereziki ahuleko adingabeekin?

Orain arte azaldu denez, aldaketa sozial, ekonomiko, kultural eta abarrekoek ekarri dute adingabeeko gehienek (gehiengo esanguratsuena edo “normalizatu” deritzoguna) kezka gehiago sorraraztea haiekin harremanean dauden pertsonen artean (gurasoak, irakasleak, hezitzaileak) drogen gaiari heltzen zaionean. Beraz, arriskuan edo babesik gabe dauden egoera ahuleko adingabeen egoerak alarma maila areagotzen du.

Lehen kolektibo handi horri buruz, gehiengoa, kezkarriak dira kontsumoaren normalizazioa, eskura ditzaketan (eta eskuratzen dituzten) substantzien eskaintza handia, substantziak erosteko duten erraztasuna, kontsumitzean asumitzen dituzten arriskuak eta abar. Nolanahi ere, astiro baina ziur, transmititzen ari den ideia da gazte hauek igarotze erritu baten ondorioz esperimentatzen dutela substantziekin; eboluzio prozesu bat dela. Esperimentazio hori helduen erantzukizunak hartzen dituztenean amaituko da kasurik gehienetan.

Drogen erabilerari eustea edo bertan behera uztea, erabilerari hori ohikoa bihurtzea, kontsumo arazotsua edo mendetasuna sortzea faktore askoren mende dauden gauzak dira: faktore pertsonalak, sozialak, substantziari dagozkionak eta abar. Halere, beste pertsona kolektibo bat desabantaila egoera batetik abiatzen da, eta hasieratik bertatik dauzkaten faktoreen ondorioz (aipatu ditugunak), probableagoa da espermentazioa ez etetea eta arazo bat sortzea, handia edo txikia.

Egia da bazterketaren ibilbideak aldakorak direla. Pertsona batek une jakin batean izan ditzakeen arrisku faktoreak itzulgarriak izan daitezke eta pertsona hauen jokabideak ez baldintzatu. Arrisku faktoreek drogen abusua sorrarazteko nolako interakzioa izan behar duten ez da gauza jakina.

“Beste aldaketa bat, zehazteko zailagoa dena, arrisku handieneko egoeran nor dagoen da. Gaur egun ezin dezakegu esan eskolako porrota drogak kontsumitzeko arriskurik handiena denik. Lehen argiak ziren faktoreak gaur ez dira hain argiak. Zailagoa da zehaztea nork izango dituen kontsumo arazoak eta askozaz ere zailagoa da aurreikustea nork izango dituen arazoak. Helburu-populazio batzuk argi daude, gizarte bazterketarekin zerikusia dutelako, baina zailagoa da haiek aurkitzea.”

Baina beste faktore batzuek, orain aipatuko ditugunek adibidez, droga kontsumoarekin zerikusia dutela frogatu da. Ausaz azalduko ditugu.

Faktore hauetako bat eskolako porrota da. Eskolan atzematen dira lehendabizi, familiaren ondoren, arazoak edo jokabide disruptiboak.

“Eskuarki, eskolako porrota bestelako zailtasun batzuen detektore ona izan ohi da. Gazterik gehienek ez dute ikasi nahi; gurasoen presioagatik egiten dute. Ez badute inor atzean, eskola uzten dute. Egoera hauek dauden guzuetan jardun beharra dago. Orain urte batzuk ez zen oso ohikoa, eta gaur egun gero eta arruntagoa da.”

Elkarrizketatutako pertsonak nabarmentzen duten arazoa da jokabide hauek eta pertsona hauek aintzat hartu behar direla, eta ezberdintasunak islatu. Arazoa da, horretarako, beharrezkoa dela ondo bereiztea zer den une jakin bateko jokabide arazotsua, pertsonaren eboluzioaren une zehatz baten ondorioa izan daitekeena, eta zer den benetako jokabide arazotsu bat, beste arazo baten isla dena eta horrenbestez ikaslea arreta espezializatu batera eramatea eskatzen duena.

Zailagoa da lan hau, zentroaren faktoreak, bertara doazen ikasleen edo zentroaren ezaugarriengatik, babesleak izan beharrean ikasleentzat kaltegarri direnean. A ereduko zentrorik gehienek kasua da hau, adibidez, haietara atzerritar, etorkin eta ijito gehiago joaten direlako, eta hizkuntzarekin arazoak daudelako. Populazio horren eta beraz zentro horien kasuistika bereziak ekartzen du bazterketaren produktu eta jatorri izatea.

“Ikasleen %90 ijitoak dira eta %9 atzerritarrak. Beraz, bi arazo handi ditugu: elkarbizitza eta ikaskuntzaren gaia. Familia ez akademikoak dira, ez daukate etorkizunerako proiektiorik beren seme-alabek ikasketak egin ditzaten; ondorioz, oso gai konplexua da, asistentziaren gaietatik eta abar. Gurasoek kontsumitzen dute, ziur. Seme-alabek ordu asko ematen dituzte kalean. Merkatuetan umeak libre dabilta. Nik ikusten dudana da emakumeek lan egiten dutela eta gizonek dirua kontrolatzen dutela. Umeak nagusiekin asko ibiltzen dira, nagusiek zaintzen dituztelako umeak, eta hauek asko imitatzen dituzte. Susmoak ditugu 6. mailako mutiko batekin. Lau urte daramatzagu udalarekin harremanetan. Baina urratsak oso geldoak dira eta lau urte ondoren orain ari dira balorazio psikiatrikoa egiten.”

“Etorkinekin ikusten dugu tutorez sarritan aldatzen dutela. Ikusi dugu arazoak daudela iristen diren etorkin guztiei kasu egiteko eta azpiegitura ez dago prest urte hauetan egon den etorkin uholdearentzat. Ez daukate argi nor den haien erantzulea. Horregatik, batzuetan ez da argi geratzen arduraduna gutako bat edo etxekoa edo orientatzailea den. Indefinizio hau oso kaltegarria da prestakuntzarako.”

Adingabeko etorkinen errealitateak oso gizarte eztabaida handia sortu du, batez ere helduekin ez dauden eta legez kanpo dauden adingabeko etorkinak direnean.

“Eta gero, helduekin ez dagoen adingabeko atzerritarren arazoarekin, pertsona batek 18 urte betetzea eta bere egoera legeztatu gabe egotea, egoiliar baimenarekin, argi dago zer den: heriotza zibila. Zuk 18 urterekin ez badaukazu egoiliar baimena, gero lanerako baimena edo dena delakoa eskuratu ahal izateko, bide gutxi dituzu: karitatetik, ezkutuko lanetik edo delinkuentziatik biziko zara. Izan ere, gizarte honetan sortu dugun sistemarekin, lan egin ahal izateko sinatutako eta erregistratutako kontratu bat eduki behar duzu eta gizarte segurantzian alta hartuta egon behar duzu. Ez badaukazu hori, eskale bizi zara edo legez kanpo lan egiten duzu. Horregatik, beste batzuk delinkuentzian ari dira. Bestela legez kanpoko jokabideak sortzen dira, askotan zigortuta daudenak eta ondorioak dituztenak.”

Arrazakeria arazoak daude gainera: guraso askok ez dute nahi beren seme-alabak immigrazio tasa handiak dauden ikastetxeetara joatea. Horri gehitu behar diogu helduekin ez dauden adingabekoek susmo handiak sortzen dituztela jendearengan, gazte horietaz dugun irudia delinkuentziarekin, adingabeko zentroekin, neurri judizialekin etab lotuta dagoelako. Hirugarren elementu bat, droga kontsumoa, sartzen badugu, gizartearen, osasun sistemaren eta hezkuntza sistemaren erantzuna blokeatu egiten da.

“Badago substantzia bat guretzat ezezaguna dena eta erantzun zaila duena; gainera magrebtarrak dira hura kontsumitzen duten ia bakarrak. Disolbagarriez ari naiz. Substantzia berria da eta ez daukagu baliabide zehatzik gai honi aurre egiteko. Hemengo adingabeek errespetu handia diote. Oraingoaz

ez dugu izan hemengo inor kontsumo horrekin. Hemengo batek, disolbagarriak aipatzen dizkiozunean, ezetz esaten dizu, inondik inora ere ez, horrek birrintzen zaituela. Beldurra ematen die eta askok ez dute probatu ere egin nahi. Inor disolbagarria kontsumitzen ikusten badute urrundu egiten dira, zoratu egiten direlako eta erasokor bihurtzen direlako. Guk galdetu diegunean kontsumo hori eta gero zer sentitzen duten (ikusitako delituak kontsumo uneetan gertatzen direla), onartzen dute kontsumitzen dutenean pentsatzen dutela munduko erregeak direla eta edozer egiteko gai direla. Ez dute mugarik ikusten eta, efektua amaitzen zaienean, egin dutenaz beldurtzen dira. Batzuetan ez dakite zer egin duten. Oso bakarrik geratzen dira eta lagunak bat akaso geldituko da inguruan, baina gehienak urruntzen dira, beldurratik.”

“Ez dakigu zerbitzu egokirik dagoen disolbagarriak kontsumitzen dituzten adingabekoei kasu egiteko. Gugana iritsi direnak beste leku batera bideratu ditugu, neurriak zeuzkatelako; zentro itxietara eraman dituzte.”

Baina ez zaie soilik etorkinei arreta espezifikoak ematen, nahiz eta egoera irregularrean egon eta drogak kontsumitu. Azaldu dugunarekin, bakarrik adierazi nahi dugu zein faktorek edo ezaugarriak erakusten duten erlazio bat (edo hobeto esateko, korrelazio probable bat) drogen kontsumo arazotsuarekin; beste modu batean esateko: adingabekoen babesgabetasunean eragina daukaten faktoreak. Horrela, disolbagarriak kontsumitzen dituzten adingabekoen jardun dugu. Adingabe horiek, gainera, atzerritarrak dira. Atzerritar izate hutsak ez du kontsumoa sorrarazten, baina ingurune behartsu bateko ikastetxe batean atzerritar asko egotea eta haietako bat izatea faktore bat da, egoera horrek arriskua areagotzen du.

Nolanahi ere, eskolatuta dagoen adingabeko orok, haren jatorria, ezaugarriak edo inguruabarrak gorabehera, hezkuntzako baliabide batean egote hutsagatik, kontsumoaren aurrean babesten duten faktoreen garapena eta laguntza jaso beharko lituzke. Hori ez da beti gertatzen. Horretaz lehenago aritu gara, araututako eta arautu gabeko hezkuntzari buruzko alderdiak aztertu ditugunean. Nabaritutako zenez, ikuspegia ez da oso baikorra. Biztanleria normalizatuenaren kontsumoari ari garenean ikuspegia ez bada baikorra, zer esan desabantailazko egoera batetik abiatzen direnei buruz. Errealitate horren aurrean, profesional batzuek, batez ere kalean (espazio informaletan) adingabekoei kontaktuan jartzen direnek, eskatzen dute ikastetxeak eta haietan lan egiten duten profesionalak aktiba daitezela.

Kaleko hezitzaileek uste dute eskoletan ahalegin handiagoa egin litekeela arazo bereziki konplexuak dituzten ikasleak eskoletan integratzeko.

“Helburua da eskolan neska-mutil horien eskaerei erantzutea, eta gaur egun bizi duten egoerari dagokionez gainera. Ez bihar pertsonak, herritarrak, izango direlako. Gaur direnagatik laguntza jasotzeko eskubidea dute, eta ez bihar izango direnagatik. Nik beti esaten dut haiek gaur direnagatik jardun behar dugula, ez bihar izango direnagatik. Gainera, guk bizkorrek eta egoistak izan behar dugu: haiek hobeto badaude, gu ere hobeto egongo gara.”

“Gure helburu nagusia da neska-mutilekin ondo egotea, eta beste leku batzuetan ere ondo egon daitezela lortzea. Horrek zerikusia du administrazioarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta eskolarekin, adingabeko hauentzat oso gaizki dagoena. Ematen du adingabeko hauek soberan daudela eskolan, eta hori ezin da onartu. Ez dago ondo hainbeste aldiz eskolatik kanporatzea, horrek ekartzen dituen zailtasunekin. Horrela, denbora osoa kalean ematen dute. Alternatibak izan behar dituzte. Ez da izan behar adingabeko guztiak derrigorrez Gaztelekura joan behar izatea, baina aukera hori eskaini behar zaie, eta hara baldin badoaz, arreta egokia jasoko dutela bermatu behar da. Hori administrazioaren erantzukizuna izan behar da. Azkenean kate bat da guztia, ikastetxeetan ere giza baliabideen gabezia ikusten dutelako, ezin zaiela arreta egokiagoa eman.”

Arrisku egoeran eta egoera ahulean dauden adingabekoekin lan egiten dutenek esaten dute oinarrizko eta beharrezko baldintzetako bat koordinazioa dela, aurrerapausoak emango baditugu. Adingabekoekin harremana duten erakunde guztiak koordinatuta egon behar dira, eta hori ez da beti gertatzen.

“Nerabeekin lan egiten dugunok lan egiteko modu bakarra dugu: sarean. Gaur egun nerabeekin lan egiten duen norbaitek ez badu sare ikuspegiarekin egiten, esan nahi du ez duela serio hartzen.”

“Koordinazioaren gaia oso konplexua da, gauza asko koordinatu behar dirrelako: udalaren barne baliabideak, adingabekoekin lan egiten duten beste zerbitzu batzuk, familietako esku hartzea, gizarte langileak, kale hezitzaileak. Beste laguntzaren bat jasotzen badute, psikologoak, psikiatrak, arreta pribatua, Osakidetza eta abar, koordinazio honetan sartu behar dira. Baita pisuetako hezitzaileak dauden kasuetan. Epaitegia, neurri irekiak eramaten dituztenak eta abar. Ikastetxeak, batez ere LHak. Oso koordinazio zabala da.”

“Koordinazio eza oso handia da, eta mutil batek arazoak baditu... egoera oso delikatu da. Azkenean, arrazoi batengatik edo bestearengatik, laguntzatik kanpo geratzen dira. Gainera, batzuetan, gazteen familiak ikusten dituzu eta are arazo gehiago dituzte, eta zuk ez dakizu nondik hasi.”

Arrisku egoeran dauden adingabekoen gain, oso garrantzitsua da bazterketa egoeran dauden pertsonekin (famiak, adingabekoak, beste kolektibo batzuk) lan egiten duten gizarte zerbitzuak kontuan izatea eta haiekin lan egitea. Baina, hori egoera arazotsuak detektatzeko lehenengo instantzietako bat den arren, beste baliabide batzuk ere aktibatu beharra dago, eta guztiak komunikazio arina eta koordinatua izan.

“Elkarrekin lan egin beharra dugu drogen prebentzioaren arazoan, batez ere prebentzio selektiboan eta gomendatuan, kontsumo arazotsuak dituzten baina droga mendetasunik ez duten gazteekin. Kontsumitzen duten gazteak, edo jokabide deliktiboagoak, bortitzagoak, gogorrakoak dituzten gazteak, eta gazte bakoitzaren neurria egindako prebentzioa behar dutenak.”

Bestalde, komunikazio horretan garrantzitsua da drogen kontsumoa beste gauza batzuk bezala lantzea. Politika hauek penalizazioa baztertu behar dute eta hezitzaileagoak izan. Izan ere, askotan esku hartzeak penalizatzaileak dira, eta horrela gazte onen eta gaiztoen arteko bereizketa bat egiten da: gazterik gehienak, bizitzaren aro jakin batean behintzat, gaiztoak dira.”

Kontsumoarekin eta desbideratutako beste jokabide batzuekin zerikusia duen beste faktore bat pobrezia eta baliabide ekonomiko eza da. Gurasoak langabezia dituzten gazteak. Langa-bezia une jakin bateko egoera izan daiteke. Halere, familia askok harreman ia iraunkorra dute gizarte zerbitzuekin eta gizarte laguntzak jasotzen dituzte. Zerbitzu hauek azaltzen dutenez, langabezia gain, egoera ekonomiko prekario batez gain eta abar, egiturazko faktore problematiko asko gertatu ohi dira.

“Badago beste gazte talde bat, gabezia handiko egoeretan jaiotzen direnak. Ez dugu ahaztu behar pobrezia poltsa handiak ditugula: biztanleriaren %15-20. Ahal den neurrian jende hori berreskuratu behar dugu. Horretarako gizarte politikak behar ditugu, eta hor ez da drogei buruz soilik hitz egiten.”

Familiaren babes ezagatik eta beste beharrian batzuegatik arrisku egoera handiena duten adingabeok dute eragozpen gehien egoera hau gainditzeko:

Baina arrisku profil argia duten adingabeok harremanetan jartzen den instantzia bakarra instantzia judiziala da, zalantzarik gabe. Adingabeok delitu bat egiteak eta gero atxilotuak izateak erakusten dute adingabeok hauek egoera ahul ugari eta ezberdinetan daudela, testigantzak kontuan izanik. Delitugintzak ez dauka beti kontsumoarekin zerikusirik. Bai delitua bai kontsumoa (egotekotan) gabezia betetako egitura pertsonal, familiar eta sozial bat agerian uzten duten jokabide-multzo baten parte dira.

“Guri ez zaizkigu gazteak iristen substantziak kontsumitzen dituztelako, bai zik eta delituak egiten dituztelako. Gehienetan lapurretak dira. Lapurretak indarkeriarekin, lapurretak larderiarekin, dirua lortzeko, besteak beste kontsumorako eta abar.”

Justiziarekin topo egiten duten adina, normalean, 16-17 urte izaten da.

“14 urteko gazte batek behin eta berriro jokabide larriak izan baditu, arazo oso larria da.”

“Hartzen diren neurriak gertaeren larritasunaren arabera dira. Gertaerak larriak badira, epaileak erabaki dezake neska edo mutil hori bere etxetik irten behar dela, edo barneraldi-neurri bat ezartzea, edo heziketa talde batean bizi-kidetzan jartzea, edo zaintzapeko askatasuna betebeharrekin edo, batzuetan, urrutze aginduarekin.”

Adingabeontzat eta helduentzat delituak berberak dira. Hau da, ez dago ezer heldu batentzat delitu dena eta adingabeok batentzat ez denik, baina prozedurak eta epaitegiak ez dira berak. Egin behar dugun galdera da adingabeok bat gazteen justizia sistemarekin harremanetan jartzea

porrota den edo ez. Hau da, aurreko instantzia gizarteratzaileek kale egin duten edo aktibatu ere ez diren egin.

“Tira, ba norbaitek delitu bat askotan egitea oso gauza puntuala da. Baina prozesuak dira, luzeak gainera. Zerbitzu judizialek esku hartzen dutenean, askotan, alde aurretik beste esku hartze batzuk izan dira, arrakasta erlatiboa izan dutenak edo ez.”

“Kasuen, egoeren eta larritasunaren arabera. Kautelazko neurriak daude. Gertatutakoa larria bada, gaztea atxilotzen dutenean edo epaile aurrera eramaten dutenean, momentuan kautelazko neurri bat har daiteke. Beste kasu batzuetan, ordea, zortzi edo bederatz hila bete izan daitezke, baina delitua ez denean errepikatzen da hori. Bestela kautelazko neurri bat ezarriko litzateke. Halere denbora luzeegia da.”

Ondoko testigantza honek erakusten digu epailearen aurrera eramaten duten adingabeak bizi ohi duen prozesua.

“Gure kasua itzela da. Gugana epaitegiaren bidez iristen dira beti. Norbaitek salatu du, delitu batzuk egin direlako. Beraz, epaileak zuzenean esku hartu du. Baina dauzkagun kasurik larrienetan, neurri murriztaileekin, ikusiko dugu portzentaje handi bat gizarte zerbitzuetatik datorrela. Horrek esan gura du pertsona horiek beren famili, harreman, gizarte, heziketa eta abarreko egiturak nahiko hondatuta dituztela. Baina ez du esan nahi maila horietako batean arazoak dituzten guzti-guztiak justiziara bidaltzen dituztenik. Halere, justiziara askotan eramaten dituztenek egoera oso zaila izan ohi dute, eta gainera pronostiko txarragoa dute, gauza askorekin proba egin delako eta emaitza txarra izan delako. Kasu horietan esku hartzea intentsiboa goa eta sakonagoa da, eta gizarteratzeko aukerak, legeak dioenez, askozaz ere gehiago dira, eta eragina ezberdina da. Baina arreta zerbitzu asko eta ezberdinek parte hartzen duten arren, familiek ez dute ezer jakin nahi. Legebiltzarrean famili adiskidetzeko neurriak probatzeko erabaki batzuk daude, baina oraingoz ez da emaitzarik egon.”

“Erakundeen arteko koordinazioa garrantzitsua da. Erakundeek askozaz ere gehiago baloratu behar dute ikastetxearen inguruan adingabeekin zer egin daitekeen, eta ez diot eskola orduengatik. Hor daude eskolarako joan-etorriak, eskola orduak, eskolako jantokia, eskolaz kanpoko jarduerak, auzoko elkarteak, udalekuak eta abar. Horretarako norbaitek zintzotasun osoz pentsatu behar luke nola iritsi behar diren mezu hauek adingabeoengana, eta Hezkuntzako koordinazio batetik egin beharko litzateke. Erakunde sistema handia dugu, ematen du honen alde dagoela, baina erakunde asko dira. Mezuak ez ditu hezkuntza arloak soilik eman behar, baita beste eremu batzuetan adingabeekin lan egin ohi duten pertsonak ere. Horregatik, pronostikoa gero eta konplexuagoa da.”

Kasurik deigarrietako bat gertatzen da familiak berak justiziari bere seme-alabekin esku hartzeko eskatzen dionean, familia barruan jokabide bortitza izaten dutelako.

“2003. urtera arte ez genuen ia jasotzen gurasoak jotzen zituzten seme-alaben kasurik. Oso, oso, oso kasu bakanak zeuden. Baina 2003. urtetik aurrera bai. Nire ustez, oso lotuta dago emakumeen aurkako indarkeria, beti hor egon dena, argitara ateratzearekin eta ikusgarri egitearekin. Nire ustez, hori egiten hasi zenean (hor zegoen baina ezezaguna zen errealitate bat erakusten, alegia), indarkeria mota hau ere nabarmen ikusten hasi ginen. Badago datu bat: 2006. urtean, EAE osoko fiskaltzetan 101 kasu edo salaketa sartu ziren gurasoak jotzen zituzten seme-alaben kontura. Gutxi gorabehera sartu ziren salaketa guztien %3,6 da hori. Eta gero, kasu horietatik, guganaino iritsi zirenak (hau da, fiskaltzatik pasatu, ikerketa bat egin eta bitartekaritza prozesu baten bidez edo kanpoko laguntza baten bidez arazoa konpondu ahal zen aztertu eta gero), kasu batzuk konpondu egin ziren. 2004. urtean 32 neurri eta 32 pertsona egon ziren. 2005ean, 50, 2006an 55 pertsona, eta 2007an 49. Horrek esan nahi du urtean 50 kasu inguru daudela. Honen kausa ez da droga kontsumoa. Badago mutil edo neskaren bat ama jo ohi duena eta gainera kontsumitzen duena, baina ez da zuzeneko kausa. Hau guztia oso lotuta dago familian nortasunak galtzearekin, desegituratzearekin, muga ezarekin, oposizioarekin... hau da, nik nahi dudana egitea eta neure iritzia inposatzea.”

Hori guztia ez dadin gertatu, elkarrizketatutako pertsonarik gehienak alde aurretik egoera ahul batean dauden sektoreekin prebentzio selektiboko eredu bat aplikatzearen aldekoak dira, haiek baitira arrisku faktorerik gehien dituztenak.

“Prebentzioa ez da hainbeste bideratu behar ikastetxeetan dauden drogei buruz hitz egitera (niri iritiz ez du arrakasta handirik izan), baizik eta prebentzio selektiboa egitera. Prebentzioa eta aldi berean tratamendua da, baina ez kokaina, heroina edo alkohol mendetasunekin egiten den tratamendua antzekoa. Prebentzio unibertsalean aztertu behar dugu ze inertzia gainditu behar ditugun, eta prebentzio selektiboa sendotu.”

“Bestelako konponbide batzuk martxan jarri behar ditugu. Horregatik prebentzio selektiboa sustatzen ari dira, oso modu nabarian, arrisku handiko ikasleak dauzkaten ikastetxe batzuetan, laneratzen hasteko zentroetan, eskolako porrota izan duten neska-mutilak sartu ohi direlako hor.”

“Planteamendu unibertsala izan zen abiapuntua, hasiera batean. Hori prebentzio zerbitzu askotan gertatu da. Gazteak eta arriskuen kudeaketa jarraitu beharreko lerroa da, oso garrantzitsua baita. Eta gero, noski, egoera konplexuagoak dauzkaten adingabekoengan eragiten hasi behar dugu. Planteamendu zehatzagoak egin behar ditugu, eta ez guztia guztientzat (hori ere beharrezkoa den arren): biztanle talde zehatzagoekin lanean hasi beharra dago. Egiten ari gara dagoeneko, baina gehiago egin behar da ildo horretan.”

Drogak agertzen diren kasu zehatzean, garrantzitsuena litzateke, batetik, esperimentazioaren ondorioz (ohiko fenomenoa dena) kontsumo arazotsu bat sortzea ekartzen duten faktoreetan eragitea.

“Nire ustez, kontsumoa hasten den egoeretan, gaur egun normaltzat hartzen direnak, hori birbideratu behar da. Nola? Kontsumitzailea konturatzen denean hau ez dela ona, askatasuna galtzen hasi dela, arazoak sortzen dizkiola eta egoera desatseginak sortzen dituela, benetan atsegin ez dituen dinamiketan sartzen ari dela eta abar. Fase horretan.”

“Ona litzateke kontsumo garrantzitsuak aurretiaz atzemateko arreta baliabideek sarean lan egitea. Arazoak eta kontsumoak dauzkan gazteak gurasoekin harremanetan jartzeko aukera izan dezala eta gurasoek ez dezatela irakaslea begitan hartu. Gaiari heltzeko modua ez da izan behar gazte hori gaixorik dagoela esatea, baizik eta arrisku egoeran dagoela eta horri nola aurre egin ahal zaion.”

“Nire ustez, oso garrantzitsua da bitartekarien lana prebentzio ez-espezifikoko batetik eta, kasu espezifikokoagoetan, gehiegizko erabilera atzematen jakitea.”

Azkenik, osasungintzako langileek ere zer esana dute. Adingabekoen artean diagnostikatzen diren arazo psikiatrikoak droga kontsumoaren jatorria edo ondorioa izan daitezke. Jatorria direnean, pertsona egoera ahul batean kokatzen da, hasieratik bertatik. Ondorioa direnean, arazo problematiko horri arrisku faktore gehiago eransten zaizkio, kalte gehiago ekar ditzaketen beste jokabide edo egoera batzuk sortzeko aukerak areagotuz. Elkarrizketatuek azaldu dutenaren arabera, osasun erakundeak gainerako zerbitzu komunitarioekin oso koordinazio eskasarekin jokatzeko du. Diagnostikatu den arazoari heltzen dio, eta oso kasu gutxitan izaten da benetako koordinazioa laguntza lana sustatzeko.

“Osasunaren alorrean, Osakidetzaren funtsezko zeregin bat nahasmendu ezberdinei arreta ematea da. Ez bakarrik arretari, jokabideari edo jokaerari dagokienez, baita kontsumoari, kontsumo problematikoari eta agertzen hasten diren gaixotasun mentalei dagokienez ere. Hau da, nire ustez une hauetan Osakidetzak erantzun pobrea ematen die nerabeen nahasmendu psikologiko edo psikiatrikoei eta nortasun nahasmenduei.”

“Ematen zaien arreta batez ere farmakologikoa da. Salbuespenak salbuespen, ez zaio arazoari beste eremu batzuetatik heltzen: terapia, psikoterapia, familian esku hartzea...”

“Fenomenoak duen eboluzioaren arabera, nire ustez, laguntza mailak nahiko instituzionalizatuta daude, ez dakit modu egokian edo ez. Hori, berez, lorpena da. Arreta Osakidetzan integratuta dago eta beste erakunde lankide batzuk daude, honelako esku hartzeetarako itundutakoak. Hor aztertu behar harko genuke baliabideak nahikoak diren edo ez, eta Osakidetzaren arreta

arrakastatsua den edo ez eraginkortasunaren ikuspegitik; nik horri buruz zalantzak dauzkat. Gainera, baliabide pribatu itunduetara bideratzen den dirua egoera normal batean litekeena baino askozaz ere handiagoa da."

5.2.6. Arloen eta erakundeen arteko koordinazio irrikatua

Adingabekoekin eta haien droga kontsumoekin lan egiten duten pertsonen artean gehien entzuten den eskaera, gabezia edo hutsunea, duarik gabe, **koordinazio eza** da.

Elkarrizketatu ditugun pertsona guztiek uste dute, modu pertsonalean eta betiere lan egiten duten erakundeei dagokienez, koordinazioa dela gabezia nagusia euren eguneroko lanean, salbuespenak salbuespen. Halere, onartzen dute koordinazioa ezinbesteko tresna dela, eta hura gabe ezinezkoa dela beraien laneko helburu bat ere lortzea.

Hasteko, ematen du ez dagoela taldean lan egiteko kulturarik, ezta erakunde bereko profesionalen artean, adibidez, ikastetxe batean. Horregatik, are zailagoa da pentsatzea ikastetxearen eta kanpoko beste erakunde batzuen artean komunikaziorako gune bat sortzea, nahiz eta biztanleria berbera izan: adingabekoak. Ikastetxea aipatu dugu, baina egoera hau edozein erakundetan eta edozein lan eremutan gertatzen da: polizia, epaitegiak, gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak, eta abar. Argi dago ez dagoela barne koordinaziorik, are guxtiago erakundeen artean.

Koordinazio eza arazoa da berez. Denek onartzen dute koordinazioa egon beharko litzatekeela, zerbitzu, profesional eta destinatario guztientzat mesedegarri izango litzatekeelako. Baina gainera, koordinazio gabezia horrek zenbait arazo sortzen ditu, lana zailtzen dutenak: esku hartzeak bikoizten dira (horrek dakarren kostu ekonomiko, pertsonal eta materialarekin), adingabekoei mezu ezberdinak (batzuetan kontraesankorrak) bidaltzen zaizkie... Gainera profesionalak edo erakundeak lanez gainezka egoten dira, adingabekoen arazoak eurek konpondu behar dituztela uste dutelako, ez baitute ulertzen lan hori zabalagoa eta integralagoa dela eta beste baliabide batzuk behar direla. Profesionalen motibazio falta edo burn-out arazoak gertatzen dira, beharbada aurreko esaldian esan dugunagatik, isolamendu sentsazio batengatik edo gehiegizko erantzukizuna dutelako usteagatik eta abar.

Kapitulu honen hasieran esan dugu azterlan honen helburua den gaiak eremu eta sektore profesional askorekin zerikusia duela eta horren aurrean bi aukera daudela: modu isolatuan lan egitea eta norberak egin ezin duenaren erantzukizuna beste norbaiti ematea, edo modu koordinatuan lan egiteko modua bilatzea, bakoitzaren eskumenak argi eta garbi zehaztuz. Diskurtsoak aztertu ondoren, lehenengoa da daukagun errealitatea. Oso profesional eta erakunde gutxi koordinatzen dira.

Koordinazio lan hau, egiten denean, instantzia hurbilenetan egiten da, baina esan dugunez, oso kasu bakanetan gertatzen da. Adierazten dutenez, koordinazio izpirik txikiena ere norberaren ahalegin boluntarioaren ondorio da, pertsona batzuek uste baitute eraginkorra dela. Zentzu horretan, eskaera argi bat dago: "norbaitek, goragoko instantzia batek, lan hori

burutu dezala eta, bestetik, instantzia horrek laneko jarraibideak argitu ditzala." Administrazio instantzia gorenei egiten zaien dei argia dugu hori.

Egia da, bestalde, egokiena berariazko organo bat sortzea litzatekeela. Organo horrek, ikuspegi zabal batetik, adingabeak gizarteratzeko prozesu optimoan parte hartu behar duten erakunde multzoaren ikuspuntua izanik, jarraibideak eta eskumenak zehaztuko lituzke eta koordinazioa sustatuko luke. Baina organo horrek ezin izango luke ordezkatu ezta inposatu, ezta gainbegiratu edo kontrolatu ere, esku hartzeko esparru bakoitzaren barne koordinazioa eta beste sektore batzuekin (hurbilen daudenekin behinik behin) izan beharreko koordinazioa lanabes gisa erabiltzea.

Eta erakunde bakoitzak izaki isolatu bat baillitza lan egiten badu, esparru ezberdinen arteko komunikazioa aztertzen dugunean beste horrenbeste gertatzen da. Poliziak azaltzen du ez duela hezkuntzako instantzien lengoaia berbera erabiltzen. Horra hor, besteak beste, komunikazio ezaren arrazoia. Osasunaren sektorea erabat isolatuta dago gainerako eremuetatik, justiziarekin gertatzen den bezala. Beharbada, oro har gizartean medikuek eta epaileek hedatuta dagoen iritziak, haiek botere guneetan kokatuz, zenbait aurreiritzi, konplexu eta eragozpen sortu ditu komunikazioa eskatzeko orduan (komunikazioa alde bikoia izan behar harko litzateke). Alderantziz gertatzen da hezkuntzan, profesionalik gehienek uste baitute haien profesionaltasuna ez dela aintzat hartzen. Apur bat sinplea ematen du, baina ez da astakeria. Kontuan izan behar dugu, esan dugunez, koordinazioa pertsonen borondatearen mende dagoela eta egongo dela neurri handi batean, behinik behin gai honetan lan egiten duten pertsona eta sektore guzti-guztien lanaren berezko zeregin bat koordinazioa izan dadin bideak aurkitu arte.

Profesional bakoitzak koordinazioaren beharrezkoa planteatzen du baina ñabardura ezberdinek ezartzen ditu, bere lan-eremuaren arabera. Horregatik, puntu honetan uste dugu egoiagoa dela, elkarrizketatuen testigantzak erakustean, lanbidearen arabera sailkatzea.

Hezkuntza

Guraso elkarteek, bestalde, adierazten dute batetik beraien eta udal zerbitzuen artean koordinazio eza dagoela eta, bestalde, ikastetxean bertan ere arazo hori dagoela. Baina haien ustez zuzeneko erantzulea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila da.

"Oro har, erakundeek lehentasuna drogen kontsumoa eta kontrola dira, eta ez kontsumo ezaren ohiturak, prebentzioa eta abar. Kanpainak egiten dira, baina gizarte egitura ezberdinen arteko koordinazioa falta da; adibidez, Hezkuntza Sailaren eta droga edo gizarte arazoak kudeatzen dituzten beste sail batzuen artean. Batzarrak egiten dira, baina agian formula egokiak asmatu behar dira eta emaitza onak eman dituzten esperientziak erabili."

Haien ustez euskal administrazioari egin behar zaizkion kritikak azaltzeaz gain, aitortzen dute ezin dela espero izan “goitik” dena konpontzea. Guraso elkarteen federazio baten arduradunak honela azaltzen du:

“Benetan aldatu behar dena gizartea bera da. Barrutik aldaketa bat egin behar du, goitik egiteari itxaron gabe. Eskolatik, familiaratik, eskolan ikasleekin, scoutek bereekin, katekesian... aldaketa hori egin behar da.”

HEZKUNTZA ARAUTUAREN PROFESIONALAK (IRAKASLEAK, PAT, HEZKUNTZAKO IKUSKARITZA)

Sektore honek koordinazio eza aipatzen du batez ere: barruan, irakasle talde bateko profesionalen artean, koordinazio eza baliabideak alferrik galtzearen arrazoi nagusi bezala (esku hartzeak bikoizten baitira), eta sektore arteko lankidetzaren eta babesaren beharrezana aipatzen dute, isolaturik egoteak immobilismorako joera sortzen baitu.

“Koordinazioaren bidez, dauden baliabideak erabil daitezke. Erabiltzaileentzat zerbitzu ezberdinen pentzudan egoteak sortzen dituen bikoizketa, desgastea eta nahasmena galarazten ditu. Kasu askotan, inplikatura dauden pertsonen profesional ezberdinei beren egoerak (askotan gogorak direnak) behin eta berriro kontatu behar izaten dizkiete. Diagnostikoa ezarritakoan, erabiltzailea berarentzat egokien den baliabidera bideratzea komeni da. Batzuetan ematen du zerbitzu ugariaren artean kasu honen arretagatik borrokatzen ari direla. Jakin beharra dago zerbitzuren batean arreta jasotzen ari den, bikoizketarik ez dadin egon.”

“Berriro aipatu nahi dut lankidetzan aritu beharra. Ikastetxeko irakasleen arteko lankidetzak, askotan ez baitaude gai hauetan koordinaturik, batzuek besteek baino gehiago esku har baitezakete. Haien artean koordinazioa egon beharko litzateke, ikasleen artean kontzientzia kritikoa bultzatzeko, ikastetxean proiektuak eta programak sortzeko, eta programa eta ideia horiek ikastetxearen hezkuntza proiektuaren barruan sar daitezen.”

Halere, ez dugu ukatuko koordinazio maila egokia daukaten pertsonen testigantza positiboak ere badaudela: ez munduko koordinaziorik onena, baina positiboa. Batzuek uste dute lan zaila dela eta pazientzia eta epe luzerako lana beharrezkoak direla.

“Erakundeen aldetik babes handia dugula uste dugu. Udalak babes handia ematen digula uste dugu. Gizarte ongizateko eta kulturako zinegotziekin batzartu gara, gaiari modu zabalagoan heldu ahal izateko.”

ARAUTU GABEKO HEZKUNTZAKO PROFESIONALAK (LHI, KALEKO HEZKUNTZA, ANIMAZIO SOZIOKULTURALA)

Profesional hauen artean atzematen da koordinazio mailarik handiena. Halere, haiek are koordinazio handiagoa eskatzen dute. Profesional hauek lehenengo lerroan lan egiten dute adingabeko ahulenekin eta, horregatik, baliabide gehiago bereganatu behar dituzte. Beste

erakunde batzuekiko komunikazioa ezinbestez sortzen da, arreta ematen dieten adingabekoetako asko aldi berean gizarte zerbitzuekin, epaitegiekin eta abar harremanetan daudelako. Profesional hauen arazoa da, haien ustez, haien lana ez dela aintzat hartzen eta bitarteko gutxi ematen zaizkiela.

“Nik suposatzen dut Eusko Jaurlaritzan horren jakitun daudela, nahiz eta ez duten ezer esaten. Esan nahi dut: ez dago figura honen aintzatespenik baina ez dute desagertzea nahi. Halere badakigu ez digutela kalitatearen Qa emango...”

“Nire ustez gizarte eta giza baliabideak daude erakundeen barruan, edo erakundeek haiekin lan egiten dute; oso onak izan daitezke, baina ez zaie errentagarritasunik ateratzen. Azkenean, pisua mezuen alderdi negatiboan jartzen da, eta gizartean arazoari heltzeari buruzko mezu okerra hedatzen da. Paper handiagoa eta ahots ozenagoa izan beharko lituzkete drogen munduarekin lan egiten duten pertsona eta baliabideek.”

Poliziak (Udaltzaingoa, Ertzaintza)

Esan dezakegu elkarrizketatu ditugun eremu honetako profesional ia guztiek koordinazioa aipatzen dutela polizi lanaren gabezia nagusi gisa. Oso tresna garrantzitsua baita beraien lana behar bezala egiteko. Azaldu digutenez, bakoitzaren lan eremuak ekartzen du gertaera berberak klabe desberdinean interpretatzea. Lengoia edo kode ezberdinak erabiltzen dira, eta horrek komunikazioa oztokatzen du. Beste instantzia batzuekin koordinatzerakoan pertsonen borondate eza aipatzen da. Gainera, adingabekoez zerikusia duten kasuetan jarduteko unean ez dago denek erabil dezaketen protokolo bakar bat. Bestalde, poliziako kideek “pe-likulako gaiztoak” izateagatik kexatzen dira, eta uste dute biztanleria honekin esker txarreko lana egiten dutela.

“Erakundeen arteko harremanak gehiago landu beharreko gaia dira. Nik, neure lanpostutik, esan dezaket harreman horiek pertsona jakin batzuen borondate hutsari esker jorratu direla: hezkuntzako langileak, osasuneko langileak, udalekoak eta Ertzaintzakoak, denak koordinazioagatik kezkatuta. Langileen kezka pertsonalek sorrarazi dituzte harreman hauek, eztabaidatzeko zer egin daitekeen eta zer ez. Baina, egia esan, ez gara baterako ekintza planak garatzen ari.”

“Gure ekintza eremua nahikoa da, baina egin beharko genukeena da beste arlo batzuekin koordinatzea. Oso garrantzitsua litzateke aldundiak, Eusko Jaurlaritzak edo udalek ikastetxeetan hitzaldiak ematea, gizarte hezitzaileen edo bestelako langileen bidez. Jendeak pozik hartuko lituzke. Jendeak pertsona normal bat ikusiko luke, legeak, diziplina edo antzekoak ordezkatzeko ez dituen, eta balio, ezagupen eta abarreko batzuk transmititzen dituen,”

inposatu gabe, jendeak barneratzeko. Poliziak ez du aholkurik ematen, poliziak inposatu egiten du.”

“Poliziaren ikuspegitik, faltan botatzen dut datuak erkatzea. Espainiako Gobernuko Osasun Ordezkaritzarekin hitz egin nuen, haiek aztertzen baitituzte substantziak, eta aurkitu zituzten papelina batzuetan heroinaren eta kokainaren arteko nahasketa zegoen. Papelina horiek kalean daude eta medikuek ez zekiten horren berri.”

“Zer esanik ez hezkuntza eremuaren itxikeriaz poliziarekin. Nik institutu bateko zuzendariari azaldu behar izan nion beraren legezko betebeharrak zeintzuk ziren. Izan ere, ur handitan sartu zen adingabeko batzuk babestuz; adingabeko horiek sekulakoa egin zuten institututik kanpo, mozkorrik, baina eskola orduetan. Hark bazekien adingabekoek une horretan institutuan egon behar zutela eta ez zeudela. Adingabekoek norbait jo zuten, nahiko gogor. Institutua herri txiki batean dago, eta zuzendariak ez zuen gertakari horretan nahastu nahi, adingabekoak babesteko edo institutuaren izen ona babesteko.

Lankidetzaren irizpidea erabili beharrean, hau da, ea nola konpontzen dugun hau, gure arteko borroka batean sartu ginen: zu poliziako kidea zara eta adingabekoa jazartzen duzu, eta nik babesa eman nahi diot. Lengoia bera ere ezberdina da.”

Kannabisa legeztatzearen aldeko elkarteak

Faltan botatzen dute gizarte komunikazioko foro bat, ez legeztatzearen inguruan, baizik eta drogen gaiarekin oro har zerikusia duen guztian.

“Lan instituzionalerako marko bat falta da, zerikusia duten organoek eta sektoreek alternatibak, konponbideak eta abar eztabaidatu ahal izateko.”

“Orduan, lehenbailehen nahi duguna da Eusko Jaurlaritzaren Droga Mendekotasunen Aholku Kontseiluaz haratago doan esparru bat sortzea, organo hori ez delako nahikoa ezta esanguratsua ere.”

Epaitegiak

Sektore honetan, adingabekoen fiskaltzaren ordezkaritza bat elkarrizketatu dugu. Erakunde honetan, salbuespena bada ere, adierazi digute beste sistema batzuekin koordinaturik lan egiten dutela. Halere, beste eremu batzuek ez digute esan epaitegiekin koordinaturik lan egiten dutenik.

“Gehienetan gainerako sistemekin batera lan egiten dugu. Neurri judizial bat amaitzean, batez ere luzea izan bada edo esku hartze handia egon bada, saiatzen gara harremanetan egoten gizarte zerbitzuekin, hezkuntza zerbitzuekin, osasun zerbitzuekin edo dena delakoarekin.”

Tokiko administrazioa (udal teknikariak)

Profesional hauek erakundeen jardunari buruz azaltzen dituzten iritzietako askok gizarte egoeraren aldakortasuna aipatzen dute, bai eremu politikoan bai droga mendetasunaren fenomenoan. Azaldu dute, kapitulu honetako beste atal batzuetan bezalaxe, koordinazioa, edo proposamen politikoaren eraginkortasuna ere, arduradun politikoaren edo borondate pertsonalen mende daudela. Hau da, ez da adostu jarduteko lerrorik, aldez aurretik ezarritako jarraibiderik, fenomeno honen kudeaketa politikoan boterea nork duen aintzat hartzen ez duena. Egia da, bestalde, gizarte errealitatea etengabe aldatzen dela drogen inguruan, baina, itxuraz, ez dago aldaketa hauek gainditzen dituen lan ildorik edo tresnarik.

“Erakundeen ibilbideak gauza askorekin du zerikusia: borondateak, estrategiak, eta erakundeetako arduradunak aldatzearekin batera sortu diren planak. Ziurrenik, zerikusi handia dauka ere drogen fenomenoak berak bizitzen duen bilakaerarekin: kontsumoak, substantziak, kontsumitzeko moduak, kontsumitzen duten pertsona taldeak... horrek denak eragina izan du.”

Dokumentatutako jakintza teorikotik pentsatzen da esku hartze anitzak arazoak sor ditzakeela esku hartzeko orduan:

“Nik uste dut alde batetik zerbaitek eragina duela gizarte zerbitzuetan: erakunde sakabanaketak, hain zuzen ere. Arazo horri buruz eskumenak dituzte erakunde ezberdin askok, eta azkenean arazoak sortzen dira. Osa-kidetzak, aldundiek Eusko Jaurlaritzako Droga Mendekotasunen Aholku Kontseiluak, udalek eta abarrekoek dituzte eskumenak.”

Koordinatutako lanak esfortzu gehiago eskatzen du, eta profesional batzuei lan hori egitea kostatzen zaie. Errazagoa da (baina ez oso eraginkorra) nork bere eremuan lan egitea, kasurik gehienetan gertatzen denez.

“Koordinazioaren lan honetan lan eskerga egin beharra dago. Planarekin hasi ginenetik, ikusi nuen sareko lana ez dela benetan egiten, eragozpen itzelak daudelako. Oztopo horien arazoia da jendeak ez duela inplikatu nahi. Nik neure lana egiten dut eta ez eskatu gehiago egiteko. Ozta-ozta egiten dut neurea, beraz ez ekarri lan gehiagorik niri. Zurekin koordinatzeak aparteko lana eskatzen dit. Beste batzuek baiezkua ematen dizute baina burokrazia handia dago eta, horregatik, kasua koordinatzen denerako denbora luzea igaro da eta kasua orain beste kasu bat da.”

Koordinatutako lanak eragozpen handiak sortzen dituen arren eta esfortzu gehiago eskatzen duen arren, haren eraginkortasuna ez da auzitan jartzen:

“Uste dut teoria, komunitateko ikuspegia eta abar ondo daudela. Baina praktikan, batera lan egiteko espazioak bilatu beharko genituzke, hausnartzeko, erabakitzeke, baliabideak elkarteen eta sailen artean modu egoziagoan banatzeko. Epe luzeagoan lan egin ahal izatea, prozesu luzeak direlako hauek. Garrantzitsuena pertsona izan dadila, eta proiektuek errealitatea kontuan izatea, ikuspegi guztietatik, elkarrekin koordinatuz.”

“Uste dut ideia ezberdinak erkatzeke espazioak, elkarrekin egoteko, eztabaida taldeak, oso baliagarriak izan daitezkeela bestelako errealitate batzuk ezagutzeko, informazioa nora iristen ez den jakiteko eta abar. Horrelako espazioak sortzea oso interesgarria da gazteriak bere aisialdiari buruz, bere kontsumoari edo kontsumo ezari buruz etab duen iritzia jakiteko. Hau babesten duten proiektuak behar ditugu, tokiko eremutik (auzoak edo udalerriak) eremu zabalagoetara (estatua, Europa).”

5.2.7. Tresnak: prestakuntza eta egokitzapena

Orrialde hauetan, elkarriketatutako pertsona batzuek azaldu digute prestakuntza premia dutela adingabekoekin zuzenean lan egiten duten eragileetako askok. Bestetik, drogen fenomenoan, droga mendetasunean eta substantzien gehiegizko kontsumoa duten pertsonetan (gure kasuan, adingabekoak) diagnostiko erreal eta gaurkotu batetik abiatu beharra azpimarratu dute.

Zeharka esan dugunez, araututako hezkuntzaren eremuan, profesioaletako askok adierazi dute arlo honi buruz dakitena zaharkituta dagoela. Arazoan parte hartzeko interesa duten arren, ez dute uste haiek dakitena errealitatearekin bat datorrenik. Ez da hala gertatzen, edo ez behintzat neurri berean, arautu gabeko hezkuntzako profesionalengana hurbiltzen garenean. Guraso elkarrekin, bestalde, oinarrizko prestakuntza falta dute. Arazoari modu errealistan begiratzeko tresna lagungarriak ere ez daukate. Ezagupen horiek ez izateak askozaz ere ikuspegi dramatikoak izatea ekarri ohi du.

Beste eremu profesional batzuek ematen duten ideia da “denetarik dagoela”. Pertsona batzuek adingabekoen eta drogen inguruko errealitatea, baliabideak eta laneko tresnak guzti gorabehera ezagutzen dituzte, betiere interes pertsonalagatik, eta ez beren jardun profesionalerako eskatzen dieten prestakuntza baten ondorioz: poliziako kideen, epaitegietako profesionalen, osasuneko langileen etab kasua da.

Kontua ez da adingabekoei eta drogei buruzko jakintza bereganatzea, berez oso baliagarri litzatekeena, baizik eta ulertzea zergatik, nola, zein egoeratan, norekin eta non kontsumitzen duten, edo haiekin nola lan egiten den, zeintzuk diren baliabide espezifikoak eta abar.

Prestakuntza alde batera uzten badugu, argi eta garbi identifikatu dugun beste beharri-
zan bat gizarte errealtatearen ikuspegi eta irakurketa egokiak izatea da, bai adingabekoei
buruzkoak, bai gaur egun adingabekoei dituzten droga erabilerei buruzkoak. Ez da arraroa
diskurtso alarmistak aurkitzea, batez ere heroina kontsumitzen zen garaiaren antzekoak,
nahiz eta orduko kontsumitzaileen inguruabarrak eta gaurkoenak erabat ezberdinak izan.
Gainera, normalean ez dira bereizten erabilera, gehiegizko erabilera eta mendekotasuna.
Ez da arrisku eta babes faktoreez hitz egiten, edo arriskuen edo kalteen murrizpenaz. Ez
da aztertzen gaur egungo kontsumo testuinguruek ekartzen duten bereizgarritasuna. Aro
honen eta beste batzuen artean sakoneko ezberdintasunak sortzen dituzten faktoreetako
batzuk dira horiek.

*“Irakasleek prestakuntza handiagoa izan behar dute. Gainera, honetan
jarduten dugun pertsonak urte asko daramatzagu honetan eta azkenean
prestakuntza ezdeusa da. Faktore funtsezkoa dugu hau, baina gainera, mo-
tibazio falta dago.”*

“Ez gatzazkie aro berriei eta gizarteko errealtateei egokitu.”

*“Nire ustez, arazoaren zati handi bat helduek ematen dituzten erantzunetan
dago. Horregatik, bereziki aipatu nahi nuke gurasoen, irakasleen, hezitzaile-
leen eta nerabeekin lan egiten duten eta haiekin egoten diren gainerako
gizarte eragileen hezkuntzaren garrantzia.”*

*“Gizarte honetan gizonak bakarrik egiten zuen lan, ez zegoen immigraziorik
eta eskolatzeko tasa oso egituratuta zegoen. Gizartea hiru alderdi horietan al-
datu egin da. Beraz, gizarte zerbitzuak ere aldatu beharko lirateke, baina de-
finizio ezan bizi gara. Aplikatzen hasi diren indibidualizazio mailak programa
zehatzetan oinarritzen dira. Egoera berrien artean profesionalak egokitzeko
joera dutelako etortzen dira, baina ez egituraketa bat dagoelako.”*

*“Zerbitzuen erantzunak prestatzean, pentsatzen da atzean famili egitura
sendoa dagoela, baina gaur egun gauzak ez dira hala gertatzen kasu asko-
tan. Horregatik, erantzun batzuek kale egiten dute.”*

*“XIX. mendeko eskola daukagu, XX. mendeko irakasleekin, XX. mende-
ko neska-mutilekin. Guk egin nahi genuena zen XX. mendeko programak
egitea XX. mendean geundenean, eta XXI. mendeko programak orain XXI.
mendean gaudenean.”*

*“Egoera askozaz hobea da orain, duela 20 urte baino, eta kontsumo maila
eta arrisku maila txikiagoak dira. Halere, planteamendu batzuk, lehen egiten
ziren ikuspegitik ikusita, guztiz garatu ez zirenak, oraindik ere egiten dira,
eta gaur egun ere, ez dira guztiz garatzen.”*

5.3. EAEko adingabeen diskurtsoa

Eztabaida taldeen azterketa. EAEko adingabeen ikuspegia

Profesionalen iritzia dakigularik, ikuspegi osatu bat eskaini beharrean gaude, interesatuen iritzia aintzat hartzen duena, haiei zuzenduta baitago esku hartzea: 18 urtetik beherako pertsonak. Diskurtso hau kontuan izan gabe, errealitatearen argazkia erabat partziala litzateke.

Biztanleria talde honen errealitatearen iritzia eta diskurtsoa biltzeko, estrategia edo teknika soziologiko eraginkorrenetako bat eztabaida taldeena da. Teknika honek taldeko ikuspegia eskaintzen du, errealista, eta angelu guztietatik. Hementxe jasotzen dira euskal adingabekoen bat-bateko iritziak. Iritzi horiek aztertuz jakin ahal izango dugu adingabekoek beren errealitatea nola bizi duten, ze harreman duten drogekin eta haien kontsumoarekin, zer iritzi duten helduek gazteen inguruan dituzten uste eta balorazioei buruz eta abar. Eztabaida taldeak konfiantza giroa sortzea mesedetzen du. Horrela, parte hartzen duten pertsonak beren uste pertsonalak, beren kezkak eta beren bizipenak erreparorik gabe azaldu ahal dituzte, gazteen ikuspegitik eta gazte ikuspegiarekin: haiena eta inguruan dituzten pertsonena, hau da, haien erreferenteena, haien kideena.

Kapitulu honetako ondorioak behar bezala baloratzeko eta estrapolatzeko, kontuan izan behar dugu iruzkinen analisia parte hartzaile kopuru mugatu bati dagokiola. Beraz, haien iritziak euskal adingabekoen iritzien bozeramale izan daitezkeen arren, ez dira kolektibo osora estrapolatu behar.

Taldeak 8-12 pertsonak osatzen dituzte. Pertsona horiek ausaz aukeratu ziren. Halere, pertsona horien ezaugarriak ahalik eta esanguratsuenak izaten saiatu ginen, bai gizarte alderdietan (adina, gizarte klasea, lurraldea etab) bai sexuari dagokionez. Horregatik, talde bakoitza EAEko lurralde historiko batekoa da. Bestetik, oso leku ezberdinetatik datozen gazteak dira, horrela iritzi ezberdin eta askotarikoak lortzeko: taldeetako bateko kideak lanbide hastapenetarako ikastegi batean daude, beste bat erlijio eta gizarte izaera dituen aisialdi talde bat da, eta abar. Halere, hemen aurkeztu dugun analisia aberasteko, IDDAk 2007. urtearen amaieran antolatutako bi eztabaida taldeen iritziak jaso ditugu⁸, Vitoria-Gasteizko eskoletako ikasleen droga kontsumoaren inguruko azterlan bat egiteko eratu zirenak.

Dinamika guztiak taldeetako bakoitza biltzen den lekuetan egin ziren, konfiantza giroa sortzeko, gazteek beren iritzia libre ematea oztopatu ahal zuen heldurik gabe. Horretarako, gainera, landa-lana egin zuten eta taldeak dinamizatu zituzten pertsonak bi gazte izan ziren, zeregin hauetan esperientzia zutenak. Neska bat eta mutil bat ziren. Gazteak zirenez, nolabaiteko hurbiltasuna lortu zuten.

⁸ "Gasteizko ikasleen droga kontsumoa" azterlana IDDAk egin zuen, Vitoria-Gasteizko Udalak eskatuta. Hau 2003. urtean hasi zen serie baten bigarren bolumena da. Iritziak "Eztabaida taldeen analisia. Protagonisten ikuspegia" kapitulutik atera ditugu. Kapitulu horren arduraduna Izaskun Sarabia da. DBHko 3. eta 4. mailetako ikasleek eta Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleek eraturako taldeen iritziak soilik jaso ditugu hemen, txosten honek daukan adin irizpidea errespetatze aldera.

Talde guztietan, eztabaidaren oinarritzko gaia droga mendetasuna nola prebenitu izan zen. Hasiera batean, gazteek prebentzioaz zer zekiten jakin nahi genuen: prebentzioa zer den, haien ustez eraginkorra den, eta abar.

Hiru saioetako abiapuntua taldeko partaide guztiek “prebentzioa” kontzeptuari definizio bakar bat ematea izan zen. Hasiera horren ondoren, adingabekoen ustez gai honetan funtsezkoak ziren kontuekin jarraitu zuten saioek. Horrela, egoeran kokatzea posible da, euskal adingabekoen droga mendetasunaren eremuan beraiekin egin diren esku hartzei buruz daukaten ikuspegitik abiatuta.

Hemen azalduko ditugun iritzien irakurketa errazago egin ahal izateko, hiru eztabaida taldeetan aztertu ziren gaien eta edukien arabera sailkatu ditugu iruzkinak. Gasteizko 2007ko eskoletako ikerlaneko eztabaida taldeetatik informazioa atera dugu gainera, geure azterlana osatzeko.

“Droga mendetasunen prebentzioa” kontzeptuaren definizioa

Hiru eztabaida taldeak osatu zituzten pertsona guztiei berdina gertatu zitzaizen: inor ez zen gai izan, laguntzarik gabe, droga mendetasunaren prebentzioaren definizio bat ezartzeko. Ideia-jasa edo brainstorming delakoaren bidez soilik adostu zuten definizio bat.

Hona hemen parte hartzaileen iruzkin batzuk:

- *“Nik ez dakit zer den hori.”*
- *“Uste dut informazioarekin zerikusia duela. Aldean zenbat droga eraman dezakezun jakitea, poliziak harrapatzen bazaitu.”*
- *“Nik uste dut droga bakoitzak dakarren arriskuaz informatzea dela. Ezin dela zenbaterako jakin bat kontsumitu edo ondorioak jakitea. Norberak jakitea zer hartzen duen, ze efektu dituen...”*
- *“Drogei, ondorioei eta abarrekoiei buruz informazioa jasotzea, zer dagoen jakiteko, nahiz eta norberak kontsumitu ez.”*
- *“Nik esango nuke drogen kontsumoak izan ditzakeen arriskuak edo ondorioak aztertzea dela, gu bezalako jende gazteak ez ditzan kontsumitu.”*
- *“Drogaren munduari buruzko informazioa eskuratzea eta abar.”*
- *“Honek dauzkan arriskuei buruz ohartarazten gaituzte, baina ez digute esaten: ez ezazue egin. Norbera libre da nahi duena egiteko, baina geure onerako informazioa ematen digute.”*

Lehenengo ondorioetako bat hauxe da:

1. **Gazteentzat, droga mendetasunaren prebentzioa informazioa ematea baino ez da:** Legezko informazioa, drogak hartzeagatik edo edukitzeagatik zigorrik ez jasotzeko; eremu pertsonalean, gizartean, familian, osasunean eta abar drogen kontsumoak

dakartzan ondorioei eta drogek (legezkoak edo ez) dituzten efektuei buruzko informazioa, gazteentzako berariazko informazioa, eta abar.

Hori esanda, garrantzitsua zen informazio hutsa baliagarri zitzaien edo ez. Sortzen den galdera da, beraz, informazioa (nahi zuten guztia edo eskuragarri zeukaten guztia) bitarteko nahikoa edota baliagarria ote zen haientzat balizko kontsumoak galarazteko, eta bestetik, informazio hori nola tratatu behar zen.

Bigarren ondorioa, egin zituzten iruzkinak aztertuta, ondoko hau da:

2. Inkestatutako adingabeek droga mendetasunei buruz jasotzen duten informazio bakarra eskolako hitzaldiak dira, tutoretza orduetan ematen direnak.

Orain neska-mutil hauen iritziak eta hitzaldi hauen ebaluazioa azalduko ditugu, ikuspegi ezberdinetatik:

Beraien esperientziatik:

- *“Izan ditugun hitzaldiak mota guztietakoak izan dira, dinamikoagoak, parte hartzeko modukoak, eta astunagoak ere bai. Baina azkenean informazio nahiko jasotzen dugu.”*

Hitzaldiek duten eraginkortasunaz:

- *“Gero norberak nahi duena egiten du, baina dagoen guztia ezagutzen baduzu (ondorioak eta abar), nik uste dut kontuan izaten duzula; nahiz eta kontsumitu, badakizu zer gertatzen den.”*
- *“Beharbada kasu batzuetan probatzera bultzatzen zaitu, informazioa hartzen duzun moduaren arabera. Nik uste dut gehienok honelako hitzaldiak izan ditugula, eta beti dago kontsumitzen duen eta gaizki jartzen den norbait.”*
- *“Beharbada beti gauza beraz hitz egiteko errutinan sartu gara. Agian interesa galdu dugu. Urte askotan eman dizkigute hitzaldiak, baina beti izan dira berdintsuak.”*

Hobetzeko egin dituzten proposamenetatik:

- *“Hitzaldi praktikoa izan behar du. Eman ziguten azkena gogoan dut eta gustatu zitzaidan, droga motak aztertu genituelako eta abar. Ondo legoke drogen argazkiak edo drogak berak ekartzea, zerbait dinamikoa eta praktikoa izateko, eta ondo ikusi ahal izateko. Ez drogei eta beren ondorioei buruzko ohiko txapa.”*
- *“Bizi izan duen norbaitek kontaktzen badizu, nik uste dut gehiago sinesten duzula.”*
- *“Lehenik eta behin jendeari azalduko nioke zer den eta nolako ondorioak dituen, eman ohi diren hitzaldietan. Gero, horretan ibili izan den norbait ekarriko nuke. Hitzaldi praktikoa, irudiekin, jendearen testigantzekin eta abar.”*
- *“Hori dena ondo dago, baina ikastetxeetan, batez ere DBHn, ez zaie gustatzen. Denbora galtzea dela esaten dute. Bai, ordu beteko bi saio egin genituen iaz, eta gauzak ahalik eta arinen azaldu nahi zizkiguten, azkar amaitzeko.”*

- *“Askotan, tutoreek eta abarrekoek hitzaldiak nola ematen dituzten ikusita, ematen du gogorik gabe ematen dituztela. Hiru hitzaldi gogorik gabe eman beharrean, hobe da hitzaldi bakarra baina ona ematea.”*
- *“Drogak banan-banan azaltzea, ez astean behin, baina denbora-tarte bat utziz, hobeto barneratzeko batez ere.”*
- *“Leku guztietan egin beharko litzateke. Ikastetxeak, komunikabideak. Gutxi izan arren, beti eman beharko litzateke.”*

Iruzkin horiek irakurri eta gero, ondorioztatzen dugu gazteentzat garrantzitsua dela pres-takuntza hau kanpoko jendearen bidez jasotzea. Hau da, droga mendetasunaren alorrean, lan kontuengatik edo modu esperimentalean, lan egiten duten edo zuzeneko lotura du-ten pertsonak eman beharko lituzkete hitzaldiak. Gauza berri eta praktikoak aldarrikatuz, taldeek proposatzen dute, hitzaldiak ematerakoan, une bakoitzean aztertzen diren drogak erakustea, eta ez fitxak irakurtzeko soilik egiten diren tutoretzak ematea (batzuetan dago- kien kolektiboari egokitu gabe daudenak). Izan ere, tutoretza horietan droga ezberdinen kontsumoak ekartzen dituen arriskuak eta ondorioak azaltzen dira, baina ez da astirik ego- ten drogei buruzko beste gai batzuk aztertzeko.

Hortik aurrera, proposatu zitzaizen droga mendetasunetan esku hartzeko metodologia egoki bat asma zezatela, metodologia tradizionalaren ordean. Eskatu zitzaizen horretarako berariak sortuko litzatekeen balizko webgune baten bidez zalantzak konpontzeko eta informazioa eskuratzeko orduan izango luketen inplikazio eta parte hartze maila balora zezatela. Balizko webgune horretan, tutoretza orduetan ematen diren hitzaldietan eskaintzen den informazio bera azalduko litzateke.

Hauek izan ziren erantzunak:

- *“Beharbada hobe litzateke horrela, modu anonimoan. Foroen arazoa da nahaske- tak gerta daitezkeela. Baina foro serioa bada, eta profesional batek parte hartzen badu, bai.”*
- *“Bai, segurtasun gehiago ematen dizu.”*
- *“On-line kontsultategiak egin daitezke gaiak dakien jendearekin.”*
- *“Ikasgelan azaltzen badizute, agian ez zara ausartzen ezer galdetzeraz.”*
- *“Agian tutoretzan dena egin ematen dizute, baina foroan beharbada alferkeriagatik ez zara sartzen, Interneten dagoelako.”*

Beste proposamen batek izaera presentziala zuen. Proposatu zen ikastetxean profesional bat sartzea, eta droga mendetasunei buruzko zalantza guztiak berari galdetu ahal izatea.

- *“Nik uste dut egokia litzatekeela. Horrela, pertsona horrekin buruz buru hitz egin lite- ke, arazorik gabe, eta zalantzak galdetu.”*
- *“Arazoa konfiantza hartzea litzateke, horra joatera ausartzeko. Ikasgeletatik horretara animatu ahalko litzateke.”*
- *“Baina, bueno, ez duzu zertan guztien aurrean galdetu behar.”*

3. **Gazteek drogei eta droga mendetasunei buruzko informazioa modu aktiboan eskuratu nahi dute.**

Argi daukate. Informazioa jaso nahi dute, eta prozesuan parte hartu. Ez dute entzule soilak izan gura; modu aktiboan parte hartu nahi dute, elkarrizketa bat sortzeko, eta profesionaleri sortzen zaizkien zalantzak galdetzeko, drogei buruz eta drogek ekartzen dituzten ekintza eta ondorio guztiei buruz.

Batzuetan, besteek zer esango ote duten pentsatzen dute, barregarri gelditzearen beldur izaten dira, jendeak jakin nahia kontsumitu nahiarekin nahastuko ote duen beldurra izaten dute... Horiek dira pertsonaren eta informazio fidagarriaren artean dauden oztupoak.

Konfiantza giroa da prebentzio lana ondo egin ahal izateko oinarria, bai Internetek eskaintzen duen anonimotasunaren bidez egiten denean, bai ikasleengandik hurbil dagoen pertsona batek ikastetxean bertan eskaintzen duen isilpekotasunarekin. Egoera bietan, jasotzen den informazioa egiazkoa, erreala eta fidagarria izan behar da.

Toxikomanoa: kontzeptua

Heroinaren epidemiak gure herrian sortu zuen hondamendiaren ondoren, drogak kontsumitzen dituen pertsonaren profila edo irudia 80ko hamarkadako heroina kontsumitzailearen mendean geratu zen: narriadura fisiko handia, marginalitatea, delinkuentzia, gaixotasunak, HIESa, eta abar.

Gaur egun, gehien kontsumitzen diren legez kanpoko drogak estimulagarriak dira: anfetaminak, kokaina, diseinuzko drogak eta abar, kannabisarekin batera. Droga horien ondorioek, aurretik esan duguna kontuan izanik, ez dituzte ekartzen horrelako ondorio fisiko eta sozial nabarmenik hain goiz, heroinaren kontsumoak egiten duen bezala (NSZren depresorea).

Horrek droga kontsumitzaileen irudia desestigmatizatzen lagundu duen arren, substantzia hauek kontsumitzeak dakarren arriskuaren pertzepzioa leundu du. Sozialki ematen du estimulagarrien kontsumoa ez dela hain kaltegarria, eta badirudi kontsumitzen dituzten pertsonak ez direla droga mendekotzat jotzen. Halere, pertzepzio oker hau azken urteetan aldatu da, prebentzio kanpainei esker eta gizarteari zuzendutako bestelako informazioei esker.

Eztabaida taldeetan, drogazaleez eta haien ezagugarriez zein iritzi eta irudi dauzkaten galdetu zitzaizen adingabekoei.

Hona hemen erantzunetako batzuk:

- *“Ziztatzea muturreko gauza da.”*
- *“Nik ikusi dut jendea heroina hartzen, nahastuta hartzen dute.”*
- *“Nik ezagutzen dut drogatuta gabe irten ezin den jendea. Drogarik gabe bizi ezin den pertsona oro drogazalea da.”*
- *“Nik uste dut hala dela asteburu batean droga hartzen duena eta hurrengoan hartzen ez duena, baina azkenean, hurrengo asteburuan berriro, eta gero eta gehiago.”*
- *“Asteburuetan soilik edan arren, asko edaten baduzu alkoholikoa zara.”*

4. Drogak bide parenteraletik hartzea txarrena da gazteen ikuspegitik. Baina haien ustez drogazalea ez da bakarrik heroina hartzen duen pertsona bat. Asteburuetan edo eguneroko bizimoduari aurre egiteko drogak (legezkoak edo ez) kontsumitzen dituen pertsona drogazaletzat dute.

Kontsumitzeko arrazoiak

Talde guztietan, kontsumitzailearen ezaugarriak eta kontsumitzeko motibazioa erlazionatu dituzte. Gazteen kasuan, motibazioa parranda orduak luzatzea da.

- *“Batzuek asteburu guztietan zerbait hartu behar dute. Esaten dute bestela ezin diotela eutsi.”*
- *“Nire ustez jendeak drogak hartzen ditu batez ere egun batean ordu txikiak arte jai egin gura dutelako, eta biharamunean berdin... Bestela, ezinezkoa da erritmoari eustea.”*
- *“Hori ez da horrela. Batzuk bi egunez jarraian egon daitezke jai egiten ezer hartu gabe. Ez da beharrezkoa.”*

Talderen batek konponbide utopiko bat proposatu du droga mendetasuna galarazteko.

- *“Nire ustez konponbidea erraza da. Diru pilo bat ematen badizute nahi duzun arropa guztia erosteko, trukean droga utziko zenuke, seguru. Arropa edo zure obsesioa izan daiteke edozein gauza.”*
- *“Ez. Kasuaren arabera. Drogaren mende bazaude, nahiz eta norbaitek behin eta berriro esan... ez, ez duzu utziko.”*

5. Kontsumitzeko motibazioaz galdetu genuenean (hau da, haien ustez jendeak zergatik hartzen dituen drogak), guztien iritzia izan zen gehienek aisialdia luzatzeko kontsumitzen dutela.

Baina gauza berria da, eta talde guztietan ikusi dugu, musikak kontsumitzeko motibazioan eragina duela.

- *“Nik uste dut gaizki jokatzeko gehien motibatzen zaituena musika dela.”*
- *“Bai, bumping delakoa eta abar.”*
- *“Musikak berak esaten dizu, abestien hitzetan: raperoak, ballenatoak eta abar.”*
- *“Lehengo egunean el Chico del Despecho izeneko bati entzun nion hau abesten: dantzatzen eta trafikatzan ari naiz aldi berean. Musika hau jende askok entzuten du, batez ere mutilek.”*

Musikaren eta kontsumo motaren artean dagoen harremanaren adibide gisa, anfetaminak hartzen dituzten gazteen portzentaje batek dance, house, hardcore... musika entzuten dute. Talde hauek edo kontsumitzeko estilo hauek (substantzia mota jakin batzuekin erlazionatzen direnak) “bakaleta” izena daukate, besteak beste. Lokaletara joaten dira eta haietan

zentzumenak kitzikatzea bilatzen dute, musika azkarraren eta errepikakorraren bidez. Askotan, musikaren oinarriak fabrika baten zarata kirrinkariak imitatzen ditu. Argi intermitenteak ere egoten dira, iluntasuna argitzen dutenak. Estimulagarriak droga perfektua dira (extasia, anfetaminak eta abar), nerbio-sistema zentrala giro horretan errezeptore handi bat izatera bideratzen dutelako, pertsonaren organismoa suspertuz.

Musika drogak kontsumitzeko estimulua izatea gauza bat da, eta musikak kontsumoaren ondorioak areagotzea, beste bat. Abestietan drogei, kontsumoari, trafikoari eta abarrekoiei buruz hitz egitea ez da arrazoi nahikoa kontsumoa azaltzeko. Baina agerian geratu da musikaren eta droga kontsumoaren artean dagoen harreman estu eta berezia, beharrezko ñabardura guztiak eginik halere.

Drogak eskuratzea

Eztabaida taldeetan, gazteek beren neurrira kontsumitzeko aukera daukatela ikusi dugu: nahi dituzten substantziak eta nahi duten bidetik. Haiiek uste dute edozein substantzia eskura daitekeela eta, era berean, modu askotara kontsumi daitezkeela, kontsumitzen duenaren nahien arabera (sudurretik, erretzen eta abar).

6. Argi eta garbi ikusten dute edozein droga eskura dezaketela; bestela esateko, ez dute ia oztoporik atzematen kontsumitu nahi duten substantzia kontsumitzeko.

Baina, zein puntutaraino daude presenteago eta eskuragarriago batzuk edo besteak? Eta zein substantzia dira zabalduenak bakoitza bere giroan?

- *“Porroak dira nik gehien ikusten dudana.”*
- *“Kokaina, ketamina eta speeda. Tabakoa, alkohola eta porroak alde batera utzita. Porroak kontsumitzen dituen jenderik gehienak aste barruan eta asteburuan egiten du.”*
- *“Eta txino mordo ere bai.”*
- *Edozein droga aurkitu eta erosi nahi baduzu, egin dezakezu. Baina eskueran edukitzea, porroak, tabakoa eta alkohola dauzkagun bezala, jendearen arabera edo ibiltzen zaren lekua arabera. Baina nahi baduzu, lortuko duzu.”*
- *“Asteaz zehar bi egunetan irteten naiz, eta beti-beti eskaintzen dizkidate lerroak, keta edo zerbait. Eta ni jende guztia ibiltzen den lekuetan ibiltzen naiz.”*

Aukeratzeko askatasun hau, eta noski, substantziak eskuratzeko erraztasuna, kezkarriak dira. Izan ere, adingabeak dira, eta kontsumitzeko debekua dute (adingabeak direlako, legezko drogen kasuan, eta herritarrak direlako, legez kanpoko drogen kasuan). Baina ez dute arazorik izaten drogak erosteko eta kontsumitzeko.

*Adina eta sexua***7. Gazteek, adingabeek, legezko substantziekin esperimentatzeko adinean nolabaitko jaitsiera atzematen dute, batez ere alkoholarekin. Hori bat dator EAEko ikerketetako datuekin (Elzo eta lag, 2008).**

Eztabaidan adinaren eta sexuaren gaiak sartu ziren. Taldeari galdetu zitzaion droga mendetasunaren gaia pertsona guztiei zuzendu behar zaien edo adin jakin bateko pertsonengan ahalegin berezia egin behar den, eta genero ikuspegia sartu.

Adinari dagokionez, erantzun hauek entzun ziren:

Droga mendetasunen prebentzioa adin hauetan egin behar da...

- *"8 edo 9 urteetatik 20 urteetara arte."*
- *"Nire anaiari 7 urteetatik 12 urteetara arte honelako informazioa ematen diote eskolan."*
- *"Nik uste dut 7 urteetatik edo, eskolatik joaten zarenera arte izan beharko litzatekeela."*
- *"10 urteetatik 15 urteetara."*
- *"16-17 urteetatik aurrera... Nik uste dut gure adineko gazte bati askotan esan arren buruan sartuta daukala. Desintoxikazio zentro batean sartu beharko zenuke, atera gabe, astebururik gabe."*

Ados daude eskolan droga mendetasuneko prebentzio bat egitearekin, baina ez dira ados jartzen esku hartze hori zein adinekin den eraginkorrena erabakitzeke orduan.

2008an euskal ikasleen artean drogen kontsumoari buruz argitaratu zen azken azterlanean, Drogak eta Eskola VII (Elzo et al. 2008), ikasleen artean droga kontsumoaren bilakaeraren luzerako ikuspegia ematen da⁹, kontsumo horren aurrean dauzkaten joerak azaltzen dira, drogen aurrean dauden permisibitate sistemak, detektatutako jokabide eta jarrerrei lotutako balioen egitura, eta kontsumo maila ezberdinekin zerikusia duten faktore psikologikoen analisia.

Azterlan hau euskal ikasleen eta drogekin duten harremanaren errealitatearen isla garbia da. Honetaz bi kontu nabarmenduko genituzke: substantzien kontsumoa hasteko adinaren eboluzioa (2008ko azterlan horretako datuen arabera), gero aztertzen ari garen eztabaida talde hauetan parte hartu duten adingabeek datu horiei buruz duten pertzepzioa jasotzeko.

Elzo eta bere laguntzaileen ikerlanaren datuek erakusten dute gazteek lehenik eta behin legezko drogekin esperimentatzen dutela: tabakoa eta alkohola. Tabakoari dagokionez, haste-

⁹ Drogak eta Eskola seriean 1981, 1985, 1987, 1991, 1996, 2002 eta 2007. urteak sartzen dira. Lehenengo lau ikerketak eta seigarrena Donostian egin ziren. Bosgarrena eta azkena, berriz, EAE osoan egin ziren.

ko adina apur bat aurreratu da azken hamar urteetan: 14 urteetatik 13 urteetara. Kontrakoa gertatu da alkoholarekin, substantzia hau probatzeko adina atzeratu egin baita¹⁰. Laespada doktoreak (2008) bere kapituluan hipotesi bat adierazi zuen, alkoholdun edarien kontsumoa hasteko adina aurreratzea eta gero atzeratzea azaltzeko:

“Hezkuntzako erreforma (LOGSE) egin zenean adina aurreratu zen, erreforma honekin 12 eta 14 urte arteko umeak bigarren hezkuntzan sartu zirenean. Lehenago, adin horrekin lehen hezkuntzan zeuden. Horren ondorioz, lehen hezkuntzako etapetan zeuden gazte hauek, haurtzaroaren eta nerabezaroaren arteko ohiturak zituztenak, bigarren hezkuntzan sartu ziren. Orduan, haien aisialdiko ohiturak eta denbora librearen banaketa gehiago hurbildu ziren nerabezaroan edukitzen direnetara, eta haurtzaroan edukitzen direnetatik urrundu ziren. Horrenbestez, alkohola kontsumitzen hasteko adina apurka-apurka murriztu zen. Halere, azken urteetan ez da berriro jaitsi; aitzitik, gehitu egin da” (300. orr).

Aztertu ditugun taldeetako neska-mutilen pertzepzioa da haien baino gazteagoak direnak goizago hasten direla substantziekin esperimentatzen (alkohola eta tabakoa baino ez dituzte aipatu).

- *“Ni beranduago hasi nintzen Alde Zaharrera igotzen. Orain 14 edo 13 urteko gazteak ikusten dituzu eta harrigarria da.”*
- *“Bai. Nik uste dut gazteago izanda hasten dela kontsumitzen orain.”*
- *“Baina batzuek, batez ere 14 edo 15 urteko neska-mutilek, botaka egiten dute, gona eta hankak zabalik dituztela. Eta nik esaten dut: baina hau zer da? Nazka ematen dit.”*
- *“Gainera, ikusten dugu 10 eta 11 urteko umeek tabakoa eskatzen digutela.”*
- *“Hamabi eta hamahiru urteko umeak ikusten dituzu, eskuan zigarroa daukatela. Pizten duten lehenbiziko gauza da, kirola egiten duten arren.”*
- *“Ez dakite zer ari diren egiten.”*
- *“Umeek telebistan ikusten dutena kopiatzen dute. Adibidez, nik 4 urteko ahizpa bat daukat. Hark telebistan eta kalean ikusten du, eta gero panpinekin jolastean, panpinek erretzen dute. Nik esaten diot hori txarra dela, baina hark ez du sinesten, ikusten duelako erretzen duen jendea bizirik dagoela.”*
- *“Txikiak ginenean txokolatezko zigarroak zeuden, eta erretzera jolasten genuen.”*

¹⁰ Hasteko batez besteko adina alkoholdun edariak bereiztuz ezarri zen. Horrela, garagardoa 15,52 urterekin hasten da kontsumitzen –1996an 13,29 urterekin–; ardoa 13,66 urterekin (1996an 13,20 urterekin); likorea 14,03 urterekin (1996an 13,97 urterekin). Lehenbiziko mozkorraldiaren batez besteko adina 14,52 urte da; 1996an 14,26 urte izan zen.

- *“Bai, baina jolasten genuenean bagenekien erretzea benetan txarra zela.”*
- *“Nire ustez hamar urteko umeekin kontua ez da nahi duten edo ez, baizik eta ez dakitela zer den. Jendea ikusten dute eta pentsatzen dute: hori ez da ezer. Eta nahiz eta besteek esan hori txarra dela, zuri ez zaizunez gertatzen... edo gertatzen zaizun arte...”*
- *“Neskak 12-13 urterekin tabakoa erretzen hasten direnean, guai izateko izaten da.”*
- *“Nik uste dut ez nuela porrorik ikusi 13 urte izan arte. Gaur egun 10 urtekoek ere erretzen dute.”*
- *“Ezagutzen ditut hamabi eta hamabost urte arteko neskak, erretzeko ezkututzen ez direnak, beren burua heldutzat dutelako. Gizartean ikaragarritzko pasotismoa dago.”*

Drogen munduan izan den belaunaldi-jauzi itzela ere aipatu dute:

- *“Niretzat kokaina helduen droga zen. Pelikuletan ikusten nuen soilik. Baina gero konturatzen zara inguruko jende askok hartzen duela. Nik uste dut jende gazte gehiagok hartzen duela. Nire arrebak ezagutzen duen mundua nik 14 urterekin sumatu ere ez nuen egiten. Ez dakit gixajo batzuk ote ginen, belaunaldi honek gehiago kontsumitzen duen edo informazio gehiago daukaten.”*
- *“Denetarik dakite, denetarik daukate, eta gazteago.”*

Saioaren garapenean, eztabaidan nolabaiteko kritika sumatu da, gazteek egiten duten alkohol kontsumoa dela-eta. Kritika hau egiterakoan beren esperientzia pertsonaletik abiatu dira, alkoholdun edariak kontsumitzen hasteko adin egokia zein den erabakitzean hori hartu baitute kontuan. Logikoa da eztabaida alkoholaren inguruan egitea, droga honekin esperimintatzen delako gehien eta guren inguruan ikusgarriena delako.

17 urteko neska batek adierazi zuen gutxi edaten duela, eta ez beti. Honakoa esan zion taldeari:

- *“Nire ustez ez zenukete hainbeste edan behar, benetan diotsuet. Orain jendea hamalau urterekin hasten da edaten, eta hamalau urte dira. Eta orain zuen gurasoek gibealeko arazoak eta antzeko gauzak badituzte, eta zuek hainbeste alkohol sartzen baduzue gorputzean, ez dakit zer gertatuko den.”*
- *“Guk edatea baino arazo larriagoak daude; horiekin kezkatu beharko lirateke. Litroak edatearena da giroa gustatzen zaigulako. Mozkurtu nahi duenak egin dezala. Arazoa da denok sartzen gaitzela zaku berean eta ematen du mozkortzeko soilik irteten garela.”*

Bi iritzi kontrajarri hauek eztabaidaren mamia laburbiltzen dute: alkoholaren kontsumoa, gazteriaren ikuspegitik ikusia. Kontsumoa arazotzat jotzea edo ez.

Ondorioa, noski, arazoa dela da. Baina erantzun hau ez da bat-batean eta modu naturalean sortzen, konbentziturata daudelako. Ezkutuan dago:

"Beranduago has gintezke edaten; gero ikusten duzu bi urte gutxiago duen jendea mozkor-mozkor eginda eta esaten duzu: baina zertan ari zara?! Eta gero pentsatzen duzu: Ni horrelakoxea nintzen eta!!!"

8. Ematen du aitortzen dutela, gerora bada ere, alkoholarekin oso gazterik hasi zirela esperimendatzen. Gazteek zenbat eta urte gehiago izan, orduan eta argiago ikusten dute alkoholaren gehiegizko erabilera oso goiz hasten dela.

Gehiegizko kontsumoa izan dutela onartzen dute, baina iraganean bakarrik. Edaten hasi zirenean asko edaten zutela aitortzen dute, eta orduan zeukaten adina txikiegia zela onartzen dute (hamahiru eta hamalau urte bitartean).

Esanguratsua da, inkestatu ditugun adingabekoen adinak gora egin ahala, alkoholarekin esperimendatzen hasteko aukeratzen duten adin-taldea gero eta handiagoa dela. Hau da, edaten hasteko egokitzat jotzen duten adina handiagoa da beti, haiek zaharragoak diren neurrian. Inork ez du guztiz aitortzen une honetan alkohola edateko gazteegiak direla eta gehiegi edaten dutela. Baina erlazio proportzional bat dago: pertsona bati, bere kasuan, alkoholdun edariak kontsumitzen hasteko zein adin den egokiena galdetzen zaionean, pertsona hori zenbat eta zaharragoa izan, erantzuten duen adina orduan eta handiagoa da.

Adinaren gaia heldutasun pertsonalarekin erlazionatzen dute modu naturalean. Eztabaida guztietan bat-batean agertzen da erlazio hori. Drogen kontsumo arduratsua (edo kontsumo eza) norberaren heldutasunari lotuta dago. Hauxe esan zuen mutil batek:

- *"Adina ez da hain garrantzitsua. Heldutasuna da funtsezkoena, eta nola kontrolatzen duzun edatea edo porro pare bat edatea"*
- *"Nagusia zarenean, zerbait berria probatzeko egiten duzu, ez guai izateko"*
- *"Nire lagun batek inauterietan, urtebetetzeetan eta Gabon zaharreetan hartzen du, horrela guai delakoan. Nire ustez ergel hutsa da eta oraindik ez da pertsona heldua. Era berean, hamaika urteko umeak ikusten dituzu porroak edo zigarroak erretzen, helduago sentitzeko"*
- *"Nor bait heldua denean, zailagoa da drogak kontsumitzea. Uste dut denok dakigula zer dagoen. Denok. Askotan esan eta errepikatu arren, jendeak badaki zer gertatzen den drogekin, baina batzuek uste dute haiei ez zaiela ezer gertatuko"*
- *"Bai, baina batzuetan ez da zugatik, baizik eta zure lagunengatik. Esaten dizute hau probatzeko edo hura hartzeko, eta zuk, gaizki ez gelditzeagatik edo besteek zu ez kritikatzegatik, egiten duzu"*
- *"Nik uste dut hori apur bat aldatu dela. Hori esaten da beti, baina denok ez gara berdinak. Batzuek ez dute egiten besteek egiten duten guztia. Bestela, anabasa litzateke"*

Egia da taldeko presioa gainditzeko gaitasuna izatea dela pertsona bat heldua dela erakusten duten adierazle esanguratsuenetako bat. Ondorioztatu ahal dugu, saioetan entzun diren iritzi guztiak analizatu ondoren, substantziak kontsumitzeko motibazioak definitzen

duela pertsonaren heldutasuna. Taldearen presioa eta "guai izatea" heldugabeko kontsumo batekin lotzen dituzten bi arrazoi dira.

Generoa

Droga mendetasunen prebentzioaz genero ikuspegitik hitz egiten dugunean, zenbait ezberdintasun sortzen dira. Batetik, taldeetan parte hartzen duten pertsonen berezitasun kulturalak ezberdintasunak sortzen ditu, modu ezberdinean baloratzen dutelako kontsumoa gizon baten kasuan eta emakume baten kasuan. Beste ezberdintasun bat atzeman dugu gizonengan eta emakumeengan eragin ezberdina duten arrisku egoerez egiten den analisian. Hain zuzen ere, taldeetan sarritan gertatu da emakumeen droga kontsumoa eta nerabezaroan haurdun geratzeko arriskua elkarri lotuta agertzea.

9. Generoarekin eta droga kontsumoarekin zerikusia duten erreferentzia nagusiek zenbait estereotipo mantentzen dituzte, emakumezko kontsumitzaileengan eragin negatiboagoa izaten dutenak. Ikasleen artean nabarmena da kontsumitzen duen emakumearen irudi negatiboa. Gainera, ikasleek uste dute kontsumo hori beste pertsona batzuentzat (seme-alabentzat) arriskutsua dela.

Hauk izan ziren iruzkinetako batzuk:

- *"Berdina izango da"*
- *"Haurdun geratzegatik bada, neskak drogatuz gero haurdun geratzen direla... neskak ez dira besterik gabe haurdun geratzen"*
- *"Esaten dute pertsona bat drogazalea bada haren seme-alabak malformazioekin jaiotzen direla"*
- *"Nire herrialdean, adibidez, ez da ikusten emakumerik erretzen edo edaten, oso gaitzetsita dago. Gizon batzuk bakarrik egoten dira edaten"*

Nahi gabe haurdun geratzeari buruz, adierazpen hori egin zuen neskak nabarmendu nahi izan zuen bai mutilek bai neskek erantzukizuna dutela arriskuzko sexu harremanak izanez gero, droga bat edo gehiagoren efektuen mende egon edo ez. Pertsona batek bere buru-ahalmen osoa ez daukanean, beste pertsona batek bere nahiak asetzeko egoera probeztatzen badu, etikoki eta legez gaitzetsi beharra dago; abusutzat jo behar da.

Iritzi hauek erakusten dute genero rola eta nortasunaren inguruan gehiago eragin beharra dagoela, baita drogen kontsumoan ere, arrazoi ezberdinengatik: emakume kontsumitzailearen irudia gaitzesten duten klabe kulturalengatik, eta nahi izan gabe haurdun geratzeko arriskua dagoelako eta fetua kalteturik suertatu ahal delako. Esku hartze hau ez da soilik substantzien kontsumoaren eremuan egin behar, baizik eta gizartearen alor guztietan. Horrela ez ditugu berdindu nahi gizonen eta emakumeen kontsumoa, baina bermatu nahi dugu emakumeek substantziak ez kontsumitzearen arrazoia ez dela gaitzespen kulturala, baizik eta norberaren gaitzespena, aktiboa, arduratsua eta irmoa. Emakumeek beraiek barneratu behar dituzte, heziketa dela medio, osasuna zaintzeko jarrerak beren bizitzaren alor guztietan, baita drogen erabileran ere.

Droga mendetasunen prebentzioa gizakia izaki integraltzat hartuz egiten da. Horregatik, era berean, prebentzioa (jardun prebentibo egokia) ekintza multzo baten bitartez bideratzen da, ez bakarrik abstinentzia edo kontsumo arduratsua lortzeko asmoarekin, baizik eta beste ezaugarri batzuk ere indartzeko helburuz: autokontzeptua, autoestimua, beste pertsonarenganako errespetua, beste gizarte gaitasun batzuk eta abar.

Drogen sailkapena

Drogei buruz hitz egitean, bi sailkapen mota egin ohi dira: haien egoera juridikoaren arabera (legezko drogak eta legez kanpokoak), edo haien efektu edota ondorio psikologiko eta fisikoen arabera (droga gogorak eta bigunak). Legezko drogak eta droga bigunak erlazionatzeko joera dago, baina hori okerra da.

a) Droga gogorak - droga bigunak:

10. Substantzia jakin batzuk kontsumitzeak dakarren arriskuari buruzko hainbat mitodaude gaur egun (droga gogorak eta bigunak). Horregatik, oso zaila da informazio fidagarria izatea, droga erabileraren eta kontsumoaren arriskuak eta ondorioak modu arduratsuan geureganatu ahal izateko.

Hasiera batean, bereizketa honen asmoa zen oso aktiboak diren eta osasunean kalte handiak sortzen dituzten drogak (gogorak) eta mendetasun gutxi sortzen dutenak eta kontsumitzaileentzat oso arriskutsuak ez direnak (bigunak deritzenak) ezberdintzea. Eta sailkapen horretatik dator taldeko neska batek azaldu zuen gogoeta: *“Nik uste dut gogorrek mendetasun handiagoa sortzen dutela.”*

Egia da droga batzuen kontsumoa besteena baino arriskutsuagoa izan daitekeela. Mutil batek esan zuenez: *“Finean denak dira txarrak, baina bereiztu behar dira.”* Droga guztiak “gogorak” dira, zentzu tradizionalan, pertsonaren alderdi fisikoan, psikologikoan eta sozialean eragina duten substantziak baitira. Efektu sekundario garrantzitsuak dituzte eta arazo asko sor ditzakete.

Droga “gogorren eta bigunen” arteko bereizketa egiteak errealitate bat ukatzea edo saihestea dakar eta edozein substantzia psikoaktibok sortzen duen kaltea estaltzen du. Gainera, kontsumo jokabide bat babesten edo mesedetzen du, droga jakin batzuekin arriskurik ez dagoelakoan edo haien aurrean babestuta gaudelakoan.

Beraz, jarraian galdera bat sortzen zaigu: kontzeptu hori (arriskuak modu arduratsuan onartzea bideratuko lukeen egiazko informazioa eman ahal izateko baztertu beharko litzatekeena) gazteen artean bizirik dirauen edo ez.

- *“Bigunak alkohola eta tabakoa dira.”*
- *“Kannabisa ere beharbada biguna da.”*

Har dezagun alkoholaren adibidea. Talde hauetako kiderik gehienen ustez (eta gizartearen zati handi baten ustez) droga biguna da.

Alkohola 60 gaixotasun baino gehiagoren garapenarekin erlazionatuta dago. Arrisku jokabideekin ere zerikusia du, adibidez, mozkorrik gidatzea eta beste gizarte arazo batzuk.

2002an, gure herrialdean hil ziren pertsona guztietatik, %2,33ak alkoholaren kontsumoarekin zerikusia izan zuen. Substantzia hau hirugarren arrisku faktorea da hilkortasun tasaren jatorrian (Soler eta Zamora, 2008).

Tabakoari dagokionez: "Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) datuen arabera, tabakoaren kontsumoa biriketako minbiziaren hilkortasun osoaren %90aren erantzulea da, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoaren heriotza guztien %95aren erantzule, hilkortasun kardiobaskularren %50aren erantzule, eta minbizi mota guztiengatik gertatzen diren heriotza guztien %30aren erantzule. Espainian urtero tabakoa kontsumitzeagatik hiltzen diren pertsonen kopurua hogeita hamabost urtetik gorako pertsona guztien artean izandako heriotzen %16 da. Era berean, proba zientifikoek erakusten dute giroan dagoen tabako keak (tabakoaren kontsumo pasiboa edo borondatez kontrako kontsumoa) heriotzak, gaixotasunak eta ezintasunak dakartzala" (EAO, 309. zk, 2005-12-27koa).

b) Legezko drogak - legez kanpoko drogak:

11. Era berean, substantzien sailkapen juridiko-legalak droga bakoitzaren arriskuaren pertzepzioa moldatzen du. Okerra bada ere, droga bat legearen barruan saltzen bada, hura kontsumitzea ez dela kaltegarria pentsatzen da, eta debekatuta daudenak, berriz, arriskutsuak direla.

Espainiar legeriak, mendebaldeko herrialderik gehienetan bezala, ondoko substantzia hauek lege barruan edo legez kanpo jartzen ditu:

- Legezko drogak: alkohola, tabakoa, psikofarmakoak, estimulagarri txikiak eta beste substantzia batzuk (heroina, metadona, eta abar) medikuak agintzen baldin baditu.
- Legez kanpoko drogak: aurreko atalean sartzan ez diren guztiak dira. Merkatu beltzaren bidez erosten dira. Beraz, hemen legez kanpo eskuratzen den metadona ere sartzan da, adibidez, nahiz eta hasiera batean legearen barruan ematen den. Hauek dira zehazki: kannabisaren eratorriak, heroina, kokaina, eta abar.

Droga gogorrekin eta bigunekin gertatzen denez, sailkapen honek, modu esplizituan ez bada ere, substantzia baten kaltegarritasuna lege aldetik duen egoeraren arabera neurtzea ekartzen du. Aitzitik, gizarte kontzientzian aldaketak nabaritzen dira gai honetan:

- "Nik uste dut legez kanpoko erakargarriagoa dela legezkoa baino. Denok nahi dugu ez daukaguna, eduki ezin duguna"
- "Legez kanpoko bada kontsumituko da, eta legezkoa bada ere bai"

- *“Nik uste dut legezkoak direnek arrisku bera izan dezaketela. Lerro batzuekin agian ez zaizu ezer gertatuko, baina egun batean, batek seko utzi ahal zaitu. Eta tabakoarekin, barregarria da: erretzea hilgarria da, esaten dute. Orduan, zergatik saltzen dute?”*
- *“Horrekin dirua irabazten dutelako, bestela kenduko zuten.”*

Taldeen barruan, etorkinen portzentaje txiki bat aurki dezakegu. Horri esker, legezko eta legez kanpoko drogen erabilera beste kultura batzuen ikuspegitik azter dezakegu, eta gu-rearekin erkatu:

- *“Euskal Herrira iritsi nintzenean zur eta lur geratu nintzen. Han bat edo bi ikus ditzakezu taberna batean marihuana erretzen, baina hemen jende guztiak erretzen ditu porroak.”*
- *“Hemen askozaz ere gehiago edaten da gainera.”*

Drogen legeztatena

12. Gehiengoaren iritziak kannabisa legeztatzea defendatzen du. Hain zuzen ere, haren kontsumoaren normaltasunaren eta egunerokotasunaren eta egoera juridikoaren (debekua) artean dagoen ageriko kontraesana salatzen dute.

Drogen legezkotasunaz hitz egiteak drogak legeztatzearen gaira, hamaika aldiz eztabaidatua, eramaten gaitu. Gasteizko ikasleekin 2007an egin ziren eztabaida talde bietan, eztabaida kannabisaren inguruan sortu zen. Gainontzeko substantziek ez zuten eztabaida hau sortu.

Emaitza izan zen taldeko pertsona guztiak kannabisa legeztatzearen aldekoak zirela, neska bat izan ezik. Neska hark honela azaldu zuen kannabisa libre saltzearen eta kontsumitzearen aurkako iritzia: *“Gero permisiboagoak izango ginateteke, koka onartuko litzateke... Ados nago ordea porro bat harrapatzen dizutenean jartzen dizuten isuna kentzearekin.”* Egin zuen arrazoinamenduaren arabera, kannabisa ez legeztatzearen aldekoa da, gainerako substantziekin gauza bera ez dadin gertatu. Baina era berean, kannabisaren kontsumoa ez zigortzea nahi du. Paradoxikoa da.

Iritzi kontrajarrien jario honetan, mutil batek ondokoa esan zuen: *“Jendea kannabisa legez kanpoko izateagatik kexatzen da. Baina balkoietan landareak ikusten dira!! Horrek gainera soberakin bat sortzen du mahai azpitik.”* “Normalizazio” faltsuko egoera horren alde egin zuen beste lagun batek: *“Lehen, kaletik porro bat errez gero jendeak begiratu egiten zizun; orain oso normala da.”*

Argi daukate, kannabisarekin legez kanpo egotearen fantasia bizitzen da. Porro bat erretzeak ez luke beti ekarri behar isuna edo zigorra jasotzearen beldur izatea *“zorte txarra daukazu-nean eta harrapatzen zaituztenean.”*

Bestalde, batzuk drogak legeztatzearen aldekoak dira, edozein substantzia izanik ere: *“Hemen tabakoa legezkoa da eta jende guztiak ez du erretzen. Uste dut droga guztiak legeztatzeak ez lukeela ezer aldatuko.”*

Tabakoaren aurkako legea

Izen hori ematen zaio abenduaren 26ko 28/2005 Legeari, tabakismoaren aurkako osasun neurriei buruzkoa, eta tabako produktuen salmenta, hornidura, kontsumoa eta publizitatea arautzen dituena. Lege horri esker, zenbait ekintza egin dira, adingabekoei tabakoa ez kontsumitzeko helburuarekin.

- *“Inork ez dio erretzeari utziko horregatik. Adin nagusiko bati eskatu ahal diozu erosteko.”*
- *“Hasieran asko hitz egin zuten erretzeari uzteko liburu famatuari buruz eta beste modu batzuei buruz, baina gaia itzali da. Ni erretzailea naiz eta uste dut erretzen ez duen jendearentzat taberna gehiago beharko liratekeela. Taberna batean erretzaileen eta ez erretzaileen arteko banaketa egon arren, kea alde batetik bestera igarotzen da eta gogaikarria da. Legeak ez du merezi.”*
- *“Arazoa da erretzaileek indar handia dutela. Taberna batek diru gehiago irabaziko du erretzaileentzat bada, erretzen ez dutenentzat bada baino.”*

Adingabekoei tabakoaren aurkako legea ez dute ikusten gizartean erretzeko ohitura desagerrarazteko edo murrizteko saiakera gisa, baizik eta tabakoaren kea erretzen ez dutenentzat gogaikarria ez izateko tresna gisa. Adingabekoei tabakoa saltzea arautzeari buruz: *“Ez dago esaten duten bezain araututa, nahi dutena erretzen dute, nahi duten marka erosten dute eta nahi duten lekuan,”* esan du erretzen ez duen batek. Denak ados daude.

13. Eztabaida taldeetan parte hartzen dutenen pertzepziotik jasotzen den mezua da tabakoaren aurkako legeak ez dituela modu eraginkorren betetzen bere sorreran zituen helburuak, batez ere adingabekoei tabakoa erosteari eta kontsumitzeari dagozkienak.

Prebentzioan esku hartzen duten agenteak

“Droga mendetasunen prebentzioa” kontzeptuaren definizioak, apirilaren 4ko 3/2001 Legean jaso zena, ondokoa azaltzen du:

“Prebentzioa estrategien multzo dinamiko bat da. Helburua droga kontsumo desagokiak mesedetu ahal dituzten ekintza pertsonalak, sozialak eta kulturalak aldatzea da. Estrategia hauen xedea izango litzateke drogen eskaera eta kontsumoa murriztea, gizartean drogen eskaintza murriztea edo mugatzea, eta kontsumoak ekar ditzakeen ondorioak murriztea.”

Ekintza multzo dinamiko honek diziplina askotako egitura baten beharrezko erakusten du. Egitura horretan, balizko kontsumitzailearekin harremanetan dauden eragileek lan egin behar lukete: familia, eskola, kideen taldea, gizarte ekintzako zerbitzuak, oinarriko gizarte eragileak, eta abar.

- *“Prebentzioa leku guztietan egin beharko litzateke. Ikastetxeak, komunikabideak... Gutxi izan arren, beti eman beharko litzateke.”*

Gazteek eragile horiei buruz duten iritzia jakiteko, galdetu genien haien ustez nortzuk aritzen diren gazteen droga mendetasunaren prebentzioaren alorrean. Jarduketa horiei buruz duten iritzia ere galdetu genien.

Hemen, saioetan izendatu diren pertsonak edo erakundeak bakarrik zerrendatu ditugu. Izan ere, gazteek haiek dituzte prebentzio eragiletzat, esleitzen dieten eraginkortasuna gorabehera.

Polizia

Esan genezake kalifikaziorik txarrena jaso duen erakundea polizia dela. Gazteen ustez, jokabide ustelak dituzte, eta beren betebeharrak ez dituzte betetzen. Polizia eta ustelkeria gazteek eztabaida taldeetan elkartu dituzten terminoak dira.

- *“Gaizki. Ez dute ezer egiten. Poliziako kideak ustelduta daude.”*
- *“Drogekin, maria poltsa bat edo kostozko porro batzuk harrapatzen badizkizute, ikusi dut nola pasatzen diren berrira, klaxona jotzen, eta gure porroak erretzen.”*
- *“Poliziako kideek titulua eta pistola daukate, baina besterik ez. Harrapatzen zaituzte eta bertan askatzen zaituzte.”*

Poliziak prebentzio lanetan daukan eraginkortasunaz:

- *“Polizia edo debekua badaude, beldurratik ez da kontsumitzen, baina kontsumitzeko grina ez da itzaltzen.”*
- *“Nire ustez, helburua izan behar da pertsonak ezetz esateko gai izan daitezela, kanpoko faktore baten beharrik gabe (polizia). Batzuetan debekua ez da konponbidea, beti dago kontsumitzen duen norbait.”*

Poliziaren agintaritzaren beldur hori (edo agian egokiago litzateke balizko zigorren beldurraz) ez da bakarrik gazteen artean existitzen, baita ostalaritzako langileen artean ere:

- *“Niri behin gertatu zitzaidan ez zidatela alkoholik atera. Txupitoak eskatu genituen, atera zizkiguten, eta edaten hasi baino lehen, mutilak esan zigun: Itxaron. Zenbat urte dituzue? Hamasei. Ezin dizuet eman, sekreta bat dabilelako tabernan.”*
- *“Arazo gehiago daude alkohola tabernetan erosteko, supermerkatuetan baino.”*
- *“Dendan hau esaten dizute: ez dizut alkoholik emango, harrapatzen banaute larrutik ordainduko dut eta. Baina tabernari batzuk kezkatuta daude. Halere, ikusten da haien gainetik dagoen norbaitek saltzeko agindua eman dietela.”*
- *“Tabernetako atezainek norbait gaizki ikusten badute kalera botatzen dute, gertatu ahal zaionaz kezkatu gabe.”*
- *“Azkenean, beldurraren eraginez, ez dituzu gauza batzuk egiten.”*
- *“Agian informazio gehiago eman beharko lukete, eta ez jendea beldurtu: isuna jarriko dizut esan beharrean, informatu egingo zaitut.”*

- 14. Poliziak erabat gaitzesten dituzte. Gazteen ustez, poliziak errepresio lanak baino ez ditu egiten (jokabideak debekatu eta zigorrak ezarri). Ikuspegi horretatik, poliziak gazteengan duen eragin hezitzailea deuseza da.**

Legeria

- 15. Arauek jokabideetan duten eragina aztertzean, ematen du lege arautzaileak egotea onuragarria dela.**

- *“Nire ustez ona da Eusko Jaurlaritzak gauza hauei buruzko neurri gehiago hartzea, gero eta lege gehiago egotea.”*
- *“Azkenean, ezin izango zara mugitu ere egin, besteen erruz.”*
- *“Halere, legeak egon behar dira, eta jendeari eskarmentua eman behar diote, ikas dezaten. Nire lagun batzuek hain zuzen ere isunei esker utzi diote kontsumitzeari.”*

Osasun eremua eta Gizarte Zerbitzuak

- *“Pertsona horiek izan dezakete eraginik handiena. Medikuek eta doktoreek eza-gutzen dituzte drogekin zerikusia duten gaixotasunak, eta informazio asko eman dezakete gai honetaz.”*
- *“Kaleko hezitzaileek ere laguntza eman dezakete.”*

- 16. Prebentzioa egiterakoan, osasun eta gizarte eremuetako profesionalak dira hobereen baloratzen diren pertsonak. Haien ezagupenak eta haien lana baloratzen dira.**

Poliziarekin gertatzen ez den bezala, osasuneko langileak eta gizarte bitartekariak (EISEak adibidez) dira, iritzia eman duten gazteek esandakoaren arabera, hobereen baloratuta daudenak.

Bi eremuak puntu bakarrean sartu ditugu, eztabaida talde guztietan, medikuntzako langileez hitz egitean, gazteek osasuneko langileak eta gizarte zerbitzuetaoak berdintzen zituztelako.

Eskola

- *“Urtero hitzaldiak antolatzen dira, baina arazoa da urtero gaizki egiten dela.”*
- *“DBHko lehenengo mailatik orain arte urtero hitzaldiak eta ikastaroak izan ditut. Eta hitzaldi onak, bat edo bi baino ez. Hainbeste hitzaldi beharrean, hitzaldi bakar bat baina ona beharko genuke.”*
- *“Errepikakorrak dira, urtero berdina. Onena praktikoagoa zen. Gizakia Helburun lan egiten zuen mutil batek eman zigun. Teoria eman beharrean, esperientziak kontatzen zizkigun, xehetasun guztiekin, ezer ezkutatu gabe, eta inpaktu handiagoa zuen. Barrurago sartzen zitzaizun.”*

17. Ikastetxeetatik jasotzen duten informazioa ez dute oso ondo baloratzen. Uste dute errepikakorra dela eta ez dela behar bezala azaltzen. Nahiago dute informazio hori kanpoko eragileek eman dezatela, nahiz eta eskolan bertan egin. Kanpoko informazio iturriez gehiago fidatzen dira.

Lehenago esan dugunez, gazteek nahi dute mendekoa izan den pertsona batek informazioa ematea edo, bestela, droga mendetasunen profesional batek ematea. Horrela, diskurtsoa eta mezua askozaz ere erakargarriagoak lirateke, eta hitzaldiaren edukiaren itxura egiazkoagoa litzateke.

Lagunak

18. Lagunak, kideen taldea, erreferentzia garrantzitsua dira. Halere, tolerantzia handiagoa dago substantzia bigunak, legezkoak edo kannabisa kontsumitzen dituztenekin, bestelako substantzia batzuk kontsumitzen dituztenekin baino. Legez kanpoko drogak, gogorrak, kontsumitzeak harremanaren eta taldearen haustura ekar dezake.

- *“Eragin handia dute: zure inguruan ez badago drogarik, ez duzu jakingo zer diren, ikusteaz bakarrik. Eskueran badituzu, errazago da hartzea.”*
- *“Pertsona bat erretzen ikusten duzu eta esaten duzu: Probatuko dut! Eta zure lagunak tabakoa daukanez, arazorik gabe lortzen duzu. Oso erraza da.”*
- *“Drogen gaia progresiboa da. Lehen ibiltzen nintzen koadrilan, hamaika urterekin hasi ginen erretzen, eta esaten genuen porrorik ez genuela inoiz erreko. Gero porroak erretzen hasi ginen eta esaten genuen ez genuela beste ezer hartuko. Orain beste lagun batzuk ditut, baina orduko koadrila hartakoak kokainaz leporaino jartzen dira asteburuetan.”*

Droga gogorren kontsumoak koadrila bat haustea ekar dezake, nahiz eta koadrilako kideak txikitatik elkarrekin hazitakoak izan. Pertsona batzuk droga “gogorrak” hartzen hasten direnean, argi dago komunikatzeko zailtasunak sortzen direla. Horrek talde originala haustea edo bereiztea ekartzen du kasu askotan. *“Lerro bat sartu duen norbaitekin hizketan ari bazara, ezin diozu jarraitu, bere kolokoian murgilduta dagoelako.”*

Ezer kontsumitzen ez dutenen artean nolabaiteko tolerantzia atzeman dugun alkohola edaten edota tabakoa edo kannabisa erretzen dituzten pertsonengana, baina ez dute iritzi bera beste droga batzuk kontsumitzen duten pertsonen buruz. Interesak aldatzen dira eta lehen beraiekin parranda egiten zuen pertsona “aldatu egin da”. Komunikazio arrazionala ezinezkoa da: *“Erretzen ari direnean barre egiten dute, eta moteltzen badira, alde egiten duzu, drogaren efektua amaitu arte.”*

Kide “kolokatuen” eta “ez-kolokatuen” artean sortzen den urruntasunak hutsune bat eratzen du komunikazioan eta harremanean. Horrela, azpitaldeak sortzen dira taldearen barruan eta, gehienetan, haustura gertatzen da.

Taldeetako pertsonarik zaharretako batek ondokoa esan zuen: *“Gure belaunaldia drogen sasoian egon zen. Gero bakoitzak erabaki zuen: bai edo ez.”* Hausturaren uneaz jardutean, batxilergoan koka dezakegu, ordurako gazte bakoitzaren nortasuna eta gustuak finkatzen direlako.

Familia

- *“Nire ustez, guraso batek bere umea ondo hezten badu baliteke gurasoak zerbait esaten dionean semeak edo alabak baietz erantzutea, eta gero, kalera doanean, nahi duena egitea, baina gurasoak esan diona gogoan izatea.”*
- *“Drogen kontua... nik uste dut txikitatik ematen dizuten heziketaren arabera dela.”*
- *“Nik ez dut uste. Etxean kontrolaturik egon zaitezke, zure gurasoek agian ez dute erretzen ez edaten. Baina etxetik kalera irtetean dena aldatzen da. Beste arropa bat janzten dute, poltsoan likore botila eramaten dute eta denetarik hartzen dute. Eta gurasoek ez dakite beren seme-alabak zertan ari diren. Eta, beste alde batetik, baliteke beren gurasoak denetarik egiten ikusi dituzten seme-alabek gero ezer ez egitea. Beraz, nik uste dut heziketak ez duela zerikusirik honetan.”*
- *“Nik uste dut gurasoek seme-alabekin hitz egin behar dutela behin eta berriro. Ondo hitz egin, arazoia erabiliz. Niri gurasoek beti hitz egin zidaten. Esan zidaten txarra zela, haiek ez zirela inoiz horrelakoak izan, eta nik ez dut ezer kontsumitzen.”*
- *“Familiari dagokionez, adibidez, gure aitak ez du erretzen; amak bai, baina aitak ikusi gabe. Nik ez dut haien aurrean erretzen, baina badakite egiten dudala.”*
- *“Nik ere ez dut haien aurrean erretzen eta badakite erretzen dudala. Amari dirua eskatzen diot tabakoa erosteko. Baina, errespetuagatik, ez dut haien aurrean erretzen.”*
- *“Nik uste dut ez daukala zerikusirik familiarekin, errespetuarekin edo heziketarekin; norberaren arabera da.”*
- *“Niri ez erretzea irakatsi didate beti, eta erretzen dut. Txikia nintzenean amari zigarroak apurtzen nizkion eta ez erretzeko esaten nion, baina azkenean nik ere erretzen dut.”*
- *“Guraso guztiek heziketa ona ematen dizute.”*
- *“Denek ez.”*
- *“Bueno, ahal duten moduan hezten zaituzte.”*
- *“Baina zu kalera zoaz eta giro horretan sartzen zara. Jende askok ez daki ezetz esaten. Baliteke etxean zaudenean zure gurasoek zu kontrolatzea, baina irteten zarenean, akabo.”*

- *“Etxean esaten dizute zer egin behar duzun. Kasu egitea edo ez pertsona eta familiaren arabera da, eta zuk nola interpretatu nahi duzun.”*
- *“Gurasoek errieta egiten dizute gaizki egin duzunagatik. Zuk eusten diozu, zaparrada amaitu arte. Eta kalera irteten zarenean, denak berdin jarraitzen du.”*
- *“Nik ez dut defendatzen inor jo behar denik, baina mentalitate ezberdinak daude. Muga ezberdinak daude, jendea tratatzeko modua ezberdina da. Metodo zuzentzaile berriak aurkitu behar dira, fisikoak ez direnak, baina gazteek txantxetan ez hartzeko modukoak. Esaten diezu hori ez dela egin behar, osasunerako txarra dela, eta zorazuta bazeunde bezala begiratzen dizute. Eta hori gauza guztietan gertatzen da.”*
- *“Drogaren eta alkoholaren gaiak tratatzeko zailak dira oraindik ere. Kostatu egiten zaie, ez dakitelako nolako erreakzioa izango duzun. Saiatzen dira zu urduri ez jartzeko moduan esaten, zuk ez erantzuteko moduan.”*
- *“Gure gurasoek badakite edaten dugula, baina guztiek ez dakite zenbat edaten dugun.”*
- *“Nik beti edan izan dut, eta orain nire gurasoek irten baino lehen afaltzeko esaten didate.”*
- *“Harrapatzen bagaituzte liskarra egongo da, baina ohitzen gara.”*
- *“Nik ez daukat ordurik baldin eta arduratsu jokatzeko badut eta etxera zentzuzko ordu batean etortzen banaiz.”*

19. Familia eta drogen kontsumoa binomioan, ondorioz nabarmenena da gazteen zatirik oraindik ere familia dela erreferenterik garrantzitsuenaren drogen kontsumoa azaltzeko, mugatzeko edota kontrolatzeko. Etxean jasotako heziketa da, gazteen ustez, gerora kontsumoko jokabide bat sortzea edo saihestea ekarriko duena.

Komunikabideak

Kasu honetan, droga mendetasunen prebentziorako kanpainari eta iragarkien eraginari buruzko eztabaida hasi da:

Batetik esaten dute, dudarik gabe, komunikabideek eragin ikaragarria dutela kontsumoaren kulturaren eta gizartearen apologian. Baina bestalde, prebentzioan ere eragin handia dute la uste dute. Kontsumoaren ondorioei buruzko kanpaina esplizituak (gogora ekar ditzagun tabakoarenak edo kokainarenak) gogoan dituzte. Haien irudiek inpaktu itzela egin zieten, eta kontsumoa burutik kentzeko egokiak dira.

- *“Kanpainak eta iragarkiek eragina dute. Halere, agian unean bertan inpaktua sortzen dizu eta zer dagoen konturatzen zara, baina azkenean ahaztu egiten zaizu.”*
- *“Nik porroak erretzen ditut eta porroei buruzko iragarkiek arreta deitzen didate, baina nik neurean jarraitzen dut.”*

- *“Eragin handiena duena da gaizki dagoen jendea erakusten dutenean. Zer gertatu ahal zaizun ikusten duzunean. Informazio asko eman arren, ez da ezer konponduko.”*
- *“Istripu bat izan denean edo zerbait jazo denean jartzen dituzten iragarkietan. Baina, zergatik ez dute azaltzen pertsona bat nola alda daitekeen? Nire izekoa emakume ederra zen. Gero minbizia izan zuen, erretzeagatik, eta hezurretan geratu zen. Eta pentsatzen duzu: Zer egin dio?”*
- *“Drogazale ohiek ere hitz egitea ondo legoke. Adibidez, zerbait kontsumitzen zuen eta zulotik irten ez zen mutil baten esperientziak. Halaxe geratuko zara zu, kontsumitzen baduzu.”*
- *“Nik uste dut ezerk ez duela eraginik. Ez iragarkiek ez ezerk ere. Jendeak nahi duena egingo du beti. 16 urteko gazte batzuk ezagutzen ditut, batzuetan auzoko drogazale batekin egoten direnak, berrekin garagardoa edaten. Berdin zaie.”*
- *“Ni kalean zehar noa eta ikusten dut jendea horrela dagoela. Neure kolkorako pentsatzen dut: ze nazka... nola iritsi ahal zara horretaraino. Jendeak iragarki batean ikusten du eta konturatzen da baina gero kalean daude eta berdin zaie edozein modutan amaitzea.”*
- *“Uste dut kanpainak eta iragarkiak guri zuzenduta daudela, gaztetatik hasten garelako. Izan ere, bizitza osoa engantxatuta eman duen 40 edo 50 urteko pertsona batekin, zer egingo dute?”*
- *“Iragarki bat irten da, esaten gazteok ez ezik nagusiek ere auto istripua izateko arriskua dutela. Hori guztiarekin egin beharko lukete.”*

Gehienetan, iragarkirik gordinenek izaten dute inpakturik handiena. Baina, *“gehienetan potrotaraino amaitzen duzu hainbeste iragarkirekin eta ez duzu kasurik egiten”*. Iragarkiak inpaktuzko zerbait baino ez dira, eta inpaktua duena errutina huts bihurtzen da azkenean; izan ere, gizarte honetan ez dago ia mugarik ikusi ahal denaren eta ezin denaren artean, umeen ordutegia asmo ona baino ez da, beti betetzen ez dena, eta edozein bideo ikus dezakegu Interneten bilatuz gero.

20. Komunikabideen iragarkirik gordinenak dira inpaktu eta disuasio ahalmen handiena daukatenak, baina estrategia hau gehiegi erabiltzearen ondorioz, prebentziarako mezua errutina bihurtzen da.

- *“Belaunaldi honek paso egiten du denaz eta, telebistan ikusten duten arren, benetako bizitzan berdin jarraitzen dute, denaz paso egiten duelako.”*
- *“Telebistako saioetan ez dira etikaz kezkatzen, droga eguneroko zerbait bezala ikustera ohitu dute jendea.”*

Drogen kontsumoan ere sartu den kultura kontsumistari dagokionez, iritzi hau daukate:

- *“Nik uste dut gauza piloa daukagula, eta horregatik dena lortu nahi dugula. Dena probatu nahi dugu. Jendeak ez du heldu izan nahi. Jendearen arabera aldatzen da. Batzuek uste dute asteburua iristen denean lagunekin ibiliko direla hortik, ondo pasatzen. Eta beste batzuek esaten dute, zein ondo, drogaz leporaino jarriko naiz.”*
- *“Lehen bizitza zailagoa zen. Orain dena eskura ematen digute.”*
- *“Orain ez dugu pentsatzen. Kontsumoa da, zentzu guztietan. Ez duzu pentsatzen biharko egunean edo bost urtetan etxe bat edukitzean. Bi txartelen belaunaldia gara. Bata faktura finkoak ordaintzeko da; hori ez da ukitzen. Bestea gastuetarako da, eta hutsik dago beti.”*

21. Kontsumoaren kultura sustatzen dela argi daukate: arroparen kontsumoa, aisialdia, etab.; drogen kontsumoa.

Gazteek helduen munduari buruz duten ikuspegia

- *“Gazteei errua botatzen zaie, baina helduak goizeko seietatik egoten dira edaten, tabernak irekitzen dituztenetik.”*
- *“Nik helduak ikusi ditut lanera porro batekin joaten.”*
- *“Helduek uste dute guk denetarik egiten dugula.”*
- *“Eta egia da!”*
- *“Ez, haiek gehiago egiten dute. Badaude txikiteoan doazen gizonak eta etxera mozkor-mozkorrik iristen direnak.”*
- *“Beste batzuk goizetan ikusten dituzu, mozkorrik itzultzen, alkohol usainarekin.”*
- *“Baina non ikusten da gehienetan? Gazteengan.”*
- *“Ez! Gazte bat ez duzu aste barruan ikusten tabernaz taberna. Gazteok asteburuetan kontsumitzen dugu batez ere, baina aste barruan helduak daude. Gizon batzuk egunero ikusten dituzu taberna batean. Astelehenetik astelehenera.”*
- *“Nire ustez, haiek pentsatzen dute nahi dugun bakarra ondo pasatzea eta edatea dela. Gaez irten aurretik ohartarazten digute, hori pentsatzen dutelako: edatera goazela.”*
- *“Drogak eta gazteria erlazionatzea mintzen nau. Uste dut parranda baino gauza gehiago egiten ditugula. Ematen du salbuespenak arau berresten duela. Beti begiratzen diote gehiago akatsari. Agian helduetako batzuek ere akatsak dituzte eta ez dira ikusten.”*
- *“Finean, gazteok egiten duguna helduengan ikusten duguna da.”*
- *“Taberna batean sartzan zarenean, nagusiek esaten dute ez erretzeko eta ez edateko, baina umeak beraiekin sartzan dira eta txikitatik normaltzat hartzen dute.”*

- 22. Gazteek kontraesan handia atzematen dute helduen diskurtsoan, gazteen artean drogarik ez hartzeko agintzen dutelako baina, aldi berean, heldu horiek substantziak kontsumitzen dituztelako. Gazteen inguruan oro har aurreiritziak daudela salatzen dute.**

* * * *

Arazoa dagokien pertsonen, hau da, adingabekoen diskurtsoa aztertu dugu. Orain, beste bi ikerlanen emaitzak aurkeztuko ditugu. Lehenak irakasleak aztertu ditu eta besteak familia. *Ikasleak eta drogak irakaslearen ikuspegitik: zer deritzote EAEko irakasleek?* (Laespada, 2004) eta *Familiak eta haien nerabeak drogen aurrean* (Vielva, Pantoja eta Abeijón, 2001) ikerlanak dira. Haien bidez, aurreko puntuan azaldu dugun informazio kualitatiboa kontrastatu nahi dugu. Aurreko puntuan, irakasleak eta familiak (gurasoen elkarrekin bidez) ordezkaturik zeuden, beste kolektibo batzuk bezala. Ikusiko dugu orduan (2001ean eta 2004an) egindako ikerketak bat datozen edo ez goian azaldu ditugun testigantzekin, orain dela gutxi jaso ditugunak. Beharbada esan beharko genuke ikerlan hauek metodologia kuantitatiboarekin diseinatuta daudela eta esanguratsuenak aukeratu direla. Beraz, datu prozesamendu estatistikoko bat dago, erkaketa fidagarritasunez egitea bideratzen duena, kolektibo hauei dagokienez behintzat.

6. ESKOLA ETA FAMILIA

Irakasleak arazoa nola atzematen duten eta nola inplikatzeko diren. Seme edo alaba adingabe kontsumitzaileak dituzten familien ezaugarriak eta drogarik hartzen ez duten adingabeen familien ezaugarriak

6.1. Ikasleak eta drogak irakaslearen ikuspegitik: Zer deritzote EAEko irakasleek? (Laespada, 2004) Irakaslearen ikuspegia

Testigantzen ondoren, ikusiko dugu hezkuntza sistemako zenbait kidek, gazteengandik hurbilen daudenak hain zuzen ere, hau da, ikastetxea, irakasleak eta tutoreak, nola ikusten duten fenomeno hau beren ikuspegitik. Izan ere, substantziarekin esperimendatzea (eta neurri txikiagoan, ohiko kontsumoa) erabateko errealitatea da gazteak ikasten ari diren adinetan.

Irakasleen ustez, tabakoaren eta alkoholaren kontsumoa orokorra da bigarren hezkuntzako ikasleen artean. Lehen hezkuntzako azken mailatan ere nolabaiteko eragina du. Haxixa, berriz, eskolako orduetan sartu da ikastetxe askotan. Horrek irakasleak ikaratzen eta erne jartzen ditu. Irakasle askok baieztatu dute ikasleentako batzuk haxixaren eraginpean egoten direla ikasgelan.

Ikastetxeetan nolabaiteko araudia dago, barruan drogen kontsumoa debekatzen duena. Baina horrek ez du galarazten ikastetxeetan eta eskola orduetan drogak (haxixa batik bat) kontsumitzea, eta ikastetxetik kanpo, zer esanik ez. Horrelako kasuetan, irakasleak badaki kontsumoak eskolako errendimenduan eta ikaslearen jarreran eragina duela.

Drogak agertzen diren kasuetan, irakaslerik gehienek zorrotz begiratzen dituzte ikasleak eta zigor sendo eta irmoak ezartzen dituzte. Zigor horiek izaera pedagogikoa dute erabat. Beraz, zentzuzkotzat eta beharrezkotzat jotzen da, ikasleren bat substantzia bat kontsumitzen edo haren efektuen pean harrapatuz gero, ikastetxeak gurasoei kontsumoaren berri ematea. Bestela, ikasleari eskatzen zaio berak gurasoei esateko. Esaten zaienean, gurasoek erreakzio ezberdinak izaten dituzte. Gehienak jokabide hori ukatzen saiatzen dira, irakasleek esana auzitan jarriz, edo begiak ixten dituzte, beldurra sortzen diena ez ikusteko. Gurasoetako gutxi batzuek laguntza eskertzen dute eta ikastetxearekin batera egoerari aurre egiten saiatzen dira.

Azken urteetan, zenbait ikastetxe (batez ere fenomeno hau hurbiletik bizi izan dutenak) drogen kontsumoaren prebentziorako estrategiak ezartzea erabaki dute. Zorionez, gehienek esku hartze egituratu eta zorrotzen bat egiten dute. Zentro hauetan programak ikasten dira, irakasleek martxan jartzeko, edo kanpoko erakundeekin programak koordinatzea eta garatzea erabakitzen da. Esku hartze hauen ezarketari dagokionez, esku hartzeetako asko jarduketa isolatu edo jarduketa multzo gisa egiten dira, jarraipenik gabe. Horregatik, jarraipenik izaten ez dutelako, gehienetan ez dira betetzen programak lortu nahi dituen helburuak; askotan bestelako esku hartzeen barruan sartu ohi dira, adibidez, zientzietan edo biologian. Ikastetxe gutxiak sortu dituzte beren prebentzio programak.

Alor honetan asko aurreratu den arren, oraindik lan handia dago egiteko. Oso ikastetxe gutxi dituzte prebentzio programak bere osotasunean garatuta, helburuak ondo finkatuta eta barneratuta. Esku hartze hauen heldutasun falta erakusten duen beste adierazle bat da prebentzio jarduerak ez direla ia inoiz ebaluatzen. Arduradunen eta irakasleen hitzetan, gabezia horren arrazoia da haiek ez daudela prestatuta horretarako; gainera, lanez gainezka daudela esaten dute, betebeharrak gehiegi dituztelako.

Nolanahi ere, irakasle askok uste dute ikasleek substantziei eta beren efektuei buruzko informazioa daukatela eta informazio hori erabiltzen dutela; halere, uste dute informazio hori okerrean eta estereotipoz beteta dagoela. Pentsatzen dute transmititzen den prebentzio informazioaren balioa eta eraginkortasuna informazioa ematen duenaren figuraren arabera direla: mezua eraginkorra izango da baldin eta kideek ematen badute, edo ikasleek onartzen duten irakasle batek ematen badu. Noski, ikasleek interesatzen ez zaizkien informazio atalak ezabatzen dute beti.

Irakasleek egin behar duten hezitzaile lanari buruz eta drogen kontsumoa prebenitzeko agindu zaienari buruz dauzkaten jarrerak eta usteak aztertzen baditugu, esan dezakegu gehienek prebentzio lan hori onartzen dutela; ulertzen dute beren lana ikasgai bat irakastea baino gehiago dela. Egia da, bestalde, irakasle gutxi batzuek uste dutela beren lana jakintza transmititzea baino ez dela izan behar; ez dute hezitzaile eginkizuna beren gain hartu gura. Gainerako irakasleek ez dute argi eta garbi azaltzen zein jarrera duten heziketari buruz. Irakasle jarduten dute, bete behar dituzten eginkizunak oso argi izan gabe.

Irakasleek droga mendetasunak prebenitzeari buruz eta hezkuntzaren kontzeptuari buruz daukaten ideia zazpi dimentsio neurgarri hauetan islatzen da¹¹:

- %29,9a *eskolan prebentzioa profesionalizatzearen* aldekoa da. Hau da, portzentaje horrek uste du irakasleek ikasgaia irakatsi behar dutela, eta ikasgaiak kanpoko gauzak bestelako "adituek" eman behar dituztela.
- %6,3ak soilik onartzen du *irakasleen inplikazioa prebentzioan*. Portzentaje horretan sartzen dira irakasleak eskolan prebentzioan buru-belarri aritu behar direla uste dutenak. Halere, bitarteko egokiak ezinbestekoak direla diote.
- %4,6a *prebentzioaren aurrean eszeptikoak* da. Hau da, jarrera pesimista daukate drogen kontsumoa kontrolatzeko orduan edo kontsumoa hasteko adinak atzeratzeko orduan prebentzioak duen ahalmenari buruz. Gainera, uste dute oso zaila dela aplikatzea, eskolako eginkizunekin gainezka daudelako.
- Oso portzentaje antzeko batek (%4,3) uste du *lankidetza ezinbestekoa dela lan sozioedukatiborako*. Haiek hezkuntzan eta prebentzioan lan egiten duten eragileen arteko koordinazioa eta indar batuketa beharrezkotzat jotzen dituzte. Eragile horiek ikastetxea eta familia direla uste dute.
- Bosgarrenik, %3,9aren ustez *prebentzioa interesa duten irakasleek soilik* egin beharko lukete. Droga mendetasunen prebentzioko lanak eginkizun horretan interesa duten irakasleek bakarrik egingo lituzkete, eta ez irakasle guztiek beraz. Motibatuta dauden irakasleek bakarrik aplikatuko lukete prebentzioa, eta prebentzio jarduerak gidatuko lituzkete.
- %3,2aren ustez, *prebentzioa eskolako eguneroko dinamika* izan beharko litzateke. Eginkizun hau modu normalizatuan egingo litzateke, alarmismorik eta dramatizaziorik gabe, hezkuntzaren barruko esparrua delako.
- Eta azkenik, irakasleen %3ak uste du *prebentzioa gehiegizko* lana dela. Irakasleen bizkarrean jartzen den beste lan bat da.

Azaldu ditugun dimentsio horietan eragina izan dezaketen aldagaietatik, ematen du droga mendetasunen prebentzioan informazioa jaso izanaren aldagaia dela ezberdintasunik nabarmentenak ekartzen dituena. Izan ere, esparru honetan prestakuntza jaso dutenek gehiago sinesten dute prebentzioa hezkuntza lanetan txertatu beharra eta zuzenean zerikusia duten beste estamentuekin batera lan egin behar dela. Prestakuntzarik jaso ez duten gehienek aurkako iritzia dute.

¹¹ Hasiera batean, eskala osatzen zuten 38 itemekin egin zen analisi faktoriala. Baina faktore gehiegi ziren, eta batzuek ez zuten azalpen handirik ematen soziologiaren ikuspegitik. Horregatik, 7 faktorerik esanguratsuen analisi faktoriala egin zen. Prozedura honekin, azaldutako bariantza %55,2ra jaitsi da. Horregatik, portzentajeen batura ez da %100.

Irakasleak drogei eta droga mendetasunari buruz prestatzeari buruz, badakigu 2004. urtean bigarren hezkuntzako ikastetxeetako tutoreen %60,7ak ez zuela inolako prestakuntzarik jaso droga mendetasunari buruz, %40ak soilik parte hartu zuela prestakuntza moduren batean eta, kasu askotan, prestakuntza hori oso puntuala zela.

Azaldu dugunez, irakasleen artean iritzi ezberdinak daude prebentzio gaietako erantzukizunari buruz. Batzuen ustez, zeregin hori irakasle guztiena da, baldin eta motibatuta badaude, prebentzioan prestakuntza jaso badute eta lan hori egiteko astirik badute. Baina beste irakasle batzuek nahiago dute ikastetxeetako ez diren adituek egitea lan hori. Esan dugunez, prestakuntzaren bat jaso duten irakasleek konfiantza dute irakasleengan eta ez dute hain beharrezkotzat jotzen kanpoko pertsonen esku hartzea; prestakuntzarik jaso ez dutenek, ordea, bai. Horrenbestez, argi dago prestakuntza eraginkorra ezinbesteko baldintza dela, irakasleek beren ikasleen kontsumoaren prebentzioa bere gain hartuko badute. Halere, denek uste dute ikastetxetik kanpoko pertsonen parte hartzea eta gaiari buruzko materiala berekin ekartzea oso laguntza baliotsua litzatekeela.

Ikastetxean droga mendetasunaren prebentzioa egiteko erabakia hartu ondoren, behin eta berriro agertzen den faktore bat da ez dagoela adostasunik prebentzioa zein adinekin edo zein mailatan hasi behar duten ikasleek. Prestakuntza gehien duten irakasleek, psikologoek, lantaldeek eta lanbide heziketako tutoreek uste dute prebentzioa haur hezkuntzan hasi behar dela. Beste batzuek, batez ere batxilergoko tutoreek, uste dute bigarren hezkuntza dela hasteko unerik egokiena. Baina irakaslerik gehienek ustez lehen hezkuntza da etaparik gomendagarriena lan hau egiten hasteko; izan ere, informazio hau beranduago emanez gero, kontsumoak hasita egon litezke, eta orduan ez litzateke prebentzioa izango.

Erabili beharreko estrategiaz, ematen du alkoholaren eta drogen kontsumoaren arriskuei eta ondorioei buruz ematen diren hitzaldi puntualak ez direla nahikoak. Prebentzioa ez da informazio honekin agortu behar. Zeharka eman behar da. Berarekin batera, balioetan hezteak, erantzukizuna eta gizarte kontzientzia eskuratzea sustatu behar dira.

Irakasleek drogei buruz dakitena substantziarik erabilienei eta zabalduenei buruzkoa da batez ere. Hau da: tabakoa, alkohola eta kannabisa, eta gero, substantzia estimularriek buruz (anfetaminak eta speeda). Faktore hori garrantzitsua da. Izan ere, substantzien ezagutza mailaren arabera, irakasleak substantzia horien erabileratik eratorritako ondorioei buruz informatzeko eta prebenitzeko gai izango dira edo ez. Baina, bestela ematen badu ere, maisu-maistrek ez dute uste substantzia horiek kontsumitzeko arrisku handiegia dagoenik. Badakite beren ikasleek tabakoa, alkohola eta kannabisa hartzen dituztela, baina ez dute uste anfetamina motako estimularriek kontsumitzen dutenik. Beste behin ere, egin behar dena da bildutako informazioa mahai gainean jarri, eta uste eta atzematen dena errealitatearen aurrean ipini. Agian, irakasleek uste dutena baino gutxiago kontsumitzen dituzte ikasleek lege barruan dauden substantziak eta kannabisa, baina egia da ikasleek bestelako substantzia batzuk probatzen edota kontsumitzen dituztela eta ikastetxeak ez dakiela horren berri.

6.2. Familiak eta haien nerabeak drogen aurrean (Vielva, Pantoja eta Abeijón, 2001). Familien ikuspegia

Irakasleak eta drogen fenomenoaren aurrean duten iritzia aztertu ondoren, eman diezaiegun begirada bat familiei, bai drogaren bat hartzen duen seme edo alaba bat dutenei, bai seme-alabek ezer ez kontsumitzen duten familiei.

Familiaren sisteman garatzen diren ohitura eta jokabide batzuk arrisku faktore bihurtu daitezke, eta sistema horretan bizi diren adingabeek drogen kontsumoan hasteko eta mantentzeko joera izatea mesedetu. Horregatik, funtsezkotzat jotzen dugu familiaren sistema ulertzea eta nerabezaroan duen konplexutasuna azaltzea, nerabezaroan gertatzen baitira lehenbiziko kontsumoak. Aztertutako ikerlanean, bi familia ereduren funtzionamenduak kontrajarri genituen: eredu batean, seme edo alaba nerabe batek drogak kontsumitzen ditu, eta beste ereduari, ez dago horrelako kontsumorik. Hauek izan ziren ikerketaren emaitzari nabarmenenak.

Seme-alaba kontsumitzaileak dituzten familiek eta kontsumitzailerik ez duten familiek kohesio eta moldagarritasun maila ezberdinak zituzten. Seme-alaba kontsumitzaileak dituzten familietan, familiako kideen inplikazio maila txikiagoa dago, oro har eta beraien artean. Bestalde, familia barruko eta familiaren eta kanpokoaren arteko komunikazio mugak itxiagoak dira. Famili batasunaren sentimendua ere ahulagoa da. Familia hauek ez daude besteak bezain pozik familiaren funtzionamenduari. Jarduera gutxiago egiten dituzte elkarrekin eta denbora gutxiago ematen dute elkarrekin. Familia horretako kide izateagatik sentitzen duten harrotasuna txikiagoa da.

Drogak kontsumitzen dituzten seme-alabei dagokienez, nabaria da aitarekin komunikatzeko zailtasun handiagoak dituztela. Maitasuna ez dute hain modu irekian adierazten, eta arazoan aurrean ohikoagoak dira irainak edo isiltasuna. Kontsumitzen duten seme-alabek beren familiaren sistema aita baino modu negatiboagoan baloratzen dute. Familia kanpoko zerbait bezala ulertzen dute. Famili batasunaren sententzia txikiagoa da eta kideen arteko elkartasuna ez da oso handia. Familiari buruz sentitzen duten asebetetasuna aita duenaren antzekoa da.

Amen ikuspegian ez dago ezberdintasun handirik, salbuespenak salbuespen. Familia mota batean zein bestean (hau da, seme-alabek kontsumitzen dutenetan eta besteetan), amek beren ingurua berdin antzean atzematen dute; aitek eta seme-alabek, ordea, ez. Seme-alaba kontsumitzaileak dituzten amek eta seme-alaba ez kontsumitzaileak dituzten amek galdera bakar bati erantzun zioten ezberdin: galdetu zitzaizen familiako jardueretan familiako kide guztiek parte hartzen duten, eta zailtasunik ote duten familiako kide guztiek batera egin ahal dituzten jarduerak asmatzean. Familia disfuntzionalen kasuan, kide guztiek ez dute hainbestetan jardueretan parte hartzen, eta zailtasun gehiago dituzte jarduerak asmatzeko.

Komunikazioari dagokionez, esan behar da seme-alaba kontsumitzaileek ama modu negatiboagoan kalifikatu zutela seme-alaba ez kontsumitzaileek baino. Kontsumitzen dutenek adierazi zuten amak irainak eta presioa gehiago erabiltzen dituela, kontsumorik ez zeuden familietan baino.

Kontsumitzen ez duten seme-alaben familiak eta seme-alaba kontsumitzaileen familiak ezberdinak dira ematen duten heziketaren aldetik eta droga kontsumoaren aurrean dituzten jarreretan.

Lehenengo familietan (kontsumitzaileak ez duten familietan) ez dago ezberdintasun handirik haien artean. Gurasoek segurtasuna eta konbikzio irmoak adierazten dituzte beren funtzio hezitzaile eta gizarteratzailea betetzean. Ondo dakite heziketa oso lan zaila dela, batez ere inguruak eragin handia duelako haien seme-alaben portaeran, baina ez dute uste heziketa lan gehiegizkoa denik.

Familia hauek neurri handiagoan erabiltzen dute “demokratiko eta irmoa” deritzon heziketa estiloa. Heziketa modu honen arabera, oinarrizkotzat jotzen diren arau batzuk ezartzea eta errespetaraztea beharrezkoa da, familiaren funtzionamendu egokia lortzeko: arau irmoak eta iraunkorrak (diziplinari garrantzia ematen diote), baina malguak, baldin eta inguruabarrek edo adina hala aholkatzen badute. Elkarrizketaren eta negoziazioaren aldeko dira, baina beharrezkoa bada, beren irizpidea inposatzen dute. Ez dituzte benetako zigorrak ezartzen, baina arauak betetzen ez diren kasuetarako ondorioak aurreikusten dituzte. Eztabaida gutxi izaten dituzte, eta dauden eztabaida urriak seme-alaben adinari dagozkionak dira (ikasketak, etxean laguntzea, eta abar) edo bi belaunaldi ezberdinen arteko bizikidetzak sortuak dira. Beraz, familiako giroa lasaia eta barea da.

Garrantzitsua da esatea asko kontrolatzen eta gainbegiratzen dituztela beren seme-alaben jarduerak, lagunak, non ibiltzen diren eta abar. Haientzat funtsezkoa da hitz egitea, haien gauzez galdetzea. Jarraipen zorrotza egiten diete, seme-alaben onurarako beti, baina estutu gabe halere.

Drogen kontsumoari dagokionez, argi daukate nerabezaroa ez dela adin egokia erretzeko edo alkohola edateko. Kontsumoak gaitzesten dituzte, baina ez dituzte erabat debekatzen. Ez daude ados kontsumoarekin eta nahigabe handia hartuko lukete beren seme-alabek kontsumituz gero; hala esaten diete. Badakite substantzien kontsumoak eta abusuak arriskuak dakartzatela, baina beren seme-alabek noizean behin kontsumituz gero, onartzeko joera izango lukete, onestea edo debekatzea baino. Oro har urruneko gaia dela uste dute, ez dute uste beraiei gertatuko zaienik. Familia hauek pentsatzen dute beren seme-alabek ez dutela kontsumitzen; gehienak erabat ziur daude.

Familia mota honetako gurasoek kontsumitzen dituzten substantziei dagokienez, esan dezakegu aiten erdiak, gutxi gorabehera, era moderatuan alkohola edaten duela eta erretzen duela. Uste dute gure kulturaren oso errotuta dagoen tradizio soziala dela. Batzuek badakite erretzean edo edatean adibide direla gazteagoentzat, baina gehienek ez dute ia kontraesanik atzematen beren seme-alabei irakatsi nahi dietenaren eta haiek egiten dutenaren artean.

Bestalde, seme-alaba kontsumitzaileak dituzten familiak oso ezberdinak dira haien artean, beste ereduak gertatzen denaren kontra. Beraz, zaila da kontsumitzaileen familien funtzionamendua modu bakar batean azaltzea.

Familia hauetako batzuek uste dute heziketa lanez gainezka daudela eta beste batzuek ez daukate oso argi zeregin hori. Beste familia batzuk, ordea, seguru sentitzen dira lan hau egitean, bai beren gaitasun eta baliabideengan konfiantza dutelako, bai ez dituztelako heziketa eta seme-alabak gainbegiratzea oso serio hartzen.

Familia hauetako gurasorik gehienek, salbuespenak salbuespen, seme-alaben heziketa eta nerabezaroa zailegiztat jotzen dituzte. Heziketa lanak oso ezberdinak eta mugatuak dira. Lau mota bereiztuko ditugu: demokratikoa, permisiboa, barkabera / funtsik gabekoa eta etsitua. Halere, kontuan izan behar dugu mota hauek batzuetan nahasten direla.

Batetik estilo demokratikoa eta bestetik beste hirurak aztertzen baditugu, ikus dezakegu permisibitate eta tolerantzia gehiegizkoak izaten direla seme-alabekin; batzuetan gurasoek seme-alabei aurre egiterakoan beldurra ere izaten dute. Barkaberatasuna, anbibalentzia, zalantzak eta antzeko ezaugarriak izaten dituzte guraso hauetako askok. Lehenengo familia ereduan, ordea, kontsumitzen ez duten seme-alabenean, ez ditugu ezaugarri horiek aurkitu. Literaturan, gurasoen jarrera horiek behin eta berriro erlazionatu dira seme-alaben jokabide arazotsuekin, arrazoi askorengatik: gazteek ez dituzte arauak eta mugak barneratzen, gurasoek ez dizkietelako transmititu; ez dute autokontrola ikasi, ezta gizartean zer den egokia eta zuzena ere. Izan ere, besteak beste, ez daukate eredu irmo eta egonkorrik, berarekin identifikatu ahal izateko, eta gurasoak ez dira haiekin egoten eta ez dituzte gainbegiratzen.

Familiako giroa gatazkatsuagoa izaten da, eztabaidatzeko arrazoiak batez ere ikasketak eta etxeko lanetan ez laguntzea izaten dira. Dirua, lagunak eta alkoholaren edo tabakoaren kontsumoa ere eztabaida batzuen sorburu izan daitezke; gutxitan, baina edonola ere, kontsumitzen ez duten seme-alaben familietan baino sarriago. Arazoei heltzeko orduan, metodorik zabalduena kontsentsua da. Baina gehiegizko permisibitatearen, funts ezaren eta etsipenaren ondorioz, seme-alaben eskaeren aurrean amore ematen da beste familia ereduan baino sarriago.

Guraso hauetako gehienek uste dute beren seme-alabek egiten dutena badakitela: noekin irteten diren, nora joaten diren eta abar. Seme-alabekiko komunikazioa dute informazio iturri nagusi, baina komunikazio hori, kideen arteko harremana bezala, txarragoa eta txikiagoa da familia eredu honetan, kontsumitzen ez duten seme-alabak dituzten familietan baino.

Droga kontsumoari dagokionez, familia hauetako gehienetan seme-alaben kontsumoaren berri dakite. Uste dute batzuetan tabakoa edo alkohola hartzen dituztela. Oso gutxik dakite beren seme-alabek porroak erretzen dituztenik. Uste dute normala dela adin horretan substantziak probatu eta esperimintatu nahi izatea. Beraz, jarrerarik zabalduena noizean behingo kontsumoa edota kontsumo moderatua onartzea da. Haien iritziz, seme-alabak gazteegiak dira oraindik honetarako, baina gainerako familiek baino gehiago onartzen eta justifikatzen dute. Argi eta garbi bereizten dituzte legezko drogak eta legez kanpokoak, eta legez kanpoko drogen aurka daude erabat.

Guraso hauek alkohola eta tabakoa gehiago kontsumitzen dituzte seme-alaba ez kontsumitzaileak dituzten familietakoek baino. Bi herenak, gutxi gorabehera, erretzen du eta alko-

hola edaten du. Ematen du seme-alabek kontsumitzeko probabilitateak handiagoak direla, baldin eta familia barruan kontsumitzeko jokabidea eta kontsumoaren efektu positiboak ikusten badira.

Eta heziketa estiloekin zuzeneko zerikusia dute transmititu nahi diren familia balioak. Horregatik, heziketa estiloei buruz hausnartzeko orduan, kontuan izan behar dira familien balioak. Balio horietan eragina dute aldagai sozial, ekonomiko eta kulturalak, baita aldagaiek eurek jasaten dituzten aldaketek ere. Hona hemen aztertu genituen familia talde bien artean eremu honetan atzeman genituen ezberdintasunik nabarmenenak:

Kontsumitzen ez duten seme-alaben gurasoak asebateago daude ematen dieten heziketarekin. Beren balio eskala ezartzeari buruz optimistagoak dira eta seme-alabengan sakrifikatze-ko joera gehiago lantzen dute. Seme-alaba kontsumitzaileen gurasoak, aldiz, galduago daude heziketari aurre egiterakoan. Kezkatuago eta interesatuago daude beren seme-alabei obediencia irakastean. Familia hauek kontsumismorako joera handiagoa dute.

Aisialdiaren okupazioari dagokionez, kontsumitzen ez duten seme-alaben gurasoek aisialdian denbora gehiago ematen dute haiekin. Seme-alaba kontsumitzaileen gurasoak, ordea, gehiago ibiltzen dira bikotekidearekin eta lagunekin. Era berean, kontsumitzen ez duten neska-mutilak gehiago egoten dira gurasoekin, eta kontsumitzaileak gehiago bereizten dira gurasoengandik. Ez du zentzuzkoa ematen kontsumorik ez daukaten familiek seme-alabak beraiekin egotera behartzen dituztela pentsatzea; aitzitik, badirudi harremanak positiboak direla eta elkarrekin egoteko aukera gehiago dituztela. Kontsumoak dituzten familietan ematen du ez direla ahalegintzen elkarrekin egoten eta elkarrekin jarduerak egiten, eta ahalegintzen badira, ez dute lortzen.

Kontsumo arazorik ez duten familiek ez dute beldurrik haiek txikitan bizi izan zuten heziketa eredua erreproduzitzeko. Izan ere, uste dute ohiturak aldatu diren arren funtsezko heziketa lerroak berberak direla gaur egun. Ordea, beste eredukoek uste dute beraiek jaso zuten heziketa zaharkituta geratu dela.

Kontsumitzen ez duten adingabeen familiak ziur daude seme-alabei balioak transmititzeko egiten dituzten ahaleginak eraginkorrak direla. Kontsumitzaileen gurasoek, berriz, ez dute hainbeste konfiantzarik gai honetan beren seme-alabengan izan dezaketen eraginari buruz. Seme-alaben heziketan sartu nahi dituzten balioei buruz galdetzen zaienean, familia talde bien artean ez dago hainbesteko alderik. Balio horiek ia modu berean mailakatzen dituzte. Aurkeztu zitzaizen zerrendako balioen aldekoak dira eredu bietako gurasoak, oso neurri berdintsuan. Balio horiek tolerantzia, erantzukizuna eta zintzotasuna dira.

Bi taldeek, ordea, planteamendu ezberdina dute sakrifiziorako joera lantzeaz eta kontsumismoari buruzko jarreraz. Kontsumitzen ez duten adingabekoen familientzat nabariagoa da sakrifizioa eta luxu eza irakatsi beharra. Balio horiek bizimodu hedonista baterako galga dira. Izan ere, horrelako bizimodu batek beharrezkoak ez diren ondasunak neurrigabe kontsumitzea ekar dezake, baita alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoak ekartzen duen plazer erraza bilatzea ere.

* * * *

Azkenik, hurrengo kapituluan, Europan eta Espainian prebentzioari buruz adingabekoekin egin diren esku hartzerik arrakastatsuenetako batzuk erakutsiko ditugu. Daturik esanguratsuenak azalduko ditugu. EAEko prebentzio programek ezaugarri horietako batzuk erreferentziatzat hartu behar dituzten edo ez aztertzea da helburua.

7. ESPAINIAN ETA EUROPAN ADINGABEKOEKIN EGIN DIREN PREBENTZIO PROGRAMA BATZUK

Europar Batasunaren esparruan, adingabe eta drogen inguruan arrakasta izan duten ekimen batzuen deskribapena eta azterketa

Orain zenbait programa aztertuko ditugu. Europako Droga Mendetasunen Behatokiak haien eraginkortasuna berretsi du. Gainera, autonomi erkidego bakoitzean droga mendetasunen alorrean dauden baliabideak sartu ditugu, informazio interesgarri eta erabilgarria delakoan¹².

ESPAINIA

SUSPERTU PROGRAMA: Nerabeak eta haien familiak babesteko programa

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

Drogei buruzko azterlan epidemiologikoez frogatzen dutenez, azken urteetan gazteen eta nerabeen artean droga kontsumoak izan duen gorakadak ez du ia zerikusirik orain urte batzuk ezagutzen genuen toxikomano profilarekin. Orain oso ezaugarri zehatzak dituzten drogak aurkitzen ditugu. Horregatik, egin beharreko esku hartze motak orain arte erabili izan diren metodoetatik ezberdinak izan behar dira.

Aurkitzen ari garen kontsumitzaileak oso gazteak dira, eta gero eta gazteago hasten dira kontsumitzen. Gainera, familia eta gizarte inguru nahiko egituratuetoako gazteak eta nerabeak dira. Ikasten dute, lan egiten dute, familiarekin bizi dira. Tabakoa, alkohola, kannabisa edota estimulagarriak kontsumitzen dituzte (batez ere asteburuetan eta aisialdian).

Substantzia horien erabilerak lotura handia du aisialdiarekin, ondo pasatzeko duten moduarekin eta beren testuinguru-taldearekin. Errealitate hau azken urteetan oso nabarmena da. Drogak erabiltzen hasita dauden gazte eta nerabe askok erakusten digute hori: eskatzen duten zerbitzua oso ezberdina da Gizakia Helburutik (ohiko erabiltzaileek behar dutena), baina haientzat ez dago erantzun egokirik.

¹² Direktorio hauek <http://www.pnsd.msc.es/Categoria1/directorio/home.htm> webgunetik atera ditugu.

Errealitate honen emaitza izan da Nafarroako Gizakia Helburu Fundazioak SUSPERTU programa abiatu duela, nerabeei babes emateko helburuarekin. Programa hau orain arte erabili izan diren ikuspegi terapeutikoetatik bereiztea nahi da, jarduketak hezkuntzaren eta prebentzioaren ikuspegitik diseinatuz eta kutsu terapeutikoari pisua kenduz.

Oinarrizko teoriak

Droga kontsumoaren aurrean arrisku eta babes faktoreen eredua. Drogen mendetasunaren eta fiskalizazioaren eremuan egin diren ikerketek berresten dute hainbat faktore pertsonal eta sozialen ondorioz pertsona jakin batzuk sentikorragoak direla droga kontsumoaren aurrean.

Beste alde batetik, zenbait faktorek pertsona batzuk honelako egoeretatik babestu ahal dituzte, drogen kontsumoaren ondorioz sortu ahal diren arazoak pairatzeko aukerak murriztuz. Arrisku faktoreak murriztean eta babes faktoreak areagotzean, droga kontsumoa murrizteko aukerak handiagoak dira.

Gizarte ikaskuntzaren teoria. Portaera berriak ikasteko hiru modu eskaintzen ditu: asoziazioaren bidez ikastea, esperimentazioaren bidez ikastea eta behaketaren bidez ikastea.

Eredu biopsikosozialaren arabera, drogen fenomeno oso konplexua da. Fenomeno honean, substantziekin zerikusia duten faktoreak eta kontsumitzailearen ezaugarri pertsonalak (fisikoak eta psikologikoak) elkarrekin erlazionatuta daude. Gainera, kontsumoa gertatzen den ingurunearen aldagaiak kontuan izan behar dira. Eredu honek drogen kontsumoa prebenitzeko metodo tradizionalen ekarpenak (medikoa, etiko-juridikoa, psikologikoa, soziologikoa eta abar) bereganatzen ditu, eta drogen kontsumoa hiru elementuren arteko elkarrreraginean kokatzen du: substantzia, kontsumitzen duen pertsona eta kontsumitzailea ibiltzen den giroa.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

- Gizakia Helburu Fundazioan zuzeneko arreta eskatzen duten gazteentzat presatuntza sustatzea, gaitasun pertsonalak bultzatzeko eta gizarte erantzukizuna garatzeko (autoestimua, autokontrol emozionala, erabakiak hartzea, aurre egiteko gaitasuna, eskolan edo lan giroetan sartzeta eta abar).
- Gurasoei informazioa eta batez ere heziketarako estrategiak (komunikazioa, gatzak konponketa eta abar) eskaintzea, beren seme-alaben kontsumo ohiturak borrokatzeko erabili ahal dituztelako.
- Nerabeekin lan egiten duten profesionalei orientazio zerbitzua eta arreta eskaintzea. Analisirako oinarrizko tresnak, ezagupenak eta baliabideak ematen zaizkie, nerabeen jardueretan drogen kontsumoaren prebentzioa errazten duten prebentzio jarduerak egin ahal izateko.

Adierazle operazionalak

Parte hartzaile kopurua. Programaren jarduera kopurua. Bertan behera utzi dutenen kopurua. Programak antolatu dituen hitzaldi eta ikastaro kopurua. Drogen kontsumoari buruzko informazioa eta ezagupena. Drogen kontsumoa. Drogak kontsumitzeko asmoa. Motibazioa eta autokontrola kontsumoan

Emaitzak

Prozesuaren ebaluazioa

Oro har, programarako laguntza eskatzera etorri diren nerabeak, programa abiatu zenetik (1997an) gaur arte, alkohol, tabako, kannabis eta estimulagarri (speeda, estasia eta kokaina) kontsumitzaileak dira. LSDaren (tripiak) eta beste droga batzuen kontsumoa ez da askotan suertatzen.

Oro har, kontsumo politiken ildo berriek lotura estua dute aisialdiarekin eta talde jarduerekin. Guztira 177 nerabek arreta jaso dute. Haietatik 137 sartu dira programan. Lehen hiru urteetan, programak 201 familiari egin die arreta guztira. Gurasorik gehienek bazekiten beren seme-alabek drogak kontsumitzen dituztela. Familia horietatik 136k (ia %68ak) programa honetan parte hartze aktiboa izan du.

Gainerako kasuetarako: eskaera birdefinitu egin zen eta kasu bakoitza beste zerbitzu batzuetara eraman zen, edo ez ziren itzuli, edo arazoa elkarrizketa kopuru mugatu batean jasotako aholkuekin konpondu zen.

Familiekin, aitekin, amekin edo legezko tutoreekin lan egitea programaren funtsezko zati bat da. Horregatik, paper garrantzitsua betetzen dute. Esperientziak erakutsi du familiak programan parte hartuz gero, arrakasta lorgarriagoa dela.

1998an, programen kudeaketa taldeak 5 udalen, 3 elkarteren eta 2 instituturen hitzaldietan parte hartu zuen. Bigarren hezkuntzako bi zentrotan gaitasun ikastaroak eman zituen. 1999an eskaerak nabarmen gora egin zuen. Emaiza hau izan zen: hiru prestakuntza ikastaro, bigarren hezkuntzako institutuetan eman zirenak, familiekin lan egiteko zuzeneko planak, eta bost hitzaldi, bost taldetan antolatu zirenak, norbanakoaren orientazioaz gain. Eskaeretak askori ezin izan zaie erantzun. Horregatik, gazteekin lan egiten duten pertsonentzat prestakuntza sistema antolatu bat eta planteamendu egituratu bat beharrezkoak direla ikusi dugu, pertsona horiek beren lanean benetako prebentzio agenteak izan daitezen.

ENERGY CONTROL

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

Energy Control azken urteetan Espainian agertu diren kontsumo patroiei berriei (batez ere droga sintetikoaren kontsumoari) eman zaien erantzuna da. Iristeko zaila den eta prebentzioari buruz mesfidatia den populazio zati batengana heltzea da proiektu honen helburua. Pertsona hauekin lan egitean, prebentziorako bitartekarien balioa onartu beharko litzateke, edukien transmisioaren bidez. Aldi berean, toxikomanoengana iristea nahi da.

Froga askoren arabera, kontsumo patroiei berri bat zabaldu da gazteen artean. Eredu berri hauetan batez ere alkoholaren eta tabakoaren kontsumoa da nagusi. Beste droga merke batzuk ere kontsumitzen dituzte: substantzia sorgogorriak eta droga sintetikoak. Askotan, kokainaren kontsumora iristeko joera izaten dute.

Bestalde, kontsumo patroiei honetan arrisku handiko drogen erabilera sartzen da, adibidez haluzinogenoak edo erabilera murriztuko beste substantzia batzuk (ketamina edo GHB, esate baterako). Substantzia hauek, oro har, aisialdian eta asteburuetan kontsumitzen dira. Giro hauetan, batzuetan, droga kontsumoak taldeko integrazioa, norbanakoaren konfirmazioa eta taldearen nortasuna bultzatzen ditu.

Gero eta substantzia gehiago eta kontsumo patroiei berriagoak agertzen dira. Kontsumo patroiei berri hauek gizartean kezka nabaria sortu dute azken urteetan. Gainera, gizarte tesuinguru ezberdinak eta arazo mediko berriak agertu dira. Drogei buruzko Plan Nazionalaren arabera, 1994an, 14 eta 18 urte arteko ikasleen %3,5ak droga sintetikoak kontsumitu zituen beren bizitzako uneren batean. Substantzia mota hauen konfiskazio kopuruak ere gora egin zuen. Gorakada sinesgaitza da: 1986an ez zen batere konfiskaziorik egon, eta 1996an 739.511 pilula atzeman ziren.

Substantzia hauek kontsumitu dituen populazio talde osoari buruzko ikerketaren arabera, %25ak kontsumo patroiei bat jarraitzen du, eta %15ak modu konbultsiboan egiten du. Gero eta gazte gehiago igarotzen dira kontsumo esperimentaletik edo noizean behingo kontsumotik kontsumo konbultsibora.

Kontsumitzeko modu berrien ezaugarriek, gazteek kontsumo hori nola atzematen duten, kontsumitzaileek laguntza eskatzeari uko egiteak (ez baitute aitortzen honelako drogekin arazorik dutenik), eta beste substantzia batzuen mendekoak diren beste pertsona batzuekin batera tratamendua jaso nahi ez izateak erakusten dute laguntza emateko prozedura berriak, egokitutakoak, bilatu beharra dagoela.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operatiboak

Prebentzio materiala (informaziozkoa eta hezitzailea) sortzea eta eguneratzea, eta gazte jendearen kulturari buruzko informazioa transmititzeko modu berriak sartzea.

Prozesuaren adierazleak

Burutu diren jarduerak. Programaren estaldura. Programan eman den denbora. Programa aplikatzeko jaso diren eskaerak. Helburu-populazioaren ezagutza eta apreziazio maila Energy Control-eko taldeari buruz. Emandako informazioaren buruan gordetzea. Informazioaren barneratze maila. Helburu-populazioak arriskua atzematea. Eraginaren batez bestekoa.

Helburu zehatzak

1. Droga sintetikoen kontsumoak egindako kalteak murriztea:
 - Drogen kontsumoak sortzen dituen arazoei buruzko informazioa ematen.
 - Drogekin zerikusia duten eguneroko egoerak aukeratzeko.
 - Absistentzia gehitzen eta sendotzen.
 - Drogen erabilerak sortzen dituen ondorio negatiboak eta arriskuak murriztea laguntzen.
 - Hurbileko pertsonen arazoetan modu positiboetan esku hartzen ikastea.
 - Telefono zerbitzuen bidez, laguntza baliabideak eskaintzea, behar duten pertsoneri.
2. Techno/rave kulturaren murgilduta dauden nerabeen eta gazteen artean droga mendetasuna prebenitzea, ondoko hauen bidez:
 - Drogak erabiltzen ez dituzten pertsonen babes faktoreak eskuratzea.
 - Drogak ez kontsumitzea erabaki duten pertsonen irudi positiboa lantzea.
 - Kontsumo esperimentaletik edo noizean behingo kontsumotik ohiko kontsumora igarotzen diren gazteen kopurua murriztea.

Emaizak

“Zatoz gure jaira!” komikia eta dohaineko bost postalen bilduma, Energy Control-ek sortuak, 26.000 pertsonari banatu zitzaizkien 1998. urtean. Guztira 27 esku hartzen egin ziren zenbait jaitan, informazio stand baten bidez, edo chill-outetan. Guztira 17.859 flyer banatu ziren substantzia ezberdinei buruzko informazio eguneratuarekin, batez ere kokainari buruzkoa (“*Lerroaren bi aldeetan*”). Guztira 15.000 pertsonarengana iritsi zela uste dute.

Programaren edukiak banatzeko metodo ezberdinak erabili dira: postalak, komikiak, etab, opariak, standetan, tabernetan eta klubetan, edo proiektioetan hormetan edota pantailatan. Beste pertsona batzuk ere webgunearen bidez programarekin harremanetan jarri ziren. Aurkezpen bideo bat produzitu zen, eta telebista kate batean eman zen.

Guztira 14 tailer egin ziren musikari eta droga kontsumoaren prebentzioari buruz eskoletan eta gazte elkarteetan; 15 eta 18 urte arteko 342 gazte etorri ziren tailerretara. Guztira 310 lagun etorri ziren unibertsitateko ikasleentzat, irakasleentzat eta gurasoentzat beren-beregi sortu ziren bederatzi tailerretara.

Materialei buruz iritzi oso ona eman zuten gazteek, bai drogak erabiltzen dituztenek, bai erabiltzen ez dituztenek. Edukiaren egokitasuna eta kalitatea nabarmendu zituzten denek. Erakutsi zen *“Zatoz gure jaira”* edo *“Lerroaren bi aldeetan”* komikiak irakurri zituzten kontsumitzaileek ordura arte ez zekiten zerbait ikasi zutela arriskuak eta kalteak murrizteari buruz. Materialak irakurri, gainera, drogak kontsumitzen ez dituzten gazteek drogen kontsumoari buruzko arrisku gehiago aurkitu zituzten.

Erabilitako tresnak, prozedurak eta espazioen banaketa helburu-populazioko gazteei egokitu zitzaizkien. Drogen erabilera okerrarekin zerikusia zuten kontsumitzaileen (edo horrelako kontsumitzaileekin harremana zuten pertsonen) portzentaje handi batekin kontaktua sortu zen.

“Zatoz gure jaira!” komikian zeuden mezuetatik, pertsonarik gehienek (%30) gogoratzen zuten mezua zen “ez direla substantzia ezberdinak nahastu behar”. Gutxien gogoratzen zutena hau zen: “drogen kontsumoa eragozpen sexualak sortzen ditu”. Gainerako mezuak pertsonen %30 - %50arengana iritsi zen.

Emaitza hauek erakusten dute drogak erabiltzen dituzten eta erabiltzen ez dituzten pertsonen artean ezberdintasun esanguratsuak daudela. Emaitzak erakutsi zuten drogak kontsumitzen dituzten pertsonak mezuen edukia portzentaje handiago batean gogoratzen zutela. Hauek dira ezberdintasun hori erakutsi zuten mezuak: “kontsumoen artean atsedean hartu”, “ura edan eta atsedean hartu”, “kontsumoak depresioa ekar dezake” eta “kontsumoak paranoia ekar dezake”. Gainerako mezuak ez zuten ezberdintasun esanguratsurik erakutsi bi taldeen artean.

Joera honek erakusten du, modu absolutuan ez bada ere, kontsumitzaileek mezuak errazago barneratu zituztela. Ondoriozta dezakegu komikiak taldeko kontsumoan eragiteko helburua bete duela. Oro har, gazteek zenbait material jaso zituzten, edukia gogoan izateko, beharra zutenean erabiltzeko. Adibidez, prebentzio mezuen hedapena edota arriskuak murrizteko moduak.

Kokainari buruzko *“Lerroaren bi aldeetan”* eskuliburuari dagokionez, oinarriko ustea berretsi zen: kokaina kontsumitzen zuten pertsonak hobeto gogoratu zituzten mezuak inoiz kokaina kontsumitu ez zuten pertsonak baino. Gehienetan gogoratzen zuten mezua da kontsumoan muga bat ezarri beharra dagoela, eta horren ondotik, portaera paranoideen eta

antsietatearen arriskua daudela, gastu ekonomikoa kontrolatu behar dela eta kokainaren kontsumoan ez dela sudurrerako tutua konpartitu behar.

Halere, kokaina kontsumitzen zuten pertsonak arrisku txikiagoa ikusten zuten kokaina kontsumitzen ez zutenek baino. Drogak erabiltzen dituzten pertsonarik gehienek iradoki zuten informazioa ematea dela prebentzio modurik onena. Era berean, ondorioztatu zen drogak kontsumitzen dituzten pertsonak arriskua errazago atzematen dutela drogarik kontsumitzen ez dutenek baino.

EUROPA

ALEMANIA

OLATUA: Mendetasunen prebentzioa kirol taldeetan

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

'Droga mendetasunaren arriskuen aurkako Baden-go elkarte federalaren' berrikuspena izan zen (1993) "Olatua" proiektua sortzeko oinarria. Ikerketa horrek erakutsi zuen drogaren aurkako prebentzio neurrien ehuneko hirua soilik kokatzen zela "gazteak eta aisialdia" alorrean. Egiten ziren ekintzarik gehienak irregularrak ziren. Era berean, ikusi zen helburu-talde horietako asko (adin eta gizarte jatorri ezberdinetakoak) kirol taldeetan zeudela. Kirol taldeak gazteak gizarteratzeko bitarteko oso garrantzitsua dira. München egindako azterlan batek erakutsi zuen, arazoren bat izanez gero, gazteen %39ak kirol taldeko lagunarengana joko zuela, eta %28ak gurasoengana.

Oinarrizko teoriak

Gazteen autobalorazioa, adierazten duten erantzukizuna eta ibiltzen diren giroa hobetuz gero (gizarte jarduerak sustatu behar dira), teorian, baldintza bikainak sortzen dira mendetasuna prebenitzeko alorrerako.

Higienearen Zentro Federalaren arabera, kirol taldeetan gazteekin lan egiteko orduan, lau faktore garrantzitsu daude: askatasuna, abentura, konfiantza eta haien nahiak kontuan izatea. Kirol taldeak elkarreraginerako eremu garrantzitsua dira, drogen kontsumoaren aurkako prebentzio neurriak ezartzeko. Kirol taldeetan, jatorri eta adin oso ezberdinetako gazte populazio zabal batengana iristen dira neurriak.

Substantzieikiko mendetasunari buruzko eta droga mendetasunen prebentzioari buruzko sakoneko informazioa, noski, egoeraz ahulean egon daitezkeen pertsonari gazte-gaztetatik laguntza emateko ematen da.

Gazteen entrenatzaileak eta gurasoak eredugarriak izan daitezke gazteentzat. Horregatik, jokatzeko duten paper horri buruzko sentsibilizazioa jaso behar dute. Alkoholen kontsumoa modu autokritikoan kontrolatzea eta alkoholik gabeko edarien kontsumoa sustatzea paper horren barruan sartzen da. Oso garrantzizkoa da droga mendetasunen prebentzioan eta gazteen ongizatean dauden erakundeekin lankidetzan aritzea, balizko mendetasun arriskuak eta balizko gaixotasunak prebenitzeko, eta esku hartzeko neurriak berandu baino lehen gauzatzeko.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

- Gazte lana babestea kirol taldean: –nortasun osasuntsu bat garatzeko ekarpen gisa– gizarte harremanak eta kontaktuak sustatzeko.
- Gazteen entrenatzaileak eta gurasoak sentsibilizatzea substantzia psikoaktiboen inguruan lan egiteko erantzukizunaz.
- Substantzia psikoaktiboen kontsumoa prebenitzeari buruzko informazioa ematea.
- Sare bat garatzea eta lankidetzan aritzea, epe luzerako prebentzio neurriak praktikan jartzeko.

Prozesuaren adierazleak

Txosten bat egitea, galdetegi estandarizatu –b baten laguntzaz. Galdetegiak hiru orrialde ditu, 35 item eta lau galdera ireki.

Emaitzak

“Zure kirol taldean etorkizunean droga mendetasuna prebenitzeko neurri gehiago ezarriko dituzu?” galderari, %60,7ak baietz erantzun zion, eta %35,9 ez zeuden ziur.

Etorkizunean ekintza hauekin jarraitzeko asmoa zutenek egin beharreko urrats batzuk aipatu zituzten: kirol taldeko gazteei arreta gehiago egin; haiekin hitz egin, haien kontsumo portaerak begiratu, eta abar; ereduak sortu eta gogoeta sustatu, eta kirol klubak antolatzen dituen jaietan alkoholik gabeko edariak eduki.

“Beste entrenatzaile batzuei programa hau gomendatuko zenieke?” galderari, parte hartu zuten pertsonen %93,8ak baietz erantzun zuten. Galdera hori arrazoitzaerakoan, haien ustez programak daukan zenbait ezaugarri aipatu zituzten: erabilgarria da eta informazioa ematen du, beste entrenatzaile gazte batzuentzat garrantzitsua da, droga mendetasunak prebenitzeko gaien sentsibilitatea eta kontzientzia sorrarazten ditu, beste talde batzuekin esperientzien trukaketa sustatzen du, gizartean beharrezkoa da eta abar.

Giroa oso ona zela esan zuten parte hartu zutenen %63,4ak, eta ona %27,5ak. Komunikazio ariketak onartuenak izan ziren (%67,7) eta gero, abentura pedagogikoen jarduerak (%64,8).

Mintegiaren edukiei buruzko asebetetasunaz galdetu zenean, %28,9ak esan zuen espero zutena bete eta gainditu ere egin zela; %50,7a pozik zegoen, eta %17,1arentzat, beren espektatibak modu moderatuan bete ziren.

Galderen erantzunik gehienek asebetetasuna erakusten dute (%40,8) eta gutxiengo batek desadostasuna (%36,2). Etorkizunean egiten diren mintegietan, edukiak kirol taldeen egoeretara egokitu beharko dira. Izan ere, parte hartu zutenen %22,7ak soilik adierazi zuen mintegiaren edukiak "oso egokiak zirela", %39,9ak "egokiak" eta %30,7ak asebetetasun moderatua azaldu zuen.

"Mendetasuna eta prebentzioa" gaian parte hartu zuten pertsonetatik gehienek interesa goraiatu zen, mintegia amaitutakoan.

"Zein eduki sakondu beharko lirateke?" galderari parte hartzaileek ondokoa erantzun zuten: mendetasunaren arrazoi sozialak; nola jokatu kirol taldera etortzen diren droga mendekoeekin eta arriskuan dauden gazteekin, eta droga mendetasunen prebentzioa praktikan jartzeko pautak.

Batzorde hauetan ordezkari profesionalak eta erakunde, elkarte eta batasun ugaritako boluntarioak zeuden. Etengabeko lankidetzaz lortu zen.

JOSTAILURIK GABEKO HAURTZAINDEGIA

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

1. Esperientzia gutxi zegoen haurtzaindegietako umeekin egindako programetan; izan ere, programa horiek irakasleekin eta gurasoekin soilik egin ohi ziren.
2. "Mendetasunen prebentzioaren" eremuan egin ziren ebaluazio azterlanek erakutsi zuten umeen gizarte gaitasunak sendotzea (jarraipenaren eta goiz jardutearen irizpideak kontuan hartzea, alegia) egokiena zela emaitza onak lortze aldera.
3. Umeen kontsumo ohiturak egunero behatuz, jakin zen dendetan erositako jostailuak ez direla soilik jolasteko, haurren sormena eta jakintza bultzatzeko eta haien garapena sustatzeko tresnak: umeek gogokoen dituzten kontsumo ondasunetako bat dira.
4. Gizarte gaitasunak sustatzeko ordura arte egin ziren proiektu guztiak gazte jendeari zuzenduta zeuden. Horregatik, eskola aurreko umeetan gizarte gaitasunak sustatzeko kontzeptu berri bat eta lan egiteko modu berri bat sortu behar diren. "Eskola aurreko heziketaren" inguruko teorietan oinarrituta, ondorioztatu zen haurtzaindegiko proiektu batean ez zirela soilik egon behar gizarte elkarreraginerako gaitasunen heziketa; gainera bizi espazio eta esperientzia multzo bat sortu behar zen, haietan haurrak beren ikaskuntza prozesuen sortzaile izan daitezen.

Oinarrizko teoriak

Pertsonak ez dute pentsamendu kritikoa garatzen aurretik dagoen jakintza egokituz, baizik eta beren esperientziak biziz. Heziketako adituek adierazten dute haurrek beharrezkoa dutela esperimenduak egitea, beraiek saiatu behar dira, kale egiteko eta norabide zuzena zein den pentsatzeko. Aldez aurretik egituraturatutako pentsamendurik ez bazaie ematen, haurrak sortzaileak eta ausartak izango dira, arriskuak hartzen ikasiko dute eta beren kasa pentsatuz ondo pasatuko dute.

Independentea izateak ez du esan nahi ni dena egiteko gai naizenik eta ez dudarik inor behar. Esan nahi du beharrezkoa dela jakitea non aurki dezakedan laguntza eta non aurki ditzakedan beste pertsona batzuk neure proiektuak burutzeko.

Helburuak eta adierazleak*Helburu zehatzak eta emaitzen adierazleak*

- 1. helburua: Beste pertsonak ulertua izateko, beste pertsona batzuk ulertzeko, empatia izateko, norberaren ahultasunak eta sendotasunak onartzeko eta egiten ditugun ekintzen erantzukizuna onartzeko gaitasunak sustatzea.
- 1. adierazlea: Elkarrizketaren eskuliburuak gai hauei buruzko galderak zituen: a) umeen portaera; b) burututako gaitasunak: harremanetarako gaitasunak, autokonfiantza, hizkuntz gaitasunak, sormena, pentsamendu kritikoa, frustrazioa toleratzea, jolasteko gaitasuna; c) gurasoekiko lankidetzak.
- 2. helburua: Nork bere buruari eginkizunak agintzeko, arazoez konturatzeko eta konponbideak asmatzeko gaitasunak sustatzea.
- 2. adierazlea: Elkarrizketaren eskuliburuak gai hauei buruzko galderak zituen: a) umeen portaera; b) burututako gaitasunak: harremanetarako gaitasunak, autokontzeptua, autokonfiantza, hizkuntz gaitasunak, sormena, pentsamendu kritikoa, frustrazioa toleratzea, jolasteko gaitasuna, gurasoekiko lankidetzak.
- 3. helburua: Harreman berriak garatzeko, beste pertsona batzuei laguntza eskatzeko eta guztien artean konponbideak aurkitzeko gaitasunak sustatzea.
- 3. adierazlea: Elkarrizketaren eskuliburuak gai hauei buruzko galderak zituen: a) umeen portaera; b) burututako gaitasunak: harremanetarako gaitasunak, autokontzeptua, autokonfiantza, hizkuntz gaitasunak, sormena, pentsamendu kritikoa, frustrazioa toleratzea, jolasteko gaitasuna; c) gurasoekiko lankidetzak.

Emaitzak

Hizkuntz gaitasuna hobetu egin zen, ikerlanaren diseinu kualitatiboaren ondorioz. Ikerketa zientifikoak emaitza hauek erakutsi zituen:

Beharrian pertsonalen pertzepzioa eta autokonfiantza sendotzea: Hartzaindegiko ordutegiak daukaten egitura irekiaren ondorioz, askatasun eta espazio gehiago zeuden beharrian pertsonalei aurre egiteko.

Hizkuntz gaitasuna hobetzea: Umeek gehiago hitz egin zuten elkarrekin. Ikasgeletan zeuden atzeritarrek lotsa gutxiago zuten hizkuntz berria erabiltzeko. Ume lotsati eta uzkuerek bere kasa hitz egiten hasi ziren, eta hizkuntz gaitasunak maila handian garatu zituzten.

Sormena eta pentsamendu kritikoa sustatzea: Umeek beren helburu eta proiektuak garatu zituzten, material ezezagunekin edo ez-ohikoekin lan egin zuten, eta eurek garatu zituzten zereginetarako konponbideak aurkitu zituzten.

Frustrazioa onartzeko gaitasuna eta jolasteko gaitasuna hobetzea: Jostailurik gabe egon ziren denboraldian, haurrek beren bizitzan lehen aldiz aukera izan zuten beren arazotarako konponbideak bilatzeko eta konponbideok arrakasta pertsonal bihurtzeko.

Harremanetarako gaitasunak hobetzea: Proiektua ezarri baino lehen, haur asko jostailuekin distraiturik zeuden, talde txikietan edo bakarka jolasten. "Jostailurik gabeko denboraldi" osoan, jostailuak bere erakarpena galdu zuen eta pertsonak (gainerako umeak) interesgarri bihurtu ziren berriro ere. Taldeetan konponbideak adostu zituzten, estereotipo sexualetan oinarritutako jokabidea ahuldu zen eta neskatoek eta mutikoeke sarriago jolasten zuten beraien artean.

AUSTRIA

PROIEKTU PILOTUA: MENDEASUNEN PREBENTZIOA TROFAIACH-EN

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

Urte eta erdi batean, Trofaiach-eko zazpi gazte hil ziren heroina gaindosiaren eraginez. Nahasmen egoera bat sortu zen. Estatuko eta eskualdeko komunikabideek Trofaiach drogen hiria zela azaldu zuten. Horregatik, laguntza eskatu zitzaion Styria-ko gazteria eta osasun bulegoari eta, unibertsitateko psikologia medikoko eta psikoterapiako departamenduarekin batera, programa hau egiten hasi ziren.

Jaso zuten informazioaren arabera, Trofaiach-eko gazteen %30-50ak (13 eta 18 urte artekoak) alkohol asko edaten zuten modu erregularrean (gutxienez astean behin mozkortzen ziren). Talde honetan, heroinaren kontsumoa %2koa zela kalkulatu zuten. Trofaiach-en kasuan (8.700 biztanleko herria), kalkulatu zuten 800 bat lagun zeudela alkohol arazoarekin, eta 50 pertsona heroinaren gehiegizko kontsumoarekin.

Balorzio horren arabera, gazteen alkohol eta heroina abusua programa honen jomuga zen. Programan prebentziorako, kalteak murrizteko eta tratamendurako jarduerak sartu ziren.

Trofaiach-eko egoera soziodemografikoa argia zen: Donawitz-eko industria siderurgikoan lan egiten zuten pertsonen bizilekua zen. 70eko hamarkadan atzeraldi handia gertatu zen industria siderurgikoan, eta horren ondorioz langile asko kaleratu zituzten eta beste asko alde zurretik erretiratu. Horregatik, alkoholaren eta legez kanpoko drogen gehiegizko kontsumoa sortu zen. Jende guztiak horren berri zekien arren, hiru hamarkadatan ez zen gaiaz hitz egin, harik eta gazteek zerikusia izan arte.

Oinarrizko teoriak

Mendetasun baten garapena prozesu konplexu eta dinamikoa da, erreferentzia interaktiboko esparru batean gertatzen dena, giza garapenarekin jazotzen den bezalaxe. Programa honetan, **“teoria sistemikoak”** azaltzen du pertsonaren eta bere erreferentzia-markoaren arteko harremana oso garrantzitsua dela programa diseinatzeko.

Mendetasunak garatzeari dagokionez, programak puntu berri eta berritzailea sartu nahi du, **“hedapenaren teoriaren”** arabera: mendekotasuna sortzen duten substantzien kontsumoa bizi den komunitatearen joeraren arabera aldatzen da. Teoria honek gizarte aldaketaren prozesua azaltzen laguntzen du. Norbanakoak ideia batean atzematen duen nobedadeak pertsonak ideia horren aurrean duen erreakzioa baldintzatzen du (Rogers, 1995)¹³. Mendetasunaz hitz egitean, hedapena prozesu bat da. Prozesu horretan, nobedade bat bide jakin batzuen bitartez komunikatzen da, denboraldi jakin batean, gizarte sistema baten kideen artean.

Printzipioak

Adituak eta talde estrategikoak printzipio hauetan oinarritu ziren:

- Elkarren arteko trebeziaren printzipioa eta ekintzak elkarrekin egitea: erabiltzaileak, aditua den aldetik, arlo ezberdinetako profesionali laguntzen die.
- Izendatzaile komuna daukan garapen printzipioa: programa hau batez ere opiazeoak eta alkohola hartzen dituzten gazteekin erabiltzen da.
- Programaren arrakastaren edo porrotaren inguruko erantzukizun konpartituaren printzipioa.
- Metodo errealistaren eta urrats erraz eta argien printzipioa.
- Konpromisoaren printzipioa.
- Lankidetzaren printzipioa: parte hartzaileak programaren helburuen bultzatzaile dira, bai maila pribatuan, bai maila profesionalen.

¹³ Informazio hau http://www.horizonteweb.com/Adopcion_de_Tecnologias.pdf webgunetik hartua da.

- Mugen babesaren printzipioa.
- Gardentasun osoaren printzipioa: uneko egoerarena eta balizko ondorio positibo eta negatiboena.
- Egoera irabazlearen printzipioa: programan parte hartzen duten guztiek etekinak lortu behar dituzte.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

Talde estrategiko handi batean (Trofaiach-eko gazteria eta interesa duten pertsonak), erabakiak markatzen dituen, mendetasunaren jokabideari eta beste gai garrantzitsu batzuei buruzko eztabaida publikoetan oinarrituta, biztanleek laguntza jaso beharko lukete, alkoholaren eta heroinaren kontsumoaren testuinguruan portaera sozialeko aldaketak hasteko, praktikan jartzeko eta mantentzeko. Talde estrategiko horren eginkizuna proiektuaren helburuak sustatzea zen, eta komunitatearen orientazioa ahalbideratu eta bermatu behar zuen. Era berean, talde honek lekuko benetako egoerari buruzko informazioa eman behar zuen proiektuan eta ebaluazioan. Gazteen garapen pertsonala sustatu behar zuen, eskolan eta eskolaz kanpo prebentzio jarduerak martxan jartzeko eta zenbait neurri estruktural abiatzeko.

Prozesuaren adierazleak

Talde estrategikoetan parte hartzea. Talde estrategikoan, laguntza profesionalak eraturako lantaldean eta hezitzaile lantaldean programarekin eta haren eraginarekin izandako esperientziak eta hari buruzko iritzia.

Helburu zehatza

Mendetasuna duten eta arriskuan dauden pertsonak sendatzea, eta beren gizarte inguru-nearekin duten harremana hobetzea, laguntzaren, kontsulten eta psikoterapiaren bidez.

Emaitzen adierazleak

Mendetasun bat daukaten kontsulta erabiltzaileen kopurua; alkoholaren eta legez kanpoko drogen efektuen pean egin diren bortxazko krimenak, poliziak erregistratuak; ospitaleratze psikiatrikoan tratamendua hartzeko onartutako pertsonak Trofaiach-eko eskualdean; droga-rekin zerikusia duten heriotzak.

Erabilitako tresnak

GIB prebenitzeko kit-ak, liburuxkak, drogen talde komunitarioa, komunitateko lana, aholkularitza, ingurunean esku hartzea, heziketa, ekitaldiak, familiako terapia, informazioa, legezko ordezkariak, tratamendu medikoa, egunkariak, guraso taldeak, talde dinamikak, jaiak, psikoterapia, irratiko iragarkiak, posterrak, gizarteratzea eta birgizarteratzea, aterpe-
txeak eta kirolak.

Emaizak

Proiektuaren lehen bost urteetan, alkoholari eta legez kanpoko drogei buruzko tabua jendar-tean eztabaidatzen hasi zen gaia bihurtu zen. Eztabaida prozesu honetan, helduek alkoholaren, nikotinaren eta drogen kontsumoaren aurrean duten jokabidearen eta gazteek alkoholaren eta legez kanpoko drogen aurrean duten jokabidearen arteko konexioa kontuan izan zen.

Gainera, gizartetik baztertu ziren drogak saltzen zituzten pertsonak edo gazteei dosiren bat edo beste oparitzen zieten pertsonak. Egoera hori ez da aldatu gaurdaino.

Legez kanpoko drogaren baten mendeko diren pertsonak behar duten babes sozial eta psikologiko guztia jasotzen dute.

Analisi kualitatibo batek erakutsi zuen talde estrategikoetako kideak konfiantzako pertsonak bihurtu zirela, eta haien parte hartzea oso modu positiboan baloratu zen. Talde horietan 60 lagunek parte hartu zuten, urtean 14 taldetan batez bestez.

150 lagun inguruk, gehienak gurasoak, mintegietan parte hartu zuten.

Belaunaldien arteko elkarrizketa sortzea ere lortu zen. Halere, zalantza dago gizarte klase guztiak ordezkaturata ote zeuden.

Eskolan aldaketa estrukturalak izan ziren, osasunaren ikuspegiarekin. Lehen hezkuntzan, prebentzioa jolasaren bidez irakasteko orduak jarri ziren. Bigarren eskolan, ikasleek lantaldeetan parte hartu zuten, eta gai garrantzitsuei buruzko jarduerak egin zituzten. Horrela, programa honek gizarteko giroan eta eskolan eragina izan zuen.

STATIONENMODELL: Mendetasunaren prebentzio unibertsala eskoletan

Testuingurua eta teoriak*Hasierako egoera*

Austrian, droga mendetasunen prebentzio unibertsala osasunaren sustapenean sartzen da. Programa hau egiterakoan kontuan izan da, esperientziak erakutsi digunez, irakasleei eta ikasleei informazioa eman beharra dagoela balizko kontsumoak ekiditeko.

Programaren hasieran, arreta ikasleekin egiten diren tailerretan jartzen da. Baina zenbait urtetan, hurbilpen sistematiko bat egin da, eta horrek talde garrantzitsu guztien parte hartzea errazten du, gurasoak barne; horrela, programaren efektua iraunkorragoa da.

Oinarrizko teoriak

Eredu malgu bat erabiltzen da, norbanakoen beharrianetara egokitzen dena. Horri esker, ikastetxeek droga mendetasunen prebentzioa eguneroko errutinan sartu ahal dute, eta herrialdeko ikasleetako askorengana iristen da.

Ezagutza profesionalak irakatsiz, gaia aztertzeko unean dauden beldurrak murriztu egiten dira. Gaitasunak sustatuz, irakasleak mendetasunen prebentzioan paper aktiboa hartzeko gai dira.

Mendetasun jokabidearen garapena prozesu konplexua da. Faktore ugari parte hartzen dute. Oinarri teorikoa ondoko kontzeptuek osatzen dute: Banduraren gizarte azterketa, Botvinen bizitzarako gaitasunen garapenaren teoria eta Franzkowiaken arrisku gaitasunen teoria.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

- Eredu bat garatzea, eskoletan droga mendetasunen prebentzioa epe luzerako integratzeko.
- Irakasleen eta zuzendarien gaitasunak sustatzea eta ezagutza profesionala ematea, dagoen jakintza eta norbanakoaren beharrianak kontuan izanik.
- Prebentzio neurrien eraginkortasuna eta mantentzea hobetzea, eskolako komunitate osoa inplikatur.

Prozesuaren adierazleak

- Galdera honi buruz proiektuen koordinatzaileek egin duten ebaluazio kualitatiboa: droga mendetasunen prebentzioa eskoletan epe luzean sar daiteke eredu honekin?
- Galdera honi buruz proiektuen koordinatzaileek egin duten ebaluazio kualitatiboa: eredia eskola bakoitzaren beharrianetara eta haien ezagutzara moldatu daiteke?
- Galdera honi buruz proiektuen koordinatzaileek egin duten ebaluazio kualitatiboa: eskolako komunitate osoarengana irits daiteke eta parte hartzeko motibatua ahal zaie?

Emaitzak

Inkestaren emaitzek erakutsi zuten programaren eredia unibertsala dela, eta bigarren hezkuntzako ikastetxeetan eta ikastaro politeknikoetan aplika daitekeela, batez ere 12 eta 16 urte arteko ikasleen artean, bai landa inguruko eremuetan, bai hirietan. Irakasleekin eta ikasleekin izandako esperientziek emaitza onak eman dituzte, epe luzean nahiz epe motzean.

Berrikuspenak, bestalde, erakutsi zuen programa mendetasunen prebentzioan sarrera gisa erabil daitekeela, irakasleek babestutako esparru batean metodoekin esperimintatu ahal dutelako (horretarako, proiektuaren hasieran prebentzio unitatean aditua den irakasle batekin saioetara joan behar dira).

Irakasleentzako prestakuntza iraunkorraren edukia definitua den arren, ereduak bidea ematen du saioak zuzendaritza taldearen, irakasleen eta ikasleen beharrianetara eta jakintzara

egokitzeko. Ebaluazioan parte hartu zuten proiektu koordinatzaileek azaldu zuten helburuak norbanakoaren ezagutzan eta irakasleen ahalmenetan oinarritzen zirela.

Horrenbestez, txostenaren zati garrantzitsu bat irakasleen babesari da, proiektuarekin jarraituz. Ebaluazio inkestaren erantzunetatik ondorioztatzen denez, eredu hau malgu da eta aplikatzen zaion edozein hezkuntza egiturari egokitu ahal zaio. Ebaluazioan parte hartu zuten pertsonen arabera, eredia eraginkorragoa izan ahal da eskola sisteman dauden eta droga mendetasunen prebentziorako jardueretan aritzen diren talde gehiagok parte hartzen badute. Ereduaren kalitate estandar bat da sistemako ahalik eta talde gehienek parte hartzea.

Irakasleek, ikasleek eta gurasoek kasu guztietan parte hartzen dute. Baina batzuetan, aipatutakoez gain, eskolako medikuek eta zuzendariak parte hartzen dute, interesik baldin badute. Eskolako ikuskatzaileek ere ekarpen garrantzitsua egin dezakete, prebentzio proiektuen helburu eta abantailei buruzko informazioa jasotzen badute eta informazioa partekatzen badute.

BELGIKA

PARTYWISE SUMMERVIBES

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

Partywise prebentzio proiektu bat da. Flandestarren gaueko giroan alkoholaren eta beste droga batzuen kontsumoa ditu jomuga. Proiektu hau 2003. urteaz geroztik dago martxan.

Partywise-k aztertzen dituen puntuetakoa bat jaiak dira, batez ere oporretan egiten direnak. Jai horiek gero eta handiagoak dira. Zenbait azterlanek erakutsi dute jende askok oporraldia eguneroko bizitzaren etenditzat duela. Oporretan daudenean, zenbait eginbehar eta erantzukizunetatik aske geratzen dira. Joera hori droga kontsumoan ere atzeman dezakegu. Alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumoaren maiztasuna eta kopurua handiagoa da oporretan.

Erantzukizuna ahazteko jokabide arriskutsu honez gain, beste faktore garrantzitsu batzuk daude: giro ezezagun bat, hizkuntza eta kultura berriak, jende berria ezagutzea, klima ezberdina, eta abar.

Flandesko kostaldea batez ere oporretarako gunea da. Turista gazteak etxean bezala sentitzen dira hemen. Hori kontuan izanik, Partywise-k "Partywise Summervibes" prebentzio programa atera zuen, Mendebaldeko Flandes eskualdeko Gobernu Kontseiluaren, adimen osasuneko eskualdeko zentroko prebentzioko langileen eta kostaldeko bederatziko udalerriren laguntzarekin.

Oinarrizko teoriak

Prebentziorako ekimen hau prebentzio unibertsalaren kontzeptuan kokatzen da. Partywise-k, prebentzioak gazteei transmititu nahi diena azaltzeko, gaueko bizitzako profesionalak erabiltzen ditu. Zenbait helburu ezarri ditu, epe motz, ertain eta luzerako.

Horrez gain, prebentzio kanpaina batek arrakasta izateko aukera gehiago dauzka baldin eta pertsona klabeek parte hartzen badute. Kasu honetan merkatariak, jai eta ekitaldien antolatuak eta abar izan daitezke pertsona klabeak.

Ikerketek erakusten dutenaren arabera, gai batzuetarako (sexu harremanak, droga kontsumoa eta abar) gazteek beren kideen taldera jotzen dute aholku eta orientazio bila. Oinarri horrekin, helburua da gazteak beren osasunaz jabetu daitezela eta beren osasunaren erantzukizuna bereganatu dezatela, turistaren filosofiara estrapolatuz. Gazteek gidatu behar dute beren bizitza, arrisku jokabideak saihestuz.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionala

Kostaldeko udalerrriak Partywise proiektuan parte hartzeko motibatzea. Modu estrukturalan eta sentsibilizatzen eta informatzen lan egitea, bai herri horietako gazteei bai turista diren gazteei.

Prozesuaren adierazlea

- Partywise Summervibes-en prestakuntzan, gauzatzean eta ebaluazioan modu aktiboan parte hartu zuten udalerrri kopurua.
- Gaueko bizitzan drogei buruzko politika bat eta alkoholari buruzko lege bat egiteko ekimena gauzatu zuten udalerrrien kopurua.
- Gazteen eragileentzat antolatutako saio kopurua.
- Elur-bolaren metodo hau hedatu zuten udalerrrien kopurua.
- Entrenamendua jaso zuten eta programan lan egiten zuten gazteen kopurua.
- Programa heldu zitzaien gazteen kopurua.
- Inprimatutako eta banatutako flyer kopurua.

Emaitzak

Partywise Summervibes-ek kostaldeko bederatzi udalerriren (hau da, ia kosta osoaren) laguntza jasotzen du. Udalerrri hauek parte hartu zuten: Panne, Koksijde, Nieuwpoort, Midde-

Ikerke, Oostende, Haan, Blankenberge. Knokke-Heist-en, Partywise Sommervibes 'Errespetua' kanpainaren barruan sartu zen.

Hasiera batean, aurrekontua oso txikia zen. Baina urtez urte diru gehiago erabili da. Bederatzi udalerrri horien parte hartzeaz gain, ondoko hauek egin ziren: zazpi prestakuntza-batzar egin ziren; flyer bakoitzean adierazi zen drogei buruzko informazio gehiago eska zitekeela (www.partywise.be webgunearen bidez) eta udalerrriak egutegi bat banatu zen. Informazio gehiago eskatu zutenei opari bana eman zitzairen, inguruko ostalariekin elkarrizketak izan ziren programa babestu zezatela eskatzeko, entrenatzaile batek hasierako taldeak prestatu zituen, prestatutako hamaika gazte daude elur-bolari hasiera emateko, gutxi gorabehera. 2005eko datuen arabera, programaren mezua 1.000 gazterengana iritsi zen, 130.000 flyer inprimatu ziren, flyerrak banatzeko 259 gune egon ziren, eta bi hilabetetan 5.613 pertsona sartu ziren webgunean.

DROGA POLITIKA ESKOLAN

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

Laurogeita hamarreko hamarkadaren hasieran, bigarren hezkuntzako eskoletako ikasleen artean, legez kanpoko drogen kontsumoak gora egin zuen. Eskolak ez zeuden prestatuta arazo honi aurre egiteko.

Ez zegoen informazio egokirik, eta komunikabideek ematen zituzten albisteak sarritan sentzazionalistak izaten ziren, drogen mendeko gazteriari buruzkoak. Horrela, izua zabaldu zen gai honen inguruan. Horregatik, arazo honi aurre egiteko modu eraikitzaileagoa eta hezitzaileagoa bilatu zen.

1992. urteaz geroztik, bigarren hezkuntzako eskoletan drogei buruzko politika bat garatu beharra zegoela agerian geratu zen Flandesen. Orduz geroztik, gai honetan lanean aritu dira. Eremu honetan proiektu berri bat agertu zen, 1999ko urtarrilean hasi zena: "Ikasleen galdera eskolako droga politika baten testuinguruan". Proiektu honen helburu nagusia zen eskolak droga politika bat garatzeko (edo, jadanik droga politika bat izanez gero, hobetzeko) motibatzea, ikasleak prozesuan sartuz.

Oinarrizko teoriak

Prebentzio estrategien nahasketa bat omen da modurik eraginkorrena edozein programatarako. Eskola askotan, gai hauek lantzeko erantzukizuna kanpoko erakundeen esku uzten da: gizarte langileak, polizia eta abar. Programa honen bidez, eskolako lantaldeak bere mugak zeintzuk diren eta zein eremutan sar daitekeen jakitea lortu nahi da, horrela lantaldeak bere erantzukizuna onartu ahal izateko. Oso eremu garrantzitsua, baina garrantzi gutxi eman ohi zaiona, gizarte gaitasunena da; funtsezkoa da ikastetxetik bertatik lantzea.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

Eskolak, batetik, arauak sortzen ditu substantzia guztientzat. Arau horiek ikasle, egoera eta toki guztietan aplikatu behar dira, eskolaren barruan betiere. Bestalde, prozedura egokiak sortzen ditu arauak hausten direnerako.

Prozedura eta arau hauek drogen politika honetan zerikusia duten alderdi guztietatik pasatzen dira. Eskolak agertoki bat sortzen du, drogen kontsumoko arriskua, balizko kontsumoa eta kontsumoa dauden egoeretan bete behar diren zeregin argi batzuekin.

Eskolaren barruko droga politika batekin, politika horretatik eratortzen diren arau guztiak barneratzea nahi da, ikasleek drogei buruz duten pertzepzioan eta drogekin duten portae-ran aldaketa bat eragiteko.

Prozesuaren adierazleak

Parte hartzen zuten pertsoneri (eskola barrukoei nahiz kanpokoei) jokatzten duten paperaz galdetu zitzairen. Arauak hausten direnean nola jokatzten duten azaltzeko eta mugak definitzeko eskatu zitzairen, araei buruz zer iritzi zuten galdetu zitzairen eta arauak bete ezean zein neurri hartu behar ziren galdetu zitzairen.

Bestetik, ikasleei programa honetan nolako abantaila eta desabantailak ikusten zituzten galdetu zitzairen.

Urte bakoitzean egindako inkestak erkatu ziren. Emaitza izan zen ikasleek drogei buruz zuten pertzepzioan eta drogekin zuten jokabidean aldaketa bat gertatu zela.

Emaitzak

Arauak: eskola guztietan arauak daude alkoholaren eta legez kanpoko drogen kontsumoari buruz. Eskola bakar batean zegoen idatzita legezko drogak kontsumitzeko debekua. Halere, eskola batek ere ez zuen aurkeztu ikastetxetik hurbil drogen (legezko nahiz legez kanpoko drogen) kontsumoa debekatzen zuen araudirik. Eskola baten araudian azaltzen da txangoe-tan (egun batekoak edo gehiagokoak) eta eskolaz kanpoko jardueretan drogak, legezkoak edo ez, kontsumitzea debekatuta dagoela.

Eskola bakar batean azaltzen da araudian ze ondorio dakarren talde bat drogak kontsumitzen harrapatzeak, bai lehen aldia bada, bai gehiagotan gertatu bada.

Narkotrafikoa: ikasle bat droga saltzen atzemanaz gero, eskolatik bidaltzen da eta polizia eta gurasoei esaten zaie. Zazpi eskoletatik hirutan, jarraitu beharreko prozesua zehatz-mehatz azaltzen da.

Prebentzioa: Eskola bakar batean ezarri zen droga mendetasunak prebenitzeko zeharkako programa bat.

FRANTZIA

KERIK GABEKO INSTITUTUAK

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

1976. urtean, Frantziako legeriak erretzea debekatu zuen eskolako esparru osoan. Printzipio hori 1991ko urtarrilaren 10eko legean (Evin Legea) gogora ekarri zen. Evin Legean azaltzen da erretzen ez duten pertsonak babestu behar direla eta, horrenbestez, leku publikoetan ezin dela erre. Eskoletan, Evin Legeak erretzea debekatzen du, salbu eta horretarako diren guneetan (betiere, 16 urtetik gorako pertsonentzat). Hamar urte beranduago, 2002an, Evin Legea nola betetzen zen aztertu zen Frantzia osoan. Lehen eta bigarren hezkuntzako 600 ikastetxe aztertu ziren.

Ikerketa horren arabera, lehen hezkuntzako ikastetxeetan erretzeari buruzko debekuak, oro har, errespetatzen dira. Baina bigarren hezkuntzako eskolen %40an eta institutuen %66an langileek lege hori urratzen dute.

Gainera, ikasleek institutuen %85ean erretzen dute, nahiz eta institutu horien %40ak soilik baimentzen duen patioan erretzea.

2003an, tabakoaren mendetasunaren aurkako borroka Hezkuntza Ministerioaren eta Osasun Ministerioaren bost helburu nagusien artean sartu zen.

“Kerik gabeko institutuak” proiektua 2003ko irailean abiatu zen, 22 institutu boluntariotan. Gobernuak 2003-2008 denboraldian eskoletan tabakoaren aurka borrokatzeko aurreikusi zituen ekintza nagusietako bat izan zen. Proiektu honen bidez, aukeratutako ikastetxeak bost urteko epean kerik gabeko gune bihurtu nahi ziren. Oso anbizio handiko operazioa zen. Izan ere, eskolako komunitate guztia (gazteak eta helduak) inplikatu behar dira eta, gainera, eskoletan tabakoa debekatzea indarrean dauden lege-aurreikuspenak baino haratago doa.

Hain zuzen ere, indarrean dagoen legeak, erretzen ez duten pertsonak babesteko asmoarekin, 1991. urteaz geroztik leku publikoetan erretzea debekatu zuen arau orokor gisa, baina ez du agintzen debekua erabatekoa izan dadila, toki publikotan erretzaileentzako guneak prestatu ahal direlako.

Horregatik, erretzen duten langileentzat eta ikasleentzat (16 urtetik gorakoak) eremuak finkatu ahal dituzte zuzendariak, betiere gune horiek arau teknikoak betetzen badituzte eta pertsona erretzaileak eta ez erretzaileak banatzen badituzte.

Oinarrizko teoriak

Eskoletan espero da langileek eta ikasleek tabako kontsumoa asko murriztu dezatela. Oso helburu handia da, eta lortzeko ikastetxeetako arauak indartu beharko lirateke.

Hezkuntza komunitateko kideak gai izan behar dira erretzeko irrikari aurre egiteko. Horrek dakarren tentsioari eta bizi duten gizarte presioari aurre egiteko, beren gaitasuna eta baliabide pertsonalak eta kanpoko baliabideak erabili behar dituzte.

Gaitasun horiek are garrantzitsuagoak dira tabakoaren kontsumoa murrizteko oro har, eskolako agintariek ezin dutelako ezer ere egin ikastetxeko ikasleek eskola eguna amaitu ondoren tabakoa kontsumitzen baldin badute.

Beraz, ikastetxean tabakoaren kontsumoa murrizteak ez du benetako eraginik izango ikas-torduetatik kanpoko tabako kontsumoa ez bada murrizten edo, gutxienez, ez bada mantentzen.

Lehenik eta behin, programan parte hartzen duten institutuetan tabakoaren kontsumoan ezartzen diren murrizpenak bete ahal izateko, aldez aurretik informazio aktiboa eta esplizitua behar da murrizpen horien izaerari buruz. Zehazki, iragarki oholak erabili behar dira eskola barruan erretzeko debeku orokorra gogoratzeko, eta adierazi behar da zein gunetan erre daitekeen (horrelako gunerik baldin badago) eta gune horiek 16 urtetik gorakoek soilik erabil ditzaketela (Frantziako legeen arabera).

Bigarrenik, erretzaileentzako gunerik badago, aireztapenaren eta kokapen finkoaren arauak bete behar dituzte, legearen arabera (1992ko maiatzaren 30eko dekretuaren 1, 8 eta 9. artikulua).

Hirugarrenik, eskolako langileak, debekuak errespetatuz, eredugarri izatea ezinbestekoa da ikasleen artean programaren zilegitasuna eta sinesgarritasuna bermatzeko.

Tabakoa uzten laguntzea, aholkularitzaren eta orientazioaren bidez, komenigarria da, gaitasuna duten kanpoko zerbitzuetan. Lantsaioan erre ezin duten erretzaileen ahalegin pertsonala ere kontuan izan behar da.

Tabakoaren gehiegizko kontsumoaren pertzepzio pertsonala ohitura hau bertan behera uzteko estimulua da. Horregatik, ikastetxeetako 22 erizainei prestakuntza eman zieten, tabakoaren autokontsumoko ebaluazioak emateko eta tabakoa uzteko aholkuak emateko gai izan zitezen.

Institutu guztietan karbono dioxidoa neurtzeko gailua jarri zen. Gainera, informazio materiala eta nikotinarene ordezkoak jarri ziren, tabakoa uzteko laguntza profesionalera jo aurretik horrela saiatzeko.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

- Ikastetxeetan dauden arauetarako dagokienez, tabakoaren aurkako legea ez dadila urratu lortzea.
- Tabakoa uzten laguntzea, orientazioaren eta bestelako zerbitzu profesionalen bidez.

Prozesuaren adierazleak

Ikastetxeko ikasleek eta langileek ikastetxeko tabakoaren aurkako araudia urratzen dutenean erne egon behar dira ebaluatzaileak.

Emaitzak aztertzerakoan, kontuan izango dira urratzaileen benetako kontrolaren bideragarritasunari buruzko iritziak eta tabakoaren kontsumoaren legeak ezartzen dituen murrizpenak betetzearen bideragarritasunari (hau da, eskola inguruneari esleitutako legezko xedapenak aplikatu ahal diren edo ez) buruzko iritziak.

Tabakoaren aurkako neurriaren aldeko adierazleak atzeratuko dira, eta tabakoa uzteko fase-rako adierazle gehiagorekin osatuko dira.

Helburu zehatzak eta emaitzen adierazleak

- Helburua: eskolako komunitateko kideen artean (langileak eta ikasleak) eskolako eremuan ez erretzeko edo tabakoaren kontsumoa behin betiko uzteko gaitasun pertsonalak garatzea.
- Adierazlea: ikasleek eta langileek tabakoa erretzen jarraitzea, eta kontsumoaren testuinguruak; jarrerak (tabakismo pasiboaren inguruan arduratsu jokatzeko, erretze-ari uzteko laguntza eskatzeko prest egotea, ...). Prozesuko adierazleekin (adibidez, ekintzekin lortu den prebentzio mota) kontrastatu behar dira, gertaerak gaitasun pertsonalak irakatsi zaizkion pertsona taldearen garapenaren bultzada batekin zerikusia duten edo ez jakiteko.

Emaitzak

2003-2004 ikasturtean izandako emaitzek adierazi zuten 22 institutuetatik gehienek neurriak hartu zituztela tabakoaren kontsumoa murrizteko araudiak indartzeko edo argitzeko 2003-2004 ikasturtetik aurrera. Horrenbestez, 2004ko irailetik 2005eko ekainera martxan jarri ziren ekintzarik gehienek tabako kontsumoaren barne araudiaren eta legeriaren berrikuspenarekin eta informazioarekin zerikusia izan zuten.

2004-2005 ikasturtean, ikasleek eskolaren aurrean ez erretzea lortu zen, eta egiten ziren urraketen kontrola sortu zen (instituten %63a). Zortzi ikastetxeetan (laginaren %36an bezar), erretzen ez dutenen guneak eta jarraibideak hobetu behar ziren. Azkenik, hamaika institutuk espero dute bere langileek eta ikasleek programa batean parte hartzea, zeinaren bidez institutu horiek tabakoaren arazoaren aurkako borrokan adibide izango diren.

PREBENTZIOA NORBERAREN NEURRIAN EGINA: Arrisku murrizpeneko prebentzio interaktiboko programa

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

1993an, doktore batek, larrialdietako zaintzetan eta aholkularitzan zuen esperientzian oinarrituta, sexu osasunaren eta HIESaren arriskuei prebentzio primario eta sekundarioko proiektua sortzea erabaki zuen. 1997an, aurrekari horiekin, doktore horrek erabaki zuen proposamen hori bera erabiltzea arrisku murrizpeneko programa bat egiteko (osasunaren sustapena).

Oinarrizko teoriak

Gazteek, bizitzan zehar, arrisku eta babes faktoreak bereganatzen dituzte, jaiotzean dituztenez gain.

Programa honek software bat du euskarri. Bertan, gazteen egoera ezberdinak erakusten dira, elkarrekin egon daitezen eta beren arrisku eta babes faktoreak ebalua ditzaten. Programaren onarpena bermatuta dago, programa informatikoak anonimotasuna eta isilekotasuna eskaintzen baititu. Programa honek gazteen eta aurkezten zaizkien balizko gatazken artean bitartekari natural gisa jokatzen du.

Gazte talde bat da tresnaren (softwarearen) eta programaren erabiltzaileen arteko lotura bakarra. Talde honek aplikazioa erabiltzean sortzen diren zalantzak argitzen ditu.

Erabiltzaileek aditu gisa jarduten dute, berehalako saria jasoz (prebentzio agente izatea alegia).

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

- Erabiltzaileak osasun eta gizarte sarean sarraraztea, dauden egituren berri emanez eta, zeharka, zerbitzu egokietara bideratuz.

Helburu zehatzak eta emaitzen adierazleak

- 1. helburua: Osasunaren eta gizarte arriskuaren eskala bat erabiliz, gazte bakoitza bere egoera pertsonalaz jabe dadila lortzea. Emaitza ikusita, "prebentzio dosi" bat ematea.
- 1. adierazlea: Adierazleak kualitatiboak dira. Garrantzitsuenak hauek dira: arrisku portaerak aldatzeko borondatea, informazio pertsonalizatua nahi izatea eta ikerketa garatzeko prozesu batean parte hartzeko interesa.
- 2. helburua: Programan izena eman duten gazteen artean norberaren autonomia eta beste estrategia pertsonal batzuk indartzea.
- 2. adierazlea: Norberaren arrisku pertsonalak identifikatzea.

Emaitzak

Emakumezko erabiltzaileen %50ak eta gizonezko erabiltzaileen %40ak adierazi zuten arriskuen berri eman zitzaiela; ordura arte, arrisku horietako batzuk ez zituzten arriskutzat jotzen. Halere, ezin izan zen epe luzeko jarraipena egin. Beraz, inpaktuaren ebaluazioa apur bat zaila izan zen.

GREZIA

IRUDIMEN, EZAGUTZA ETA BIZITZEKO BORONDATE ONEKO IPARRORRATZ BATEKIN: Gazteentzako prebentzioko programa unibertsala

Testuingurua eta teoriak*Hasierako egoera*

Programa hau praktikan jarri aurretik, gazte talde batek soilik jarraitu zuen programa hau Sikees eskualdean, udalaren gizarte politikaren esparruaren barruan. Talde honen helburu nagusia droga mendetasunen prebentzioko esku hartzeak garatzea zen. Talde horrez gain ez zegoen bestelako gazte agentzia boluntariorik prebentzioan (eta osasuna sustatzeko beste gai batzuetan) lanean. Gainera, ikerlanek erakutsi zuten Sikees eskualdean droga kontsumoaren portzentajeak handiagoak zirela Thessaloniki eskualdeko beste lekuetan baino.

Nazioarteko prebentzioaren jardunean oinarrituta eta PYXIDAK gazteentzako prebentzioko esku hartzeak egiten (adibidez, eskoletarako programak sortzen) zeukan lau urteko esperientzian oinarrituta, iradoki zen gazteei laguntzeko sistemak (adibidez, familia, eskolako komunitatea, bizi diren herria, eta abar) indartzeaz gain beharrezkoa zela adingabekoen eta gazteen programetan kideen taldeen arteko babesa sartzeari, kideen taldeek eragin handiagoa baitute haien bizitzetan.

Institutuetako ikasleei egindako inkesta batek ere beharizan hori azaleratu zuen. Ondorioztatu zen gazteek kideen talde batean egoteko beharra sentitzen dutela, eta talde horren barruan segurtasuna eta onarpena sentitu behar dituztela. Gazteen ezaugarriek (adibidez, erabakiak hartzea, aldaketa psikosozialak eta bizitzako rol berriak), kudeatzen diren moduen arabera, drogen erabilera ekar dezakete (University Mental Health Research Institute, 1998).

Oinarrizko teoriak

Eredu kognitiboaren arabera eta gizarte gaitasunen eta gaitasun pertsonalen metodo esperimentalen arabera, gazteak drogen kontsumoan beren prebentzioaren protagonista dira, beren ekintzen bidez.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

- Gazteek droga mendetasunaren prebentzioan duten papera aitortzea.
- Programan parte hartzen duten gazteak eta etorkizunean parte har dezaketenak motibatzea, droga kontsumoaren alternatiba sortzaileak garatzeko.
- Beren kide taldearekin interakzio positiboa izan dezaten motibatzea.

Prozesuaren adierazleak

Parte hartze boluntarioaren maila eta intenzionalitatea gazte taldeetan. Boluntario kopurua, gazte taldeen kopurua, eta egiten dituzten jardueren kopurua eta askotarikotasuna.

Helburu zehatzak eta emaitzen adierazleak

- 1. helburua: Pertsona batek drogak zergatik kontsumitzen dituen ulertzea eta kontsumo horren ondorioak ulertzea, informazioa bilduz.
- 1. adierazlea: Gazte jendearen drogen erabilerari buruzko ikuspegia. Drogak kontsumitzeko arrazoien ulermen maila.
- 2. helburua: Gazteen artean gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea (bereziki talde presiora enfokatuta), substantzien erabilerari dagozkion arrisku faktoreak ezabatuz.
- 2. adierazlea: Gaitasun pertsonal eta sozialen garapen maila.

Emaitzak

Jarduera alternatiboen garapenari dagokionez, gazteek beren adineko pertsonentzako prebentzioko esku hartzeak planeatzen, antolatzen eta praktikan jartzen ikasi zuten, osasunaren sustapenaren eta prebentzioaren printzipioen arabera. 2002ko martxora arte, jarduera eta gertakari hauek izan ziren:

- Prebentzio printzipioetan oinarritutako joko bat, "Prebentzioaren bila" izenekoa. Fazeta askotako joko bat zen. Bigarren hezkuntzako ikasleek jokatu zuten, eta irudimena, sormena eta lankidetzarako gaitasuna erabili behar izan zituzten.
- Bi batzar gazteentzat. Haietan, langabezia, ingurumena, osasuna eta drogak aztertu ziren, besteak beste. Batzar hauen ondorioak tokiko eragileei aurkeztu zitzaizkien.
 - Drogaren aurkako Munduko Egunean pelikula baten emanaldia.
 - HIESaren aurkako Munduko Egunean, institutueta liburuxken eta kondoi bataketa.
 - Perkusio-tresnen gazte talde bat.

- Sentsibilizazioko esku hartze bat, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleentzako bi tailerrekin. Gainera, gazteen beste boluntario talde bat, "PIRINAS" izenekoa, sortu zen, osasuna sustatzeko eta prebentzioa egiteko helburuarekin. Talde honetako gazteek, entrenamendua jaso ondoren, jarduerak antolatu zituzten, beren kideak, batez ere lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleak, motibatzen helburuarekin. Gainera, merezi du esateak entrenatutako gazte batzuk kultur, kirol eta gizarte elkarteetako kide ere direla, eta komunitatean prebentzio printzipioak sustatzen laguntzen dutela.

OSASUNA SUSTATZEKO PROGRAMA, BIGARREN HEZKUNTZAKO IKASLEEN ARTEAN SUBSTANTZIA PSIKOAKTIBOEN (ALKOHOLA, TABAKOA, DROGAK) KONTSUMOAREN PREBENTZIOARI DAGOKIONA

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

Ikerketa epidemiologikoaren datuen arabera, azken urteetan, Grezian substantzia psikoaktiboek erabilerak gora egin zuen. 1998an eskolen azterketa bat egin zen, eskala nazionalan, 13 eta 18 urte arteko gazteekin, UMHRI-k (University Mental Health Research Institute) gidatua. Horren arabera, substantzien erabilera nesken artean %4,2 zen 1984. urtean, eta 1998an %9,9ra igo zen; mutilen artean, %7,8tik %17,9ra igo zen. Gainera, atzeman zen ikaslerik zaharrenean (17-18 urte) kannabisaren kontsumoak gora egin zuela: mutilen artean %27,7 eta nesken artean %15,5. Horrenbestez, goi mailako institutuak ikasleen artean prebentzioko esku hartzeak burutu beharra aurreikusi zen.

Oinarrizko teoriak

Autoestimua txikiak drogen erabilera ekar dezake, gutxiagotasun sentimenduei aurre egiteko, eta bizitzako erantzukizunetatik zeharka babesteko bitarteko gisa. Drogak kontsumitzen dituen pertsona batek ihes egin dezake, antsietatea gutxiagotu, edo sentimendu oso negatibo eta desatseginak baretu.

Nerabezaroaren hasieran, kideen taldeek gero eta leku garrantzitsuagoa hartzen dute gizartetzeko prozesuan, familia gainditzera ino.

Horregatik, ikertzaile mordo batek nabarmentzen du kideen eragina oso esanguratsua dela nerabezaroan substantzia psikoaktiboak kontsumitzeko orduan. Horren arrazoia izan daiteke kideen taldearen azpikulturaren onartua izateko legez kanpoko substantziak erabili behar direla. Horrela, kideen taldeak legez kanpoko substantziak erabiltzea edo delituzko jokabidea izatea exijitzen du edo, gutxienez, onartzen du.

Substantzia batzuk kaltegabeak direlako mitoak, drogei buruzko informazio desitxuratua eta nerabeek gaur egun jasotzen dituzten mezu kontraesankorrek haien jakin-mina areagotzen dute eta substantziekin esperimintatzeko joera indartzen dute. Horrenbestez, drogen kontsumoa ez gorestea, mitoak argitzea eta ikuspegi hori drogen azpikulturaren kokatzea lagungarria izan daiteke erabakiak modu kontzienteagoan hartzeko.

Helburuak eta adierazleak

Helburu zehatzak eta prozesuaren adierazleak

- 1. helburua: Ikasleen gaitasun pertsonalak garatzea (norbere burua ezagutzea eta autoestimua sustatzea, afektibotasuna eta antsietatea kontrolatzen ikastea).
- 1. adierazlea: Ikasleek egindako errefortzu positiboa eta lortutako ezagutza maila.
- 2. helburua: Ikasleen gaitasun interpertsonalak hobetzea, taldeko presioari aurre egiteko gaitasunak bereziki.
- 2. adierazlea: Talde presioarekin eta pertsonen arteko komunikazioarekin zerikusia duten gaitasunen hobekuntza maila.
- 3. helburua: Nerabeek substantzia psikoaktiboen kontsumoari buruz barneratu dituzten mitoak eta estereotipoak argitzea.
- 3. adierazlea: Substantzia psikoaktiboen kontsumoari buruzko jarrera erreal eta konzienteak eratzea.

Emaitzak

Ikasleek programaren amaieran banatu zitzaizen galdetegian, eman zituzten emaitzek erakusten dute inkestan parte hartzeak ondoko hauetan lagundu ziela: norbere burua hobeto ezagutzen (%93,4), norbere sentimenduak hobeto adierazten (%94,2), antsietateari hobeto aurre egiten (%93,4), eguneroko bizitzan agertzen diren arazoak konpontzen (%94,2), komunikazioko akatsak atzematen eta modu eraginkorragoan komunikatzen (%96,4), taldeko presioari aurre egiteko gaitasunak bereganatzen (%89,1), substantzia psikoaktiboekiko mendetasunarekin zerikusia duten gaiei buruz ondo informatzen (%92,7) eta substantzien erabilerari buruzko jarrera pertsonala sortzen (%93,4)¹⁴.

IRLANDA

WALKTALK: Substantzia psikoaktiboen erabilera okerraren prebentziorako programa, lehen hezkuntzako eskolako ikasleentzat

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

1995ean, Hezkuntza Sailak lehen hezkuntzako eskolentzat proiektu pilotu bat garatzeko plan bat asmatu zuen, substantzien erabilera okerrari zuzendua. Proiektua beste programa bat osatzeko sortu zen. Programa hori drogen erabilera okerrari buruzkoa zen, eta lehen

¹⁴ Erantzun askotako galdera bat da, horregatik portzentajeen batura ez da %100.

hezkuntza aurreko eskoletan martxan ipini zen aurretik. 1996ko udan, diseinua aztertu zen, eta lehen hezkuntzako maila guztietarako ikasgelako materialen zirriborroa egin zen. Material horiek Dublin, Cork eta Donegalgo lehen hezkuntzako eskoletan probatu ziren gerora (1996-1997).

Ebaluazioa egin zenean, parte hartu zuten irakasleen artean prestakuntza planarekin eta materialekin gogobetetasun maila handia zegoela ikusi zen. 1999. urteaz geroztik, programa lehen hezkuntzako eskola guztietarako ezarri zen. Substantzien erabilera okerra prebentzeko programa, gaur egun Walk Tall deritzona, orain heziketa sozialaren, pertsonalaren eta higienearren barruan (SPHE) sartzen da. Programa hori Irlandako lehen hezkuntzako eskola guztietan ezarri da.

Oinarrizko teoriak

Programa hau hiru elementutan oinarritzen da: gaitasunak, jarrerak eta ezagutza. Hurrei bizi diren ingurune aldagarriari egokitzeko gaitasunak garatzen irakatsi behar zaie. Giro interaktiboa sortu behar da, esplorazioaren bidezko ikaskuntza errazten duena, drogen erabilera okerra saihesteko kapaz izan daitezten.

Umeei ezagutza egokia ematea, substantzien abusuari buruzko errealitatea eta mitoak bereizteko gai izan daitezten.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionala

Drogen erabilera okerreren prebentzio programa bat, lehen hezkuntzari egokitua, diseinatzea, garatzea eta mantentzea.

Irakasleei prestakuntza egokia eskaintzea, programa egiteko gai izan daitezen.

Prozesuaren adierazlea

Irakasleen pertzepzioa programa lehen hezkuntzako curriculumean txertatzeari buruz.

Irakasleen pertzepzioa programa burutzeko eman zaion prestakuntzari buruz, programa burutzea edo ez gorabehera.

Programan parte hartzen duten ikasleak. Ikasleen pertzepzioa programari buruz. Ikasleen osasunerako hezkuntzan duen eragina.

Emaitzak

Ebaluazioa kanpoko ebaluatzaile batek (Mark Morganek) egin zuen. Bi ebaluazio egin ziren, bata 1998an eta bestea 2003an.

Morgan konturatu zen irakasle askoren iritzia programari buruz oso ona edo nahiko ona zela beste programa batzuekin batzeko, adibidez, "Heziketa soziala, pertsonala eta higie-

nea (SPHE); "Sexualitatearen eta Harremanen Programa (RSP)," eta "Egon zaitez seguru programa (SSP):"

Gainera, %96,7aren ustez programa curriculumeko beste arlo batzuekin batu daiteke, batez ere lengoaiaren garapenean. %99a eskoletan ezartzearen aldekoa da.

Irakasleen %43,5 oso pozik zegoen programa egiteko eman zitzaien eman zitzaien prestakuntzarekin, eta %47,6, pozik. Ebaluatzaileak adierazi zuen ikasturtean zehar programa ezarriko duten langileei ematen zaien prestakuntzaren arabera dela prebentzio programa baten arrakastaren zati handi bat.

Irakasleen herena ez zegoen ados drogek sortzen dituzten ondorioak puztearekin (ikasleen artean beldurra zabaltzeko) eta gaitasun sozialen aldekoa zen, gaitasun sozialak baitira baliabiderik egokienak kontsumoa saihesteko edo, kontsumoa egotekotan, kontsumo arduratsua lortzeko.

1998an egindako ebaluazioan, irakasleen %31,5ak adierazi zuen hilean gutxitan programa jarraitzen zuela, %27ak gutxitan, %18ak gutxienez hilean behin, %18ak azken urtean behin edo birritan, eta %5,6ak astean behin edo sarriago. Gaineratu zuten curriculumean ikasgai asko zeudela, eta horrek programa ezartzea eragozten duela.

ITALIA

ELEFANTE IKUSEZINA

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

9 Tokiko Osasun Agentzia (ASL 9) 1999an sortu zen. Hiri inguruan, landa inguruan eta mendialdean jarduten zuten: 108 udalerrri, guztia 188.000 biztanlerekin. Ikusi zuten gazte eta nerabe askok substantzia psikotropikoak kontsumitzen zituztela.

Gazteen kulturen alkohol gehiegi edatea oso hedatuta dago. Ardoa ekoizten duen eskualdea izaki, ardoa edatea ohikoa da, eta familiak edo gizarteak ez dute gaitzesten. Hirietan alkohol gehiegi edaten duten gazte taldeak daude, gizarteratze murriztuarekin, helduen mundura iristea ia ezinezkoa dutenak.

Orain 10 urte droga mendetasunak prebenitzeko proiektu bat hasi zen, Mendetasunen Zerbitzuaren eta erdi eta goi mailako irakaskuntzako eskolaren (Ubertini Nekazaritza eta Enologia Institutuaren) arteko lankidetzaren ondorioz. Hurrengo urteetan, lankidetzaren hau beste eskola, hezkuntza agentzia eta erakunde publiko batzuetara zabaldu zen.

Oinarritzko teoriak

Mendetasunen eremuko prebentzioko esku hartzeak, maila nazionalean eta nazioarteko mailan, arrisku faktoreak gutxitzea eta babes faktoreak indartzea garrantzitsua dela adierazten du.

Kontzeptu horiekin bat etorritz, proiektu hau gazteak modu aktiboan inplikatzeko modu bat da, komunikazio horizontala bultzatuz eta informazio argia eta zuzena zabalduz.

Proiektua Droga Mendetasunerako Zerbitzu Publikoak burutu duen jardunaren barruan dago, diagnostikoarekin, tratamenduarekin eta errehabilitazio esku hartzeekin batera.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

- Eskoletan eta lurralde errealtateetan banakako elkarrizketetarako espazioak sortzea. Elkarrizketen helburua gehiegizko portaeren prebentzioa eta diagnostiko goiztiarra dira.
- Bigarren eta goi mailako irakaskuntzako eskoletan proiektu egonkorra garatzea, alkoholaren abusuari eta psikotropikoen kontsumoari buruzko informazioa argitzea eta zuzentzea bermatzen duena.
- Lurraldeko hezkuntza agentzien eta zerbitzuen artean sarean lan egitea, droga mendetasunen fenomenoaren prebenitzeko.
- Banakako programetarako ereduak konpartitzea, eremu kritikoei eta esku hartzearen norabideari arreta emanez.

Prozesuaren adierazleak

- Diagnostiko goiztiarrak egitea, substantzia psikotropikoak kontsumitzen dituzten pertsonen elkarrizketak eginez eta orientazio edo aholkularitza bulegoen bidez.
- Arduradunekin (irakasleak, funtzionarioak eta abar) batzarrak antolatzea.
- Programaren diseinuan irakasleak motibatzea.
- Informazio materialak sortzea.
- Langileen eta droga kontsumitzen duten pertsonen artean kontaktua erraztea.
- Gazteekin eta nerabeekin testuinguru ezberdinetan lan egiten duten erakundeekin lankidetzaren sareak zabaltzea.

Emaitzaren adierazlea

Hasieran eta amaieran betetako bi galdetegiaren arteko konparazioa da. Drogen kontsumoaren kontzientziazioan %50eko hobekuntza eman behar du.

Emaitzak

Prebentzioko 480 esku hartze egin ziren ikasleekin; gazte talde egonkor bat sortu zen eta beren kideekin elur-boletan parte hartu zuten; institutuko ikasle talde batek sortutako materialak eta mezu zuzenak bigarren eskolara esportatu zituen; 20 irakaslek modu aktiboan parte hartu zuten jarduerak sortzen eta behin betiko txostena egiten parte hartu zuten.

Amaitzeko, jai bat ospatu zen ikasleekin, eta proiektuan ikasitako gaitasunak garatu zituzten bertan. Urteak joan urteak etorri, gero eta irakasle eta eskola gehiagok parte hartu dute proiektuan.

Prebentzioko esku hartzeak 550 gazte eta heldurengana iritsi ziren. Irakasleak ikasle problematikoekin (hau da, legezko edo legez kanpoko substantziak gehiegi erabiltzen dituzteneekin edo horretarako arriskua dutenekin) aritzeko prestatzeko helburuarekin, aholkularitzako eta orientazioko 8 esku hartze gauzatu ziren.

Programa zenbait udalerritara zabaldu da. 18 udalerritan egotetik gaur egun 22 udalerritan dago.

PORTUGAL

OLIVEIRA DO BAIRRO-KO DROGA MENDEKASUNEN PREBENTZIOKO UDAL PLANA

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

- Alkohol, droga eta tabako kontsumo altuaren arazoak daude. Arazo hauek egoera ahulean dauden pertsonengan dute eragina: Ekialdeko Europako etorkinak, pobrezian edota gizarte bazterketa arazoekin bizi diren pertsonak, familia disruptiboetatik datozen eta arazo emozionalak dituzten gazte eta nerabeak, besteak beste.
- Ume asko daude gizarte arriskuan eta eskolatzeko arazoekin, premiazko esku hartzea behar dutenak.
- Toki gutxi daude oporretan aisialdiko jarduerak egiteko.

Oinarrizko teoriak

Eredu erlazional dialogikoak esaten duenez, prebentzio lanaren oinarria helduak (prebentzioko agenteak) umearekin edo gaztearekin sortzen duen harremana da. Gaitasun sozial eta pertsonaletan oinarritzen den programa bat berez ez da nahikoa. Jarduerak edo jokoak zentzurik gabe egitea ere ez da nahikoa. Testuinguru erlazional honek zenbait funtzio bete ditzake, besteak beste, sentimenduen komunikazioa, gatazken adierazpena eta konponketa, errutina bat sortzea eta gauza berriak ikastea. Taldeko terapia saioek taldeko kide izatearen sentimendua ematen dute. Psikologoak esaten zaiona entzuten du, errepikatzen du, enfasiarekin erantzuten du, arazoak konponduko direlako esperantzari eutsiz.

Prebentzioa dagokion biztanleriaren ezaugarriari egokitu behar zaie. Kasu honetan, arrisku prebentzio espezifiko bat dago, umeei eta gazteei zuzendua.

Eskolan gaitasun sozial eta pertsonalak garatzeko programak. Eskolak isolamendua faktore psikologiko garrantzitsua dela konturatzeko dema onartu behar du: umeei espazioak emanez, elkarrizketa ikastea eta pertsonen arteko interakzioa bideratzen dituzten heziketako testuinguru berriak sortuz.

Esku hartze ekologikoa: esku hartze honetako subjektuak integratuta dauden testuinguruetan esku hartzen da. Familiaren babesa funtsezkoa da, eta gizarte aldaketei egokitzea ere bai.

Helburuak eta adierazleak

Helburu zehatzak eta emaitzen adierazleak

- 1. helburu zehatza: Arriskuan dauden umeen eta nerabeen gaitasun pertsonal eta sozialak garatzea (autoestimua, erabakiak hartzea, autonomia, arauak onartzea, pertsonen arteko komunikazioa eta erasokortasuna kontrolatzea), eta gaitasun horien garrantzia irakasleekin eta familiarekin sendotzea.
- Emaitzaren 1. adierazlea: Saio bakoitzeko ume kopurua, urte hasierako eskolako txosten psikologikoaren eta urte amaierakoaren arteko aldeak: autoestimua, erabakiak hartzea, autonomia, arauak onartzea, pertsonen arteko komunikazioa eta erasokortasunaren kontrola. Parte hartu duten guraso eta irakasle kopurua, eta haiekin egin diren batzarren ordu kopurua.
- 2. helburu zehatza: Lehen mailako irakaskuntzako umeen gaitasun sozialen eta pertsonalen garapena sustatzea; gaitasun sozialak eta pertsonalak garatzea, bigarren eta hirugarren mailetako nerabeei droga mendetasunari buruzko informazioa emanez; era berean, irakasleak babestea, beren ikasleen aldaketa prozesuan inplikatur. Silveiron bizi diren ume, nerabe eta gazteentzat aisialdiko jarduerak egiten laguntzea.
- Emaitzaren 2. adierazlea: Parte hartu duten ikasleen kopurua, ikasgela kopurua, ikasgela bakoitzeko saio kopurua, saio kopuru osoa, irakasleen pertzepzioa, irakasle kopurua, irakasleak ikasgela bakoitzeko ematen dituen saio kopurua, norbanako kontaktuen kopurua, batzarrak. Drogei buruz emandako informazioa. Gaitasun psikosozialen garapena: emozioen kontrola, zentzumenen garapena, autokontzeptua, lankidetzeta eta erabakiak hartzea.
- 3. helburu zehatza: Guraso-gaitasunak sustatzea eta esku hartzean parte hartzen duten umei eta gazteei buruzko informazioa ematea gurasoei.
- Emaitzaren 3. adierazlea: Guraso kopurua, talde bakoitzeko saio kopurua, gogobetetasun maila, eta ondoko gai hauei buruz emandako informazioa: osasunerako hezkuntza, seme-alaben garapen sozio-afektiboa, sexualitatea eta droga mendetasunen prebentzioa.

Emaitzak

40 ume eta gazteren, haien familien eta irakasleen parte hartzea. Ume eta gazteen %72ak hobekuntza izan zuen emozio eta ezagutza mailetako garapenean: autoestimua, erabakiak hartzea, autonomia, arauak onartzea, pertsonen arteko komunikazioa eta erasokortasunaren kontrola.

Ikasleek ulermena hobetu zuten eta irakasle eta ikasleen arteko harremana aldatu zen.

Familiek beren seme-alabak hobeto ulertzen hasi ziren; haiekin harreman asertiboagoa izateko estrategiak abiatu zituzten.

Lehen mailako 682 umeen gaitasun piskosozialak garatu ziren (emozioen kontrola, zentzumenen garapena, lankidetzeta, komunikazioa...) eta landutako gaien ezagutza handitu zen. Lehen mailako 39 irakaslek parte hartu zuten. Bigarren eta hirugarren mailetako 1.018 nerabe eta gaztek (%83ak) substantziei buruzko ezagutza areagotu zuten; 2. eta 3. mailetako 69 irakaslek programan parte hartu zuten. 183 pertsonak antolatu ziren jarduera osasuntsuetan parte hartu zuten. Gainera, Silveiron 50 ume eta gazteren artean aldaketa positiboak atzean ziren autokontzeptuarekin, komunikazioarekin, lankidetzarekin, erabakiak hartzearekin eta ezberdintasun indibidualen pertzepzioarekin zerikusia duten gaitasunetan.

Lehen mailako irakaskuntzako umeen 54 gurasorekin lan eginez, gai hauei buruzko ezagutza areagotu zen: osasunerako heziketa, umeen garapen sozio-afektiboa, gurasoen jarrerak, sexualitatea eta droga mendetasunen prebentzioa.

ERRESUMA BATUA

TOUCH PROJECT (UKITZE PROIEKTUA): Kideen taldeak, kalteak murrizteko proiektu bat egiten

Testuingurua eta teoriak

Hasierako egoera

Ukitze proiektua abiatzeko arrazoi nagusia izan zen gazteen artean kalteak murrizteari buruzko mezua zabaltzeko orduan kideen arteko heziketa tresna baliotsua izan daitekeela ulertu zela, kideen arteko heziketa eta beraren eraginkortasuna eztabaidagai diren arren. Bigarren arrazoa zen ulertu zela gazteek droga olgetarako erabiltzen dutela eta tabernetako giroa drogak kontsumitzeko aproposa dela. Hirugarrenik, ikasleei informazioa eman behar zaiela, baloraziorik egin gabe, haiek izan daitezen azken erabakia hartzen dutenak.

Oinarrizko teoriak

Landu nahi den populazio taldeko boluntarioak erabiltzea. Gazteekin komunikatzeko modurik onena beste gazte batzuen artean delako sinesmena, gazteek gazteengandik jasotzen duten mezua sinesgarritzat eta egiazkotzat jotzen baitute.

Kalteak murrizteko konpromisoa: gazteek drogak olgetarako erabiltzen dutela onartu beharra dago. Proiektuak ez du droga kontsumoa onesten, baina fenomeno honetaz jardutean ez du epaitzen. Programaren ezaugarri batzuk gazteenentzat egokitu ahal dira zentro instituzionaletan; izan ere, ematen den informazioa eta erabakiak hartzeko norberaren autonomia errespetatzen dira. Programak egokitzapen batzuk egin behar ditu, adingabeen beharrezan bereziak kontuan izateko.

Helburuak eta adierazleak

Helburu operazionalak

Urtero gutxienez 30 boluntario erakartzea eta prestatzea Preston Campusean, eta beste 15 Cumbria Campusean. Normalean 100 boluntario inguru izaten dira.

Boluntarioek beren baliabide eta material garrantzitsu eguneratuak diseinatzea eta idaztea.

Ikasleen Ekitaldien Batasunarekin eta "Feel Club Events" en %30arekin harremanetan jartzea, Prestonen gutxienez 400 kontaktu arratsaldero eta Cumbrian 50.

Prozesuaren adierazleak

- Proiektuarekin bat egiteko prest dauden ikasleen kopurua adierazle klabea da proiektuaren kontzientziazioan eta proiektuak daukan paperean. Boluntario taldea prestatzeko programa taldeak berak eta prestakuntza ematen duten pertsonak ebaluatzen dute. Urtero egokitzen da.
- Antolatutako ekitaldietara joan ziren ikasleen kopurua.
- Helburu-taldeak proiektuaz duen pertzepzioa eta informazioari buruz egin duen go-goeta, galdetegiek neurtzen dutena.

Emaitzak

Urtero, boluntario taldean sartu nahi duten ikasle kopuruak proiektuaren arrakasta islatzen du. 2002an 200 ikaslek egin zuen eskaera, nahiz eta 30 plaza soilik zeuden. Prestakuntza etengabe egokitzen da, boluntarioak eta programa abian jartzea kontuan izanik.

Koordinatzaileak boluntarioekin batera lan egiten du eta boluntarioek klubetan aurkitzen dituen arazoak egokitzen ditu programan. 2002an galdetegi batzuk banatu zitzaizkien ikasleei, klubetan beren kideak aurkitzearen esperientzia azal zezaten. Erantzunak positiboak ziren. %97ak adierazi zuen boluntarioak jatorrak eta lagunartekoak zirela, eta ez zutela epaitzen. Boluntarioek banatutako materialari ikasleek ematen zioten erantzuna etengabe gainbegiratzen zen, bai formalki bai modu ez formalean. Proiektuak aurrera egin duenez, boluntario batzuek material berriak diseinatu dituzte ikasleen artean sortzen diren kezka arruntei buruz. Emandako informazioari buruz %26ak esan zuen ondo zegoela, %18ak esan zuen informatzeko balio zuela eta %13ak adierazi zuen ulertzeko erraza zela.

Eskoletarako proiektua etapa goiztiarrean eta ebaluatzeke dago.

8. ONDORIOAK

Drogen eta droga mendetasunen historia luzean, noski, oso egoera ezberdinak geratu dira, substantziak, drogak hartzeko bideak, kontsumoaren testuinguruak eta abar askotan aldatu direlako. Baina drogen tratamendu eta prebentziorako politikak diseinatzeko jarraibideek, une bakoitzeko planetan islatuak, hasieratik oso egokiak izan diren arren, aldaketa gutxi izan dituzte: estrategien, baliabideen, tresnen eta programen zehaztasuna eta xehetasuna,

prebentzioa zuzentzen zaien kolektiboak eta, noski, ebaluazioa proposamen hauen prozesu eta emaitzen eraginkortasuna balidatzeko erabili beharra.

Zentzu horretan, azken planek, eta zehazki bosgarrenak, adingabekoei eta haiekin egiten den prebentzioari aparteko lekua eskaintzen diete, jarduketa bereziak beren-beregi sortuz, beste kolektibo batzuekin egiten direnetatik ondo bereiztuak.

Bestetik, eskolan, familian eta komunitatean prebentzio unibertsalarekin zerikusia duten ekintzak, adingabekoekin lotura handiagoa izaten dutenak, sistematikoki ebaluatzen dira. Ebaluazioek erakusten dute, prozesuari dagokionez gutxienez, EAEn drogei buruz eta droga mendetasunei buruz egiten diren ekintza gehienak honelako prebentzio jarduketak izaten direla. Ez dira beti baliabide ekonomiko gehien jasotzen dituztenak, baina bai jarduketa ugariak sortzen dituztenak. Izaera unibertsaleko ekintzak orokorrenak dira. Populazio osoarentzat egiten dira (adingabeko guztientzat, gure kasuan), haien berezitasunak oso kontuan izan gabe.

Nabaria da, ebaluazioak dioskunez eta destinatarioek eta bitartekariak duten pertzepzioaren arabera, gaur egun egiten diren prebentzio unibertsaleko ekintzak nahikoak direla; batzuen ustez gehiegi omen dira. Aurreko dokumentua irakurri ondoren, hobekuntza prozesu honi jarraipena emateko egin behar diren eginkizunei buruzko hipotesia egin dugu. Horretarako, beharrezkoa litzateke:

- a) Egiten ari dena kontu handiz aztertzea.
- b) Haratago joatea beharrezkoak diren pertsona edo kolektibo zehatzek egiten dituzten eskaeretan, haiek ere adingabeak baitira. Izan ere, haien beharrezkoak ez dira asetzen prebentzio unibertsal orokorrak eskaintzen dituen erantzunekin.

Zehaztu ditzagun puntu hauek.

- a) Egiten ari dena analizatzeaz edo baloratzeaz hitz egiten dugunean, azaldu nahi dugu ebaluazio serio eta zorrotza egin behar dela orain arte izandako emaitzei buruz. Eta emaitzez hitz egiten dugunean, prebentzio lanen eraginkortasuna neurtzeaz ari gara, hau da, droga kontsumotik babesteko lana posible egiten duten programen eraginkortasuna neurtzeaz. Prozesuak, hau da, prebentzio ekintzak abian jartzea, erabat frogatuta dago. Baina benetan garrantzitsua dena hau da: zuzentzen zaien pertsonengan eragin positiboa al dute ekintza hauek?

Honezkeror, 80ko hamarkadan lehenbiziko plana abian jarri zenetik, egindako ibilbidea behar bezain luzea da estrategiei eta programari buruzko ondorioak atera ahal izateko, batez ere haietako batzuek hamar urtetik gora daramatelako ezarrita.

Ez dago ebaluazioak egiteko kultura handia: ebaluazioak egin beharrez orain dela gutxi jabetu gara. Aitzitik, ebaluazioa da emaitzen eraginkortasuna erakustea ahalbideratzen duen tresna bakarra. Programen eraginkortasuna, edo programak diseinatzerakoan zeuden helburuak benetan lortzen diren, maila politiko, ekonomiko, sozial eta profesionalean. Kontu horien berri ere eman behar da.

Ebaluazioak datu enpirikorik erabilgarrienak ekarriko lituzke jarraitu beharreko bidea zehazteko orduan. Hori onartuta ere, gizarte esku hartzeak historikoki ez du ebaluazioa erabili. Halere, bestelako adierazleak kontuan izan ditu, eta adierazle horiek egoki suertatu dira eremu honetan eboluzionatzeko. Adibidez, hor ditugu ikerketa kualitatiboak. Haietan, ukitutako pertsonen, gizarte eragileen, bitartekarien, profesionalen eta abarrekoen iritziak, pertzepzioak eta ikuspegiak bildu dira, aintzat hartu dira eta baloratu dira, oso modu fidagarrian, errealitatearen diagnostikoak egiteko, datozen joerak intuitzeko, beharrianak atzemateko eta abar.

Neurri batean, azaldu den lanak datu objektiboak eta egiaztagarriak eta diskurtso subjektiboak dauzka, adingabekoen, substantziekin duten harremanaren eta kolektibotik hurbilen dauden instantzia gizarteratzaileak ematen (alde batetik) eta erreklamatzeko (bestetik) ari diren erantzunaren ikuspegi zehatza emateko ahaleginean.

Horregatik, diseinatzen eta egiten diren ekintza guztietan ebaluazioa sistematizatu beharra gomendatzeaz gain, dokumentu honetatik ondoriozta daitezkeen joerak edota eskaerak zehaztera ausartuko ginateke. Esan dugunez, horiek ere adierazle fidagarriak dira.

b) Zer esan nahi dugu haratago joan behar dugula diogunean?

Prebentzio arloan izan diren aurrerapenetan, garrantzitsuenetako bat arrisku eta babes faktoreen teoria da. Hasteko, edozein esku hartzek eredu teoriko bat izan behar duelako oinarri, ekintza azaltzen duena eta zentzua ematen diona. Bigarrenik, eredu zehatz hau, oinarri zientifikoa duena eta gizarte arloko eragile eta ikertzaile askok onartua, ahultasunaren kontzeptuan murgiltzen da. Hau da, populazio jakin batean ezaugarri jakin batzuk dituzten edo, beraien inguruabarren ondorioz, droga kontsumoaren aurrean edo beste jokabide desegokitu batzuen aurrean desabantaila edota arrisku posizio batean dauden pertsonak, pertsona taldeak edo kolektiboak identifikatzea ahalbideratzen du. Teoria honek, beraz, prebentzioaren kontzeptuan nabardurak sortzea ahalbideratu du. Eta kontzepturik orokorrena edo unibertsalena erabiltzea egokitzat jotzen duen arren, adierazten du programa, ekintza eta tresna zehatzagoak sortu behar direla, beharrian bereziak dituzten talde eta kolektiboak egokituak. Horrela sortu da prebentzio selektiboa, indikatua eta zehaztua. Prebentzio mota horiek, ordena horretan, droga kontsumoarekin lotura estuagoa duten jokabideak identifikatzen dituzte.

Esan behar dugu kontsumoak daudenean ere (batzuetan, ohiko kontsumoak ere bai) prebentzioaz hitz egiten dugula eta ez laguntzaz, oraindik mendetasun eta abusu arazo bat ez daukaten adingabekoez ari garela. Kontsumo hau antzeko jokabide desbideratuei gaineratzen zaie edo sintoma bat da berez. Nolanahi ere, arrisku faktore askorekin eta ezberdinekin identifikazioarekin batera (izaera pertsonalekoak, familiakoak, testuinguruak, etab) gertatzen da. Haratago joan behar dugula diogunean, besteak beste, norabide bikoitzean jardun beharraz ari gara:

- kontsumoa hasi aurreko faseetan, drogen erabilera esperimentatzea eta drogak hartzen jarraitzea errazagoa egin lezaketen arrisku faktoreak identifikatzea, eta faktore horien efektua indargabetzea;

- hasierako faseetan (edo kontsumoak ohikoagoak direnean ere), kontsumo hau mantentzea mesedetzen duten eta pertsonak abusu arazo bat garatzera bultzatzen duten arrisku faktoreak identifikatzea eta indargabetzea, eta jokabide honekin zerikusia duten arriskuak murrizteko esku hartze bat egitea.

Urte hauetan guztietan, azaldu dugunez, prebentzio unibertsala izan da gehien landu den helburua. Gure asmoa ez da prebentzio “selektibo, indikatu eta zehaztuko” gainerako prebentzio moten antzeko garapena lortzea denbora askozaz ere laburragoan. Adingabekoen-gandik hurbilen dauden kolektibo profesionalen eskaerak kontuan izanik, helburu errealista bat prebentzio selektiboaren eremuan aurrera egitea litzateke. Helburu hori aukeratzeko irizpideetako bat da prebentzioa izaera orokorretik izaera zehatzagora aldatzen den heinean arreta eskatzen duten pertsonen kopurua murrizten dela. Prebentzio selektiboak destinatariorik gehien (eta beren eskaerak) hartuko lituzkeen prebentzio mota litzateke, prebentzio unibertsalaren atzetik.

Bere kalifikatiboak iradokitzen duenez, prebentzio mota hau ez da populazio guztiarentzat, baizik eta faktore ezberdinengatik egoera bereziki ahulean dauden pertsona taldeentzat. Horrenbestez, ez du prebentzio unibertsalaren eremu bera bereganatu behar, ezta pertsona kopuru berari arreta eman. Horrek ez du esan nahi haren garapenak eta EAEko lurralde osoan emateak garrantzi bera (edo handiagoa) ez duenik. Horrenbestez, gure ustez hurrengo erronka **prebentzio selektiboa garatzea** da.

Engainagarria litzateke iradokitzea ideia hau berritzailea dela, eta dokumentu honek edo ikerketa lantalde honek asmatu duela. Ezta gutxiago ere. Prebentzio selektiboak bere garapena izan du honezkero. Udaletako prebentzio komunitarioko lantaldeetako eta gizarte ekimeneko arloko teknikari eta aditu talde txiki batek bultzada bat eman dio dagoeneko, prebentzio unibertsalari baino beranduago izan bada ere. Eragile horiek dira, hain zuzen ere, errealtatearekin duten kontaktuan eta errealtateak sortzen dituen eskaeretan oinarrituta, prebentzio selektiboaren garapena eskatzen ari direnak.

Prebentzio zehatzago baten helburuei buruz eta dagokion kolektiboari buruz orain arte esan dugun guztia Droga Mendetasunen V. Planean helburu gisa ageri da, prebentzio selektiboaren helburu hau azaltzen duenean: “Kolektibo eta talde ahuletan arrisku faktoreak murriztea eta droga kontsumoen aurrean jokabide eta jarrera arduratsuak sustatzea, batez ere kontsumitzen hasteko adina atzeratzeko, adingabekoen kontsumoak murrizteko eta gazteen artean erabilera arazotsuak saihesteko.” Hori guztia, adingabekoek gehien bizitzen dituzten giro eta testuinguruak nabarmenduz: eskola, familia, komunitatea eta, haiek aukeratzten dituztenak: aisialdiko guneak, batez ere gazteek erabiltzen dituztenak.

Eremu hau aztertzeke orduan, zailtasun garrantzitsu bat da prebentzio selektiboaren eta prebentzio unibertsalaren arteko mugak ez direla beti garbiak, beharbada prebentzio unibertsala ez delako behar adina garatu. Baina eragozpen hori zuzendu egin da, honelako esku hartzeak hobeto definituz.

Prebentzio selektiboak eremu edo testuinguru asko eta ezberdinetan jardun behar du. Edonola ere, dokumentu honen zatirik teorikoena eta datuen bilketa kualitatiboa batuko baditu-

gu, hezkuntzaren testuinguruaren analisia (eta araututako eta arautu gabeko hezkuntzako irakasleen iritziak), familiaren testuinguruaren analisia (gurasoen eta guraso elkartearen iritzi eta usteekin) eta komunitatearen testuinguruaren analisia (kaleko edo zentro irekietako hezitzaileen diskurtsotik) ondo aztertu behar ditugu.

Eskola eremuan prebentzio selektiboak duen helburu operatiboa, aipatutako helburua helburu orokorra izanik, hauxe da: “Eskolari zenbait tresna pedagogiko eskaintzea, arrisku faktoreak gainditzeko erabilgarriak, droga kontsumoei eta beraiekin zerikusia duten egoerei aurre egiteko”.

Defizit nabarmenak dituzten ikasleei zuzenduta dago, drogen kontsumo arazotsuaren aurrean batez besteko ikasleak baino egoera ahulagoan jartzen dituzten defizitak. Bestalde, ezaugarri horiek dituzten ikasleak dituzten irakasleei ere zuzenduta daude programak, zeharka bada ere.

Bildu ditugun diskurtsoen haritik, ikastetxeetan egiteke dagoen lana handia da oraindik ere, baita prebentzio unibertsalari dagokionez ere. Ematen du ikasleentzat prebentzio hau ez dela eraginkorra eta errepikakorra iruditzen zaiela. Irakasleek (edo haietatik gehienek) esaten dute ez daudela behar bezala prestatuta programa ezartzeko, eta drogei buruzko prestakuntzarik ez daukatela. Irakasleek ez daukate motibaziorik honelako ekimenetan parte hartzeko. Jarrera horrek azalpen ugari ditu: lan gehiegi dute, hezkuntza administrazioak babesten ez dituela sentitzen dute, ikasleek ez dituzte irakasleak autoritatetzat hartzen eta familiak ez ditu bere eginkizunetako batzuk betetzen (irakasleen esanetan, familiek eskolaren eta irakasleen bizkar jartzen dituzte beren eginkizun batzuk). Prebentzioaren alderdi erraz eta orokorrean (unibertsala) gauzak horrela badaude, askozaz ere zailago ematen du ikasgelako edo ikastetxeko pertsona eta kolektibo ahulenen beharrianak atzematea eta haiei erantzutea. Lan horrek prestakuntza handiagoa, kasuak atzemateko jarrera aktiboa eta lankidetzak edota deribazio lana eskatzen ditu.

Noski, helburua edozein izanik ere, egin behar diren ekintzak ezin dira izan asmoen adierazpen hutsa, baizik eta zailtasunei eta eskaerei erantzunak emateko moduko ekintzak. Administrazioak babes nahikoa ematen ez duenez, V. planak proposatzen dituen ekintzen artean hauek daude: irakasleei laguntzeko ekimenak abiatzea, prestakuntzaren eta aholkularitzaren bidez; ikasgelan baliabide didaktikoak edota presentzialak sustatzea, eta ikasgelan jarduerak bultzatzen dituzten proiektuak eta jarduerak garatzea ikastetxean; irakasleek edo bestelako langile adituek garatzen dituzten jarduerak, egoera ahulean dauden ikasleei zuzenduak. Gainera, kasuak detektatzeko eta beste baliabide batzuetara bideratzeko ekimenak garatu behar dira.

Ikus daiteke prebentzio selektiboaren helburuek aparteko ahalegina eskatzen dietela irakasleei. Exijentzia maila handiagoa da eta konpromiso mailak ere handiagoa izan behar du. Izan ere, kolektibo honek, drogei buruzko oinarrizko gaietan prestakuntza jasotzeaz gain, balizko arrisku eta ahultasun egoerak diagnostikatzen ikasi behar du. Prestakuntza jaso ez ezik, kontsumo egoerekin edo bestelako sintomekin zuzeneko zerikusia duten gaiak lantzeko berariak prestatu diren material batzuk ezagutu eta aplikatu behar dituzte. Jarrera irekia izan behar dute, gainera, ikasgelan beste aditu batzuk egoteari dagokionez. Aditu horiekin

koordinatzea ezinbestekoa da, bideraketak egiteko, eta hezkuntza, famili, komunitate eta osasun testuinguruetan modu koordinatuan lan egiteko. Irakasleak prest al daude lan hau egiteko?

Batzuen testigantzek baietz erakusten digute. Irakasle batzuek, batez ere arautu gabeko hezkuntzan lan egiten dutenek, zalantza hau gainditu dute dagoeneko. Lan honetan murgildu dira eta eginkizun hauek bete beharra dagoela aitortzen dute; batzuetan, jakintza transmititzeko eginkizunari baino garrantzi handiagoa ematen diote prebentzioari. Talde lana ohikoa dute, eta barne koordinazioa eta kanpo koordinazioa, sareko beste baliabide batzuekin, errazten dituzte. Haien errealitateak, eta haien ikasleen errealitateak, bide hori egitera behartu ditu. Araututako hezkuntzako ikastetxe gehienetan, berriz, bide hori egiteke dago. Finen, LHl-ak beti izan dira derrigorrezko bigarren hezkuntza gainditu ez dutenen alternatiba. Eskoletako prebentzio selektiboko programa gutxi egin dira, baina arrakasta izan dutenak LHletan egin dira.

Erakutsi ditugun ebaluazio datuetatik ondoriozta dezakegu 20 bat entitate bakarrik (udalak, GKEak, gobernuko sailak etab kontuan izanik) ari direla prebentzio selektiboko proiekturen batean lan egiten, honelako proiektuak 138 entitatetan (administrazioa, udalak eta GKEak batuz gero) egin litezkeen arren. Esku hartze hauek, ordea, gehienetan ekintza puntualak baino ez dira, jarraipenik gabekoak. Ez ohi dira programa-diseinu batean txertatzen, ikasturte osoan egituratzen eta mantentzen dena. Esan dezakegu EAE osoko 10 bat ikastetxetan soilik daudela prebentzio selektiboko programak behar bezala ezarrita eta etengabe garatzen, egitura bati jarraiki. Azaldu ditugun datuetatik oso ezberdina da ondoko hau: 2007an prebentzio unibertsaleko 195 ekintza edota programa abiatu ziren.

Argi dago prebentzio selektiboak, bere izenak adierazten duenez, talde jakin bat aukeratzen duela (ikastetxe bat, ikastetxe bateko ikasgela batzuk, ...), beraz, logikoa da prebentzio unibertsalaren hedadura berdina ez izatea. Baina, proportzio hori ez da pixka bat desorekatua, adingabekoen droga kontsumoaren inguruan gizartearen dagoen kezka kontuan izanik?

Hipotesi batek azaltzen duenaren arabera, helduek behin eta berriro azaltzen duten kezka horren arrazoa da gaur egungo gazteen kontsumo patroia ezberdina dela aurreko belaunaldiak izan zituztenetatik. Halere esperimendazio prozesu bat baino ez da, gaur egungo helduek beste garai batean bizi izan zutenaren antzekoa. Finen, fenomenoak ez dela aldatu urteekin. Drogak probatzea jokabide historikoa da, eta pertsona askok drogak probatzen dituzten eta haiekin esperimendatzen duten arren, gutxi batzuek soilik izaten dituzte benetako arazoak haiekin. Bigarren hipotesi baten arabera, egia eta objektiboa baldin bada gazteak gero eta gazteago hasten direla drogak hartzen, kontsumoak adingabeko gehiagorengan duela eragina, gazteen artean drogen abusua tratatzeko eskaerak gora egin duela eta abar, prebentzioa, garatu den moduan, ez da erabilgarria ez eraginkorra une honetan eta testuinguru honetan. Gure ustez, beste modu batean esan daiteke hori: une historiko honetan, gaur egungo gazteen ezaugarri sozial, ekonomiko, kultural eta pertsonalak ezberdinak dira, orain dela hamarkada batzuetako gazteen ezaugarriekin erkatuta. Orduan prebentzioa garatzeko egokitzat jotzen ziren tresnak, guztiei berdin aplikatzen zitzaizkienak, ez dira eraginkorrak biztanleriaren sektore handi batentzat, beste baliabide eta tresna batzuk behar

dituelako, bere beharrizanei eta abiapuntuei egokituak. Eta, beste modu batean esateko, zehaztu, indibidualizatu, xehatu, identifikatu beharra dago. Hau da, aukeratu beharra dago.

Nolanahi ere, hipotesi batek ez du bestea ukatzen. Esperimentazioa normala da, eta kasurik gehienetan igarotze erritu bat baino ez da. Baina pertsona batzuek drogen bidez arazotan (edo gutxienez arriskuan) sartzeko probabilitate gehiago dituzte. Pertsona horiei, hain zuzen ere, behar dituzten babesa, laguntza edo asistentzia bermatu behar zaizkie. Pertsona horiek, haien adinagatik, oraindik lotura estua daukate eskolarekin, familiarekin eta kideen taldeak komunitate barruan izaten duen aisialdiarekin.

Familia barruan testuinguru ezberdina dago, baina irakaskuntzak planteatzen dituen helburu operazional antzekoekin: kasu honetan, familiak babestea, informatzea, prestatzea, trebatzea, aholkatzea, orientatzea etab, beren seme-alaben jokabide arazotsuei behar bezala aurre egiteko, eta droga kontsumoekin zerikusia duten arrisku faktoreak gainditzeko. Azken finean, administrazioak familiei ere babesa emateko eskatzen dute diskurtsoek. Ordea, gai hau korapilatu egiten da helburu orokor gisa familiaren funtzionamenduaren patroi desegokiak aldatzea eta familiaren babes faktoreak indartzea proposatzen denean, hasiera adina atzeratzeko, adingabekoen kontsumoa murrizteko eta erabilera arazotsuak saihesteko asmoarekin. Gauza bat da irakasleei eskatzea edo "exijitzea" beren lana modu ezberdinean egiteko, konpromiso handiagoa hartzeko etab, baina besterik da familiaren barruan sartu nahi izatea. Oro har, famili nukleoak bere funtzionamenduari buruzko kritikak, iradokizunak edo injerentziatzat dutena ez ditu onartzen, are gutxiago seme-alaben heziketaz ari garenean.

Lan honen zati kualitatiboan azaldu dugunez, errealitateak erakusten digu familia bera babesik gabe eta etsita sentitzen direla. Halere, irakasleek eta guraso elkarrekin behin eta berriro ikusten dute laguntza hori eskaintzeko egiten diren ekintzek edo esku hartzeek erantzun eskasa lortzen dutela. Familiek ez dute parte hartzen eskaintzen zaizkien baliabideetan, eta heziketa irakasleen esku uzten dute. Etortzen diren eta konpromisoak hartzen dituzten familiak arazo gutxien dituzten adingabekoenak izaten dira (edo arazorik ez dituzten adingabekoenak). Ikasgelan arazo gehien sortzen dituzten ikasleen gurasoak edo legezko arduradunak, berriz, ez dira ia inoiz etortzen ikastetxera edo laguntza baliabideetara.

Jakina, hori ez da harrigarria guretzat. Izan ere, gehienetan, familien desegituraketak sortzen ditu bere kideen (kasu honetan, adingabekoen) arazoetako asko. Baliteke, ordea, familia horiek harreman erregularra izatea beste zerbitzu batzuekin, gehienetan gizarte zerbitzuekin. Agian, eskolaren eta beste baliabide batzuen arteko komunikazio eta koordinazio ezak famili taldeko kideen inguruabarrak ezagutzea eta ulertzea galarazten die eskolari eta gainerako zerbitzuei.

Berriro ere, testu osoan arazorik aipatuenetako bat ageri zaigu hemen: instantzien, zerbitzuen, baliabideen eta abarrekoen arteko koordinazio eza. Ez bakarrik esku hartze bat elkarrekin prestatzeko orduan (egokiena litzatekeena), baizik eta hasieratik bertatik, hau da, adingabekoa, familia, arazoa eta gainerako osagaiak ezagutzeko eta kokatzeko gutxieneko informazio bat behar den unetik alegia. Koordinazioaren gaiari buruz gogoeta sakonagoa egingo dugu aurrerago.

Laburbiltzeko, esango dugu eskoletako prebentzio selektiboa eginkizun hasi berria dela eta oso ezarpen murrizta duela; familietako prebentzio selektiboaren egoera, berriz, negargarria da. Ezin dugu ukatu esku hartze mota asko prebentzio selektiboko ekintza gisa sartzen direla familia eremuan. Halere, egia da ekintza horietako batzuk prebentzio unibertsaleko beste ekintza batzuen moldaketa hutsak direla, zailtasun handiak dituzten familiei modu xeblean egokituak. Eredu honetan, esku hartzerik berriena eta garatuena familiako bitartekaritza eta familiaren eta ikastetxearen arteko bitartekaritza da. Halere, oraindik esperientzia gutxi daude.

Ondorio gisa, hortaz, esan behar dugu familiako prebentzio selektiboan are lan handiagoa dagoela egiteko. Ez dago ia berariaz sortutako baliabiderik. Arrisku faktoreen inguruko ezagutza teorikoak ez ezik, prozesu honetan aurrera egiteko ezinbestekoak dira prestakuntza eta gaikuntza, kasuak detektatzeko, kasuen atzemate egokia egiteko, berariazko baliabideekin esku hartzeko edo bideratzeko (baldin eta arazoak ikastetxearen edota familiaren jarduketara eremua gainditzen badu).

Amaitzeko, aisialdi eremuetako prebentzio selektiboa, batez ere, gazteek ondo pasatzen duten tokietan arriskuak murrizteko leerro bat da. Eskolatuta ez dauden eta laguntza sarean detektatuta ez dauden kolektibo jakin batzuei prebentzio programen eragina hurbildu beharrean du sorburua. Kolektibo horiek legez kanpoko substantzien kontsumoa eta arrisku jokabideak dituzte, batez ere asteburuetan eta jai, dantzaleku eta antzeko giroetan.

Arlo honek zuzeneko zerikusia du kaleko hezitzaileek, aisialdiko begiraleek eta antzekoek ikerketa honetan azaldu duten diskurtsoarekin. Eragile horiek dira egoera ahulenean dauden gazteen errealtatea gehien eta hoberen ezagutzen dutenak, haien lana eta haien figura behar adina aintzatesten ez diren arren (edo haiek hala uste dute behintzat, beraien testigantzak lekuko). Lehenik, litekeena delako adingabeko hauek denbora gehiago ematea kalean eskolan baino (eskolara ez baitira joaten) edo etxean baino (etxean ez baitaude eroso). Eta bigarrenik, profesional hauek azaltzen dituzten diagnostikoan eta errealtatean ez duelako eraginik familiaren inplikazioak edo harremanak, eta langile hauek ez daudelako adingabekoekin harremanetan sartzeko derrigortuta (irakasleak, ordea, bai). Pertsona hauen lana erabat profesionala da, baina aukerazkoa da eta, beraz, bokazio izaera du. Horregatik, aldeko motibazioa eta entzuteko jarrera neurri handiagoan bermatuta daude. Zer esaten digute profesional hauek?

Haien testigantzei erreparatuta, konturatzen gara laguntza baliabideak (edozein laguntza-takoak) gehiengoaren eskaerei begira egiten direla. Eskaera horiek ez dira gazte arazotsuen eskaerak. Horregatik, komunitateak eta komunitate kutsua duen guztiak gazte horiei bidaltzen dieten mezua da ez daudela gizarteari egokituta. Horrek honelako kolektiboen arrisku faktoreak mantentzen eta batzuetan areagotzen ditu. Haien testigantzek azaltzen digute sekulako ahaleginak egiten dituztela han-hemenka baliabide zehatzak bilatzen, beharizan bereziak (gehiengoaren beharrianetatik ezberdinak) dituzten pertsona hauek nonbait txertatzeko. Entzuten dugu gazte hauekin eta haien familiekin nolabaiteko harremana duten (edota izan duten) instantziekin koordinatzeko eta harremanetan sartzeko ohitura osasuntsua dutela profesional hauek. Halere, esaten dute haien lanak eta beraiek ere ez dutela aintzatespen profesional edo ekonomiko egokia, beste kolektibo batzuek dutena.

Dokumentu honen zati baten hasieran, esan dugu adingabekoekin eta haien droga kontsumoekin egiten den esku hartzeak eskumenen eta inplikazioen elkargune bat sortzen duela sektore profesional eta sozial ezberdinen artean. Gainera, azaldu dugu entitate horien eginkizunen artean ez dela lan hau beren-beregi aipatzen. Horrenbestez, adingabekoen egoera ahularen arazoa norberaren edo beste inoren ahuldadetzat jo dezakete gizarte sektore horiek. Eraitza, kasu batean zein bestean, berbera da: pasibitatea eta inertzia. Gaia norberari ez dagokiola pentsatzeak, arazoari aurre egiteko tresnarik ez dagoela sentitzeak edo gaiari beste batek heldu behar diola uste izateak jarrera inobilista dakar. Arrisku edo ahultasun egoeran dauden adingabekoekin lan egiteko orduan behar den jarreraren aurkakoa alegia.

Dokumentu osoan gauza bat argi eta garbi geratu da behin eta berriro: edozein eremutik esku hartzeko unean, exijitu behar diren gutxienero ahalegin bat koordinazioa da. Baina koordinazioa soilik mugimendu bat eginez lor daiteke. Hau da, irekiz, bilatuz, hitz eginez eta adostuz. Koordinazio hori ez zaie bakarrik exijitu behar adingabekoekin esku hartzen duten eragileei (gurasoei, irakasleei, hezkuntzako administrazioari eta abar), baizik eta programei, proposatzen diren jarduketei eta zabaldu nahi diren mezuei.

Elkarrizketatu ditugun pertsona guztiek uste dute, modu pertsonalean eta betiere lan egiten duten erakundeei dagokienez, koordinazioa dela gabezia nagusia euren eguneroko lanean, salbuespenak salbuespen. Halere, onartzen dute koordinazioa ezinbesteko tresna dela, eta hura gabe ezinezkoa dela beraien laneko helburu bat ere lortzea. Hasteko, ematen du ez dagoela taldean lan egiteko kulturarik, ezta entitate bereko profesionalen artean ere. Argi dago ez dagoela barne koordinaziorik, are gutxiago erakundeen artean.

Adierazten dutenez, koordinazio izpirik txikiena ere norberaren ahalegin boluntarioaren ondorio da, pertsona batzuek soilik uste baitute eraginkorra dela. Zentzu horretan, eskaera argi bat dago: "norbaitek, goragoko instantzia batek, lan hori burutu dezala eta, bestetik, instantzia horrek laneko jarraibideak argitu ditzala". Goragoko instantziei zuzenean egindako eskaera bat ematen du, baina organo horrek, nahiz eta helburu hau lortzeko konpromisoa hartu behar duen, ezin izango du inoiz ordezkatu ezta inposatu, ezta gainbegiratu edo kontrolatu ere, esku hartzeko esparru bakoitzean barne koordinazioa beharrezkotzat jo dadila eta lanabes bat izan dadila.



ARARTEKOAREN GOMENDIOAK



A. ERAKUNDEEN KOORDINAZIOARI ETA LIDERGOARI BURUZ

Droga kontsumoa nerabezaroan eta gaztaroan prebenitzeko eta murrizteko burutzen diren jardunak asko eta mota askotakoak direla agertzen du txostenak. Gainera, ekimen askoren fruitu dira; erakundeen eta gizarte eragileen ekimenak.

Elkarrizketa egin zaien pertsona ia guztiek koordinatzeko beharra, behar bezalako esku-hartzea lortzeko eta erdietsi nahi diren helburuak lortzeko nahitaezko baldintza gisa, gailendu dute. Aldi berean, koordinazio falta lanean topatutako arazorik edo hutsunerik handiena dela adierazi dute eta aipatu egoera pertsona horien borondateari edo borondate onari esker gainditu da.

Adingabeekin esku hartzen duten agenteen arteko koordinazio hobearen eta, batez ere, erakunde arteko koordinazio hobearen falta sumatu dugu. Ez bakarrik zuzeneko esku-hartzeetako koordinazioa, baita zabaldu beharreko planei eta programei, helburuei eta xedeei, mezuei dagokienez ere.

Illo horretan, honako hau antzeman da: erakundeen lidergo hobearen eskaera, esku-hartze integrala sustatzeko edo, behintzat, lanaren jarraibideak argiago ezartzeko, praktika edo mezu desegokiak hartu eta zuzendu eta lortzen diren helburuak ebaluatu ahal izateko agintaritza eta gaitasuna duen instantzia baten beharra.

Hori guztiari jarraiki, Arartekoak honako gomendio hauek egin ditu:

- 1. Koordinazioaren hobekuntza, barrukoa zein sektore eta erakunde artekoa, planteatzea, droga-mendetasunari buruzko hurrengo planetako lehentasuneko helburu gisa, zerbitzuak eta esku-hartzeak bikoiztu ez daitezzen eta baliabi-deak (pertsonalak, ekonomikoak eta materialak) optimiza daitezzen.**
- 2. Beharrezkoa denean, Droga Mendetasunen Aholku Kontseiluaren osaera eta dinamika berrikustea, koordinazio organo eta instantzia ordezkari guztien gizarte eztabaidaren foro gisa eraginkortasun gehiagorekin jardun dezan.**
- 3. Jada badauden baliabideen prestakuntza hobea sustatu eta laguntzea.**

4. **Programen diseinuan ebaluazioa barne hartzea. Hala, ebaluazio sistematikoa, prozesuarena zein eraginarena, proiektuen eta programen erabilera eta eraginkortasuna egiaztatzeko nahitaezko praktika izan dadin.**
5. **Tartean adingabeak dauden kasuetarako, polizi esku-hartzearen protokolo bateratua eta espezifikoa ezartzea.**

B. PREBENTZIO SELEKTIBOKO JARDUEREI BURUZ

Txostenak agerian jarri duen moduan eta ohi bezala, azken urteotan burutu diren esku-hartze gehienak biztanleentzako edo adingabeentzako bideratu dira. Eta, segur aski, hala izaten jarraitu behar da.

Ordea, berehalako erronka prebentzioaren garapenean dagoela uste da. Aipatu prebentzioa, modu espezifikoan, zenbait faktoregatik bereziki zaurgarriak diren pertsona talde jakinei zuzenduta dago. Eta, bertan, behin eta berriro aipatzen da aurrera egiteko beharra. Eta esku-hartze mota hori gehien behar duten biztanleriaren sektoreen edo egoeren artean, gutxienez, honako gomendio hauetan jasotzen direnak aipatu dira:

6. **Egoera ahulean dauden biztanleen urritasun psiko-sozialak eta sozio-educatiboak gainditzeko prebentzio selektiboko programak garatzea.**
7. **Kontsumo problematikoak eta justiziarekin arazoak dituzten adingabeentzako programak garatzea. Aipatu arazoak askotan kontsumo horien ondoriozkoak dira.**
8. **Buru osasuneko arazoak dituzten adingabeentzako programak garatzea.**
9. **Bereziki ahulak edo zaurgarriak diren sektoreentzako –bakarrik dauden adingabe atzerritarrak adibidez– programak garatzea, gure artean oso zabaldua ez dauden baina ondorio larriak dituzten kontsumoak –besteak beste, disolbatzaileak edo inhalatzaileak kontsumitzea– saihets edo aintzat har daitezen.**
10. **Arazo eta zailtasun sozio-ekonomiko eta kultural asko dauden gunetan, alegia, adingabeak eskubide guztiak barne hartzen dituen bizimoduan sar daitezzen zaila den eta bazterkeria egoeran geratzeko arrisku larriaren egon daitezkeen gunetan, programa integralak garatzea. Hori guztia drogak maiztasun handiarekin kontsumitzeagatik, delituak egiteagatik...**
11. **Kontsumo problematikoak edota jokabide arazoak dituzten adingabe edo gazteentzako prebentzioaren berriazko arretaren baliabideak bermatzea, egun dauden prebentzio selektiboko programak egokiak ez badira. Egungo baliabideak nahikoak ez badira, mota horretako baliabide berriak sortzea.**

C. ESKOLA ESPARRUARENTZAT

Drogen kontsumoa prebenitserakoan gehien landu den esparrua eskolakoa izan da eta hori ekimen, programa eta material anitzen bidez gauzatu da.

Kasu honetan, talde zaurgarrientzako prebentzio jarduerak indartzeko beharra planteatu da, ikasle guztientzat direnak alde batera utzi gabe. Ildo horretan, honako gomendio haue-
tan adieraz daitezkeen hobekuntza batzuen beharra hizpide izan du txostenak:

- 12. Babesteko faktoreak indartzeko baterako estrategiarentzat erakunde arteko konpromisoa lortzea (Hezkuntza, Osasun eta Gizarte Ekintzaren bidez); konpromiso horrek honako jarduera hauek susta ditzala:**
 - Zentroi drogen kontsumoarekin eta lotutako beste jokabide batzuekin zerikusia duten arrisku faktoreak gainditzeko erabilgarritzat jotzen diren irizpideak, orientazio eta bitarteko pedagogikoak ematea.
 - Irakasleen prestakuntza eta motibazioa sustatzea, prebentzio lanean konpromiso handiagoa eta eraginkorragoa lortze aldera.
 - Zentroi esparru batzuetako profesionalen babes eta aholku gehiago ematea, drogen kontsumoa eta lotutako beste jokabide batzuk prebenitzeko proiektuak gara daitezen.
- 13. Bereziki ahulak edo zaurgarriak diren biztanle sektoreak biltzen diren edo eskola porrot edo eskola uzte tasa gehien dagoen zentroi arreta berezia ematea.**
- 14. Lanbide heziketarako ikastetxeetan burutzen diren edo antzeko ezaugarriak dituen beste zentro batzuetan burutu daitezkeen eskolako prebentzio selektiboko programen esperientziak (egungo Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak –HLPP–) baloratu eta bultzatzea.**

D. FAMILIA ESPARRUARENTZAT

Familia esparruari dagokionez, txostenean kontraesankorra dirudien egoera antzeman da. Alde batetik, argi dago funtsezko testuingurua dela, alegia, babes eman, prestatu, aholkuak eman, orientatu... behar den esparrua dela, drogen kontsumoarekin zerikusia duten faktoreak gaindi daitezen edo, hala badagokio, horri lotuta egon daitezkeen jokabide edo jarrera gatazkatsuak hobeto kudea daitezen. Askotan, familiak, edozein motatakoa dela ere, babesik gabe dagoela edo beste eragile batzuen eskuetan uzten duen egiteko horri aurre egiteko baliabideak edo gaitasunak ez dituela sentitzen du. Ordea, askotan, ikastetxeetan edo elkarteetan familientzako jarduerak ematen direnean, parte hartzea oso txikia da edo, agian, gutxien behar duten familiaena.

Nolanahi ere, antzemandako muga horiek guztiak egon arren, esparru honetan familiei babesa ematen jarraitzeko beharrari buruz erabateko adostasuna dago. Babes hori honako gomendio hauetan zehatz daiteke:

- 15. Familien prestakuntza, parte hartzea eta konpromisoa ekimenen bidez sustatzea. Ekimen horiek, adibidez: gurasoen eskolak edo ikastetxe askotan urtetan zehar garatutako beste antzeko batzuk.**
- 16. Behar gehien duten edo arazo gehien duten familiei babesa ematea, baita bitartekotza programa edo formulekin ere. Horretarako, tartean dauden zerbitzu guztien (eskola, gizarte zerbitzuak, gizarte hezitzaileak...) beharrezko koordinazioa bilatzen da.**
- 17. Kontsumo problematikoak edota jokabide arazoak dituzten nerabeen eta gazteen familientzako berariazko arretaren baliabideak bermatzea, egun dauden prebentzio selektiboko programak egokiak ez badira. Egungo baliabideak nahikoak ez badira, mota horretako baliabide berriak sortzea.**

E. AISIAREN ESPARRUARENTZAT

Segur aski esku hartzeko esparru hau izango da biztanleek gutxien ezagutzen dutena. Hori gorabehera, esparru hau funtsezkoa da, nerabeen kontsumo gehienak, hasieratik, bertan gauzatzen baitira. Nerabeek une horretan lortzen dute droga eta une horretan kontsumitzen dute: aisialdian eta aisialdiko guneetan. Hori dela eta, lanaren eta kaleko hezkuntzaren garrantzia, errealitate jakin batzuk zuzenean ezagutu eta azpimarratzeko modu pribilegiatua.

Ildo horretan, honako bi gomendio hauek aipatu dira:

- 18. Profesional batzuk, ingurune irekian eta testuinguru soziokulturalean, burutzen ari diren hezkuntza lana aintzat hartu eta babestea. Aipatu lana askotan baliabide gutxirekin eta bereziki problematikoak diren sektoreekin egin da.**
- 19. Nerabeek eta gazteek erabiltzen dituzten guneetan, prebentzio selektiboko programak garatzea.**

F. GIZARTE IKUSPEGIARI ETA NERABEEN PARTE HARTZEARI BURUZ

Txosten honen lehenengo orrialdeetan, aurkezpenean, gizartean drogei buruz antzeman daitezkeen ohiko kontraesanak eta inkoherentziak gailendu ditugu: inkoherentziak praktiken eta mezuen artean; helduen kontsumoen eta nerabeen inguruan defendatutako irizpideen artean; pertsonai publikoek egindako drogaren aurkako kanpainak, guztiok dakigunean kontsumatzen dutela; egiarekin bat etortzen ez den informazioa; haurren ordutegian publizitate desagokia... Horrek guztiak gizarte ikuspuntu edo ikuspegi jakina eratzten du.

Horrez gain, 5. kapituluaren adingabeek horri buruz duten ikuspegia nabarmendu dugu; ikuspegi hori beti ez dator bat helduenarekin edo, behintzat, helduen ustez adingabeek eduki beharko luketenarekin.

Arartekoak ildo horretan egindako bi gomendioek gizarte diskurtsoaren inkoherentziak saihestu nahi dituzte, baita nerabeen iritzia edo ahotsa barne hartu ere.

- 20. Informazioa zaintzea eta nerabeei, bereziki, komunikabideetan emandako publikitatearen eta informazioaren bidez, helarazten zaizkien mezuetan inkoherentzia saihestea.**
- 21. Nerabeentzako programa edo ekimenetan, nerabeen parte hartze aktiboa laguntzea. Prebentzioaren agente gisa duten egitekoa sustatzea.**



BIBLIOGRAFIA



- BÜHLER ETA KRÖGER, 2006, IN DROGEN ETA TOXIKOMANIEN EUROPAKO BEHATOKIA. DROGEN KONTSUMOA ETA HORREN ONDORIOZ GAZTEENEN ARTEAN (15 URTETIK BEHERAKOEN ARTEAN) SORTUTAKO ARAZOAK. LABURPENA-2. ARAZO ZEHATZA. EUROPAN DROGA MENDEKASUNAREN ARAZOARI BURUZKO URTEKO TXOSTENA (2007).
- COMAS ARNAU, C. (1994). 90EKO HAMARKADAN DROGEN PAPER SOZIOKULTURALA AZTERTZEN: IKERKETA BATEN ONDORIOAK. *GIZARTE LANEKO KOADERNOAK*, 8. ZENBAKIA.
- GOBERNUAREN ORDEZKARITZA DROGEI BURUZKO PLAN NAZIONALARI BURUZ (2005). 2005-2008 EKINTZA PLANA. OSASUN ETA KONTSUMO MINISTERIOA.
- ELZO, J.; COMA, D.; LAESPADA, M.T.; SALAZAR, L. ETA VIELVA, I. (2000): DROGEN KULTURAK GAZTEEN ARTEAN: ERRITUAK ETA JAIK. EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPENEN ZERBITZU NAGUSIA. VITORIA-GASTEIZ.
- ELZO ETA BESTE BATZUK (2008). DROGAK ETA ESKOLA VII. DROGA MENDEKASUNEN DEUSTUKO INSTITUTUA. DEUSTUKO UNIBERTSITATEA. BILBO. DEUSTO PUBLICACIONES.
- GAMELLA JF. ÁLVAREZ A (1997): SINTESIKO DROGAK ESPAINIAN. ESKURATZEKO ETA KONTSUMITZEKO PATROIAK ETA JOERAK. MADRIL: DGPNSD.
- EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA. 18/1998 LEGEA, EKAINAREN 25EKOA, DROGEN MENDEKASUNAREN INGURUKO PREBENTZIOARI, ASISTENTZIARI ETA GIZARTERATZEARI BURUZKOA.
- EUSKO JAURLARITZA. LEHENDAKARITZA. 15/1988 LEGEA, AZAROAREN 11KOA, DROGEN MENDEKASUNAREN INGURUKO PREBENTZIOARI, ASISTENTZIARI ETA BIRGIZARTERATZEARI BURUZKOA.
- EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. DROGA MENDEKASUNEN IDAZKARITZA. EUSKO JAURLARITZAREN DROGA MENDEKASUNARI BURUZKO I, II ETA III. PLANAK. 1989-2000. VITORIA-GASTEIZ.
- EUSKO JAURLARITZA. JUSTIZIA, LANA ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA. DROGA MENDEKASUNEN IDAZKARITZA. EUSKO JAURLARITZAREN DROGA MENDEKASUNEI BURUZKO HIRU URTEKO IV. PLANA. 2000-2002. [HTTP://WWW.GIZARTE.NET/N68PORTALWAR/N68POLinkEXTINTERServlet?url=%2FDROGODEPENDENCIAS%2FDATOS%2FIVTRIAL.PDF](http://www.gizarte.net/n68PORTALWAR/N68POLinkEXTINTERServlet?url=%2FDROGODEPENDENCIAS%2FDATOS%2FIVTRIAL.PDF).

- EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA. DROGA MENDEASUNEN ZUZENDARITZA. (2006). EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN DROGA MENDEASUNEI BURUZKO V. PLANA. 2004-2008. VITORIA-GASTEIZ. EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPENEN ZERBITZU NAGUSIA.
- DROGA MENDEASUNEN DEUSTUKO INSTITUTUA (2004). EUSKO JAURLARITZAREN DROGA MENDEASUNEI BURUZKO IV. PLANAREN EBALUAZIO TXOSTENA. [HTTP://WWW.GIZAETXE.EJGV.EUSKADI.NET/R40-2177/ES/CONTENIDOS/INFORMACION/2777/ES_2238/ADJUNTOS/EVALUACION_GLOBAL_IV_PLAN_DROGODEPENDENCIAS_ES.PDF](http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-2177/es/CONTENIDOS/INFORMACION/2777/ES_2238/ADJUNTOS/EVALUACION_GLOBAL_IV_PLAN_DROGODEPENDENCIAS_ES.PDF).
- DROGA MENDEASUNEN DEUSTUKO INSTITUTUA. (2005). DROGAK ETA ESKOLA 2004. EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA. DROGA MENDEASUNEN ZUZENDARITZA. [HTTP://WWW.JUSLAN.EJGV.EUSKADI.NET/R33-2288/ES/CONTENIDOS/INFORMACION/PUBLICACIONES_OVD_EUSKADI_DROG/ES_9060/ADJUNTOS/EUSKADIYDROGAS_2004.PDF](http://www.juslan.ejgv.euskadi.net/r33-2288/es/CONTENIDOS/INFORMACION/PUBLICACIONES_OVD_EUSKADI_DROG/ES_9060/ADJUNTOS/EUSKADIYDROGAS_2004.PDF).
- DROGA MENDEASUNEN DEUSTUKO INSTITUTUA (2009). EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN DROGA MENDEASUNEI BURUZKO V. PLANAREN EBALUAZIOA. 2004-2005-2006-2007. PROZESUKO ETA IRITSIERAKO DATU KUANTITATIBOAK. [HTTP://WWW.GIZAETXE.EJGV.EUSKADI.NET/R40-2177/ES/CONTENIDOS/INFORMACION/2777/ES_2238/ADJUNTOS/EVALUACION_CUANTITATIVA_DEF_ES.PDF](http://www.gizaetxe.ejgv.euskadi.net/r40-2177/es/CONTENIDOS/INFORMACION/2777/ES_2238/ADJUNTOS/EVALUACION_CUANTITATIVA_DEF_ES.PDF).
- LAESPADA ETA BESTE BATZUK (2004). IKASLEAK ETA DROGAK IRAKASLEEN IKUSPEGITIK: ZE IRITZI DUTE EUSKAL IRAKASLEEK? EUSKO JAURLARITZA. ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA. DROGA MENDEASUNEN ZUZENDARITZA. VITORIA-GASTEIZ. DROGA MENDEASUNEN EUSKAL BEHATOKIAREN 15. TXOSTENA.
- DROGEN ETA TOXIKOMANIEN EUROPAKO BEHATOKIA (2002). EUROPAR BATASUNAREN ESPARRUA ETA TRESNAK DROGEN GAIAN. LUXENBURGO. EUROPAR KOMUNITATEEN ARGITALPEN OFIZIALEN BULEGOA.
- DROGEI BURUZKO PLAN NAZIONALA (2009). BIGARREN HEZKUNTZAN DROGEI BURUZKO ESTATUKO INKESTA. ESTUDES 2008. OSASUNEKO ETA GIZARTE POLITIKAKO MINISTERIOA. ESPAINIAKO GOBERNUA. [WWW.MSC.ES/.../PDF/PRESENTACIONPRENSAENCUESTAESCOLAR2009.PPT](http://www.msc.es/.../PDF/PRESENTACIONPRENSAENCUESTAESCOLAR2009.PPT).
- ZENBAIT EGILE (1987). EUSKADIKO DROGA MENDEASUNEI BURUZKO LIBURU ZURIA-1987. GASTEIZ: EUSKO JAURLARITZA
- VIELVA, I.; PANTOJA, L.; ABEIJÓN, J.A. (2001). FAMILIAK ETA HAIEN ADINGABEAK DROGEN AURREAN. DROGA MENDEASUNEN DEUSTUKO INSTITUTUA. BILBO. AURRERAPENAK DROGA MENDEASUNETAN, 11.